

Ander Bergara

# Hezkuntza- eta Hizkuntza-eskubideak indarreko lege-araubidean



«P. Francisco de Vitoria» Giza Eskubideen Saila



**ANDER BERGARA**

**HEZKUNTZA- ETA  
HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK  
INDARREKO  
LEGE-ARAUBIDEAN**



**Vitoria/Gasteiz  
1996**

© ARARTEKOA

© Egilea: Ander Bergara

Azaleko irudia: *Bertsolari*. Valentín de Zubiaurreren olio pintura oihalean.

Irudiaren ©: Argazki Artxibategia. Bilboko Arte Ederretako Museoa.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A., Vitoria/Gasteiz

Paper erreziklatua.

L.G.: VI-439/96

I.S.B.N.:84-87122-70-1

# AURKIBIDEA

<b>HITZAURREA</b>	9
<b>I. HEZKUNTZA- ETA HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK NAZIOARTE MAILAN</b> .....	11
1.1. SARRERA: HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN BILAKAERA II. MUNDU GERRARARTE .....	13
1.2. HEZKUNTZA- ETA HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN ARAUKETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIOARTEKO TESTUETAN .....	22
<b>II. HEZKUNTZA-ESKUBIDEAK 1978.EKO KONSTITUZIOAN ETA BEREN LEGE-ITXURAKETA</b> .....	41
2.1. HEZKUNTZAREN KONSTITUZIO ARAUKETA OROKORRA .....	43
2.2. KONSTITUZIOAREN 27. ARTIKULUA .....	46
2.2.1. Aurrekari historikoak .....	46
2.2.2. Eratze prozesua .....	49
2.2.3. Izaera juridikoa .....	56
2.2.4. Hezkuntza-eskubideak .....	60
A) Hezkuntzarako eskubidea .....	60
B) Irakaskuntza askatasuna .....	78
D) Ikastetxeak sortzeko eskubidea .....	82
E) Hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea ..	85
F) Ideiadura finkatzeko eskubidea .....	86
G) Heziketa erlijioso eta morala jasotzeko eskubidea .....	92
H) Katedra askatasuna .....	96
I) Ikastetxearen kontrolean eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea .....	101
J) Ikastetxe pribatuen finantzaketaren arazoak .....	106

<b>III. HIZKUNTZEN ARAUKETA ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN</b> .....	111
3.1. SARRERA: HIZKUNTZA ARLOKO KONSTITUZIO ARAUKETA OROKORRA .....	113
3.2. KONSTITUZIOAREN 3. ARTIKULUA .....	114
3.2.1. Zuzenbide konparatua: hizkuntz ofizialtasunaren arauketa mendebaldeko konstituzio liberaletan .....	114
3.2.2. Aurrekari historikoak: 1931.eko Konstituzioaren 5. artikulua .....	133
3.2.3. Legebiltzar aurrekariak .....	135
3.2.4. Edukiaren azterketa .....	140
3.3. ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK ELEANIZTASUNAREN ANTOLAKETARAKO JARRAITUTAKO EREDUA .....	173
<b>IV. HEZKUNTZA-ESKUBIDEAREN ETA ELEANIZTASUNAREN ARTEKO LOTURA ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN</b> .....	187
4.1. NORBERAREN HIZKUNTZA ERABILTZEKO ESKUBIDEA .....	189
4.2. NORBERAREN HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZA JASOTZEKO ESKUBIDEA ETA NORBERAREN HIZKUNTZAN IRAKASKUNTZA JASOTZEKO ESKUBIDEA .....	193
<b>V. HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZAREN ARAUKETA EUSKAL AUTONOMI ESTATUTUAN</b> .....	203
5.1. IKUSPEGI OROKORRA .....	205
5.2. AUTONOMI ESTATUTUAREN 6. ARTIKULUA .....	212
5.2.1. Aurrekari historikoak: II. Errepublikako Autonomi Estatuturako egitasmoak eta 1936ko Estatutua .....	212
5.2.2. Legebiltzar aurrekariak .....	224
5.2.3. Edukiaren azterketa .....	229

<b>VI. EUSKARAREN ERABILPENA ARAUZKOTZE- KO OINARRIZKO LEGEA .....</b>	<b>243</b>
6.1. LEGEBILTZAR AURREKARIAK ETA KONSTI- TUZIO-KONTRAKOTASUNEZKO HELEGI- TEA .....	245
6.2. EZAUGARRI OROKORRAK .....	247
6.3. EUSKARAREN ERABILPENA IRAKASKUN- TZAN .....	252
6.4. EUSKARAREN LEGEAREN ARAUZKO GA- RAPENA .....	256
6.4.1. Ezarritako irakastereduak .....	257
6.4.1.1. Irakastereduen izaera .....	257
6.4.1.2. Irakastereduen bilakaera .....	258
6.4.1.3. Hezkuntza-eredua hautatzeko es- kubidea eta hezkuntza mailako hizkuntz plangintza .....	269
6.4.2. Irakaslegoaren euskalduntze prozesua .....	285
6.4.3. Hezkuntza-administrazioaren euskalduntzea.	299
<b>VII. AZKEN GOGOETA .....</b>	<b>305</b>
<b>BIBLIOGRAFIA .....</b>	<b>311</b>
<b>SIGLAK ETA LABURDURAK .....</b>	<b>325</b>

## HITZAURREA

Esku artean duzuen azterlana, Ararteko erakundeak urtero-urtero giza eskubideen arloa jorrazteko eman ohi dituen lankidetzak beka horietako baten gozamenean burutu ditudan ikerketen ondorioa da. Ezer baino lehen, beraz, bihoakio hemendik nire eskerrik beroena Arartekoaren bulegoa osatzen duen gizatalde osoari, aspaldi gogoan nuen asmoa egia bihurtzeko laguntza ekonomiko, materiala eta pertsonala eskaintzeagatik.

Izenburuagatik ohartuko zinetenez, azterlan honen gaia hezkuntza eta hizkuntz eskubideak dira. Ezaguna denez, hezkuntza eta hizkuntza oso lotura estuan dauden errealitateak dira. Izan ere, hizkuntza hezkuntza ihardueraren objektu eta bitartekoa da. Objektua, gizabanakoek hizkuntza funtsean -irakurmena eta idazmena bereziki- eskolan eskuratu ohi dutelako; eta bitartekoa, edozein irakaskuntzak suposatzen duen jakintzaren eskualdaketa hizkuntza bidez egiten delako.

Hezkuntza-hizkuntza binomioa ikuspegi desberdin ugartik azter badaiteke ere, azterlan honetan alderdi juridikoari bakarrik heldu diot. Azterlan ugari dago hezkuntza edota hizkuntza gaiak ikuspegi juridikotik eta modu partzialean landu duena; ostera, ez dago gure artean azterlanik hezkuntza eta hizkuntzaren gainean indarrean dagoen oinarritzko lege-araubidea testu bakar batean baterabildu duenik, nazioarte mailatik hasi, Estatu mailatik pasatu eta Autonomia Erkidego mailan bukatuz. Hain justu, lan honek hutsune hori bete nahi du, eta ez hori bakarrik, indarreko lege-

araubidea jaso ez ezik, azterlanak araubide hori osatzen duten arauak euren artean nola elkarlotzen diren ere aztertu nahi du, hizkuntz eskubideek hezkuntzarako eskubideari nola eragiten dioten ikusteko.

Bestalde, goi mailako hezkuntzak duen berariazkotasuna dela eta, azterlan honek unibertsitateko ez kanpoko irakaskuntzak baino ez ditu azterkizun, LOGSE sistema berrian haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza osatzen dituztenak hain zuzen ere.

Zalantzarik gabe, erronka handia bezain erakargarria izan da Unibertsitate ikasketak amaitu berri eta ikerketa juridikoaren mundua erabat ezezaguna duen batentzat tamaina honetako langintzan murgiltzea eta are gehiago azterlana euskaraz egin dudala kontuan izanik. Tamalez, euskara hutsean lan juridikorik apenas dago oraindik, eta daudenetik gehien-gehienak beste hizkuntzetatik ateratako itzulpenak dira. Eta zer esanik ez Epaitegi eta Auzitegi-tako epaiak, hauek halabeharrez gazteleraz behar dute, indarreko legeria aldatzen ez den bitartean behinik behin.

Gainera, hori gutxi balitz, euskara tekniko-juridikoa normalizatu barik dago oraindik. Erakunde ezberdinek horretarako ahaleginak egin izanagatik ere, momentuz ez da hizkera juridikoa bateratzerik lortu.

Kontuak kontu, hona hemen urte luze bateko lanaren emaitza. Orain zuei dagokizue merezi duenentz erabakitzea.



**I**  
**HEZKUNTZA- ETA**  
**HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK**  
**NAZIOARTE MAILAN**

### 1.1. SARRERA: HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN BILAKAERA II. MUNDU GERRARARTE

Hizkuntza fenomenoak nazioarteko dimentsioak Berbizkunde garaian hartu zituen lehenbizikoz. Ordurako, Rotterdameko Erasmo eta Lutero bezalako pentsalari ospetsuek herri-hizkuntzen sustapenaren aldeko jarrera adierazi zuten. Pentsalari hauen guraria Kristau erlijioa herri xeheari gerturatzea zen, Jaungoikoaren Hitza munduko bazter orotara zabaltzea, kristau guztiek haren berri izan zezaten. Asmo hura egia bihurtzeko, Jaungoikoaren Hitza munduko herri-hizkuntza guztietara itzulia izan zedin proposatu zuten, latinaren eksklusibotasunetik atereaz. Herria eta Eliza uztartu nahiaren adierazgarri, hona hemen Rotterdameko ERASMOK 1516 urteko Epiklesian esandako hitzak:

«No estoy de acuerdo en modo alguno con aquéllos que se oponen a que los ignorantes lean las divinas letras traducidas a la lengua vulgar... Desearía que todas las mujercitas leyeran el evangelio, leyeran las epístolas paulinas. Y ¡ójala éstas estuviesen traducidas a todas las lenguas de todas las gentes; Ojala el agricultor con la mano en la estera, fuese cantando algún pasaje de la Biblia o hiciese lo mismo el tejedor en sus telas, y el caminante aliviase con estas historias el fastidio del viaje; De eso deberían tratar las conversaciones de todos los cristianos»<sup>1</sup>.

---

(1) ROTTERDAMEKO ERASMO. Epiclesis (1516), Erasmi Opera Omnia VI, 3. PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1942-1989) liburuan* zitaturia. I. alea. Vitoria/Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1990, 110-111 orr.

Teologo erreformazaleak ez ziren Idazti Santuen herrirakotzeaz eta herri-hizkuntzen hedapenaz kezkatuak bakarrik. Beranduago eta modu apalagoan izanik ere, teologo katolikoek ere erlijioa herri xeheari gerturatzearen alde azaldu ziren<sup>2</sup>.

Ikusten denez, XVI-XVII. mendeetan antzeman zitekeen herri-hizkuntzekiko joera babestailea, erlijio motibazioetan oinarritzen zen eta ez giza eskubideen defentsan gaur egun bezalaxe, garai hartan giza eskubideen kontzeptua oraindik tajutu eta garatu barik zegoen eta.

Oro har garai hartako hizkuntz gutxiengoek ez zituzten erlijio gutxiengoek jasaniko jazarpen krudelak pairatu. Izan ere, eta salbuespenak salbuespen, hizkuntz gutxiengoak aski onartuak eta errespetatuak izan ziren. Dena den, errealitatearekin fidelak izan nahi badugu, ezin dezakegu hizkuntza desberdinek elkarbitza paketsu eta idiliko batean bizi zirenik esan. Hizkuntzen arteko gainjartzea estatuz estatu eta erregetaz erregetza errepikatzen zen leloa zen. Hizkuntza ahaltsuenek hizkuntza ahulenak deslektuz zituzten, baina deslektuz hura ez zen aurrez finkaturiko ideologia edo dogmetan oinarritzen, bitza bezain zaharra den boteretsuak ahula bere menpe hartzeko duen giza-joeraren ondorioa baizik. Zorionez ala zorigaiztoz «indartsuenaren legea» izadiaren nahiz gizadiaren kondairan indar-eragilerik nagusia izan da, eta hizkuntza gizatasunaren ezaugarri funtsezkoenetakoa dela kontuan

---

(2) «Para que los fieles se presenten a recibir los sacramentos con la mayor reverencia y devoción, manda el santo Concilio a todos los obispos que expliquen, acomodándose a la capacidad de los que lo reciben, la eficacia y uso de los mismos sacramentos, no sólo cuando los hayan de administrar por sí mismos al pueblo, sino que también han de cuidar que todos los párrocos observen lo mismo con devoción y prudencia, haciendo dicha explicación aun en lengua vulgar, si fuera menester, y cómodamente se pueda, según la forma que el santo Concilio ha de prescribir respecto a todos los sacramentos en su catecismo; el que cuidarán los obispos se traduzca a lengua vulgar...» «De reformatione» Dekretuaren VII. kapitulua. Trentoko Kontzilioaren 1963.eko azaroaren 11ko XXIV. saioa. PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 113. or.

izanik, ez da harritzekoa lege hori hizkuntzen kondairan ere biziro azaldu izana.

Aurreko aginte-moldearen amiltzea eragin zuen 1789.eko Frantziako Burges Iraultzaren etorrerarekin estatuburuek herri-hizkuntzekiko izan zuten jokabidea sakonki aldatu zen; ordurarte nagusi izan zen tolerantzia errepresio sistematikoa bilakatu zen.

Ezaguna denez, Frantziako iraultzaileek aldarrikatu zituzten printzipioen artean berdintasunarena azaltzen zen. Beraiek berdintasunaren ideia bizitza-alor orotara zabaltzea ezinbestekotzat jotzen zuten, bai politikan, bai gizartean, bai ekonomian eta baita kultur mailan ere. Eta euren uste okerrean, berdintasun hori lortzeko biderik eragingarriena uniformizazioarena zen. Txarto ulertutako berdintasun ideia horren izenean legegile bakarra, jaurlaritza bakarra, erlijio bakarra, estatu bakarra, nazio bakarra eta abar, lortu behar ziren.

Uniformetasunerako joera honek, kultur mailan agerpide bereziki gogorra izan zuen. Hala, egun Frantzia legez ezagutzen den mugartean ordurarte bere kasa bizi omen ziren herri guztiak lege eta egitura politiko beraren menpe jarri zituzten, hitz batez, Frantziako Estatuaren menpe.

Estatu sortu berri hura bezalako sormen artifizial bati iraunkortasuna bermatzeko, iraultzaileek bere atzetik euskarri kultural sendo bat antolatzea pentsatu zuten. Hau da, estatuak suposatzen duen batasun politikoa segurtatzeko ez zen kultur batasun sendo bat baino hoberik euren iritziz. Era horretan Estatu-Nazio kontzeptua eraiki zuten. Honen ildotik, estatu edo komunitate politiko bakoi-tzari nazio edo kultur komunitate bakarra zegokion.

«Estatu bat Nazio bat» leloa agudo asko zalantzan jarri ezineko dogma bihurtu zen, eta jakina, Estatu-Nazio binomioa berez edo naturaz gertatu ezean, indarraren poderioz inposatuko zen.

Iraultza garaiko Frantzian frantses nazioarekin batera, beste kultur komunitate anitzek -bretoiak, gaskoiak, okzitaniarrak, alemaniarrek, katalanak, flandestarrak, korsikarrak eta

euskaldunak- elkarrekin bizi ziren, bakoitzak hizkuntza propioa zuelarik. Izan ere, Frantziako Estatuaren barrena biztanlegoaren erdiak inguru frantsesa ez beste hizkuntzaren batean mintzo zen. Estatu-Nazio kontzeptuak eskatzen duen batasun kulturala ez zen, ezta urrunetik ere, gertatzen.

Horiek horrela, agintari iraultzaileek berez gertatzen ez zen kultur batasuna artifizialki lortzeari ekin zioten. Horretarako frantsesa Frantziako «nazio bakar eta banaezinaren» hizkuntza bakarra izendatu, eta gainerako hizkuntzak -mesprezuz *patois* deitzen zituztenak- gupidarik gabe persegitu zituzten. Burges iraultzaren aitzakian<sup>3</sup>, estatuburu berriek neurri gogorak hartu zituzten bertako hizkuntz gutxiengoaren kontra: frantsesa administrazioaren hizkuntza bakarra izendatu zuten, gainerako erabilera guztiz debekatu; hezkuntza arloan, frantsesa ez beste hizkuntzak sortu berri zen derrigorrezko herri-eskola bakarretik baztertuak izan ziren; eta hau gutxi balitz, hizkuntza hauen erabilpen pribatua ere ankerki jazarri zuten.

Frantzian barna erneturiko Estatu-Nazioaren ideologia politikopoliki European zehar barreiatuz joan zen. Ez ziren nazio

- 
- (3) Iraultzaileek herri-hizkuntzak aurreko agintaldiaren arrasto legez ikusten zituzten, ezabatu beharreko arrastoa gainera. Frantsesa, ordea, iraultzaren lorpenekin erlazionatu zuten, askatasun eta berdintasuna nagusi izango ziren bizi berri baten sinbolo bihurtuz. Esandakoaren adibide, ikus dezagun Frantziako Konbentzioan Herri Osasunerako Batzordearen txostenak (1794) eskualde mailako hizkuntzen gainean adierazitakoa: «...de los países que constituyen el territorio de la República hemos observado (...) que la llamada lengua bajo-bretona, la lengua vasca, las lenguas alemana e italiana, han perpetuado el reino del fanatismo y de la superstición, asegurado la dominación de los curas, de los nobles y de los agentes, han impedido que la revolución penetre en nueve departamentos importantes y puede favorecer a los enemigos de Francia.

(...) ¡Ciudadanos! (...) aplastemos pues la ignorancia, establezcamos en los campos, instructores de la lengua francesa. (...) Demos pues a los ciudadanos el instrumento del pensamiento público, el agente más seguro de la revolución, la misma lengua».

PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 123. eta hurrengo orr.

boteretsuak ideologia hura onartu zuten bakarrak, Europako herrialde zanpatuek ere bere egin zuten estatu edo komunitate politikoa eta nazio edo kultur komunitatearen arteko ekibalentziaren ideia, baina, hori bai, konparaketaren terminoak trukatu. Hau da, estatu bakoitzari nazio bakarra badagokio, nazio bakoitzari ere estatu propioa egokitu beharko litzaioke. Frantzian gailendu zen «Estatu bat Nazio bat» leloari «Nazio bat Estatu bat» lelo berria kontrajarri zitzaion (nazionalitate printzipioa). Printzipio hau euskarri ideologikotzat hartuta, besteak beste Grezia, Belgika, Polonia, Kroazia eta Hungaria bezalako estaturik gabeko nazioek nork bere estatu propioaren alde sutsuki borrokatu zuten.

Ikus daitekeenez, «Estatu bat Nazio bat» printzipiotik guztiz kontrako ondorioak eratorri ziren. Estatudun nazio indartsuenek bere kulturaren, eta honen seinalerik adierazkorrena den hizkuntzaren inposaketari ekiten zioten bitartean, estaturik gabeko nazio bortxatuek beren errebindikazio nazionalak izugarri areagotu zituzten. Erdi eta ekialdeko Europan bi indar kontrajarri hauen arteko tentsioa jasangaitza egin zen.

Arrazoi ezberdinengatik -nazionalismo arazoak barne-aspaldian irakiten zirauen lapikoak, akaberan 1914. urtean eztanda egin zuen Lehen Mundu Gerrarekin. Gerrateari behin-betiko amaiera jartzekotan, indar aliatuen eta Alemaniaren ordezkariak Versallesen bildu ziren 1919an. Erabaki gehienak garaiko Lau Potentzia Handiek -Britainia Handiak, Estatu Batuek, Italiak eta Japoniak- hartu zituzten eta Alemaniak galtzaile moduan, gogoz bestera, haiek onartu behar izan zituen.

Versallesen bake iraunkor eta egonkor baterako oinarriak ezartzen saiatu omen ziren. Hartutako erabakien artean, Europako mapa nazionalitate printzipioaren ildotik berregitearena izan zen ohargarriena, zalantzarik gabe. Erabaki harekin gutxiengo batzuen aspirazio nazionalak askietsi, eta bide batez, nazionalismoaren sua eta garra baretu nahi izan zituzten. Lurrealde berbanaketarekin estatu independente berriak sortu ziren -Txekoslovakia eta Polonia kasu- eta baita jadanik esistitzen ziren beste batzuen lurralde-mugak zabaldu ere -Errumania, Jugoslavia eta Grezia kasu-.

Ondorioz, Alemania, Austria eta Hungariak lurralde esparru handiak galdu zituzten.

Europako maparen berreraikuntza ez zen gutxiengo nazionalen gaitz guztiak sendatuko zituen sendagai magikoa izan, ezta antzik ere. Batzuetan, nazionalitate bateko kide guztiak estatu bakar batean biltzea ezinezkoa gertatzen zelako, eta beste batzuetan, sortu berri ziren estatuen alde eginiko lurralde eskualdaketein batera potentzia galtzaileen biztanleri-multzo garrantzitsuak ere eskualdatzen zirelako, gutxiengo nazionalen arazoa konpontzeke lotu zen.

Indar aliatuek egoera berriak ekar zitzakeen arriskuez jabetu ziren, eta hauei aurre egiteko nazioarteko lehen gutxiengo babes-sistema eratu zuten. Versaillesko Sistema deritzan gutxiengo babes-sistemaz ari gara. Honen jagole eta ikuskari, 1919.ean sorturiko Nazio Elkartearen izeneko nazioarteko erakunde famatua izan zen.

Lehen hurbilpen batean Versaillesko gutxiengo babes-sistema ondorengo nazioarteko-tresnek osatzen zutela esan dezakegu:

a) Hertsiki Gutxiengo Nazioarteko Hitzarmenak zirenak. Hau da, lurralde eskuraketein sortu ziren gutxiengoak babestekotan, estatu sortu berriei eta lurralde berriak eskuratu zituzten estatu zaharrei inposatu zitzaizkienak. Hauen barne, Poloniak, Txekoslovakiak, Errumaniak, Jugoslaviak eta Greziak sinatu zituztenak kokatzen dira.

b) Austria, Hungaria, Bulgaria eta Turkiarekin sinaturiko Bake Hitzarmenei erantsi zitzaizkien gutxiengo gainerako berariazko xedapenak.

d) Gutxiengo babeserako xedapenak zituzten beste hiru nazioarteko hitzarmenak: Danzig-eko Hiri Askeak eta Poloniak sinaturiko Hitzarmena, Alemaniak eta Poloniak Goi-Silesiari buruz sinaturiko Hitzarmena, eta Memel Lurraldeari buruzko Hitzarmena.

e) Finlandiak, Albaniak, Lituaniak, Letoniak, Estoniak eta Irakek, Nazio Elkartearen partaide izateko, Kontseiluaren aurrean egin behar izan zituzten Deklarazioak.

Nazioarteko Hitzarmen eta Deklarazio hauen azken helburua Europako zenbait estatuko gutxiengoei babes-bermeak eskaintzea zen. Gutxiengo horietako kideei aitortzen zitzaizkien eskubideen artean, hizkuntz eskubideek funtsezko papera betetzen zuten.

Nazioarteko Hitzarmen desberdinetan azaltzen ziren hizkuntz gutxiengoei buruzko arauen edukia oso antzekoa zen. Lehenbizi, hizkuntza desberdinetako hiztun orori legearen aurreko berdintasuna aitortzen zitzaien. Ondoren, hizkuntz gutxiengoen kideei norbere hizkuntza harreman pribatu zein publikoetan erabiltzeko eskubideak aipatzen ziren. Eta azkenik, gutxiengoaren kideen presentzia sendoa zen zonaldeetan, bertakoei, ikastetxe pribatueta ez ezik publikoetan ere lehen irakaskuntza gutxiengoaren hizkuntzan jasotzeko eskubidea aitortzen zitzaien<sup>4</sup>.

- 
- (4) Gutxiengoei buruzko lehen Nazioarteko Hitzarmena, Poloniak eta potentzia aliatuek 1919.ean sinatutakoa izan zen. Sinaturiko ondorengo hitzarmenek honek jarraituriko ildoari eutsi zioten. Jakingarri bezala, hona hemen Poloniak sinaturiko hitzarmenaren 9. artikulua zer dioen:

«En las ciudades y distritos en los que reside una considerable proporción de súbditos polacos de lengua distinta de la polaca, el Gobierno polaco concederá en materia de enseñanza pública, facilidades apropiadas para asegurarse que en las escuelas primarias se dará la instrucción en su propia lengua a los niños de súbditos polacos. Esta disposición no será obstáculo para que el Gobierno polaco haga obligatoria la enseñanza de la lengua polaca en dichas escuelas.

En las ciudades y distritos en los que resida una considerable proporción de súbditos polacos que pertenecen a minorías étnicas, de religión o de lengua, se asegurará a estas minorías una parte equitativa en el beneficio y afectación de las sumas de los fondos públicos que podrían dedicarse a fines de educación, de religión, o de caridad en el presupuesto del Estado, en los presupuestos municipales u otros»

OBIETA CHALBAUD, J.A. *Las lenguas minoritarias y el derecho*. Bilbao: Mensajero, 1976, 31-32. orr.



Gutxiengoei buruzko Nazioarteko Hitzarmenetan araututa-koaren eraginkortasuna ziurtatzeko berme bikoitzeko sistema eraiki zen: berme estatala bata eta nazioarteko bermea bestea.

Berme estatalaren eraginez, Hitzarmenetako xedapenek estatu partaideetako lege-araubideetan funtsezko maila zuten. Hargatik, estatuetak barne legediek ezin zituzten xedapen hauek kontraesan. Nazioarteko bermearen eraginez, estatuak bere gain harturiko nazioarteko obligazioak bete ezean, doakionari Nazio Elkarteak Kontseiluaren aurrean politiko izaeradun helegite bat tartejartzeko aukera ematen zitzaion. Horrez gain, Nazio Elkartek gutxiengoei buruzko edozein hitzarmenen lege-hauste larriren aurrean interbentzio eskubidea zeukan.

Versallesko gutxiengoaren babes-sistemak hizkuntz gutxiengoaren defentsan berebiziko aurrerabidea suposatu zuen. Hala eta guztiz ere, sistema horrek bere eraginkortasuna baldintzatzen zuten akats nabarmenak zituen:

- Versallesko gutxiengoaren babes-sistema zurrunezia zen. Nazioarteko hitzarmenek gutxiengoaren egoera arautzerakoan ez zituzten tokian tokiko ezaugarriak aintzat hartzen eta horren ondorioz, baldintza eta premia desberdinak zituzten gutxiengoei konponbide berberak eskaintzen zitzaizkien.

- Versalleskoa izaera partikularra edo eskualde mailakoa zuen babes-sistema zen. Hura osatzen zuten nazioarteko hitzarmenek estatu-multzo mugatu bat baino behartzen ez zuteneko gero, ezin zitekeen sistema unibertsal edo orokortzat jo. Zehazki, Versallesko Sistemaren ezarpen eremua 15 estatutara soilik hedatzen zen<sup>5</sup>. Nazio Elkarteak zentzu horretan ahaleginak egin zituen arren<sup>6</sup>, gainontzeko estatuak ez zuten bere gain gutxiengoekiko inolako

---

(5) Polonia, Austria, Txekoslovakia, Serbia-Kroazia-Eslovenia, Errumania, Bulgaria, Hungaria, Grezia, Turkia, Armenia, Albania, Lituania, Estonia, Irak, eta Finlandia.

nazioarteko obligaziorik hartu nahi izan, eta ez gutxiengoaren arazoez libre zeudelako. Izan ere, aski ezagunak ziren Britainia Handia, Italia eta Frantzia bezalako Potentziek beren mugen barneko gutxiengoekin zituzten arazoak, haatik, Versaillesko Sistemak ezartzen zituen arauak euren buruari aplikatzeaz ez zuten ezer jakin gura izan. Handi-ustezko aitortpen eta hitz potolo horien atzetik, bada, potentzia garaileen faltsukeria eta itxurakeria ezkututzen zen, orduan ere,»hitzak ederrak bihotza faltso».

Versallesko Sistemak, beraz, bakarrik estatu batzuk lotesten zituen, gainerako estatuentzat babes-sistema ez zegoen indarrean. Aplikazio mugatu honek Versaillesko babes-sistema bereiztaile edo diskriminatzaile bihurtzen zuen. Hala, ez da harritzekoa berak behartutako estatuak Versaillesko Sistema beren subiranotasuna mugatzen zuen inposaketa gisa ikusi izana, potentzia garaileek beste batzuen alde egindako fabore bezala.

Akatsak akats, ez dugu ahaztu behar Versaillesko Sistema gutxiengoaren aurreneko nazioarteko babes-sistema izan zela, eta ordurarteko egoera nolakoa zen ikusita, egundoko lorpena izan zela ezin daiteke dudan jar.

Gerra osteko lehenengo urteetan hizkuntz gutxiengoaren egoerak, oro har, onera egin bazuen ere, faxismo eta erregimen autoritarioen agerpenarekin gauzak kolpetik aldatu ziren. Totalitarismoa nagusitu zen lurraldeetan -Alemania, Italia, Espainia e.a.- hizkuntz gutxiengoak ankerki erreprimituak izan ziren.

- 
- (6) Versaillesko sistema estatu guztietara zabaltzearen ideia Nazio Elkartearen Asanbladaren 1922ko irailaren 21eko IV. Ebazpenean antzeman zitekeen: «La Asamblea manifiesta la esperanza de que todos los Estados que no estén ligados a la Sociedad de Naciones por obligación legal alguna en lo que concierne a las minorías, observarán sin embargo, en el trato a sus minorías de raza, de religión o de lengua, al menos el mismo grado de justicia y de tolerancia que se exige por los Tratados y de acuerdo con la acción permanente de Consejo».

Faxismoaren zabalkundeari aurre emateko estatuen arteko aliantza burutu zen eta batzuek eta besteek beren indarrak neurtu zituzten II. Mundu Gerra deritzan horretan. Ikaragarri borroka anker, gordin eta odoltsuen ondoren akaberan indar aliatuek faxistak bentzutu zituzten. Gerratearen bukaerak Nazio Elkartearen eta bere ikuskaritzapean zegoen Versaillesko Sistemaren desagertzea eragin zuen<sup>7</sup>. Nazioarte mailan, 1945.ean San Frantziskon sortutako Nazio Batuen Erakundeak (NBE) Nazio Elkartearen ordezkatu zuen. Nazio Batuek egindako lanari jarraibidea eman nahirik, NBEren azken xedea nazioarte mailan bake iraunkor eta egonkorra lortzea zen; eta horretarako estatuen arteko lankidetzaren eta giza eskubideen defentsa bultzatuko zituzten.

Hizkuntza gutxiengoaren babesari dagokionez, gauzak erabat aldatu ziren. Urtetako eskarmentuak erakutsia zuenez, Versaillesko Sistema bake iraunkorra segurtatzeko gauza ez zela eta, Nazio Batuek ordurarte nagusi izan ziren babesbideak aldatzeari nahitaezkoa zeritzoten. Hala, II. Mundu Gerraren indarrean egon ziren Gutxiengoaren Hitzarmenak baztertu, eta gutxiengoaren hizkuntza eskubideen babesa giza eskubideei estuki lotzea erabaki zuten. Harrezkero, Giza Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmenak izango dira gutxiengoaren hizkuntza eskubideak bermatzeko ardura bere gain hartuko dutenak.

## **1.2. HEZKUNTZA- ETA HIZKUNTZA-ESKUBIDEEN ARAUKETA GIZA ESKUBIDEEI BURUZKO NAZIOARTEKO TESTUETAN**

Giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenak ugariak izan dira II. Mundu Gerratik hona. Izan ere, gaur egun nazioarteko hitzarmenek funtsezko papera betetzen dute giza eskubideak jabetu eta arautzeko orduan.

---

(7) Versaillesko sistema osotzen zuten hitzarmen eta deklarazioetatik batek bakarrik indarrean jarraitu zuen: Finlandiak Nazio Elkartearen sartzeari sinatu zuena. Gainerakoak suntsituak izan ziren.

Espainiako Estatuari dagokionean, giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenek barne lege-araubidean eragin hirukoitza dutela esan dezakegu:

Alde batetik, Konstituzioaren 96. artikulua<sup>8</sup> indarrez, Espainiak berretsiriko nazioarteko hitzarmenak ofizialki publikatzen diren momentutik barne ordenamenduaren parte izango dira. Horrexegatik, nazioarteko arau horiek zuzenean aplikagarriak izan ez ezik, beste edozein barne arau bailiren, barne auzitegien aurrean alegatuak ere izan daitezke inolako arazorik gabe.

Beste alde batetik, zuzenbide konparatuan *rara avis* den Konstituzioaren 10.2 artikulua arabera, Espainiak berretsiriko giza eskubideei buruzko hitzarmenek balio interpretatzaile berezia izango dute. «Las normas relativas a los derechos fundamentales y a las libertades que la Constitución reconoce, se interpretarán de conformidad con la Declaración Universal de Derechos Humanos y los tratados y acuerdos internacionales sobre las mismas materias ratificados por España» (10.2 art.).

Beraien derrigortasuna eta balio interpretatzaileaz gain, giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenek beste funtzio berezi bat betetzen dute gure antolamendu juridikoan, eredugarritasun funtzioa hain zuzen. Jakina denez, normalean estatuek lege eta arau berriak egiterakoan oso kontuan izaten dituzte nazioarte mailan gailentzen diren tendentziak eta hartzen diren erabakiak, eta ez hauek horretara behartzen dituztelako, baizik eta oro har onartua dagoen balio eredugarri berezi bat aitortzen zaielako.

Ikusten denez, giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenek Espainiako barne lege-araubidean duten garrantzia

---

(8) 96. art.: «Los tratados internacionales válidamente celebrados, una vez publicados oficialmente en España, formarán parte del ordenamiento interno. Sus disposiciones sólo podrán ser derogadas, modificadas o suspendidas en la forma prevista en los propios tratados o de acuerdo con las normas generales del Derecho Internacional».

ukaezina da. Zentzu horretan adierazgarriak dira TRUYOL irakasleak eginiko adierazpenak: «la fórmula constitucional española erige al Derecho Internacional de los Derechos del Hombre, universal o regional (en nuestro caso europeo occidental), en un verdadero *higher law* en relación con el Derecho interno español (incluido el de rango constitucional)»<sup>9</sup>.

Ondorengo lerroetan Espainiak berretsiriko nazioarteko hitzarmenek hezkuntza eta hizkuntza eskubideak nola arautzen dituzten aztertuko dugu. Izan ere, sei dira hezkuntza eta hizkuntza gaietan Espainiako Estatua lotesten duten nazioarteko testuak<sup>10</sup>:

A)1948ko Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala (GEAU).

B)1960ko Irakaskuntza Mailako Gutxiespenen Aurkako Hitzarmena (IMGAH).

D)1966ko nazioarteko paktuak: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktua (EZPNP) eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultur-Eskubideen Nazioarteko Paktua (EGKENP).

E)1989ko Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena (HENH).

F)1950eko Giza Eskubideen eta Funtsezko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena (GEFABEH).

### **A) 1948ko Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala**

Nazio Batuetako Erakundearen sorburua, 1945.eko ekainaren 26an, 51 estatutako ordezkariak San Frantziskon sinaturiko Nazio

---

(9) *L'Espagne et les Communautés Européennes*. Brusela, 1979, 116. or. CORRIENTE CÓRDOBA, J.A. La protección de la libertad de enseñanza en el derecho internacional. *Educación y sociedad pluralista* zitatu. Bilbao: Fundación Oriol-Urquijo, 1980, 31. or.

(10) Giza eskubideen bilakaera historikoari buruzko testuak honako liburu hauetan aurki daitezke, beste askoren artean: PECES BARBA, G. *Textos básicos sobre derechos humanos*. Madrid, 1973, edota TRUYOL y SERRA, A. *Los derechos humanos*. Madrid: Tecnos, 1982.

Batuen Kartan koka daiteke. San Frantziskon sinatu zen Karta horretan, sortzear zegoen NBERen helburuak ezarri ziren. Xede hauen artean, giza eskubide eta funtsezko eskubideen garapena eta errespetua sustatzearena azaltzen zen. Helburu hau egia bihurtzeko Nazio Batuetako Kontseilu Ekonomiko Sozialak, giza eskubideei buruzko gaiez arduratuko zen batzorde berezi bat -Giza Eskubideen Batzordea- sortu zuen, eta honi giza eskubideen aitorten unibertsal bat egin zezala agindu zion. Hala, 1948ko abenduaren 10ean, Nazio Batuetako Asanbladaren baimenaz, «Aro Modernoaren giza eskubideen testurik gailurrena»<sup>11</sup> sortu zen: Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsala.

Bere izenetik ondoriozta daitekeenez, hasera batean, Aitorpen Unibertsala indar juridikorik gabeko aitorten hutsa zen, inolako betebeharrak edo obligazio juridikorik sortzen ez zuena. Hala ere, Aitorpen Unibertsalean agertzen diren eskubide askotxo, guztiak ez esatearren, urteak aurrera joan ahala estatu gehienek beren eguneroko ihardunbidean zuzenbide arauak bailiren onartu dituztenez gero, baliteke haserako aitorten indarge hura, gaur egun nazioarteko ohitura bilakatu izana, eta beraz, indar juridikodun araua ere bai<sup>12</sup>.

Edukiari dagokionez, Aitorpen Unibertsalean ez da gutxiengoaren hizkuntz eskubideen gaineko aipamenik ageri. Zenbait estaturen aldetik hizkuntz gutxiengoei buruzko artikulua bat sartzearen aldeko eginahalak egin ziren arren, azkenean hauek bertan behera geratu ziren. Hizkuntza aitatzan duen artikulua bakarra 2.1 artikulua da. Bertan, hizkuntza, Aitorpenaren

---

(11) URRUTIA, A. Hizkuntz eskubideen bila: Recifeko Adierazpena. *In Euskara Legebidean*. Bilbo: Deustuko Unibertstitatea. 1990, 262. or.

(12) SIEGHART autorearen hitzetan, «Although the juridical status of UDHR cannot yet be said to be free from doubt, there are therefore today substantial grounds for saying that it now constitutes a binding obligation for Member States of the UN, and some grounds also for saying that it has now become part of customary international law, and so binds all States». SIEGHART, P. *The International Law of Human Rights*. Oxford: Clarendon Press, 1990, 53-55. orr.

aplikazioan bereizketarik sor ezin dezaketen faktoreen artean kokatua dago:

2.1 art.: «Toda persona tiene todos los derechos y libertades proclamados en esta Declaración, sin distinción alguna de raza, color, sexo, idioma, religión, opinión política o de cualquier otra índole, origen nacional o social, posición económica, nacimiento o cualquiera otra condición».

Hezkuntza arloa, ordea, 26. artikuluan luze-zabalago arautua dago. Artikulu honek honela dio hitzez hitz:

26.1 art.: «Toda persona tiene derecho a la educación. La educación debe ser gratuita, al menos en lo concerniente a la instrucción elemental y fundamental. La instrucción elemental será obligatoria. La instrucción técnica y profesional habrá de ser generalizada; el acceso a los estudios superiores será igual para todos, en función de sus méritos respectivos.

2. La educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana y el fortalecimiento del respeto a los derechos humanos y a las libertades fundamentales: favorecerá la comprensión, la tolerancia y la amistad entre todas las naciones y todos los grupos étnicos o religiosos, y promoverá el desarrollo de las actividades de las Naciones Unidas para el mantenimiento de la paz».

3. Los padres tendrán derecho preferente a escoger el tipo de educación que habrá de darse a sus hijos».

Aurrerago ikusteko aukera izango dugunez, Aitorpen Unibertsalaren 26. artikulua, ondorengo nazioarteko hitzarmenetan etengabe errepikatuko diren funtsezko aspektu batzuk tratatzen ditu:

- Hezkuntzarako eskubidearen unibertsaltasuna, hots, guztiok dugu hezkuntza jasotzeko eskubidea.
- Oinarrizko hezkuntzaren derrigortasuna eta doakotasuna.
- Hezkuntzaren objektua: giza nortasunaren erabateko garapena eta giza eskubide eta funtsezko eskubideen errespetua.
- Hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea.

Bestalde, artikulua honetan ikastaldi ezberdinen arteko bereizketa ez da argiegi ikusten, esaterako, oinarrizko heziketa

eta funtsezko heziketaren arteko muga behar bezala zehaztu gabe geratzen da.

## **B) 1960ko Irakaskuntza Mailako Gutxiespenen Aurkako Hitzarmena**

Hitzarmen hau UNESCOren<sup>13</sup> babespean burutu zen 1960.eko abenduaren 14an. UNESCO, izatez, aldebitako akordio bidez NBerekin lotura duen organismo espezializatua da, eta nahiz eta teoriarik elkar identifikatu ez, praktikan beraien arteko lotura ia erabatekoa da. Hori dela eta, Unescok onarturiko hitzarmenek NBerenak hainbateko garrantzia dute nazioarte mailan. Espainiak hitzarmen hau 1969ko abuztuaren 20an onetsi zuen, urte bereko azaroaren 20an indarrean sartu zelarik<sup>14</sup>.

Bere izenetik ondoriozta daitekeenez, hitzarmen honetan irakaskuntza gaiak bereziki jorratzen dira. Lehenengo artikuluan, hitzarmen honen ondorioetarako gutxiespena esatean zer ulertu behar den azaldu eta gero, adibide modura gutxiespena sor dezaketen egoera batzuk jasotzen ditu. Eduki aldetik aipagarriena 5.1 artikulua da, zeinek, gutxiengoei ikastetxe propioak sortzeko eskubidea ez ezik, bertan irakaskuntza beraien hizkuntzan jasotzeko eskubidea ere aitortzen dien.

5.1 c) art.: «Los Estados Partes en la presente Convención convienen (...) en que debe reconocerse a los miembros de las minorías nacionales el derecho a ejercer las actividades docentes que les sean propias, entre ellas la de establecer y mantener escuelas y, según la política de cada Estado en materia de educación, emplear y enseñar su propio idioma, siempre y cuando:

i) ese derecho no se ejerza de manera que impida a los miembros de las minorías comprender la cultura y el idioma del conjunto de la colectividad y tomar parte en sus actividades, ni que comprometa la soberanía nacional;

ii) el nivel de enseñanza en estas escuelas no sea inferior al nivel general prescrito o aprobado por las autoridades competentes; y

iii) la asistencia a tales escuelas sea facultativa.»

---

(13) Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundea.

(14) EEO, 1969.eko azaroak 1.



Nazio Elkarte garaian burutu ziren hitzarmenekin konparatuz, 1960ko honek hizkuntz gutxiengoei hezkuntza arloan eskaintzen dien babes juridikoa nahiko eskasa da. Babes hori irakaskuntza pribatura mugatzen da, irakaskuntza publiko osoa bere esparrutik kanpo utzirik. Halaber, hitzarmenak ez die estatu partaideei inolako betebeharrak positiborik inposatzen, edo bestela esanda, estatuek agindutakoa betetzeko aski dute egoera pasibo bat mantentzearekin, inolako iharduera positiboren beharrik izan gabe.

Besterik ere bada. 5.1 c) artikuluan nazio gutxiengoen alde jasotzen diren eskubideen aitortpena eta egikaritzea baldintzapean dago, i), ii) eta iii) pasarteetan agertzen diren baldintzen pean, hain zuzen: gehiengoaren kultura eta hizkuntzaren eskurapena batetik, eta burujabetasuna bestetik, ez eragozte; ikastetxe horietan asistentzia borondatezkoa izatea; eta azkenik, irakaskuntza maila gainerako ikastetxeena baino txarragoa ez izatea.

#### **D) 1966ko nazioarteko paktuak: Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktua (EZPNP) eta Ekonomia-, Gizarte- eta Kultur-Eskubideen Nazioarteko Paktua (EGKENP)**

NBERen Kontseilu Ekonomiko Sozialak Giza Eskubideen Batzordeari Askatasunaren Nazioarteko Karta bat egin zezala agindu zion. Honek hasieran hiru zati izango zituen: giza eskubideen aitortpena, bertan aitorturiko eskubideak juridikoki lotesleak egingo zituen estatuen arteko hitzarmena, eta hitzarmenaren eraginkortasuna segurtatuko zuen paktua. Dena den, arrazoi ezberdinengatik Askatasunaren Nazioarteko Karta horren proiektua aldatu zen, eta azkenean NBERen babespean gauzaturikoak aitortpen unibertsal bat, eta nazioarteko paktu bi izan ziren: eskubide zibil eta politikoei buruzkoa bata, eta ekonomia-, gizarte- eta kultur-eskubideei buruzkoa bestea.

Paktu hauen xede nagusia 1948ko Aitorpen Unibertsala osatu eta juridikoki eraginkor bihurtzea da. Izan ere, Paktu hauek

berresten dituzten estatuek, bere gain erabateko eraginkortasun juridikodun obligazioak hartuko dituzte. Espainiak paktu bi hauek 1977ko apirilaren 27an berretsi eta gero, urte bereko uztailaren 27an gure antolamendu juridikoaren parte izatera pasatu ziren<sup>15</sup>.

Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktuak 27. artikuluan Aitorpen Unibertsalak gutxiengoaren arloari buruz izan zuen omisioa zuzentzen du. Bertan, gutxiengoaren kideei norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie. Aitorpen Unibertsalarekin konparatuz aurrerapauso nabarmena izanik ere, nazioarteko paktu honen 27. artikulua oraindik orokorregia da: batetik, ez du gutxiengoaren «bizitza kulturalaz» zer ulertu behar den zehazten, eta bestetik, hizkuntzarako eskubidearen hedadura edo alkantzea airean uzten du.

27. art.: «En los Estados en que existan minorías étnicas, religiosas o lingüísticas, no se negará a las personas que pertenezcan a dichas minorías el derecho que les corresponde, en común con los demás miembros de su grupo, a tener su propia vida cultural, a profesar y practicar su propia religión y emplear su propio idioma.»

Artikulu honen orokortasunak eta zehaztasunik ezak sorrarazten dituzten zalantzen artean, bada gure aldetik aipamena merezi duenik. 27. artikulua jasotzen dituen obligazioen izaeraz ari gara. Geure buruari egiten diogun galdera hau da: bertan azaltzen diren obligazio guztiak eduki negatiboa dute ala horien artean bada eduki positiboa duenik?

Bestela uste duenik izanda ere, gure iritzi apalean, 27. artikulua aginte publikoen partetik iharduera positiboa eskatzen du, hitz bitan, obligazio positiboak ezartzen ditu. Horrela ez balitz, 27. artikulua hitzarmenaren 18. eta 19. artikuluen errepika hutsala baino ez litzateke izango, eta ez dugu uste hitzarmengileen borondatea horretan zenik.

Normala denez, hezkuntzarako eskubidea ez da Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktuan arautzen, bai ordea

---

(15) EEO, 1977.eko apirilak 30.

Ekonomia-, Gizarte- eta Kultur-Eskubideen Nazioarteko Paktuan, 13. eta 14. artikuluetan alegia.

Nazioarteko paktu honek hezkuntza arloan, bere garaian Aitorpen Unibertsalak hasitako ibilbideari darraio. Hori bai, oraingoan, Aitorpen Unibertsalean azaltzen ziren hezkuntza eskubideak garatuago eta landuagoak daude eta ikasmailen arteko bereizketa askoz argiagoa da<sup>16</sup>. Horrezaz gain, lehen irakaskuntzaren derrigortasuna eta doakotasuna bermatzeko, 14. artikulua neurri berezi batzuk hartzen ditu: «Todo Estado Parte en el presente Pacto que, en el momento de hacerse parte en él, aún no haya podido instituir en su territorio metropolitano o en otros territorios sometidos a su jurisdicción la obligatoriedad y la gratuidad de la enseñanza primaria, se compromete a elaborar y adoptar, dentro de un plazo de dos años, un plan detallado de

---

(16) 13.1 art.: «Los Estados Partes en el presente Pacto reconocen los derechos de toda persona a la educación. Conviene en que la educación debe orientarse hacia el pleno desarrollo de la personalidad humana y el sentido de su dignidad, y debe fortalecer el respeto por los derechos humanos y las libertades fundamentales. Conviene asimismo en que la educación debe capacitar a todas las personas para participar efectivamente en una sociedad libre, favorecer la comprensión, la tolerancia y la amistad entre todas las naciones y entre todos los grupos raciales, étnicos o religiosos, y promover las actividades de las Naciones Unidas en pro del mantenimiento de la paz.

2. Los Estados en el presente Pacto reconocen que, con objeto de lograr el pleno ejercicio de este derecho:

a) La enseñanza primaria debe ser obligatoria y asequible a todos gratuitamente.

b) La enseñanza secundaria, en sus diferentes formas, incluso la enseñanza secundaria técnica y profesional, debe ser generalizada y hacerse asequible a todos, por cuantos medios sean apropiados, y en particular por la implantación progresiva de la enseñanza gratuita.

c) La enseñanza superior debe hacerse igualmente accesible a todos, sobre la base de la capacidad de cada uno, por cuantos medios sean apropiados, y en particular, por la implantación progresiva de la enseñanza gratuita.

d) Debe fomentar o intensificarse, en la medida de lo posible, la educación fundamental para aquellas personas que no hayan recibido o terminado el ciclo completo de instrucción primaria.

acción para la aplicación progresiva, dentro de un número razonable de años fijado en el plan, del principio de la enseñanza obligatoria y gratuita para todos.»

### **E) 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena**

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean 1989ko azaroaren 20an sortu zen Unesco organismo espezializatuaren babespean. Espainiak 1990. urtean sinatu zuen<sup>17</sup>. Hitzarmen honetan ere hizkuntz eta hezkuntza eskubideei buruzko araurik agertzen da, baina berariazotasun batekin, oraingoan eskubide horien jabe haurrak izango dira.

HEHren 30. artikulua gutxiengo haurren hizkuntz eskubideak jasotzen ditu eta, egia esan, ez du gauza berririk aportatzen. Irakurri eta berehala konturatuko zaretenez, HEHren 30. artikulua ikusi berri dugun EZPNren 27. artikuluan agertzen zena haurren mundura egokitu baino ez du egiten.

«En los Estados en que existan minorías étnicas, religiosas o lingüísticas o personas de origen indígena, no se negará a un niño que pertenezca a tales minorías o que sea indígena el derecho que le corresponde, en común con los demás miembros de su grupo, a tener su propia vida cultural, a profesar y practicar su propia religión, o a emplear su propio idioma» (30. art.).

Bestalde, 29.1 artikulua haurren hezkuntza bideratzeko orduan estatuek aintzat hartu beharko dituzten faktoreak jasotzen ditu. Hauen artean hauxe aipatzen da:

---

e) Se debe proseguir activamente el desarrollo del sistema escolar en todos los ciclos de la enseñanza, implantar un sistema adecuado de becas, y mejorar continuamente las condiciones materiales del cuerpo docente.

3. Los Estados Partes en el presente Pacto se comprometen a respetar la libertad de los padres y, en su caso, de los tutores legales, de escoger para sus hijos o pupilos escuelas distintas de las creadas por las autoridades públicas, siempre que aquéllas satisfagan las normas mínimas que el Estado prescriba o apruebe en materia de enseñanza, y de hacer que sus hijos o pupilos reciban la educación religiosa o moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones.»

(17) EEO, 313. zenb., 1990eko abenduak 31.

«Inculcar al niño el respeto de sus padres, de su propia identidad cultural, de su idioma y sus valores, de los valores nacionales del país en que vive, del país de que sea originario y de las civilizaciones distintas de la suya» (29.1.c art.).

Esan beharrik ez dago azken artikuluko honek haurren ama-hizkuntza arbuiatzen duten hezkuntza politika homogeneizatzaileak debekatzen dituela.

## **F) 1950eko Giza Eskubideen eta Funtsezko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena**

Giza Eskubideen eta Funtsezko Askatasunen Babeserako Hitzarmena -aurrerantzean Europako Hitzarmena-, Europako Kontseiluaren babespean 1950.eko azaroaren 4an onartu zen Erroman. Eskualde mailako nazioarteko hitzarmena izanagatik ere, Europa bezalako esku handiko eskualdea afektatzen duen heinean, garrantzi handiko hitzarmena dugu Europako hau. Espainiak Europako Hitzarmena 1979.eko urriaren 4an berretsi zuen, egun berean indarrean sartu zelarik<sup>18</sup>.

Europako Hitzarmenak hizkuntza arloa oso azaletik ikutzen du. Aitorpen Unibertsalean gertatu antzera, hitzarmen honetan zerrendatzen diren eskubide eta askatasunen artean hizkuntz eskubiderik ez da zuzenean agertzen. Besterik ezean, 14. artikuluko hizkuntz eskubideei zeharkako babesa eskaintzen die, hizkuntzagatiko gutxiespena galeraziz.

14. art.: «El goce de los derechos y libertades reconocidos en el presente Convenio ha de ser asegurado sin distinción alguna, especialmente por razones de sexo, raza, color, lengua, religión, opiniones políticas u otras, origen nacional o social, pertenencia a una minoría nacional, fortuna, nacimiento o cualquier otra situación.»

Europako Hitzarmenari laugarren protokolo gehigarria eranstekotan zirela aprobetxatuz, 1961.ean Europako Kontseiluko Gutxiengoan Azpibatzaordeak gutxiengoan gaia jorratzen zuen testu

---

(18) EEO, 1979.eko urriak 10.

bat Europako Kontseiluaren Asanbladaren aurrean aurkeztu zuen. Testuaren edukia Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktuaren 27. artikulua oso antzekoa zen, beharbada zertxobait osoagoa -esaterako hezkuntzarako eskubidea espresuki aitatzen da-, baina oro har zehazgabea eta orokorregia<sup>19</sup>.

Lehenengo Asanbladak eta ondoren Ministroen Batzordeak testua onartu bazuten ere, sasoi hartan Giza Eskubideen Europako Auzitegiak (GEEA) gutxiengoen hizkuntz eskubideekin harreman zuzena zuen kasu bat esku artean zuenez, epaia kaleratu artean testua indarrean ez jartzea erabaki zen.

Azkenean laugarren protokolo gehigarria onetsi zenean, gutxiengoei buruzko testua bertatik kanpo lotu zen. GEEAk delako epai hura argitaratu ostean<sup>20</sup>, Ministroen Batzordeak ez zuen inolako neurririk hartu bere garaian Asanblada eta Ministroen Batzarrak berak onartu zuten testu hura indarrean jartzeko. Gaur egun testuak oraindik argitaratu barik jarraitzen du, eta egia esan, publikatuko den susmorik ere ez dago.

Bestalde, hezkuntza arloa Europako Hitzarmenaren lehen protokolo gehigarriaren 2. artikuluan arautua dago:

2. art.: «A nadie le puede ser negado el derecho a la educación. El Estado, en el ejercicio de sus funciones asumidas en el campo de la educación y de la enseñanza, respetará el derecho de los padres a asegurar esta educación y esta enseñanza conforme a sus convicciones religiosas y filosóficas.»

Bistan denez, Europako Hitzarmenak gainerako giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenekin alderatuz, hezkuntza arloa oso azaletik arautzen du. Izan ere, 2. artikulua

---

(19) «No se negará a las personas que pertenezcan a una minoría nacional el derecho que les corresponde, en común con los demás miembros de su grupo y en cuanto sea compatible con el orden público, a tener su propia vida cultural, a emplear su propio idioma, a establecer sus escuelas propias y recibir la enseñanza en el idioma de su elección o profesar y practicar su propia religión.»

(20) Aipatutakoa Belgikako irakaskuntzaren hizkuntza erregimenaren zenbait aspekturi buruzko Epaia da eta 1968.eko uztailaren 23an argitaratu zen.

bi eskubide baino ez ditu aitortzen: bata, hezkuntzarako eskubidea, era negatiboan formulatua gainera, eta gurasoek beren pentsakera erlijioso eta filosofikoen arabera irakaskuntza aukeratzeko eskubidea, bestea. Edonola ere, artikulu honen benetako alkantzea ezagutzeko arras kontuan hartzekoak dira Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Hitzarmenaren interpretazioari eta aplikazioari buruz emandako epaiak<sup>21</sup>. Espainiak GEEaren eskumena inolako baldintzapenik gabe onartu zuen, hargatik, nazioarteko auzitegi honek emandako epaiak gure mugen barna erabateko eragin juridikoa dute.

Oraindaino ikusitakoa laburbilduz, hizkuntza arloa nazioarte mailan oso gutxi garatua dagoela esan daiteke. Izan ere, IMGaHk (5.1 art.), EZPNPk (27. art.) eta HEHk (30. art.) bakarrik aitortzen dute norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea. Hori bai, ikusiriko nazioarteko testu guztiak bat datoz hizkuntza gutxiespenik sor ezin dezaketen faktoreetako bat dela esateko orduan (GEAUren 2.1 art., IMGaHren 1. art., EZPNPren 26. art., EGKENPren 2.1 art. eta GEFABEHren 14. art.).

Hezkuntza arloari dagokionez, aldiz, gauzak oso bestelakoak dira. Nazioarteko hitzarmenek hezkuntza gaiak erruz arautu dituzte. Araupen oparo honi esker hezkuntzarako eskubidea hein handi batean lege-itxuraturik geratu dela esan daiteke. Hona hemen gorago aztertutako testuek hezkuntzari buruz egindako adierazpenak elkarren ondoan jarriz atera daitezkeen ondorioak:

- 
- (21) Europako Hitzarmenak giza eskubideak zerrendatzeaz gain, eskubide hauen babeserako antolamendu juridiko bat eratzen du. Antolamendu honen gailurrena Strasburgeko Giza Eskubideen Auzitegian dago. Auzitegi honek Estatuek hitzarmenean aitorturiko eskubideekiko duten portaera epaitzen du eta lege-hausterik balego Estatuaren aurkako epai loteslea emango luke. Hezkuntza gaiak dagokienez hauek dira, besteak beste, Europako Auzitegiak emandako epai aipagarrienak: Belgikako erregimenaren aspektu jakin batzuei buruzko 1968ko uztailaren 23ko Epaiak; Kjeldsen, Busk Madsen eta Pedersen kasuari buruzko 1976ko abenduaren 7ko Epaiak; eta Campbell eta Cosansen kasuari buruzko 1982ko otsailaren 25eko Epaiak.

-Pertsona orok hezkuntza jasotzeko eskubidea du (GEAU, 26.1 art.; EGKENP, 13.1 art.; eta GEFABEHren lehen protokolo gehigarriaren 2. art.).

-Lehen irakaskuntza derrigorrezkoa eta dohainik izango da, eta gainerako irakasmailek guztientzako eskuragarriak beharko dute izan (GEAU, 26.1 art.; EGKENP, 13.2 art.).

-Guraso eta tutoreei honako eskubide hauek aitortzen zaizkie:

a) Beren haurren hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea (GEAUren 26.3 art.).

b) Beren haurren hezkuntzarako herri-agintariak sortzen dituztenetatik kanpoko ikastetxeak aukeratzeko eskubidea (IMGAH, 5.1.b art.; EGKENP, 13.3 art.).

d) Beraien haurrentzat beren siniskera erlijioso, moral eta filosofikoekin bat datorren irakaskuntza mota aukeratzeko eskubidea (IMGAH, 5.1.b art.; EGKENP, 13.3 art.; GEFABEH, lehen protokolo gehigarriaren 2. art.).

- Pertsona fisiko zein juridikoek ikastetxeak sortzeko eta zuzentzeko eskubidea izango dute (EGKENPren 13.4 art.).

- Hezkuntzaren helburuak (GEAU, 26.2 art.; IMGAH, 5.1.a art.; EGKENP, 13.1 art.) ondorengo hauek izango dira:

a)Giza nortasunaren erabateko garapena.

b)Giza eskubide eta funtsezko eskubideen errespetua bultzatzea.

d)Pertsona guztiek gizarte aske batean parte har dezaten gaitzea.

e)Gizatalde ezberdinen arteko tolerantzia, ulermena eta adiskidetasuna erraztea.

f)Nazio Batuen bakearen aldeko iharduerak sustatzea.



Ohartuko zinetenez, orainarte bereziki Espainia binkulatzen edo lotesten duten nazioarteko testuez aritu gataizkizue. Haez gain, nazioarte mailan badira hizkuntza eta hezkuntza gaiak jorratzen dituzten testuak, nahiz eta oraindik estatuen arteko harremanetan indargeak izan.

Hauen artean, 1992. urtean Europako Kontseiluaren babespean sorturiko **Eskualde Mailako edo Gutxiengoaren Hizkuntzen Europako Kartak** aipamen berezia merezi du. Hitzarmen izaera duen Europako Karta honetan, aurrenengo aldirik eskualde mailako hizkuntzen gaia berariaz jorratzen da luze eta zabal. Azken urteotan hizkuntz gutxiengoaren alde igar zitekeen sentiberatasunaren gehikuntzak Europako Karta honetan bere islada izan du<sup>22</sup>. Eskualde mailako hizkuntzen aldeko giroa gora-behera, Europako Kartaren elaborazioa ez da larrosaz atunduriko bidea izan, ezta gutxiagorik ere.

Hizkuntza gutxituen gaineko hitzarmen bat burutzeko ideia, Europako Kontseiluaren Toki eta Eskualde Mailako Agintean Batzar Iraunkorrek 1984.ean hizkuntz gutxiengoari buruz izan zuen batzar batean proposatu zuen. Ideia horri jarraiki, Batzar Iraunkorrek 1989. urteko martxoan Europako hizkuntza gutxituekiko Kartaren egitasmoa onartu zuen<sup>23</sup>. Ondoren egitasmoa Parlamentarioen Biltzarrari eta Ministroen Batzordeari bidali zitzairen, hauek hitzarmen moduan onartu eta estatuen sinadurarako aurkez zezaten. Parlamentarioen Biltzarrak egitasmoa arazorik gabe onartu zuen, Ministroen Kontseiluan,

---

(22) Hizkuntza gutxituekiko sentiberatasuna areagotzeki buruz, PIZZORUSSOK honela dio: «ya no hay ningún país europeo que profese oficialmente una doctrina contraria a la defensa de las minorías y al pluralismo lingüístico en general». PIZZORUSSO, A. Minorías y grupos étnicos y lingüísticos en Italia: perspectivas de tutela. In *Ordenación legal del plurilingüismo en los estados contemporáneos*. Barcelona: Generalidad de Cataluña, 1983, 27. or.

(23) Egitasmoaren berri izateko ikus, PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas en Europa occidental: documentos (1942-1989)*, II. alea, 579-603. orr.

ostera, gauzak bestelakoak izan ziren. Estatu partaide batzuk -Frantzia, Britainia Handia, Grezia, Turkia eta Luxenburgo- egitasmoaren edukiaren aurka azaldu ziren eta, ondorioz, egitasmoa aurrera ezinean geratu zen. Azkenik, 1992ko azaroaren 5ean Ministroen Kontseiluak Karta onartu zuen<sup>24</sup>, baina, hori bai, egitasmoak estatuei ezartzen zizkien konpromezu mailak nabarmenki jaitsiz. Karta honen elaborazioak, berriro ere, hizkuntz eskubideen arloan nazioarte mailako akordioetara ailegatzeko dauden zailtasunak erakutsi dizkigu. Eta ez hori bakarrik, zenbait estaturen partetik gutxiengoak hizkuntz eskubide minimoak bermatzeko errezeloa ere bai.

Egitasmoaren testuaren ondoan azken erredakzioak, hein handi batean hankamotz geratu izanagatik ere, Europako Kartak ez bairik gabeko aurrerakuntza ekarri du hizkuntz eskubideen nazioarteko defentsan. Izan ere, Europako Karta ez da hertsiki hartuta giza eskubideen hitzarmen soil. Hori bakarrik gura izan balu, giza eskubideez bakarrik arduratuko zatekeen, baina ez da horrela, Europako Kartak giza eskubideekin batera, sustatu eta bultzatu beharreko kultur balioez ere kezkatzen da.

Europako Kartak zentzu pragmatikoagoa izan nahi du; hori dela eta, ez da aplikatuko ez diren printzipio orokor batzuk aldarrikatzera mugatzen, baizik eta estatuek bere gain hartu beharko dituzten konpromezu zehatzak ezartzen ditu. «La Carta pues, no ha optado por seguir el camino normal de las Convenciones típicas de los Derechos Humanos sino que utiliza un sistema diverso consistente en impulsar el compromiso de crear una serie de condiciones en favor de los hablantes de las lenguas regionales o minoritarias europeas. Unas condiciones favorables garantizadas por la obligación internacional del Estado que así, de facto, lleva a ofrecer a los hablantes de tales lenguas el marco adecuado en el que puedan ejercer sus derechos»<sup>25</sup>.

---

(24) Behin-betiko testuaren berri izateko, ikus *Eskualde Mailako edo Gutxiengoak Hizkuntzen Europako Karta*. Vitoria-Gasteiz: Deinterbask, 65, Interbask, 1992.

Hezkuntza arloari dagokionez, Europako Karta aurreko nazioarteko hitzarmenak baino dezente urrunago doa. Ikusi berri ditugun giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenek, gehienez jota, estatukideei norbere hizkuntzan heziketa jasotzeko aukera bermatzen zien (IMGAHren 5.1.c art.), estatu sinatzaile-ekiko inolako betebeharrak positibo argirik ezarri barik. Europako Kartarekin, berriz, estatuak bere gain betebeharrak positiboak hartzen dituzte, hain zuzen ere, estatuak irakaskuntza gutxiengoen hizkuntzetan bermatzera beharturik geratzen dira irakasmaita gutzietan, eskolaurretik hasi eta unibertsitate iritsi bitartean (8.1 art.). Eta betebeharrak hori beteko duela ziurtatzeko, estatu bakoitzak hartutako neurrien eta lortutako aurrerabideen ikuskaritzaz arduratuko den kontrol-organo bat antolatu beharko du (8.2 art.). Kontrol organoak aldiro-aldiro txostenak kaleratu beharko ditu egoeraren nondik norakoa azaltzeko: Kartaren ezarpen maila, emandako aurrerapausoak, kezkabideak eta abar.

Europako Karta ez da oraindik indarrean sartu. Horretarako Europa Kontseiluko 27 estatu partaideetatik bostek berretsi beharko dute eta gaurdaino, tamalez, Finlandiak bakarrik egin du horrelakorik. Ondorioak zeuek atera.

Nazioarteko testuen azterketari eskainitako kapitulu honi amaiera eman baino lehen, ezin aipatu gabe utzi Europako Batasun mailan hizkuntza gutxiengoen alde burutu diren ekintzak. Europako Batasunean, hizkuntza gutxiengoen aldeko iharduerak bi ildotatik abiatu dira batik bat: Europako Legebiltzarraren bitartez, eta Hedapen Urriko Europako Bulegoaren bitartez.

Legebiltzar klasiko baten antzera antolatua egon arren, eskuarki legebiltzarrak deitzen diogun erakunde legegile hori izatetik urrun dago Europako Legebiltzarrak. 1992an Maastricht onarturiko Europako Batasuneko Hitzarmenak bere ahalmenak zabaltzeko izanagatik ere, Europako Legebiltzarrak oraindik ez dauka

---

(25) PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1942-1989)*, II. alea, 78. or.

benetako botere legegilerik, bere boterea oso urria da. Ezin du bere kabuz erabaki loteslerik onartu, gehienenez ere zenbait kasutan Batzordetik edo Kontseilutik datozkion ekintzak geldiaraz ditzake erabateko gehiengoaz. Hortaz, Europako Legebiltzarra kontsultarako edo laguntzarako organoa da funtsean.

Edozelan ere, 1981etik aurrera Europako Legebiltzarrak hizkuntz gutxiengoaren gainean harturiko ebazpen eta proposamenak ugariak izan dira<sup>26</sup>. Hauen artean bi dira lan honetan aipatzeko modukoak:

**a) Europako Elkarteko gutxiengo lurraldetar eta etnikoen hizkuntza eta kulturari buruzko Ebazpena (1987).** Honen eta Europako Kontseiluak onarturiko Kartaren edukia oso antzekoak direnez gero, Kartari buruz lehenago esandakoak balioko digu ebazpenaren edukia ezagutzeko.

**b) Europako Elkarteko gutxiengo kultural eta linguistikoei buruzko Ebazpena (1994).** Ebazpen honek 15 puntu ditu eta ez du neurri zehatzik zerrendatzen, bakar-bakarrik aipamen orokorrak egiten ditu, hala nola, hizkuntz gutxiespenaren aurkako borondatea, hizkuntza gutxituentzat lege-estatutu baten beharra, estatu partaideei hizkuntza gutxituen Europako Karta sinatzeko eskaria eta abar. Era berean Europar Batzordeari eskakizun batzuk luzatzen dizkio: 1987.eko Ebazpenak jasotzen dituen neurriak betearaztea, batasuneko politika desberdinak bideratzerakoan hizkuntza gutxituak kontuan izatea, hizkuntza gutxituen aldeko estatuen lana legez zein diruz laguntzea e.a.

---

(26) Europako Legebiltzarrak hizkuntz gutxiengoaren gainean atera zuen lehenengo ebazpena, Eskualde mailako hizkuntza eta kulturen Kartari eta Gutxiengo etnikoen eskubideen Kartari buruzko 1981eko urriaren 16ko Ebazpena izan zen. Ebazpen honen eta beste askoren testuaren berri izateko ikus, PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas en Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 647. eta hurrengo orr.

Esan bezala, bada, ebazpen hauen eragin juridikoa tamalez oso eskasa da. «Erresoluzio hauek gure ikuspegitik nahiko orokorrak izateaz gain, berez erresoluzio izateagatik gainean daramate beste zama bat: bere eraginkortasun eza. Erresoluzio hauek gomendio hutsak dira, autoritate moral eta iritzi publikoaren gain eragina izan dezaketenak baina juridikoki behartze-indarrrik ez dutenak<sup>27</sup>».

Europako Legebiltzarra bera izan zen Europako Batasunaren Batzordeari hedapen urriko hizkuntzen bulego bat sor zezan eskatu ziona. Honek eskakizuna begi onez ikusi zuen eta 1982an hedapen urriko hizkuntzen bulego hori zabaldu zuen. Bulegoaren estatutuen arabera<sup>28</sup>, erakunde honen helburu orokorra Europako Batasuneko gutxiengoaren hizkuntzak zaintzea eta sustatzea da. Estatutuek bulegoari ondoko funtzioak egozten dizkiote:

a) Hizkuntz gutxiengoaren arteko informazio eta ideien eskualdaketa ahalbidetzea.

b) Hizkuntz gutxiengoaren arazo eta lorpenei buruzko gizarte kontzientzia suspertzea.

d) Europako elkarteetako, estatu kideetako eta Europako Kontseiluko doakien erakundeen aurrean helburu orokorra erdiesteko beharrezkoak diren instantziak aurkeztea.

e) Helburu orokorra lortzekotan, proiektuen sustapena.

Ikusten denez, hortaz, Europako Batasun mailan hizkuntz gutxiengoaren alde ekintza garrantzitsuak burutu badira ere, hauek aurrez akats larri bat dute, alegia, estatu partaideak ez dituztela lotesten. Hori dela eta, erakunde hauek harturiko erabakiak adierazpen hutsal bilakatzen dira maiz.

---

(27) AGIRREAZKUENAGA, I. eta IRIONDO, X. Europar erakundeen jarrera hizkuntza gutxituekiko. *RVAP*, 34. zenb., 1994, 160. or.

(28) Estatutu hauen berri izateko ikus PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas en Europa occidental: documentos (1942-1989)* 699. eta hurrengo orr.

**II**  
**HEZKUNTZA-ESKUBIDEAK**  
**1978.EKO KONSTITUZIOAN ETA**  
**BEREN LEGE-ITXURAKETA**

## 2.1. HEZKUNTZAREN KONSTITUZIO ARAUKETA OROKORRA

1978ko Espainiako Konstituzioa (EK) alderdi politiko eta gizarte sektore desberdinen akordioaren emaitza izan zen. Ez zen batere erraza izan lortu ziren adostasun mailetara ailegatzea, aitzitik, lan neketsua izan zen. Esandakoaren adibiderik adierazgarriena, lehen zirriborroa agertu zenetik (urtarrilak 5) Estatuko Aldizkari Ofizialean azken erredakzioa argitaratu arte (abenduak 29) ia urtebete igaro izana da.

EKren eratze prozesu horretan, Estatuko lurralde antolaketa, monarkia eta Estatuaren harreman konfesionalekin batera, hezkuntza izan zen eztabaidagaririk garrantzitsuenetakoa; batez ere hezkuntza arloan erdigune eta funtsezkoa den 27. artikulua inguruan gertatu ziren liskar garratzenak.

27. artikulua gain, badira Konstituzioan hezkuntzaren arauketarekin nola edo hala zerikusirik duten hainbat artikulua. Batzuek hezkuntza arloari zuzenean aurre egiten diote, beste batzuek, ostera, hezkuntza zeharkago ikutzen dute. Horiek guztiek, Barnes Vázquezen esanetan, «código educativo constitucional» delakoa osatzen dute<sup>29</sup>. Ildo beretik abiatuz, Nicolás Muñizek Konstituzioan agertzen den hezkuntzari buruzko erregulazioa bost mailatan banatzen du artikulua bakoitzaren garrantzi juridikoaren arabera<sup>30</sup>:

---

(29) BARNES VÁZQUEZ, J. La Educación en la Constitución de 1978. *REDC*, 10. zenb., 1984, 24. or.

(30) NICOLÁS MUÑIZ, J. Los derechos fundamentales en materia educativa en la Constitución Española. *REDC*, 7. zenb., 1983, 342. eta hurrengo orr.

A)Goreneko mailan EKren 27. artikulua -geroago sakonean aztertuko duguna- eta adierazpen askatasunaren konkrezioa den katedra askatasunari buruzko 20.1 artikulua kokatzen ditu. Aipatutako artikuluek goi maila honetan kokatzearen arrazoiak bi dira autorearen eritziz: batetik, euren barne edukia hezkuntzaren arauketan funtsezkoa delako, eta bestetik beraien Konstituzio kokapenarengatik. Izan ere, atal hauek biak, oinarrizko eskubideei eta herri-askatasunei dagozkien I. tituluko II. kapituluaren I. sailean kokatuak daude. Lekupen horri esker, 27. eta 20.1 c) artikuluan aitortzen diren eskubideak, aginte publikoekiko goreneko arauzko eraginkortasuna edukitzeaz gain (53.1 art.<sup>31</sup>), jurisdikzio mailan babes berezia ere izango dute (53.2 art.<sup>32</sup>). Nicolás Muñizek aipatzen ez duen arren, horrezaz gain, beraien erreforma edo eraberriketarako bide berezia ere izango dute (168. art.).

Gailurreko multzo honetan, Nicolás Muñizek 35. artikulua ere sartzen du, zeinetan profesio eta bizibidea

---

(31) 53.1 «Los derechos y libertades reconocidos en el Capítulo segundo del presente Título vinculan a todos los poderes públicos. Sólo por ley, que en todo caso deberá respetar su contenido esencial, podrá regularse el ejercicio de tales derechos y libertades, que se tutelarán de acuerdo con lo previsto en el artículo 161.1.a).»

(32) 53.2 «Cualquier ciudadano podrá recabar la tutela de las libertades y derechos reconocidos en el artículo 14 y la Sección primera del Capítulo segundo ante los Tribunales ordinarios por un procedimiento basado en los principios de preferencia y sumariedad y, en su caso, a través del recurso de amparo ante el Tribunal Constitucional. Este último recurso será aplicable a la objeción de conciencia reconocida en el artículo 30.»

53.2 artikuluaeren lege-garapenik eza dela eta, oraindik Pertsonaren oinarrizko eskubideen babes jurisdikzionalari buruzko abenduaren 26ko 62/1978 Legea indarrean dago, arintasun eta aurretasun printzipioetan oinarritutako prozeduraren papera betez. Hasera batean prozedura judicial berezi horren babesetik kanpo geratu ziren arren, egun hezkuntz eskubideek ere prozedura berezi horren babesaz gozatzen dute. Izan ere, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaren bigarren erabaki iragankorrek babesbide horren ezarpen eremua babes eskeko errekurtoaz gozatzen duten eskubide guztietara hedatu zuen.



askatasunez aukeratzeko eskubidea aldarrikatzen den. Nolanahi ere, bere kokapena dela eta -II. saila-, 53.2 artikulua eskaintzen duen babes berezi hori ez du izango.

B) Bigarren mailan, hezkuntza eta irakaskuntza zuzenki ikutzen duten erlijio eta kontzientzi askatasunaz diharduen 16. artikulua legoke.

Honekin batera, politika sozial eta ekonomikoaren gida oinarriari buruzko sailean -II. ean- lekurik dauden 44. artikulua eta 39. artikulua bigarren multzo honetan sartzen ditu. Lehenengoak kultura eta ikerketa zientifiko eta teknikoaren sustapen eta babesari buruz dihardu eta bigarrenak haurtzaro eta gazteriaren alorra jorratzen du. Artikulu bi hauek, 16.ak ez bezala, aginte publikoetan eraginkortasun zuzenik ez badute ere, ardatz nagusi izango dira legeztapen positiboan, auzi-praktikan eta aginte publikoen ihardueran (EKren 53.3 art.<sup>33</sup>).

D) Hirugarren maila hau funtsezko eskubideez aritze-rakoan beti kontuan izan behar den «Konstituzio marko orokorra»k osatuko luke. Delako Konstituzio marko orokor hori Zuzenbidearen menpeko Estatu Sozial eta Demokratiko baten sostengu eta euskarri diren antolamendu jurikoaren gailurreko balio eta printzipioek osatzen dute.

Balio eta printzipio hauek oinarritzko eskubideak modulatzeko dituzte eta Estatuaren iharduera positiboaren beharra nabarmentzen dute, funtsezko eskubideen zentzu soziala areagotu nahirik. Marko orokor horren barne, Espainia Zuzenbidearen menpeko Estatu Sozial eta Demokratiko auzi-erantzulearen 1. artikulua, lege aurreko berdintasuna

---

(33) 53.3 «El reconocimiento, el respeto y la protección de los principios reconocidos en el Capítulo tercero informarán la legislación positiva, la práctica judicial y la actuación de los poderes públicos. Sólo podrán ser alegados ante la Jurisdicción ordinaria de acuerdo con lo que dispongan las leyes que lo desarrollen».

aldarrikatu eta gutxiespena debekatzeko duen 14. artikulua eta, azkenik, berdintasun sustantzialaren printzipioa jasotzen duen 9.2. artikulua leudeke.

E) Laugarren mailan, eta hezkuntzari eragiten dion neurrian, Estatuko lurralde antolaketaren erregulazioa egongo litzateke, 149.1.30. artikulua alegia.

F) Azkenengo mailan, Nicolás Muñizek, giza eskubideen babes-erregulazioa lekutzen du. Oraindik orain ikusitako 53. artikulua lehena eta bigarren azpitalekin batera, autoreak 81. artikulua kokatzen du. Honek herri askatasun eta funtsezko eskubideen garapena lege organiko bidez burutzeari beharra ezartzen du. Gorago esan bezala, babes-erregulazio honetan erreformabide kualifikatua arautzen duen 168. artikulua faltan aurkitzen dugu.

Nicolás Muñizek eginko sailkapena borobiltzeko, azkenik, dagoeneko ikusita dugun 10.2 artikulua aipatu besterik ez zaigu geratzen. Artikulu honen haritik, Konstituzioak jasotzen dituen funtsezko eskubide eta herri-askatasunen gaineko arauak Espainiak berretsiriko giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenen arabera interpretatuko dira.

## 2.2. KONSTITUZIOAREN 27. ARTIKULUA

### 2.2.1. Aurrekari historikoak

1812ko Kadizko Konstituzioak hezkuntza arloari titulu oso bat -IX.a- eskaini zion, «instrucción pública» izenburupean. Bere burua konfesionaltzat izanagatik, Kadizko Konstituzioak hezkuntza mailan ilustrazioaren ideiak isladatzen zituen. Hezkuntzaren alderdi soziala nabarmendu<sup>34</sup> eta ordurarte elizaren monopolioa

---

(34) 366. art.: «En todos los pueblos de la Monarquía se establecerán escuelas de primeras letras, en las que se enseñará a los niños a leer, escribir y

izan zen horretan, Estatuaren papera indartu zuen. Hala, erresuma osorako uniformea behar zuen irakaskuntzarako plan orokor bat ezarri<sup>35</sup> eta irakaskuntza osoaren ikuskaritza administrazioaren esku utzi zuen<sup>36</sup>; hori bai, beti ere irakaskuntzaren plangintzan eta antolakuntzan Gorteei zegozkien eskuduntzen kaltetan izan gabe<sup>37</sup>.

Isabel Erreginaren garaiko Konstituzioak -1937koa barne- ez ziren hezkuntza arloaz arduratu. Hala ere, garai hartako lege bat izan zen Espainiako Estatuan hezkuntza sistema modernoaren oinarriak -ia aldaketarik gabe 1970rarte iraun dutenak- finkatu zituen, Moyano Legea deritzan 1857ko irailaren 9ko *Ley de Instrucción Pública*, alegia.

Hezkuntza alorraren hurrengo agerpen konstituzionala 1869an izan zen. 1896.eko Konstituzioan liberal radikalen planteamenduak gailendu ziren, Kadizko Konstituzioa inspiratu zuten ideia ilustratuen kaltetan. Espainiako kondaira konstituzionalean lehenbiziko aldiz ikastetxeak sortu eta mantentzeko eskubideak aldarrikatu ziren. Izan ere, horiek ziren 1896ko Konstituzioak jasotzen zituen hezkuntza eskubide bakarrak.

24. art.: «Todo español podrá fundar y mantener establecimientos de instrucción o de educación, sin previa licencia, salvo la inspección de la autoridad competente, por razones de higiene y moralidad».

---

contar, y el catecismo de la religión católica, que comprenderá también una breve exposición de las obligaciones civiles».

367. art.: «Asimismo se arreglará y creará el número competente de universidades y de otros establecimientos de instrucción que se juzguen convenientes para la enseñanza de todas las ciencias, literaturas y bellas artes».

(35) 368. art.: «El plan general de enseñanza será uniforme en todo el Reino, debiendo explicarse la Constitución política de la Monarquía en todas las Universidades y establecimientos literarios donde se enseñen las ciencias eclesiásticas y políticas».

(36) 369. art.: «Habrà una dirección general de estudios, compuesta de personas de conocida instrucción, a cuyo cargo estará, bajo la autoridad del Gobierno, la inspección de la enseñanza pública».

(37) 370. art.: «Las Cortes, por medio de planes y estatutos especiales, arreglarán cuanto pertenezca al importante objeto de la instrucción pública».

Garai iraultzaileak eta lehen Errepublika ostean Berrezarkuntza izeneko aginte-moldea ezarri zen Espainian. Berrezarkuntza garaiko agintariak sektore politiko ezberdinen pretentsioak asetuko zituen Konstituzio formula bat lortzen saiatu ziren. Haren emaitza 1876.eko Konstituzioa izan zen. Honek hezkuntza arloa 12. artikuluan arautzen zuen.

12. art.: «Todo español podrá fundar y sostener establecimientos de instrucción o de educación con arreglo a las leyes.

Al Estado corresponde expedir los títulos profesionales y establecer las condiciones de los que pretendan obtenerlos y la forma en que habrán de probar su aptitud.

Una ley especial determinará los deberes de los profesores y las reglas a que ha de someterse la enseñanza en los establecimientos de instrucción pública costeados por el Estado, las provincias o pueblos».

Ikusten denez, 1869.eko Konstituzioari jarraiki, 1976.eko Konstituzioak ikastetxeak sortzeko eskubidea jasotzen zuen, alabaina, honakoan «sin previa licencia»ri buruzko aipamena isildu eta bere ordeaz «con arreglo a las leyes»arena jaso zuen. Hortaz, 1869koak ez bezala, 1876ko Konstituzioak legegileari ikastetxeak sortzeko eskubidea mugatzeko aukera ematen zion. Horrez gain, titulu profesionalak eman eta luzatzeko ahalmena Estatuaren esku uzten zuen eta baita haiek eskuratzeko baldintzen finkapenarena ere. Azkenik, aginte publikoek diruz langunduriko ikastetxeek eta bertako irakasleek bete beharreko betebeharrak eta arauak lege bidez erregulatuko zirela esaten zuen.

1931.eko Errepublikako Konstituzioak ordurarte hezkuntza gaiari eman zitzaion tratamendua kolpetik aldatu zuen. Bertan

---

(38) 48. art.: «El servicio de la cultura es atribución esencial del Estado, y lo prestará mediante instituciones educativas enlazadas por el sistema de la escuela unificada.

La enseñanza primaria será gratuita y obligatoria.

Los maestros, profesores y catedráticos de la enseñanza oficial son funcionarios públicos. La libertad de cátedra queda reconocida y garantizada.

La enseñanza será laica, hará del trabajo el eje de su actividad metodológica y se inspirará en ideales de solidaridad humana.

Se reconoce a las Iglesias el derecho, sujeto a inspección del Estado, de enseñar sus respectivas doctrinas en sus propios establecimientos.»

hezkuntzarako eskubidea eskubide sozial legez itxuratu zen<sup>38</sup>. Irakaskuntza Estatuari bakarrik zegokion zerbitzu publikotzat jo zen. Ikastetxe pribatuak ere ametitzen ziren, baina Estatuak aurrez baimena ematea ezinbestekoa zuten. Irakaskuntzak laikoa eta bateratua behar zuten, eta erlijio-ordenei irakaskuntza egikaritzea debekatu zitzaien<sup>39</sup>. Bestalde, lehenbiziko aldiz lehen irakaskuntza dohakoa eta derrigorrezkoa izan zedin agindu zen.

Francoren diktaduraren etorrerarekin 1931.eko Konstituzioa suntsitu zen. Haren ordean, *Leyes fundamentales del Reino* delakoak indarrean jarri ziren. Hauen artean, bi ziren hezkuntza arloa garatzen zutenak: *Fuero de los Españoles*en 5. artikulua eta *Ley de principios del Movimiento Nacional*en IX. puntua. Lehenengoaren arabera «Todos los españoles tienen derecho a recibir educación e instrucción y el deber de adquirirlos, bien en el seno de la familia o en centros privados o públicos...», eta bigarrenaren hitzetan «Todos los españoles tienen derecho (...) a una educación general y profesional que nunca podrá dejar de recibirse por falta de medios materiales».

Ohartuko zinetenez, prezeptu hauetan ez da irakaskuntza askatasuna aipatzen, dena dela, omisio hau legedi arruntak bete zuten 1970.eko Hezkuntzarako Lege Orokorraren (LGE) bitartez. Lege honek hiritar guztiei ikastetxeak sortu eta mantentzeko eskubidea aitortzen zien; modu berean, indarreko legediaren ildotik antolaturiko ikastetxeen artean gogokoen zutena hautatzeko parada ematen zien gurasoei (5. art.).

### 2.2.2. Eratze prozesua

Jakina dugunez, 27. artikulua Parlamentuz kanpoko adostasunaren emaitza izan zen. Bat-etortze hau Konstituzio

---

(39) 26. art.: «Las demás Órdenes religiosas se someterán a una ley especial votada por estas Cortes Constituyentes y ajustada a las siguientes bases: (...)

4º. Prohibición de ejercer la industria, el comercio o la enseñanza».

aurregitasmoaren legebiltzar eztabaida hasi eta gutxira gauzatu zen bi gutxiengo nagusien artean, sozialisten (PSOE) eta zentristen (UCD) artean alegia.

Hezkuntza arloa arautzen zuen aurregitasmoaren 28. artikulua<sup>40</sup> oso aldaketa gutxi jasan zuen Konstituzio eratze prozesua osatu zuten izapide desberdinetan. Izan ere, hiru aldaketa soilik jasan zituen, baina murrizt bezain garrantzitsuak. Batetik, hezkuntzarako eskubidearekin batera irakaskuntza askatasuna jaso zen. Bestetik, diru-publikoz lagundutako ikastetxeetan parte hartzeko eskubidearen edukia eta baldintzak arautu zitezten, legera bertara jo zen. Azkenik, Unibertsitate autonomiaren arauketa indartsuago bat egin zen.

Aurregitasmoa Kongresuko Konstituzio Arazoen eta Askatasun Publikoen Batzordera bidali zen. Hango ponentzia batek

---

(40) 28.1. «Todos tienen derecho a la educación.

2. La educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana en el respeto a los principios democráticos de convivencia y a los derechos y libertades fundamentales.

3. Los poderes públicos garantizan el derecho que asiste a los padres para que sus hijos reciban la formación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones religiosas.

4. La enseñanza básica es obligatoria y gratuita.

5. Los poderes públicos garantizan el derecho de todos a la educación, mediante una programación general de la enseñanza, con participación efectiva de todos los sectores afectados y la creación de centros docentes.

6. Se reconoce a las personas físicas y jurídicas la libertad de creación de centros docentes, dentro del respeto a los principios constitucionales.

7. Los profesores, los padres y, en su caso, los alumnos intervendrán en el control y gestión de todos los centros sostenidos por la Administración con fondos públicos.

8. Los poderes públicos inspeccionarán y homologarán el sistema educativo para garantizar el cumplimiento de las leyes.

9. Los poderes públicos ayudarán a los centros docentes que reúnan los requisitos que la ley establece.

10. La ley regulará la autonomía de las universidades.»

testua aztertu eta txosten bat atera zuen. Txosten hura oinarritzat hartuta, Batzordeak bere irizpena atera zuen. Berau Kongresuko osoko bilkuran eta Senatuan inolako aldaketa pairatu barik, behin-betiko testu bihurtu zen<sup>41</sup>. 27. artikulua azken erredakzioak honela dio hitzez hitz:

27.1 art.: «Todos tienen el derecho a la educación. Se reconoce la libertad de enseñanza.

2. La educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana en el respeto a los principios democráticos de convivencia y a los derechos y libertades fundamentales.

3. Los poderes públicos garantizan el derecho que asiste a los padres para que sus hijos reciban la formación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones.

4. La enseñanza básica es obligatoria y gratuita.

5. Los poderes públicos garantizan el derecho de todos a la educación, mediante una programación general de la enseñanza, con participación efectiva de todos los sectores afectados y la creación de centros docentes.

6. Se reconoce a las personas físicas y jurídicas la libertad de creación de centros docentes, dentro del respeto a los principios constitucionales.

7. Los profesores, los padres y, en su caso, los alumnos, intervendrán en el control y gestión de todos los centros sostenidos por la Administración con fondos públicos, en los términos que la ley establezca.

8. Los poderes públicos inspeccionarán y homologarán el sistema educativo para garantizar el cumplimiento de las leyes.

9. Los poderes públicos ayudarán a los centros docentes que reúnan los requisitos que la ley establezca.

10. Se reconoce la autonomía de las Universidades, en los términos que la ley establezca».

Esan bezala, 27. artikulua hezkuntza sistema kontrajarriak defendatzen zituzten bi sektore desberdinen bat-etortzearen emaitza izan zen. Adostasun horretara ailega zitezten, beren

---

(41) Eratze prozedurari buruzko datuak aurkitzeko ikus, besteak beste: *Constitución Española. Trabajos parlamentarios* (4 volúmenes). Madrid: Servicio de publicaciones de las Cortes Generales, 1980; ZUMAQUERO, J.M. *Los derechos educativos en la Constitución española*. Pamplona: Universidad de Navarra, 1984, 25. or. eta hurrengoak; eta garaiko prentsa, maiatzaren 23tik aurrerakoa, zeren, esan dugun moduan, 27. artikulua eringuruan batez ere parlamentuz kanpoko adostasuna izan baitzen nagusi.

erreibindikapen batzuk alde batera utzi zituzten. Gure hezkuntza arauketaren funts eta harroin den EKren 27. artikulua ulermenerako argigarri izango zaizuelakoan, eman ditzagun, bada, bi korrante kontrajarri nagusi horiek defendatzen zituzten hezkuntza erduei buruzko zertzelada orokor batzuk.

a) Zentristek eta eskuineko indarrek defendatutako hezkuntza proiektua:

Irakaskuntza askatasuna hezkuntza sistemaren giltzarritzat hartuta, kanpo aniztasunezko hezkuntza sistemaren alde agertzen ziren. Hau da, nork bere balio eta pentsakerekin bat datorren heziketa mota aukeratzeko eskubideari lehentasuna ematen zioten. Eurentzako eskubide hau ziurtatzeko biderik egokiena ikastetxeak sortu eta zuzentzeko aukera, funtsean, ekimen pribatuaren esku uztea zen. Horrela ikastetxe pribatuen jabeen papera indartu gura zuten, irakaskuntzan parte hartzen duten beste sektore desberdinen -gurasoak, ikasleak, irakasleak, e.a.- kaltetan. Horretarako Estatuak ekimen pribatua bultzatu beharko zuen, dirulaguntzen sistema aproposa antolatuz. Ikastetxe-sorkuntzan Estatuaren paperak osagarria eta ordezkoa behar zuen. Ekimen pribatuak ateratako hezkuntza-eskaintza gurasoen eskariak asetzeko aski izango ez balitz soilik emango litzaioke Estatuari ikastetxeak sortzeko aukera. Izan ere, hezkuntza proiektu honekin, zeharka baten ere, Elizak hezkuntza pribatuan ordurarte izan zuen nagusitzari eutsi nahi zioten zentristek.

Bestalde, hauek, marxistek ez bezala, irakaskuntza ezin zitekeela neutrala izan pentsatzen zuten, eurentzat irakaskuntzak halaberrez balio eskualdaketa baitzekarren.

b) Ezkertiarrek defendatutako hezkuntza proiektua:

Marxismoak eskola eredu bakarra defendatzen zuen, laikoa, zientifista, estatala eta neutroa, hots, jakinduriaren transmisioan aseptikoa zena. Hala ere, sozialistek eskola eredu hura gainditu eta zentralizatu gabeko eskola



autokudeatzailearen alde egin zuten apostu. Kanpo aniztasuna baztertu eta barne aniztasunezko irakaskuntza proposatzen zuten. Eskolen aniztasuna ez, baizik eta eskola bakarra baina anitza eraiki nahi zuten, guztion hezkuntza berdintasunezko baldintzetan ziurtatua gera zedin.

Elizak irakaskuntzan izandako nagusitzarekin amaitu nahi zuten. Marxistek ez bezala, jakintzaren eskualdaketan balioen transmisioa onartzen zuten baina ez, ordea, aurrez finkaturiko erabateko balio erlijioso, moral edo ekonomikorik.

Hezkuntza zerbitzu publiko modura antolatzea zen euren guraria, hezkuntzaren monopolioa Estatuaren esku utzita. Horretarako ikastetxe pribatuen dirulaguntzak moztuz joango ziren, harik eta arian-arian eskola pribatua desagertarazi arte.

Ikastetxeen antolaketak eta funtzionamenduak autokudeatzailea eta zentralizatu gabea behar zuen, ikastetxea eskola elkarte osatzen duten kide guztien askatasunen bilgune bihurtuz. Hezkuntza arloan zeresanik duten sektore edo sail ororen partaidetza bultzatuko zen, hauek ikastetxeen benetako gidariak izan zitezten.

Bi korrante nagusien jarrerari gainbegiratu orokor eta azalekoa eman eta gero, gatozen delako «eskola paktua» burutu zuten bi gutxiengo nagusien -sozialista eta zentrista- elkarren arteko emakidek 27. artikuluan zein eragin izan zuten aztertzeraz. Horretarako De Puellesen hitzak gureak egingo ditugu:

«La simple lectura del artículo 27 de la nueva Constitución nos indica la naturaleza del pacto. Los apartados quinto -participación de los sectores afectados en la programación general de la enseñanza- y séptimo -control de padres, profesores y alumnos en la gestión de los centros subvencionados-, son claramente una concesión del partido centrista al partido socialista, transacción que posibilita constitucionalmente la cogestión democrática de la

educación en el posible supuesto de un gobierno socialista. A cambio, el partido socialista ha cedido en los apartados primero -reconocimiento de la libertad de enseñanza-, cuarto -expresa libertad de creación de centros- y noveno -expresa proclamación del régimen de ayudas a los centros privados-. De este modo, los socialistas han renunciado al principio de la escuela pública unificada, de tanta tradición en sus cien años de historia, aceptando la existencia de una red dual de establecimientos docentes. Han renunciado también a la idea de una escuela laica de carácter excluyente, aceptando, como todos los demás partidos, el apartado tercero que consagra el derecho de los padres a que sus hijos reciban la formación religiosa o moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones»<sup>42</sup>.

Edonola ere, 27. artikulua inguruan lortutako adostasunak ez zuen luzaroan iraun. Zentristek euren kontzesio funtsezkoenak berpiztu nahian, Senatuan izandako izapideetan 10.2 artikulua proposatu eta onartu zuten, sozialistak harriturik utziz. Artikulu honi jarraiki, Konstituzioan jasotzen diren funtsezko eskubideak interpretatzerako orduan Espainiak berretsiriko nazioarteko hitzarmenak kontuan hartu behar izango dira. Horrela, bada, Konstituzio proiektuan agertu eta akordioaren ondorioz Konstituzio erredakziotik kanpo geratu ziren eskubideak berreskuratu nahi izan zituzten: alegia, ikastetxeak zuzentzeko eskubidea (EGKENPren 13.4 art.) eta gurasoen irakaskuntza mota aukeratzeko eskubidea (GEAUREn 26.3 art., IMGAHren 5.1.b) art., EGKENPren 13.3 art. eta EGEHren lehen protokolo gehigarriaren 2. art.).

Orain artean ikusitakoa zentzu metaforikoan laburbilduz, 27. artikulua arkitektura kontzepzio kontrajarriak uztartuz jasotako eraikina dela esan daiteke. Izan ere, hezkuntza arloan erdigunea den artikulua honen ulermen egokia izateko, Konstituzio garaian

---

(42) PUELLES BENÍTEZ, M. de. *Educación e ideología en la España contemporánea*. Madrid, 1980, 488-489. orr.

bizirikoko egoera aintzat hartzea nahitaezkoa da. Adostasuna beharrezkoa egiten zen eta Konstituziogileak inoren garaipenik ez galerarik eragingo ez zuen testua lortzen saiatu ziren, eta, oro har, baita lortu ere. Garaiko estutasunetik ateratzeko testu orokor eta moldakor bat eratu zen, «gutxienezko baldintza markoa» finkatu eta etorkizuneko legegilearen konfigurazio ahalmenaren esku hezkuntza sistemaren eraketa uzten zuena<sup>43</sup>. Hitz laburrez, arazoa kirtenetik hartu beharrean gerorako gibeleratu zen.

Ondorioz, 27. artikulua garapen legislatiboari ekin zitzaion uneetan Konstituzio garaiko adostasuna zokoratu eta Konstituzio aurreko tirabirak berpiztu ziren, hain zuzen ere, beraien legebiltzar nagusitasunaz baliatuz eskumatarrek 1980ko Ikastetxeen Estatutuaren Lege Organikoa (LOECE) lehenbizi, eta sozialistek 1985eko Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoa (LODE) indarrean jarri zituztenean. Bi hezkuntza sistema kontrajarrietan oinarritzen ziren arren, funtsezko lege bi hauek Konstituzio Auzitegiaren aurrean «Konstituzio-froga» bestelako arazorik gabe gainditu zuten. Legezkotasun froga hori gainditu izana da ezbairik gabe 27. artikulua moldakortasun eta malgutasunaren adibiderik adierazgarriena.

Esanak esan, bere eratze prozedura berezia dela eta 27. artikulua anbigutasunak eta kontraesanek jota dagoela pentsa dezake norbaitek. Hala ere, gure aburuz, nahiz eta Konstituziogile taldeen helburuak nolana hikoak izan, 27. artikulua testu aski koherente eta sistematikoa da, legegileari garatzea egokituko zaion marko orokor zehatza ezartzen duena.

---

(43) GÓMEZ ORFANELen hitzak geureganatuz, «el artículo 27 de nuestra Constitución es uno de los preceptos más polémicos de la misma, habiéndose pretendido con su redacción alcanzar una fórmula de compromiso que aun no satisfaciendo plenamente a los diferentes grupos políticos, posibilitaría, según fuese la orientación política del partido o partidos que ocupasen el Poder, la potenciación de determinados aspectos en detrimento de otros, mediante el oportuno desarrollo legislativo». GÓMEZ ORFANEL, G. Derecho a la educación y libertad de enseñanza. Naturaleza y contenido. *REDC*, 7. zenb., 1983, 411. or.

### 2.2.3. Izaera juridikoa

27. artikulua osatzen duten hezkuntza eskubide desberdin guztiak hezkuntzarako eskubidearen kontzeptuaren barnean sartu ohi dira. Nolanahi ere, bada hezkuntza eskubidearen kontzeptu hertsiago bat, EKren 27. artikuluan azaltzen diren gainerako hezkuntza eskubideetatik -hala nola, irakaskuntza askatasuna, hezkuntza aukeratzeko eskubidea, ikastetxeak sortzeko eskubidea...- bereiz daitekeena eta 27.1, 27.4 eta 27.5 prezeptuetan gauzatzen dena.

Aurrez ohar hau egin eta gero, gatozen atal honi dagokion mamira, hots, hezkuntza eskubideen izaera juridikoaren gaia jorratzera. 27. artikuluan agertzen diren hezkuntza eskubideen izaera juridikoari buruzko iritziak ezberdinak dira hezkuntza arloa jorratu duten autoreen artean.

Gehiengo batek hezkuntzarako eskubidea batetik, eta gainontzeko hezkuntza eskubideak bestetik, bereizten ditu. Hauen aburuz, hezkuntzarako eskubidea prestazio eskubide sozial gisa hezurmamitu da gure Konstituzioan. Prestazio eskubidea izaki, bere alde aginte publikoek prestazio edo iharduera positibo bat egin dezaten esijitzeko ahalmena ematen dio hiritarrari.

27. artikuluan agertzen diren gainontzeko hezkuntza eskubideak, ostera, hezkuntzarako eskubidea ez bezala, askatasun eskubideen gisara tajutu dira. Historikoki giza eskubide klasikotzat jo diren hauek, aginte publikoei prestazio bat esijitzeko biderik ematen ez badute ere, Estatuaren injerentzia galerazita izango den askatasun esparru bat bermatzen diote hiritarrari. Labur esateko, prestazio eskubideak Estatuaren iharduera positiboa eragiten duten bitartean, askatasun eskubideak Estatuaren inhibizioa edo iharduera negatiboa dakarte.

Espainiako Konstituzioan, printzipioz, askatasun eskubideak I. tituluko I. kapituluaren I. sailean arautzen dira; aldiz, prestazio eskubide sozialak titulu bereko III. kapituluaren kokatuak daude. Beno ba, hezkuntzarako eskubidearen kasuan bitxikeria bat azaltzen zaigu, izan ere, hezkuntzarako eskubidea zentzu

materialean eskubide soziala omen da, baina halere, printzipioz askatasun eskubideei dagozkien I. sailean jaso dago.

Egia esan, hezkuntzarako eskubidearen lekutze konstituzionalak bere izaera juridikoaren ulermenari ez dio mesede handirik egiten. Autore askok<sup>44</sup> lekutze hau zorrozki kritikatu dute. Hauen tzat aipatutako eskubidea prestazio eskubide sozial bat izanik, ez dagokio «funtsezko eskubide eta herri askatasun»-en sailean egoitea, bertan askatasun eskubideak soilik egon behar luketelako. Alzagaren hitzetan, «el derecho a la educación no es, desde luego, ninguna libertad pública, y se debió haber consagrado en la sección 2ª, o incluso en el capítulo 3º.»<sup>45</sup>

Hezkuntzarako eskubideen kokapenaren kontua ez da zirtzilkeria, kokapen horrek eskubidearen eraginkortasun juridikoa zuzenki baldintzatzen du eta. Dagoeneko ikusi moduan, II. kapituluko I. sailean aldarrikatutako eskubideek aginte publikoak zuzenean lotetsi ez ezik (53.1 art.), epaitegien babes berezia (53.2 art.) ere badute. Ostera, eskubide sozialen berezko kokagunea den III. kapituluan jasotako eskubideen eraginkortasun juridikoa dezente txikiagoa da; hauek legegintza positiboa, aginte publikoen iharduera eta auzi-praktika «informatu» bakarrik egiten dute eta jurisdikzio arruntaren aurrean alegatuak izan daitezten aurretiaz legez garatuak behar dute izan (53.3 art.).

Orduan planteatzen zaigun auzia zera da: 53. artikulua argitan, zein izango da hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasun juridikoa? Hau da, Konstituzioaren tenoreari jarraiki, 53.2 artikulua aplikagarria izango zaio ala, bestela, zentzu materialean prestazio eskubide soziala den neurrian 53.3 artikulua aplikatuko zaio?

Saia gaitezen apurka-apurka korapiloa askatzen. Esan bezala, eskubide sozialek edo prestazio eskubideek Estatuaren aldetik

---

(44) Besteak beste, GARRIDO FALLA, F. *Comentarios al artículo 27*. In *Comentarios a la Constitución*. Madrid: Civitas, 1980, 545 eta 549. orr.; ALZAGA, O. *La Constitución española de 1978*. (Comentario sistemático). Madrid: Foro, 1978, 255 eta 256. orr.

(45) ALZAGA, O. *La Constitución española de 1978*, 255. or.

iharduera positiboa jasotzeko ahalmena ematen diote hiritarrari. Uler daitekeenez, Estatuak ezin ditzake hiritarren prestazio eskubide guztiak noiznahi eta nolannahi ase. Estatuak eskubide horiek era organizatu eta arautuaren bitartez ase beharko ditu, eta horretarako aldez aurretik kasuan kasuko zerbitzu publikoak sortu eta antolatu beharko ditu. Eta, jakina, zerbitzu publiko baten sorkuntzak borondate politiko eta artikulazio juridiko egokia ez ezik, zerbitzu hori eraginkortasunez aurrera eramateko lain finantzabide ere eskatzen ditu. Bestela esanda, prestazio eskubideen eragingarritasuna Estatuak momentu bakoitzean eskueran dituen bitarteko eta baliabide ekonomikoek baldintzatuko dute<sup>46</sup>.

Mundu gerren arteko mendebaldeko Konstituziogileek baldintza hori gogoan izan zuten, eta prestazio eskubide sozialak legegileei igorritako printzipio eta arteztarau gisa formulatu zituzten, eta ez zuzenean esiji zitezkeen eskubide subjektibo publiko gisa. 1978.eko Espainiako Konstituziogileek ildo berari eutsi eta lege garapena behar zuten printzipio eta arteztarauen gisara konfiguratu zituzten eskubide sozialak, hori bai, salbuespen batekin. EKren 27.1, 27.4 eta 27.5 artikuluetan arautua dagoen hezkuntzarako eskubideaz ari gara, noski. Hala, nahiz eta edukiz eskubide soziala izan, Espainiako Konstituziogileek hezkuntzarako eskubidea printzipio edo arteztarau bezala konfiguratu beharrean eskubide subjektibo baten gisara eratu zuten. Horra zergatik: Konstituziogileak ordurako hezkuntza zerbitzu publikoa antolaturik zegoela ikusirik, eta Estatuak hiritarren hezkuntza eskariei aurre egiteko nahikoa baliabide ekonomiko, pertsonal eta material eskueran zituela kontuan izanik, hezkuntzarako eskubidea

---

(46) «Se ha dicho, y con razón, que mientras que las libertades son gratis, los derechos sociales son muy caros. La efectiva garantía de estos derechos sociales implica la asignación de ingentes cantidades de recursos a determinados servicios públicos». GONZÁLEZ AMUCHÁSTEGUI, J. Los derechos sociales y su protección en la Constitución. In *Jornadas de Derechos Humanos y Marginación* (Cruz Roja Española). Madrid: Gamma, 1991, 45. or.

aginte publiko eta auzitegien aurrean zuzenean esijigarria zen (53.2 art.) eskubide subjektibo publiko gisa itxuratzen ausartu ei ziren.

Hortaz, bestelako iritzirik bada ere<sup>47</sup>, gure uste apalean, 27. artikulua egiten duen aitorenak eta 53. artikulua edukia ez dute zalantzetarako leku askorik uzten: askatasun eskubidea ez, baizik prestazio eskubide soziala izan arren, Konstituziogileek hezkuntzarako eskubidea zuzenean esijigarria den eskubide subjektibo publiko bezala konfiguratu zuten eta ez III. kapituluaz azaltzen diren garatu gabeko printzipio sozial horietako baten antzera.

Edozein kasutan, askatasun publiko eta eskubide sozialen bikoiztasuna gaur egun kolokan dago. Gero eta gehiago dira funtsezko eskubide orotan aspektu soziala dagoela pentsatzen duten autoreak. Eurentzat eskubide sozial eta askatasun eskubideen arteko diferentzia ez da esentziala, graduala baino. Embid Irujok dioenez, egun giza eskubideen babes-sistemaren kontzeptioa aldatu da, «hoy se tiende menos a asegurar la libertad de inmisiones estatales que a posibilitar por medio de medidas estatales un potencial plus de libertad individual del que todos puedan hacer uso efectivo»<sup>48</sup>.

---

(47) GÓMEZ ORFANEK hezkuntzarako eskubidearen eraginkortasuna, bere kokapen konstituzionalek baino bere prestazio eskubide sozialaren izaera materialek ondorioztatzen duela ematen du. Berak dioenez, «para un gran sector de la doctrina el derecho a la educación es un derecho social, no un derecho de libertad o libertad pública que justifique una abstención de intervención por parte de los poderes públicos, sino, por el contrario, título para la exigencia de actividades positivas de prestación, sin olvidar que en nuestro ordenamiento jurídico los derechos sociales ‘sólo podrán ser alegados ante la jurisdicción ordinaria de acuerdo con lo que disponen las leyes que los desarrollen’ (art. 53.3) sin que tengan directamente un carácter de derechos públicos subjetivos». GÓMEZ ORFANEL, G. Derecho a la educación y libertad de enseñanza. Naturaleza y contenido. *REDC*, 1983, 7. zenb., 416. or.

(48) EMBID IRUJO, A. El contenido esencial del derecho a la educación. *REDA*, 1981, 31. zenb., 656. or.

Bestela esanda, ez da nahikoa Estatuak askatasun eremua bermatzea, askatasun hori eguneroko errealitatean benetan egikarigarria izan dadin Estatuak neurri positiboak ere hartu behar izango ditu. Horixe da, izan ere, Konstituzioaren 9.2. artikulua zentzua, gizabanako zein gizataldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen baldintzak sustatzea aginte publikoei dagokiela esaten duenean.

Edozelan ere, Embid Irujok Estatuaren egonkortasunarentzat printzipio hau azken ondorioetara eramateak ekar dezakeen arriskuaz ohartarazten digu. Bere ustez, Konstituzioan jasota dauden funtsezko eskubideetatik laguntza publiko pretentsioak neurrigabe ondorioztatzeak aurrekontu legeetan sortuko lukeen binkulazioak Estatuaren gaitasun ekonomikoa seriooki kolokan jarriko luke. Arazo honi aurre egiteko Tomaldek eskubide sozialen arauketa lege arruntez eta ez Konstituzio bidetik egitea proposatzen du<sup>49</sup>.

#### 2.2.4. Hezkuntza-eskubideak

##### A) Hezkuntzarako eskubidea

Hezkuntzarako eskubidea usuenik bi zentzutan erabiltzen dugu. Zentzu zabalean hezkuntzarako eskubideak 27. artikulua osatzen duten hezkuntza eskubide guzti-guztiak barne hartzen ditu. Zentzu hertsian, ostera, hezkuntza jasotzeko eskubidea prestazio eskubidea da, askatasun eskubide izaera duten gainerako hezkuntza eskubideetatik bereiz daitekeena. Atal honetan, hezkuntzarako eskubidea bere zentzu hertsian izango dugu aztergai (27.1, 27.4 eta 27.5 artikulua), gainerako hezkuntza askatasun eskubideak -irakaskuntza askatasuna, ikastetxeak sortzeko eskubidea, heziketa mota aukeratzeko eskubidea, katedra askatasuna, eta abar-gerorako utziz.

---

(49) Ikus EMBID IRUJO, A. El contenido del derecho a la educación, 657. or.



## KONTZEPTUA

Hezkuntza kontzeptua finkatzea ez da eginbide samurra; hori dela eta, ez da harritzekoa gai honen inguruko doktrinan ahobatasunik ez azaltzea. Agian, Hans Fallerrek arrazoia du hezkuntzaren behin-betiko definizioz ez dagoela esaten duenean, hezkuntzaren edukiak etengabeko bilakaeran diharduelako<sup>50</sup>.

Maiz irakaskuntza eta hezkuntza kontzeptuak elkar trukutzen ditugu, sinonimoak bailiren. Baina Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazia duen legez<sup>51</sup>, irakaskuntza eta hezkuntza ez dira gauza bera. Irakaskuntza jakinduriaren transmisioan denboran zehar segida bat jarraitzen duen prozesua da. Hezkuntza, ostera, hori baino zerbait gehiago da: giza heziketa<sup>52</sup>. Jakintza transmititzeaz gain, hezkuntzak gizakia gizatasunean ere hezitu behar du. Hezkuntzak eguneroko errealitatea epaitzeko eta egoera bakoitzean zer egin behar duten erabakitzeko irizpide propioak dituzten gizaki askeak sortu behar ditu. Horretarako hezkuntzak errealitatea interpretatzeko bizitzaren kontzepzio jakin bat eta balio-hierarkia konkretu bat eskaini beharko dizkio gizabanakoari.

Jakintzaren eskualdaketa edo transmisioa eta giza heziketa bananezinezko harremanean murgildurik daude, beraz<sup>53</sup>. Estatuko

---

(50) FALLER, H.J. El derecho a la educación en la RFA. *REDC*, 1983, 7. zenb., 14. or.

(51) «La educación comprende todo el proceso mediante el cual, en toda sociedad, los adultos tratan de transmitir sus creencias, su cultura y otros valores a los jóvenes, mientras que la enseñanza o instrucción se refiere, en particular, a la transmisión de conocimientos y a desarrollo intelectual» (1982ko otsailaren 25eko Epaia, Campbell eta Cosans kasua).

Bestalde, Konstituzio Auzitegiak irakaskuntza honela definitu du: «es la actividad encaminada de modo sistemático y con un mínimo de continuidad a la transmisión de un determinado cuerpo de conocimientos y valores.» (KAre otsailaren 13ko 5/1981 Epaia, 7. oinarri juridikoa).

(52) Zentzu horretan ikus BARNES VÁZQUEZ, J. La educación en la Constitución de 1978. *REDC*, 1979, 41-43. orr.

(53) FERNÁNDEZ MIRANDA y CAMPOAMORren hitzetan: «Como abstracción analítica la distinción entre educación y enseñanza puede ser posible y, aun útil para distinguir la formación del aprendizaje. Ahora bien,

legegileek harreman hori gogoan izan dute eta horren lekuko 1990.eko Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoaren (LOGSE) hitzaurrea dugu:

«El objetivo primero y fundamental de la educación es el de proporcionar a los niños y niñas, a los jóvenes de uno y otro sexo, una formación plena que les permita conformar su propia y esencial identidad, así como construir una concepción de la realidad que integre a la vez el conocimiento y la valoración ética y moral de la misma».

Laburbilduz, hezkuntzarako eskubidea, jakintza transmititzeaz gain, bizitzaren kontzepzio jakin batetik eta balio-hierarkia konkretu baten arabera errealitatea interpretatzeko bidea ere eskaintzen duen eskubidea litzateke.

### SUBJEKTUA

Hezkuntzarako eskubidearen titulartasuna «guztioi» dagokigu, izan ere, 27.1 artikulua dioenez «guztiekin dute hezkuntzarako eskubidea».

Hezkuntza jasotzeko eskubidea ez da naziotasun espainiarra duten hiritarretara mugatzen, atzerritarrek ere eskubide horren jabe dira. Hauen titulartasunaren baldintzak nazioarteko hitzarmenak eta EKren 13.1.<sup>54</sup> artikulua garapenerako indarrean jarritako legeek finkatuko dituzte. Hala, bada, bere garaian LOECEk egin zuenaren antzera, LODEk bere egoitza Espainian duten atzerritarrei naziotasun espainiarra duten hiritarrei aitorturiko

---

empíricamente el fenómeno se presenta como una realidad inescindible.(...) No hay educación sin transmisión de conocimientos ni enseñanza sin transmisión de valores». FERNÁNDEZ MIRANDA y CAMPOAMOR, *De la libertad de enseñanza al derecho a la educación*. Madrid: Centro de Estudios Ramón Areces, 1988, 95. or.

- (54) 13.1 art.: «Los extranjeros gozarán en España de las libertades públicas que garantiza el presente Título en los términos que establezcan los tratados y la ley.»

hezkuntza eskubide berberak aitortzen dizkie, alegia, oinarrizko eta goi-mailako hezkuntza jasotzeko eskubidea (1.3 art.).

### *OBJEKTUA*

Eskubide honen objektua «denboran zehar luzatzen den prozesu baten bitartez transmitigarria izan daitekeen edozein jakintza» dela esan du norbaitek. Hala ere, hezkuntzarako eskubidea guztioi aitortutako eskubidea dela kontuan izanik eta bere eraginkortasuna zerbitzu publiko baten antolaketak baldintzatzen duela onartzen dugun neurrian, horrelako baieztapen bat egitea gehiegizkoa iruditzen zaigu. Hezkuntzarako eskubidearen objektua hezkuntza sistema osatzen duten arauzko irakaskuntzak dira, irakaskuntzaren programazio orokorraren bitartez aginte publikoek eskaintzen dituztenak<sup>55</sup>. Hori dela eta, Estatuaren programaziotik kanpo dauden irakaskuntzek prestazio eskubide publiko honen objektua ez dute osatuko, eta jakina, hiritarrek ez dute irakaskuntza horiek aginte publikoen aurrean esijitzerik izango.

### *HELBURUA*

Hezkuntzarako eskubideak bermatzen dituen hezkuntza ezin daiteke edonolakoa izan, beti ere 27.2 artikuluan ezartzen zaion helburura moldatu beharko du: giza nortasunaren erabateko garapena erdiestea.

27.2 art.: «La educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana en el respeto a los principios democráticos de convivencia y los derechos y libertades fundamentales.»

Artikulu hau, eduki aldetik ondo antzerakoak diren Giza Eskubideen Aitorpen Unibertsaleko 26.2. artikuluekin, Ekonomia-, Gizarte- eta Kultur- Eskubideen Nazioarteko

---

(55) 27.5 art.: «Los poderes públicos garantizan el derecho de todos a la educación, mediante una programación general de la enseñanza...»

Paktuaren 13.1 artikularekin eta Irakaskuntza Mailako Gutxiespenaren Aurkako 5.1.a) artikularekin osotu beharra dago.

Bestalde, LODEk bere 2. artikuluan Konstituzioan eta nazioarteko testuetan jasotako hezkuntza helburu horiek garatu ditu:

2. art.: «La actividad educativa, orientada por los principios y declaraciones de la Constitución, tendrá, en los centros docentes a que se refiere la presente Ley, los siguientes fines:

- a) El pleno desarrollo de la personalidad del alumno.
- b) La formación en el respeto de los derechos y libertades fundamentales y en el ejercicio de la tolerancia y de la libertad dentro de los principios democráticos de convivencia.
- d) La adquisición de hábitos intelectuales y técnicas de trabajo, así como de conocimientos científicos, técnicos, humanísticos, históricos y estéticos.
- e) La capacitación para el ejercicio de actividades profesionales.
- f) La formación en el respeto de la pluralidad lingüística y cultural de España.
- g) La preparación para participar activamente en la vida social y cultural.
- h) La formación para la paz, la cooperación y la solidaridad entre los pueblos.<sup>56</sup>

Aipatutako helburuek -bereziki Konstituzioaren 27.2 artikuluan agertzen direnak- hezkuntza ihardueran bi zentzutan eragiten dute: batetik, hezkuntza eskubideak mugatzen dituzte -dimentsio negatiboa-, eta bestetik, hezkuntza prozesu osoa inspiratzen dute -dimentsio positiboa-. Konstituzio Auzitegiak esan duenez, EKren 27.2 artikuluan jasotzen diren balioek «no cumplen una función meramente limitativa, sino de inspiración positiva»<sup>57</sup>. Hartara, hezkuntzak Konstituzioak egotzi dizkion helburuak beteko dituela bermatzeko ez da nahikoa balio eta printzipio konstituzionalen aurkako irakaskuntzak galeraztea, horrezaz gain, aginte publikoek balio eta printzipio konstituzional horiek hezkuntza iharduera osoan isladatuak gera daitezen neurriak hartu behar izango dituzte.

---

(56) LOGSEk ere bere lehen artikuluan helburu berak aipatzen ditu.

(57) KAren otsailaren 13ko 5/1981 Epaia, 8. oinarri juridikoa.

## EDUKIA

Konstituzioaren 53.1 artikulua oinarriko eskubide eta askatasun guztiei funtsezko edukia aitortzen die. Izenak berak aditzera eman bezala, funtsezko edukia eskubidearen mamia eta funtsa da, legegileek beti ere errespetatu beharko duten edukia. Giza eskubideen eta, oro har, eskubide guztien, funtsezko edukia finkatzea ez da hutsaren hurrengoa. Konstituzio Auzitegiak apirilaren 8ko 11/1981 Epaian funtsezko edukiaren kontzeptu juridikionala eman bazuen ere<sup>58</sup>, hainbat eta hainbat eskubideri dagokionez, autoreak oraindik ere ez dira ados jartzen eskubide horien funtsezko edukia zein fakultatek edo eskubidek osatu behar duten erabakitzerako orduan.

Hezkuntzarako eskubidea eskubide eztabaidatu horietako bat dugu. Izan ere, sarri-askotan hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukia finkatzerakoan zera gertatu izan da: eskubide hau zentzu zabalean ulertu eta bere funtsezko edukian askatasun publiko zein prestazio eskubideei dagozkien berezko edukiak nahastu izan direla. Baina, arestian esan bezala, hezkuntzarako eskubideak zentzu zabal horretatik aparte badu kontzeptu zehatzago bat. Kontzeptu hertsia horren ildotik, hezkuntzarako eskubidea aginte publikoen aurrean zuzenean alega daitekeen

---

(58) KAREN iritziz, «constituyen el contenido esencial de un derecho subjetivo aquellas facultades o posibilidades de actuación necesarias para que el derecho sea reconocible como perteneciente al tipo descrito y sin las cuales deja de pertenecer a ese tipo, tiene que pasar a quedar comprendido en otro desmaterializándose, por decirlo así. Todo ello referido en un momento histórico de que en cada caso se trata y a las condiciones inherentes en las sociedades democráticas cuando se trate de derechos constitucionales. Orobat, funtsezko edukia zera izango da: «aquella parte del contenido del derecho que es absolutamente necesaria para que los intereses jurídicamente protegibles, que dan vida al derecho, resulten real, concreta y efectivamente protegidos. De este modo, se rebasa, o se desconoce el contenido esencial cuando el derecho queda sometido a limitaciones que lo hacen impracticable, lo dificultan más allá de lo razonable o lo despojan de la necesaria protección» (8. oinarri juridikoa).

prestazio eskubide subjektiboa da, eta alde horretatik askatasun publikoei dagozkien edukientzat lekurik ez du uzten<sup>59</sup>.

Hezkuntza jasotzeko eskubidearen eduki juridikoa finkatzen makina bat autore saiatu da; guk Fernández Miranda y Campoamorrek eginiko sailkapenari jarraituko diogu batez ere:

### **a) Estatuak antolatutako hezkuntza sisteman ikaspostu bat eskuratzeko eskubidea**

Konstituzioak guztion hezkuntzarako eskubidea aldarrikatu ondoren, bere 5. azpiatalean aginte publikoek irakaskuntzaren programaketa orokor eta ikastetxeen sorkuntzaren bidez guztion hezkuntzarako eskubidea bermatuko dutela dio. Dena den, Garrido Fallak arrazoi guztiz adierazi duenez, hezkuntzarako eskubideak ez dio hiritarrari aginte publikoek hezkuntza zerbitzu publikoa sor dezaten eskatzeko eskubiderik ematen<sup>60</sup>; bermatzen diona, jadanik antolatua dagoen hezkuntza sistema osatzen duten ikastetxeetariko batean ikasplaza bat izatea da. Ikasplaza eskuratzeko eskubide hau, Konstituziotik zuzenean eratortzen den eskubide subjektibo publikoa da, hortaz.

Ikasplaza bat eskuratzeko eskubidea ez da oinarrizko ikasmailetara mugatzen, aitzitik, ikasmaila guztiak barne hartzen ditu, unibertsitate ikasketak ere bai.

Bestalde, ikasplaza bat eskuratzeko eskubidea ezin daiteke edonola ase. Ikasplazaren adjudikazio edo esleipena irizpide arrazional eta gutxienezko baldintza batzuen pean egin beharra dago, praktikan eskubidea egikaritzea ezinezkoa egingo luketen oztopoak baztertuz.

Kontuan izan beharreko baldintzen artean, ikaslearen bizileku eta ikastetxearen arteko hurbiltasunarenak oso paper garrantzitsua jokatzen du. Ikasleari ezin zaio legez dagokion ikasplaza edonon esleitu, ikasplazak ikaslearen bizilekuarekiko gutxienezko

---

(59) Zentzu honetan, ikus KAren 5/1985 Epaia, 9. oinarri juridikoa.

(60) GARRIDO FALLA, *Comentarios a la Constitución*, 549. or.

hurbiltasuna behar du. Honek ez du esan nahi, ezta gutxiagorik ere, ikasle guztiek ikastetxea etxe albo-alboan izateko eskubiderik dutenik. Baliabideak urriak diren gurea bezalako gizarte batean, hiritar guztiei aukeratutako hezkuntza mota duen ikastetxea etxe pare-parean izatea pentsaezina da. Arrazoi ekonomikoek eta pedagogikoek ez ezik, zentzuak ere ez luke horrelako neurri bat hartzera bultzatuko.

LOGSEk bere 65. artikuluko lehen atalean, lehen irakaskuntzako ikasle orori herriko eskolan dohainik ikasplaza bat izateko eskubidea bermatzen dio<sup>61</sup>. Dena den, bigarren atalak erregela orokor horri salbuespen bat jartzen dio. Horrela, irakaskuntzaren kalitatea zaindu asmoz, nekazal guneetan aginte publikoek haurrak beren bizilekuaren ondoko beste herri batean eskolara ditzakete. Hori bai, halakoetan, garrario, jantoki eta, hala balegokio, barnetegi gastuak hezkuntza administrazioaren pentzutan izango dira.

Lehen Hezkuntzan ez bezala, Bigarren Hezkuntzan LOGSEk ez dio ikasleari herrian bertan doako ikasposturik bermatzen. Eta ez da harritzeko, zeren irakasmilak altuagoak diren heinean, bizileku-ikastetxe hurbiltasuna garrantzia galduz doa. Batetik, ikasleak hazten diren neurrian, eskolarako ibilbidea bere kabuz eta inolako languntzarik gabe egiteko gaitasun handiagoa dute; eta bestetik, urteak aurrera joan ahala, ikaslearen heziketak espezializazio maila handiagoa eskatzen du eta, bidenabar, baliabideen pilaketa handiagoa. Eta jakina, ikasketa espezializatu horiek, kalitatezkoak nahi badira behintzat, etxetik gertu izatea gero eta zailago suertatuko zaio ikasleari.

---

(61) 65.1 art. «En el nivel de educación primaria, los Poderes públicos garantizarán a todos los alumnos un puesto escolar gratuito en su municipio.

2. Excepcionalmente, en la educación primaria y en la educación secundaria obligatoria en aquellas zonas rurales en que se considere aconsejable, se podrá escolarizar a los niños en un municipio próximo al de su residencia para garantizar la calidad de la enseñanza. En este supuesto las Administraciones educativas prestarán de forma gratuita los servicios escolares de transporte, comedor y, en su caso, internado.»

Bestalde, LODEK bere lehenengo artikuluan ikasplaza bat izateko eskubidea garatzen du:

«1.1. Todos los españoles tienen derecho a una educación básica que les permita el desarrollo de su personalidad...

1.2. Todos, asimismo, tienen derecho a acceder a niveles superiores de educación en función de sus aptitudes y vocación, sin que en ningún caso el ejercicio de este derecho esté sujeto a discriminaciones debidas a la capacidad económica, nivel social o lugar de residencia del alumno.»

Ikus daitekeenez, LODEK oinarrizko hezkuntzatik gorako ikasketak eskuratzeko eskubidea «gaitasun eta bokazioaren» arabera baldintzatu ditu. Baldintza horien helburua hezkuntza zerbitzuaren aprobetxamendua ziurtatzea da. Ez dugu ahantzi behar Estatuaren baliabide eta bitartekoak mugatuak direla, eta daudenak lehenetsunetara ahalik eta ondoen egokitu behar ditugula. Honek zenbait kasutan, oinarrizko hezkuntzatik gorako ikasketetan kasu, hezkuntzarako eskubidearen egikaripena baldintzatu beharra eragiten du. Baldintza hauek ez diote eskubidearen titulartasunari eragiten, eskubidea egikaritzeari baizik, eta gutxiespenik sortu ez, eta «arrazoitasun» eta «proporzionaltasun» printzipioak errespetatzen dituzten bitartean, legebidearen ikuspuntutik onargarriak izango dira.

## **b) Kalitatezko irakaskuntzarako eskubidea**

Hezkuntzarako eskubidea ez da ikastetxe batean sartu eta bertan arauzko irakaskuntzak jasotzeko eskubidearekin agortzen. Aginte publikoek ziurtatuko duten irakaskuntza ezin daiteke nolana hikoia izan, hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukia hondatu ez dadin gutxienezko kalitatea behar du. Arauzko irakaskuntzek bete beharreko gutxienezko kalitate maila horiek finkatzea ez da egin behar samurra. Nolanahi ere gauza bat argi dago, gutxienezko horiek ezin dira ikuspuntu subjektibo eta utopikoetatik planteatu. Irakaskuntzaren kalitatea finkatzerakoan bi dira, guk uste, aintzat hartu beharreko irizpideak: estatu bakoitzaren gizarte errealitatea bata, eta zerbitzu publikoen aukera errealak bestea. Hala, Espainiako Estatuan ere, bertako heziketa



maila eta unean uneko baliabide ekonomikoen artean oreka bilatzea litzateke egokiena.

LODEk hezkuntzaren kalitatearen gaia bere 14. artikuluan aipatzen du:

«Art. 14: Todos los centros docentes deberán reunir unos requisitos mínimos para impartir las enseñanzas con garantía de calidad».

LOGSE delakoa irakaskuntzaren kalitateaz oso arduratuta agertzen da eta hezkuntzaren kalitateari leku garrantzitsua eskaintzen dio bere erregulazioan, titulu oso-oso bat -IV.a- hain zuzen. Kalitatezko irakaskuntza lortzearen, IV. kapituluak bereziki zazpi faktore ezberdinei eragin beharra nabarmentzen du: ikaslegoaren prestakuntza eta kualifikazioa, irakaskuntzaren programazioa, hezkuntza baliabideak eta zuzendaritza funtzioa, hezkuntza berrikuntza eta ikerkuntza, hezkuntza orientabidea eta orientabide profesionala, hezkuntza ikuskaritza eta hezkuntza sistemaren ebaluaketa.

VI. kapituluaz gain, LOGSEk bere 3. xedapen gehigarrian kalitatezko irakaskuntzaren gaia aipatzen du. Bertan irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko neurri konkretu batzuk proposatzen ditu:

-Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan, hurrenez hurren, 25 eta 30eko ikasle-ratioa ez gainditzea.

-Irakaslegoaren prestakuntzarako ikastaro iraunkorrak antolatzea.

-Hezkuntza edukiak eskuratzeko zailtasunak dituzten ikasleak laguntzeko, derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe bakoitzean, sikira, irakasle-laguntzaile bat izatea.

-Ikastetxetik kanpo ere prestakuntza ikastaroen eskuraketa ahalbidetzeko, irakaslegoaren prestakuntza iraunkorrerako planetan lizentzien emakidak sartzea.

-Orientabide psikopedagogiko eta profesionalari eta hezkuntza orientabideari buruzko zentru espezializatuak sortzea.

#### **d) Ikastetxean mantendu eta ebaluaketa objektiboa izateko eskubidea**

Hezkuntzarako eskubideak, ikastetxe batean ikasplaza bat izateko eskubidea ez ezik, bertan mantendu eta gaitasunen arabera mailaz igotzeko eskubidea ere barne hartzen ditu. Arrazoizkoa da ikastetxe batean ikasplaza esleitu dioten ikasleari bertan mantentzeko aukera ere ematea; hori bai, beti ere, ikastetxeak bertan mantentzeko finkaturiko errendimendu-esijentziak betez. Errendimendu-esijentzi horiek objektiboak, proportzionalak, eta arrazoizkoak izan beharko dute, jakina. Orobat, hezkuntza sistema ikasmailetan banatua dagoela ikusirik, zentzuzkoa da jakintzaren kontrolerako ebaluazio-sistema arrazoizko eta objektibo baten arabera, ikasmailaz igotzeko eskubidea izatea.

Ildo horretan, LODEk ikasleen oinarrizko eskubideak sailkatzerakoan, erredimendu eskolarra erabateko objektibotasunezko irizpideekin ebaluatua izateko eskubidea aipatzen du bere 6.1.b) artikuluan<sup>62</sup>.

Baita LOGSEk ere ikasleen jakinduriaren ebaluapenak ikasmailaren arabera nolakoa behar duen azaletik aipatzen du. Bertan xedatutakoari jarraiki, ikaslearen heziketa-prozesuaren ebaluapena Lehen Hezkuntzan «etengabekoa eta globala» (15. art.) eta Bigarren Hezkuntzan «etengabekoa eta integratzailea» izango da (22. art.).

Ikastetxean mantentzeko eskubideari estu atxikita ikastetxeetako zigor-araubidearen gaia dago. LOECEk diziplina arloan printzipio batzuk aditzera eman zituen arren, azkenean ikastetxe bakoitzeko barne erregelamenduetara jo zuen (39. art.). LODEk, ordea, Eskola Kontseiluaren esku uzten ditu diziplina arloan gertatzen diren gatazken konponketa eta zigor ezarpenei buruzko ebazpenak (42.1 eta 57. artikulua). Dena dela,

---

(62) 6.1.b) art.: «Se reconoce a los alumnos los siguientes derechos básicos: (...) Derecho a que su rendimiento escolar sea valorado conforme a criterios de plena objetividad».

hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukia errespetatuko bada, Eskola Kontseiluaren zigorbideek baldintza batzuk bete behar izango dituzte:

- Inposatu beharreko falta eta zigorrak arau juridiko batean tipifikatuak egotea.
- Defentsa gabezia sor dezaketen ihardunbideak galeraztea.
- Zigorren eta lege-hausteen eduki materialak, Konstituzioak eta garapeneko legediak irakasleari aitortutako eskubideak eta hezkuntzaren helburuak errespetatzea.

### **e) Onarrizko hezkuntza dohainik jasotzeko eskubidea**

Konstituzioaren 27.4 artikulua dioenez, «oinarrizko irakaskuntza derrigorrezkoa eta dohainik da». Irakaskuntzaren derrigortasunaren aitortpenak eraginkortasunik izan zedin, oinarrizko hezkuntzaren dohaintasuna aldarrikatzea ezinbestekoa zen. Hala, bada, oinarrizko irakaskuntzen derrigortasuna agintzeaz gain, Konstituzioa hura benetakoa izan zedin bere egikaripenerako baldintzak jartzeaz ere arduratu zen, ikasketa horiek dohainekoak eginez.

Fernández Miranda y Campoamorrek dioenez, derrigortasunaren azken arrazoia askatasun printzipioan datza. Horra zergatik: haurra gizaki ez-gai eta hezitu gabea delako lege-presuntzioa dago. Beno ba, haur hori gizaki libre bihurtzeko aukera, bere nortasunaren garapenak baldintzatzen du, eta garapen hori erdiesteko tresnarik funtsezkoena hezkuntza da ezbairik gabe; hargatik, bada, justifikatua geratzen da oinarrizko hezkuntzaren inposaketa koaktiboa.

Hala eta guztiz ere, aipatutako presuntzioa haur eta nerabeetan bakarrik onar daiteke. Alfabetatu gabeak izanda ere, adinekoei ez dagokie 27.4 artikulua derrigortasunaren menpe egotea, hauen gaitasuna beren legezko adin-nagusitasunetik ondorioztatzen baita.

Horregatik derrigorrezko hezkuntza, hezkuntza sistemaren arabera oinarrizko ikasmailei dagozkien adinetara hedatuko da soilik.

Nazioarteko testuen ondoan, Espainiako Konstituzioak hezkuntzan ezartzen duen dohaintasun maila baxuagoa da. Izan ere, EGKNPak bere 13. artikuluan, lehen irakaskuntzaren dohaintasuna ez ezik, bigarren eta goimailako irakaskuntzetan ere arian-arian dohaintasuna ezar dadin agintzen du. Edonola ere, ezaguna denez, nazioarteko hitzarmenek Konstituzioaren 10.2 eta 96.1 artikuluen indarrez gure lege araubidean zeresanik badute, eta aginte publikoek nazioarteko testuen eskakizunetara egokitzeko oinarrizkoak ez diren mailetan ere dohaintasuna sartzeko neurriak hartu dituzte dagoeneko.

Hala, 1987 urterarte Oinarrizko Heziketa Orokorra (6 urtetatik 14 urte arte) bakarrik zen dohainik, derrigorrezko hezkuntza = doako hezkuntza binomioa gertatzen zelarik. Uztailaren 2ko 12/1987 Lege Organikoak derrigorrezko hezkuntzako adinak aldatu gabe, tasen exentzio bitartez, dohaintasunaren eremua zabaldu zuen Batxilergo, Lanbide Heziketa, Arte aplikatu eta Ofizio Artistikoko ikasketetara hedatuz. Lege honekin, beraz, dohaintasun = derrigortasun binomioa apurtu zen eta dohaintasuna derrigorrezko ez ziren zenbait ikasketetara ere iritsi zen.

Urriaren 3ko 1/1990 Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Lege Organikoak -LOGSEK- egoera berriro ere aldatu zuen<sup>63</sup>. Ezaguna denez, LOGSEk hezkuntza sistema puntatik puntara eraberritu du. Aldaketarik aipagarrienetarikoa hezkuntza sistemaren egitura bi irakaskuntza erregimenetan

---

(63) Izan ere, LOGSE agertu aurretik indarrean zegoen hezkuntza sistema, 1970.eko Hezkuntza Arautzeko Lege Orokorra (LGEK) ezarri zuen. Hogei urte luze horietan Espainiako gizarteak aldaketa franko jasan zituen: politikoak, teknologikoak, produktiboak, kulturalak... Horiez gain, aldarre horretan Espainiak demokrazia lortu eta Europako Elkarrekin sartu zen. LGEk ezarritako hezkuntza sistema erronka berri hauei aurre egiteko zaharkituegia lotu zen, hori dela eta, LOGSErekin nahitaezkoa zen hezkuntza sistemaren eraberriketari ekin zioten legegileek.

bereiztu izana da: erregimen orokorra batetik eta erregimen berezia bestetik.

Erregimen orokorra honako hauek osatuko dute:

a) Haur Hezkuntza (6 urterarte).

b) Lehen Hezkuntza (6tik 12 urterarte).

d) Bigarren Hezkuntza (12tik 18 urterarte). Honetan, derrigorrezko bigarren hezkuntza, batxilergoa eta gradu ertaineko lanbide heziketa bereiz daitezke.

e) Goi mailako lanbide heziketa.

f) Unibertsitate hezkuntza.

Erregimen berezia, ostera, arte eta hizkuntzen irakaskuntzek osatzen dute.

Ondoko koadroak hezkuntza sistemaren egiturak jasan dituen aldaketak erakusten dizkigu.

Dohaintasunaren harira bueltatuz, LOGSEk oinarrizko hezkuntza derrigorrezkoa eta dohainik izango dela dio (5. art.). Adierazpen honekin LOGSEk 1987ko legea baino lehen gertatzen zen oinarrizko hezkuntza = doako hezkuntza binomiora itzuli gaitu, baina ezberdintasun nabarmen batekin: oraingoan oinarrizko hezkuntza 2 urtez luzatu da, 16 urterarte hain zuzen.

LOGSEren 5. artikulua argitan, Haur Hezkuntza dohaintasunaren esparrutik kanpo lotzen da. Edozein modutan 7.2 artikulua, Haur Hezkuntzan administrazioak hezkuntza-eskaria asetzeko beste ikaspostu segurtatu beharko dituela dio<sup>64</sup>.



Eztabaidatua izan den beste gai bat irakaskuntzaren dohaintasunaren mugak dira. Azaltzen zaigun galdera zera da: benetan debalde dena instrukzioa soilik da ala dohaintasunaren

---

(64) 7.2 art.: «La educación infantil tendrá carácter voluntario. Las Administraciones públicas garantizarán la existencia de un número de plazas suficientes para asegurar la escolarización de la población que la solicite».

**I. KOADROA**

**HEZKUNTZA SISTEMAREN EGITURA / ESTRUCTURA DEL SISTEMA EDUCATIVO**



ITURRIA: IRAKASKUNTZAREN ESTADISTIKA (92-93). EUSTAT

eremu horretan bestelako eskola zerbitzuak ere sar daitezke, esaterako, garraioa, eskola materiala, jantoki-zerbitzuak...?

Antza denez, onargarriena dohaintasuna irakaskuntzari zentzu zehatzean ulertua -instrukzioa- mugatzearen jarrera da. Hala ere, honek ez du esan nahi irakaskuntza ahalbidetzen duten bestelako zerbitzuak inoiz ere kontuan izan behar ez direnik. Zenbait kasutan dohaintasunaren mugak zabaltzea bidezkoa ez eze ezinbestekoa ere izaten da. Pentsa, adibidez, esleitu dioten ikasplazaren urruntasuna dela eta, ikasle batek garraio gastuei eusteko biderik izango ez balu. Halakoetan dohaintasuna garraio, jantoki eta, hala balegokio, barnetegi gastuetara hedatzea zeharo arrazoizkoa eta zentzuzkoa izango litzateke. Are gehiago, horrela izango ez balitz ikaslearen hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukia urratua geldituko litzateke, praktikan ikasleari hura egikaritzea ezinezkoa izango bailitzaioke.

Zentzu horretan gogoratu, egoerak hala eskatuta, nekazal gunetako ikasleek bere herritik kanpo eskolaratuak izan behar dutenean, ikasleak izandako garraio, jantoki eta, hala balegokio, barnetegi gastuak hezkuntza administrazioaren kontura izango direla, legearen aginduz<sup>65</sup>.

Bukatzeko, ezin aipatu gabe utzi horrenbeste hika-mika eta zeresan sortu duen beste auzi bat, doako hezkuntza jasotzeko eskubidea ikastetxe pribatuetan egikaritzea posible denentz erabakitzearena alegia.

Autore batzuek<sup>66</sup> oinarrizko irakaskuntzek herri-ikastetxeetan ez eze ikastetxe pribatuetan ere debalde behar zutela pentsatzen dute. Ondorio hau hezkuntzarako eskubidea eta irakaskuntza askatasuna elkar lotuz ateratzen dute. Euren aburuz,

---

(65) Ikus 77. or.

(66) Esaterako, MARTÍNEZ LÓPEZ-MUÑIZ, J.L. La educación en la Constitución española. Derechos fundamentales y libertades públicas en materia de enseñanza. *Persona y Derecho*, 1979, 6. zenb., eta ORTIZ DÍAZ. *La libertad de enseñanza*. Málaga: Universidad de Málaga, 1980.

herri-ikastetxeak oinarrizko hezkuntza dohain jasotzeko eskubidea bere kasa asetzeko gauza izango ez balira, zilegi litzateke eskubide konstituzional hori asetzeko ikastetxe pribatuetera jotzea.

Egia esan, oinarrizko irakaskuntza publiko nahiz pribatuaren erabateko finantzaketa helburu desiragarria izan badaiteke ere, gure Konstituzioak agindutakotik ez dago horrelako ondorio juridikorik ateratzerik.

Gorago ere esan dugun moduan, oinarrizko hezkuntza dohain jasotzeko eskubidea, Konstituzioak, hiritarrari zuzenean aitortutako prestazio eskubide publiko legez itxuratu du. Hargatik, eskubide hau bakarrik aginte publikoen aurrean egikaritu ahal izango da, eta beti ere beraiek antolatutako kasuan kasuko hezkuntza sistemaren arabera. Bestela esanda, Konstituzioak Estatuak antolatutako hezkuntza zerbitzu publiko horretan ikasplaza bat lortzeko eskubidea besterik ez du bermatzen, eta jakina, hezkuntza zerbitzu publiko hori ikastetxe publikoek soilik osatzen dute.

Konstituzioak ikastetxe pribatuei buruz dioen bakarra zera da: aginte publikoek lege-araubidean ezarritako baldintzak betetzen dituzten ikastetxeak diruz lagunduko dituztela. Obligazio honek ez du hiritarrenganako eskubide subjektiborik sortzen inondik inora. Irakaskuntza pribatua dohain jasotzeko eskubidea sor dezakeen bakarra, lege-garapen egokiaren bidez, aginte legegilea da. Horixe da, izan ere, LODEk eta hezkuntza itunei buruzko erregelamenduak egin dutena. Hauei esker hiritarrek derrigorrezko irakaskuntza dohain jasotzeko eskubidea ikastetxe pribatuetera egikaritu ahal izango dute; baina ez guztietan, baizik eta bakarrik hezkuntza administrazioarekin itun bat sinatu dutenetan<sup>67</sup>.

---

(67) Hezkuntz itunei buruzko erregelamendua onartzen duen azaroaren 18ko 2.377/1985 Erret Dekretuak zera xedatzen du: «El derecho a la educación básica obligatoria y gratuita, cuya garantía corresponde a los poderes públicos mediante la programación de la enseñanza, podrá hacerse efectivo en los centros privados mediante el régimen de conciertos que, de acuerdo con lo previsto en la LODE, se regula en el presente reglamento.»



### e) Hezkuntza hizkuntza ulergarrian jasotzeko eskubidea

Autore batzuek<sup>68</sup> hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukia finkatzerakoan aspektu linguistikorik aipatzen ez badute ere, gure ustez, hezkuntzarako eskubideak eduki linguistikoa badu.

Hezkuntzarako eskubideak ez du irakaskuntza zein hizkuntzatan burutuko den aukeratzeko eskubidea barne hartzen eta ezta norbere hizkuntzan irakaskuntza osoa jasotzeko eskubiderik bermatzen ere<sup>69</sup>. Konstituzio Auzitegiaren hitzak, zentzu honetan, adierazgarriak dira: «Ninguno de los múltiples apartados del artículo 27 de la Constitución (...) incluye, como parte o elemento constitucionalmente garantizado, el derecho de los padres a que sus hijos reciban educación en la lengua de preferencia de sus progenitores en el Centro público docente de su elección»<sup>70</sup>.

Orduan, bada, hezkuntzarako eskubideak ikasleari benetan bermatzen diona, irakaskuntza ulergarri zaion hizkuntza batean jasotzeko eskubidea da. Hezkuntzarako eskubideak ikasleak hezkuntza-edukiak behar bezala jasotzen dituela segurtatu behar du, eta horretarako ezinbestekoa da ikasleari irakaskuntza hizkuntza ulergarrian eman diezaioten<sup>71</sup>.

---

(68) Adibidez, FERNÁNDEZ MIRANDA y CAMPOAMOR, De la libertad de enseñanza al derecho a la educación.

(69) EMBID IRUJOren ustez, berriz, Konstituzioak irakaskuntza norbere hizkuntzan jasotzeko eskubidea bermatzen du. EMBID IRUJO, *El contenido esencial del derecho a la educación*, 664-666 orr.

(70) EKren azaroaren 27ko 195/1989 Epaia, 3. oinarri juridikoa. KAK epai honetan Europako Auzitegiak aspaldi finkaturiko lerro jurisprudenzialari eusten dio: «los derechos a la instrucción y a la educación garantizados en el art. 2 del primer protocolo adicional no tienen por efecto el garantizar a los niños o a sus padres el derecho a una instrucción impartida en la lengua de su elección» (Belgikako erregimen linguistikoaren aspektu jakin batzuei buruzko 1968ko uztailaren 23ko Epaia).

(71) Ildo horretan Auzitegi Gorenak zera esan du: «...se quebranta el fundamental derecho a la educación, incluso cabe decir que hasta el máximo límite de negarlo del modo más absoluto, cuando la enseñanza se imparte en un idioma distinto de la oficial lengua española, *desconocido aquél por*

Gauzak horrela, ikaslearen ama-hizkuntzaz beste hizkuntza batean burutzen den irakaskuntzak, printzipioz, ez du ikaslearen hezkuntzarako eskubidea zertan kaltetu. Hori bai, halakoetan aginte publikoek neurriak hartuko dituzte ikasleak berea ez den hizkuntzan emango zaizkion hezkuntza-edukiak aparteko arazorik gabe eskura ditzan. Hartara, irakas-hizkuntza menperatu artean, haurrari bere ama-hizkuntzaren erabilera instrumentala halabeharrezkoa izango zaio, berorrek hezkuntza edukiak behar besteko abileziaz eskura ditzan eta bere errendimendu eskolarra kaltetua izan ez dadin.

Bestalde, ikaslearentzat ulergarria izateaz gain, irakas-hizkuntzak ikaslea bizi den inguruneari lotuta dagoen hizkuntza izan behar du. Euskal Herriko ikastetxeetan irakaskuntza derrigorrez alemanieraz burutu beharra agintzeak, esaterako, bistakoa da hezkuntzarako eskubidea bete-betean urratzen duela, alemanierak gure bizi- ingurunearekin inolako loturarik ez baitauka. Hori zen, izan ere, Europako Auzitegiak gogoan zuena, ikasleen hezkuntzarako eskubidea kalteturik gerta ez zedin irakaskuntza kasuan kasuko Estatuko hizkuntza nazionalean eman behar zela esan zuenean<sup>72</sup>.

## B) Irakaskuntza askatasuna

Hezkuntzarako eskubidearekin batera, irakaskuntza askatasuna gure hezkuntza sistemaren ardatz nagusia da<sup>73</sup>. Kontzeptu honen inguruan, hezkuntza arloan izan diren bi korronte ideologiko nagusien -ezkertiarak eta eskuindarrak- arteko gatazka mingots

---

*el destinatario de la enseñanza, sin que nada de lo afirmado (...) vaya (...) contra el respeto que por igual merecen las demás lenguas españolas en todas sus posibilidades, incluida por supuesto la de su utilización en las Comunidades Autónomas al satisfacerse el derecho a la educación que a su vez asiste a quienes la conocen» (Auzitegi Gorenaren apirilaren 21eko Epaia (Ar. 1.392), 5. oinarri juridikoa).*

(72) 1968ko uztailaren 23ko Epaia.

(73) 27.1 «Todos tienen derecho a la educación. Se reconoce la libertad de enseñanza».

eta latzenak gertatu dira. Ezkerreko indar politikoek aldarrikatzen zuten barne aniztasunezko hezkuntza sistemaren izenean, irakaskuntza askatasuna Konstituzioan aipa ez zedin gogor ekin zioten. Izan ere, irakaskuntza askatasunaren aitorten konstituzionalak ekimen pribatuari ikastetxeak sortzeko eskubidea zekarkion, eta gogoratu ezkertiarrek defendaturiko hezkuntza ereduan irakaskuntza pribatua ezarian-ezarian desagertuz joan zedin proposatzen zela.

Hala eta guztiz ere, garaiko egoera larriak zuhurtzia eta tentuz ibiltzea eskatzen zuen eta, eskuineko indarrekin gutxienezko adostasuna lortzearren, ezkertiarrek amore eman zuten. Honek, egian esan, arazoa atzeratu besterik ez zuen egin.

Irakaskuntza eskubidearen interpretazio gatazkak ugariak izan dira denboran zehar, eta gai honen inguruan sortutako sesioen oihartzunak oraindik gure artean dirau. Interpretazio-gatazka nagusiak irakaskuntza askatasunaren eduki juridikoa finkatzerakoan gertatu dira. Zein da irakaskuntza askatasunaren ulermen egokia? Zein fakultatek osatzen dute?

Beste barik hel diezaiegun, bada, doktrinan erroturiko iritzi desberdinei.

Autore gehienak bat datoz irakaskuntza askatasuna eta ikastetxeak sortzeko eskubidea elkartzearekin. Arazoak, ikastetxeak sortzeko eskubideaz aparte, gainerako zein hezkuntza eskubiderekin elkar daitekeen finkatzerako orduan datoz.

De Puellesek irakaskuntza askatasuna, ikastetxeak sortzeko eskubidearekin ez ezik, heziketa mota aukeratzeko eskubidearekin ere lotzen du: «la libertad de enseñanza en nuestra tradición legal e histórica ha sido siempre la de fundar y mantener centros de enseñanza, así como la libertad de los padres para elegir el centro que estimen conveniente para la educación de sus hijos»<sup>74</sup>.

---

(74) PUELLES BENÍTEZ, M. de, *Educación e ideología en la España contemporánea*, 498-499 orr.

Alzagak, bestalde, irakaskuntza eskubidearen muina den ikastetxeak sortzeko eskubide horretatik beste askatasun batzuk ondorioztatzen ditu: ikastetxeak sortu, zuzendu eta kudeatzeko eskubideak, irakasleak aukeratzeko eskubidea, ideiadura finkatzeko eskubidea, eta baita gurasoek eta ikastetxeko zuzendariak egokitzat joko balute, ikastetxean erlijio heziketa irakasteko eskubidea»<sup>75</sup>.

Ortiz Díazek irakaskuntza askatasunaren kontzeptzio zabalagoa defendatu du, honen edukia beste eremu batzuetara hedatuz. Bere ustez, irakaskuntza askatasunak ondorengo eskubideak barne hartzen ditu:

- a) Heziketa mota eta ikastetxea aukeratzeko eskubidea.
- b) Erlijio eta moral heziketa aukeratzeko eskubidea.
- d) Ikasmaila guztietan ikastetxeak sortzeko eskubidea, unibertsitate maila barne; eta legeak jarritako baldintzak betez gero, ikastetxe horiek gizarterako interesdun zerbitzu-emaile gisa aitortuak izateko eskubidea.
- e) Ikastetxeak zuzendu eta kudeatzeko eskubideak, eta irakas-lanetan arituko diren pertsonak aukeratzeko eskubidea.
- f) Ikastetxearen ideiadura ezartzeko eskubidea.
- g) Guraso, irakasle eta ikasleak ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko eskubidea.
- h) Katedra askatasuna, beti ere, ikastetxearen ideiadura eta ikasleen duintasuna eta kontzientzia errespetatuko beharko dituen.

---

(75) «La doctrina entiende por libertad de enseñanza la libertad de fundar centros docentes, de dirigirlos, de gestionarlos, de elegir profesores, de fijar, en su caso, un ideario del centro; la libertad de impartir en los mismos, en el caso de que se estime pertinente por los padres y los directivos del centro, la formación religiosa». EMBID IRUJO, A. *Las libertades en la enseñanza*. Madrid: Tecnos, 1983, 226 or.

i) Hezkuntza dohainik izateko eskubidea, edo bestela, familiek bere seme-alaben hezkuntzarako aginte publikoetatik laguntza ekonomikoa jasotzeko eskubidea; hau guztia ikastetxeak aukeratzeko eskubidea benetakoa eta eragingarria izan dadin<sup>76</sup>.

Fernández Miranda y Campoamorren aburuz, irakaskuntza askatasunaren hezkuntza sistemaren printzipio estruktural bat da eta berme-erakunde baten papera betetzen du. Hori dela eta hezkuntza prozesuan parte hartzen duten agente edo eragile guztien eskubideak era batera edo bestera ikutzen ditu: gurasoenak, ikasleenak eta irakasleenak<sup>77</sup>.

Ikus daitekeenez, irakaskuntza askatasunaren eduki juridikoaren finkapena ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, eta autore adina iritzi desberdin aurki genezake.

Edozertara, Konstituzio Auzitegiak korronte doktrinal desberdinen gaineratik kokatu eta gaiaren ulermenerako argibideak eman ditu. Batetik, KAK irakaskuntza askatasuna askatasun erlijioso eta adierazpen eskubidearen proiektzioa dela esan du<sup>78</sup>. Bestetik, eduki juridikoari dagokionez, Auzitegiak zera esan du:

---

(76) ORTIZ DÍAZ. *La libertad de enseñanza*, 28-29 orr.

(77) «El principio de libertad de enseñanza se proyecta sobre la totalidad de los derechos particulares de los diversos actores en el proceso educativo:

- Derecho de los grupos sociales y, en general, de todos los miembros de la sociedad: la creación, dirección y orientación de centros educativos.
- Derecho de los alumnos y padres: a la educación, a la elección del tipo de educación y a la participación.
- Derechos de los profesores: a la libertad de expresión docente, a la libertad de cátedra y a la participación en la gestión de centros».

FERNÁNDEZ MIRANDA y CAMPOAMOR, *De la libertad de enseñanza al derecho a la educación*, 66. or.

(78) «La libertad de enseñanza puede ser entendida como una proyección de la libertad ideológica y religiosa, y del derecho a expresar y difundir libremente los pensamientos, ideas y opiniones que también garantizan y protegen otros preceptos constitucionales (especialmente arts. 16.1 y 20.1 a). Esta conexión queda, por lo demás, explícitamente establecida en el art. 9

«...la libertad de enseñanza, reconocida en el art. 27.1 de la Constitución implica, de una parte, el derecho a crear instituciones educativas (art. 26.1) y, de otra, el derecho de quienes llevan a cabo personalmente la función de enseñar, a desarrollarla con libertad dentro de los límites propios del puesto docente que ocupan (art. 20.1 c). Del principio de libertad de enseñanza deriva también el derecho de los padres a elegir la formación religiosa y moral que desean para sus hijos»<sup>79</sup>.

Hortaz, irakaskuntza askatasunak ikastetxeak sortzeko eskubidea katedra askatasuna eta heziketa erlijioso eta morala aukeratzeko eskubideak barne hartzen ditu, KAren ustez.

Honenbestez eta laburbilduz, irakaskuntza askatasuna hezkuntza eskubidearekin batera gure hezkuntza sistemaren ardatz nagusi dela esan daiteke. Hala, hezkuntzarako eskubideak guztioi dagokigun eskubide bat aitortzen digun bitartean, irakaskuntza askatasunak guztion eskubide hori nola asetu behar den esaten digu: askatasunaren printzipioaren bidez. Hau da, irakaskuntza askatasunaren bitartez, askatasunaren ideia hezkuntza sistema osora zabaltzen da, hezkuntza prozeduran esku hartzen duten eragile guztien eskubideak nola edo hala ukituz. Tomás y Valiente magistratuaren hitzetan, «el reconocimiento de la libertad de enseñanza supone que el derecho de todos a la educación se ha de realizar dentro de un sistema educativo plural regido por la libertad»<sup>80</sup>.

## D) **Ikastetxeak sortzeko eskubidea**

27.6. «Se reconoce a las personas físicas y jurídicas la libertad de creación de centros docentes, dentro del respeto a los principios constitucionales».

---

del convenio para la protección de los derechos humanos y de las libertades fundamentales firmado en Roma el 4 de noviembre de 1950» (KAren otsailaren 13ko 5/1981 Epaia, 7. oinarri juridikoa).

(79) KAren 5/1981 Epaia, 7. oinarri juridikoa.

(80) KAren 5/1981 Epaia, lehen botu partikularrean.

Ikastetxeak sortzeko eskubidea, KAK onartu duen bezala, irakaskuntza askatasunetik ondorioztatzen den askatasun eskubidea da<sup>81</sup>.

Eskubide honen subjektua espainiar naziotasuna eta izaera juridiko pribatua duen edozein pertsona fisiko zein juridiko izango da (LODE 21. art.). Atzerritarrei dagokienez, LODEk gobernuak erregelamendu bidez ezarritakoari bidaltzen gaitu. Edozein eratan, gobernuak beti ere nazioarteko hitzarmenek eta elkarrekikotasun printzipioak alor horretan agintzen dutenari men egin beharko dio.

Hezkuntza Eskubidea Arautzeko Lege Organikoak ikastetxe pribatuen titulartasunari muga batzuk jartzen dizkio (21.2 art.). Horrela, ezin izango dira ikastetxeen titularrak izan:

a) Administrazio lokal, autonomiko eta estatalean lan egiten dutenak.

b) Doludun delituengatik aurrekari kriminalak dituztenak.

d) Auzitegiek emandako epai irmo baten eraginez ikastetxeak sortzeko eskubidea debekatua dutenak.

e) Aurreko hiru ataletan sar daitezkeen pertsonen osoturiko pertsona juridikoak, baldin eta pertsona fisiko horiek zuzendari postuak betetzen dituzten edota kapital sozialaren %20 baino gehigoren jabe badira.

LODEren 21.2 artikulua ikastetxe pribatuaren titulartasunari jartzen dizkion mugak, beraz, bi motatakoak izan daitezke beren izaerari jarraiki: batetik, b) eta d) atalak titulartasuna debekatzeko duten ez-gaitasun zioak dira; eta bestetik, a) atala eskubidea egikaritzea mugatzen duen ukiezintasun zioa da.

Konstituzio Auzitegiak irakaskuntza askatasuna definitzeko erabili zuen kontzeptutik abiatuz, ikastetxeak sortzeko eskubidearen objektua hauxe izango litzateke: sistematikoki eta denboran

---

(81) KAren 5/1981 Epaia, 7. oinarri juridikoa.

jarraipena eginez jakinduria eskualdatzea edo transmititzea ihardueratzat duen edozein erakunde pribatu. Zentzu orokor honetan, arauzko irakaskuntzak nahiz Estatuaren sistematik at dauden irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeak sartuko lirateke. Zentzu zehatz batean, ordea, Estatuak antolaturiko arauzko irakaskuntzak ematen dituzten erakunde pribatuak soilik izango lirateke ikastetxeak sortzeko eskubidearen objektu, hots, eskolaurretik unibertsitatera bitarteko irakaskuntzak ematen dituztenak.

Bestalde, ikastetxeak sortzeko eskubidea administrazioak arrez eman behar duen baimenak mugatzen du<sup>82</sup>. Dena den, baime-na ematea ez da administrazioaren ahalmen diskrezionala, aitzitik, Konstituzioak eta legeek agindutako baldintzak ikastetxeek betetzen dituzten neurrian bakarrik emango da. Hitz batean, baimenen emakida administrazioaren ahalmen erreglatu bat izango da.

Bukatzeko bakarrik gogoratu nahi genizueke, KAK aitortu duen legez, ikastetxeak sortzeko eskubideak ideiadura ezartzeko eskubidea eta ikastetxea zuzentzeko eskubidea barne hartzen dituela<sup>83</sup>. Azken eskubide hau EGKENPk bere 13.4 artikuluan

---

(82) 23. art. (LODE): «La apertura y funcionamiento de los centros privados se someterán al principio de autorización administrativa, lo cual se concederá siempre que se reúnan los requisitos mínimos que se establezcan con carácter general de acuerdo con lo dispuesto en el art. 14 de esta ley.»

(83) Ideiadura ezartzeko eskubideari dagokionez, «establecer un ideario educativo propio dentro del respeto a los principios y declaraciones de la Constitución forma parte de la libertad de creación de centros, en cuanto equivale a la posibilidad de dotar a éstos de un carácter u orientación propios»(KAre 5/1980 Epaia, 7. oinarri juridikoa).

Bestalde, ikastetxea zuzentzeko eskubideari dagokionez, «es forzoso reconocer la existencia de un derecho de los titulares de Centros docentes privados a la dirección de los mismos, derecho incardinado en el derecho a la libertad de enseñanza de los titulares de dichos Centros. Aparte de que el acto de creación no se agota en sí mismo, sino que tiene evidentemente un contenido que se proyecta en el tiempo y que se traduce en una potestad de dirección del titular...» (KAre ekainaren 27ko 77/1985 Epaia, 20. oinarri juridikoa).



espresuki jasotzen du eta KAK dagoeneko bere edukiaren berri eman digu:

«Desde una perspectiva positiva, implica el derecho a garantizar el respeto al carácter propio y de asumir en última instancia la responsabilidad de la gestión, específicamente mediante el ejercicio de facultades decisorias en relación con la propuesta de estatutos y nombramiento y cese de los órganos de dirección administrativa y pedagógica y del profesorado. Desde el punto de vista negativo, ese contenido exige la ausencia de limitaciones absolutas o insalvables que lo despojen de la necesaria protección»<sup>84</sup>.

### **E) Hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea**

Gure Konstituzioan eskubide honen aipamen espresurik ez izan arren, Konstituzio Auzitegiak berak onartu duenez gero, irakaskuntza askatasunetik zuzenean ondorioztatzen da. Horrez gain, nazioarteko hitzarmenek ere hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea gure antolamendu juridikora ekarri dute<sup>85</sup>.

Ohartuko zinetenez, nazioarteko testuek eskubide honetaz aritzerakoan, titulartasuna guraso eta tutoreei egozten diete. Hataik, gure ustetan hezkuntza aukeratzeko eskubidearen zinezko titularrak ikasleak dira. Baina, maizenik, bere adin-txikitasuna dela eta, ikaslea legez ez da gai bere kasa heziketa mota aukeratzeko. Hori dela eta, ikaslea legez gai ez den bitartean gurasoek bere izenean eskubide hori egikarituko dute. Gurasoak hezkuntza aukeratzeko eskubidearen jabe bakartzat joko bagenitu

---

(84) KAren 77/1985 Epaia, 20. oinarri juridikoa.

(85) GEAUren 26.3 art.: «Los padres tendrán derecho preferente a escoger el tipo de educación de habrá de darse a sus hijos».

EGKENPren 13.3 art.: «Los Estados Partes en el presente pacto se comprometen a respetar la libertad de los padres y, en su caso, de los tutores legales de escoger para sus hijos y pupilos escuelas distintas a las creadas por las autoridades públicas (...) y de hacer que sus hijos o pupilos reciban la educación religiosa o moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones.»

GEFAEHren lehen protokolo gehigarriaren 2. art.: «El Estado (...) respetará el derecho de los padres a asegurar esta educación y esta enseñanza conforme a sus convicciones filosóficas y religiosas.»

arrazoigabekeria jausiko ginatke: ikaslea adinez nagusia izanda ere, bere ikasketak aukeratzeko eskubidea ukatzearena. Embid Irujok dioenez, «cuando el escolar es mayor de edad, hablar de derechos educativos de los padres no tiene ningún sentido, ni lógico ni jurídico»<sup>86</sup>.

27. artikuluan agertzen diren gainerako hezkuntza eskubide gehienak bezala, hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea prestazio eskubidea ez, baizik askatasun eskubide publikoa da. Hori dela eta, hiritarrek ezin izango diete eskatu aginte publikoei nork bere pentsaerarekin bat datorren heziketa mota izango duten ikastetxeak sor ditzaten. Heziketa mota aukeratzeko eskubideak bermatzen duena zera da: dagoeneko sorturik dauden ikastetxeak eskaintzen duten heziketa mota desberdinen artean, hiritarrek gogokoen dutena aukera dezatela, besterik ez. Bestela, guraso pentsamolde lain ikastetxe sortu beharko litzateke.

Gai hau amaitzeko, hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea hezkuntzaren alderdi moral eta erlijiosoetara ez dela mugatzen esan beharra dago. Izan ere, eskubide honek hezkuntza iharduera osatzen duten alderdi guztiak ikutzen ditu: pedagogikoak, antolaketazkoak, filosofikoak eta beste.

## F) Ideiadura finkatzeko eskubidea

Ideiadura finkatzeko eskubidea ikastetxeak sortzeko eskubidetik ondorioztatzen da. Eskubide honen Konstituzio aitoren espresurik ez badago ere, Konstituzio Auzitegiak dagoeneko eskubide hau badagoela aitortu du. Bere iritziz, ideiaduraren finkapena ikastetxearen sorkuntza aktuaren zati bat baino ez da<sup>87</sup>.

Ortiz Díazek definitu duen legez, ideiadura zera da: «un sistema coherente de ideas y principios generales destinados a engendrar y desarrollar un proyecto de enseñanza». Bestela

---

(86) EMBID IRUJO. Derecho a la educación y Tribunal Europeo de DDHH. *REDC*, 1983, 7. zenb., 391. or.

(87) KAren 5/1981 Epaia, 8. oinarri juridikoa.

esateko, ideiadura ikastetxearen berezko izaera adierazten duen hori da.

Ideiadura edo berezko izaera finkatzeko eskubidea gurasoek hezkuntza mota aukeratzeko duten eskubidearekin estu lotua dago. Izan ere, ideiadurak ikastetxe pribatu bakoitzak hezkuntza iharduera zein balioaren eta zein bizitza kontzepzioaren arabera bideratuko duen azaltzen du, gero guraso eta ikasleek bere siniskera eta pentsakerekin bat datorren ideiadura hauta dezaten. Ideiadurari eskerrak, beraz, guraso eta ikasleek gogoko duten heziketa mota aukera dezakete.

Heziketa mota aukeratzeko eskubidearen eraginkortasuna bermatua gera dadin ikastetxe pribatu guztien ideiadurak publikoa behar du. Esan beharrik ez dago, doakionak nekez aukeraturiko duela gogoko duen hezkuntza baldin eta ikastetxeek eskaintzen dituztenak ezezagunak bazaizkio. LODEak ideiaduraren publizitatearen gaia 22.3 artikuluan ikutzen du:

«El carácter propio del centro deberá ser puesto en conocimiento de los distintos miembros de la comunidad educativa por el titular».

Ikastetxeak sortzeko eskubidetik ondorioztatzen denez, ideiadura finkatzeko eskubidearen titulartasuna ikastetxe pribatuen jabeei dagokie. Edozertara ere, jabea ez dago bere ikastetxean ideiadura bat ezartzera behartua, hura finkatzea nahitazkoa baita, eta ez agintezkoa.

Eskubide hau lehengo aldiz LOECEn hezurmamitu zen<sup>88</sup>. Ez zen gertakizun batere baketsua izan, eta legebiltzar eztabaidan eskubide haren inguruan sesio mikatzak izan ziren. Sozialistak eskubide honen aitorten espresuaren aurka gogotik aritu ziren. Ideiadura arautzen zuten prezeptuen kontra Konstituzio kontraktasunezko helegitea eta guzti tartearri zuten. Baina, espero

---

(88) LOECEk honela zioen:

34. art.: «Se reconoce a los titulares de los centros privados el derecho a establecer un ideario educativo propio, dentro del respeto y los principios y declaraciones de la Constitución».

enez, Konstituzio Auzitegiak sozialisten pretentsioak atzera bota zituen.

Izan ere sozialistek, ideiadura 27.3 artikuluari lotuz, aspektu erlijioso eta moraletara soilik mugatu nahi zuten. Auzitegiak ideiadura eta 27.3 artikulua arteko lotura onartu arren, ideiadura ezartzeko eskubideak besteak baino eduki zabalagoa zuela adierazi zuten: «Tratándose de un derecho autónomo, el derecho a establecer un ideario no está limitado a los aspectos religiosos y morales de la actividad educativa (...) el ideario de cada centro puede extenderse a los distintos aspectos de su actividad».<sup>89</sup>

Berezko izaera, hortaz, hezkuntzaren edozein aspektutara heda daiteke: filosofikora, pedagogikora, ideologikora, antolaketazkora...

Sozialistek agintera heldu eta gutxira, LOECE suntsitu eta LODE indarrean jarri zuten. Azken honetan ideiaduraren trataera nabarmenki aldatzen da, eta ez da harritzekoa sozialistek LOECE garaian ideiaduraren aurka erakutsi zuten jarrera ikusita.

22. art.: «En el marco de la Constitución y con respeto de los derechos garantizados en el Título preliminar de esta ley a profesores, padres y alumnos, los titulares de los centros privados tendrán derecho a establecer el carácter propio de los mismos».

LOECEekin konparatuz, hiru dira LODEk ekartzen dituen berrikuntza aipagarrienak:

- Lehenbizi, «ideiadura» hitzaren ordez «berezko izaera» delakoa erabiltzen du. Konstituzio Auzitegiak aldaketa hau inolako arazorik gabe onartu zuen<sup>90</sup>.

---

(89) KAre 5/1981 Epaia, 8. oinarri juridikoa.

(90) «Por lo que atañe a la no utilización del término «ideario», y el empleo, en su lugar, de la expresión «carácter propio» del Centro (...) el empleo de un sinónimo o término equivalente, pero distinto del ya utilizado en antecedentes legislativos, queda dentro de la voluntad de configuración del legislador, y desde luego no puede servir para expulsar una interpretación constitucional referida a una misma realidad» (KAre 77/1985 Epaia, 8. oinarri juridikoa).

- Halaber, eta LOECEn gertatu bezala, baina alderantziz, LODEn ideiadurak ez ditu espresuki hezkuntza prozeduran parte hartzen duten eskola elkartearen kideen -irakasleagoa, gurasoak, ikasleagoa- eskubideak mugatzen. Hala, LODEk omititu egiten ditu LOECEn arabera irakasleek (15. art.), ikasleek (37. art.) eta gurasoek (18.2 art.) ikastetxearen ideiadurari zor zioten errespetuari buruzko aipamenak.

Konstituzio Auzitegiak ideiadura eta eskola elkartea osatzen duten kideen arteko harremani buruzko auzia era honetan konpondu zuen: «En cuanto al hecho de que el art. 22.1 mencione los derechos de los miembros de la comunidad escolar, profesores, padres y alumnos, omitiendo el deber de éstos de respetar el ideario del centro, no tiene porque suponer que ni que tal deber no exista o no tenga virtualidad limitante (...) la no expresión por parte del legislador de un límite o un derecho constitucional expresamente configurado como tal no significa sin más inexistencia, sino que ese límite puede derivar directamente del reconocimiento constitucional o legal de ambos a la vez»<sup>91</sup>.

- Azkenik, LODEk 21.1. artikuluan xedatzen zuena errespetatua izango zela ziurtatzeko, ideiaduraren finkapena baimen administratiboan pean jartzen zuen. Erabaki honen bidez, ideiadurak guraso, irakasle eta ikasleen eskubideak errespetatuko zituela segurtatu nahi zen, horretarako hezkuntza agente edo eragile ezberdinen eskubide konstituzionalen artikulazioaren kontrola administrazioaren esku utzirik. Baina Konstituzio Auzitegiak artikulua hau eta ildo beretik zihoan 4. xedapen iraunkorra ez-konstituzionalizat jo zituen. Bere esanetan:

«Es evidente que si la autorización está condicionada a que la Administración verifique si se da en esa articulación

---

(91) KAren 77/1985 Epaia, 4. oinarri juridikoa.

el respeto debido al conjunto de tales derechos, no puede tratarse de una autorización estrictamente reglada, como la que prevé para otros supuestos el art. 23 del Proyecto (análogo al 33 de la LOECE), y que la Administración invadiría así la delicada labor de delimitar un conjunto de derechos constitucionales en presencia, labor que sólo corresponde a las jurisdicciones competentes.»<sup>92</sup>

Aurrerago esan dugunez, LOECEk ez zion ikastetxean ideiadurari muga espresurik jartzen, muga hauek eskubide konstituzionalen artikulaziotik ondorioztatu behar ziren. LODerekin, aitzitik, guztiz alderantzizkoa gertatu zen eta ideiadurari bakarrik ezarri zitzaizkion mugak. Ez ohizko egoera hau zuzentzen saiatu da Konstituzio Auzitegia, eta eskubide desberdinen mugaketari buruz iritzi interesgarri eta garrantzitsuak eman ditu. KAK esan duenez, Konstituzioaren balio eta printzipioetatik eratorzen diren mugez gain, hezkuntza prozeduran parte hartzen duten beste eragileen eskubideen artikulaziotik sortzen direnak ere izango ditu ideiadurak.

**a) Ideiadura ezartzeko eskubidea eta gurasoen eskubideen arteko harremanak.** Gurasoek seme-alabentzako ideiadura jakin bat duen ikastetxea hautatu eta gero, ezin izango dute ikastetxean ideiadura horren aurka doazen iharduerak burutu daitezen eskatu. Hasiera batean eginiko hautaketarekin koherenteak izan behar dute eta gainerako gurasoek egindako aukera errespetatu. Hastapeneko hautaketarekin ados ez badira hobe dute seme-alabak ikastetxez aldatzea. «Es claro que al haber elegido libremente para sus hijos un centro con un ideario determinado están obligados a no pretender que el mismo siga orientaciones o lleve a cabo actividades contrarias con tal ideario, aunque sí puedan pretender legítimamente que se adopten decisiones que (...) no puedan juzgarse con arreglo a un criterio serio y objetivo contrarias al ideario».<sup>93</sup>

---

(92) KAren 77/1985 Epaia, 10. oinarri juridikoa.

(93) KAren 5/1981 Epaia.

**b) Ideiadura ezartzeko eskubidea eta ikaslegoaren eskubideen arteko harremanak.** Ikasleak bere borondatez edo gurasoen borondatez aukeratutako ikastetxearen ideiadura errespetatu behar du. Alabaina, ikasleak ere badu bere integritate eta duintasuna (LODE, 6.1.d art.), kontzientzi askatasuna eta siniskera erlijioso eta moralak (LODE, 6.1.c art.) errespetatuak izateko eskubidea. Hau da, ikasleak edo bere gurasoek aukera bat egin dute, eta nahiz eta ikastetxearen berezko izaerarekin ados ez egon, ezin izango dute bere ihardueraren bidez hura arriskuan jarri. Beraz, zilegi da ikastetxe batek bere irakas-iharduera, ikasleak bereak ez dituen balore eta irizpideei jarraiki burutzea, ikasleak badakielako ikastetxe batean sartu baino lehen publikoa den ideiadura jakin baten arabera hezitua izango dela.

Honek ez du esan nahi ikaslearen kontzientzi askatasuna hautsi, eta indarraren poderioz asumitzen ez duen munduaren interpretazio bat inposa dakiokenik. Ikasleak bere balore eta irizpideak kontserbatuko ditu, baina jakinduriaren transmisioa beste bizitza-balore batzuen pean izatea onartu beharko du, bere ikaskideek hezkuntza motari buruz eginiko aukera begirunez errespetatuz.

**c) Ideiadura ezartzeko eskubidea eta katedra askatasunaren arteko harremanak.** Irakasleak ikastetxearen berezko izaera edo ideiadura errespetatu beharko du, baina hortik irakasleak ideiaduraren apologista izan behar duela esatera alde nabarmena dago; irakasleak ez du zertan irakaskuntza adoktrinamendu bihurtu. Berorrek bere funtzioa tajuz betetzeko, nahikoa du bere irakas-lana irizpide zientifiko eta arrazionaleri jarraiki burutzearekin eta ideiaduraren aurkako eraso zuzenak sahiestearekin<sup>94</sup>.

---

(94) «La existencia de un ideario, conocida por el profesor al incorporarse libremente al centro o libremente aceptada cuando el centro se dote de tal ideario después de esa incorporación, no le obliga, como es evidente, a convertirse en apologista del mismo ni a subordinar a ese ideario las exigencias que el rigor científico impone a su labor. El profesor es libre como profesor en el ejercicio de su actividad específica. Su libertad es, sin embargo, libertad en el puesto docente que ocupa, del que forma parte el ideario. La libertad del profesor no le faculta para dirigir ataques abiertos o

Horregatik, ideiadurarekiko edozein jarrera kritikok ezin du irakaslearen irazpena justifikatu. Irakasleak ideiadura zuzenean erasotuko ez balu eta irazpena irakasleak harenganako erakutsi duen ez-adostasunean soilik oinarrituko balitz, irazpen hori errotik deuseza izango litzateke eta jabeak irakaslea berriz onartu beharko luke<sup>95</sup>.

### G) Heziketa erlijioso eta moralak jasotzeko eskubidea

27.3. «Los poderes públicos garantizan el derecho que asiste a los padres para que sus hijos reciban la formación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones».

Aurrerago ikusi bezala, erlijio eta moral heziketarako eskubidea eta hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea ez dira gauza bera. Nahiz eta biak irakaskuntza askatasunetik eratorri, bigarrenak lehenengoak baino eduki zabalagoa du. Heziketa mota aukeratzeko eskubidearen edukia ez da alderdi erlijioso eta moraletara bakarrik mugatzen, harago doa, eta hezkuntza prozedura osoa osatzen duten aspektuak ikutzen ditu, pedagogikoak eta antolaketazkoak barne.

Heziketa erlijioso eta moralak jasotzeko eskubidea ezin daiteke ikastetxe pribatuetan egikaritu, izan ere, bere ezarpen eremua ikastetxe publikoetara mugatzen da. Arrazoia, gure iritziz, hauexa da: ikastetxe pribatuek publikoa den ideiadura dute, beren berezko izaeraren adierazgarri dena; benera, ideiadura horren barne, besteak beste, aspektu erlijioso eta moralak sartzen dira. Beraz, gurasoek ikastetxe pribatu baten edo bestearen aldeko aukera egiten

---

solapados contra ese ideario, sino sólo para desarrollar su actividad en los términos que juzgue más adecuados y que, con arreglo a un criterio serio y objetivo, no resulten contrarios a aquél. La virtualidad limitante del ideario será, sin duda, mayor en lo que se refiere a los aspectos propiamente educativos o formativos de la enseñanza, y menor en lo que toca a la simple transmisión de conocimientos, terreno en el que las propias exigencias de la enseñanza dejan muy estrecho margen a las diferencias de idearios» (KAren 5/1981 Epaia, 10. oinarri juridikoa).

(95) Zentzu honetan, ikus KAren martxoaren 28ko 47/1985 Epaia.



dutenean, aukera horretan heziketa erlijioso eta moralaren alderdia ere sartzen da.

27.3. artikulua tenore literaletik bestelakorik uler badaiteke ere, eskubidearen titularrak ikasleak dira. Gertatzen dena zera da: ikasleek adin nagusitasuna eskuratu artean gurasoek euren izenean eskubidea egikaritzen dutela. Hargatik, usuenik testu legeletan eskubidea gurasoena bailitzen azaltzen da<sup>96</sup>.

Erljio eta moral heziketa jasotzeko eskubideak bi dimentsio ditu: positiboa eta negatiboa. Dimentsio positiboan, heziketa erlijioso eta moralerako eskubidea askatasun eskubidea da eta herri-ikastetxeei bertako ikasleen pentsakera moral eta erlijiosoa errespetatzen dituzte. Bestela esanda, Konstituzioak ikasleari eskola esparruan bere pentsaera moral eta erlijiosoa errespetatua izango dela bermatzen dio.

Zentzu horretan, Irakaskuntza Mailako Gutxiespenaren Aurkako Hitzarmeneko 5.1. b) artikulua estatuen betebeharrari aritzerakoan besteak beste honako hau aitutzen du: «no obligar a ningún individuo o grupo a recibir una instrucción religiosa incompatible con sus convicciones.»

Era berean, LODEk bere 6.1. c) artikuluan honela dio: «Se reconoce a los alumnos el derecho a que se respete su libertad de conciencia, así como sus convicciones religiosas y morales, de acuerdo con la Constitución.»

Azkenik, Espainiako Estatuak eta Sede Santuak burututako hitzarmenak ere antzeko zerbait dio, baina oraingoan, kristau erlijiora mugatuz, jakina. Honela dio bere lehen artikuluko bigarren paragrafoak: «en todo caso, la educación que se imparta en centros docentes públicos será respetuosa con los valores de la ética cristiana.»

Honenbestez, bistan da ikasleen siniskera erlijioso eta moralak errespetatzea gure legediak inposatzen duen zerbait dela. Hala

---

(96) Gogoratu heziketa mota aukeratzeko eskubidearen titulartasunaz aritzerakoan esan duguna, 43. or.

ere, errespeto hori ez dago zertan era absolutuan endelegatu. Siniskera moral eta erlijiosoei errespetoa zor izateak, ez du esan nahi herri-ikastetxeetako irakasleek irakas-lanean dihardutenean nork bere balioei eta bizitza-kontzepzioari uko egin behar dienik. Irakasleak jakinduriaren transmisioa bereak diren bizitza-kontzepzio eta balioei jarraiki egiterik badu, debekatzen zaiona adoktrinamendua, manipulazioa eta ikaslearen balore erlijioso eta moralen aurkako erasoak dira, baina besterik ez. Siniskera moral eta erlijiosoentzat arreta eta begirune handiagoga gura izanez gero, gurasoek beren pentsakerekin bat datorren ideiadura duen ikastetxe pribatua aukeratu beharko lukete.

Esan bezala, erlijio eta moral heziketa jasotzeko eskubideak dimentsio positibo bat ere badu. Dimentsio positibo honetan, heziketa erlijioso eta moralerako eskubidea aginte publikoen aurrean esiji daitekeen prestazio eskubide bilakatzen da. Horrela ikasleek euren pentsakerekin bat datorren erlijio eta moral heziketa jasotzeko eskubidea edukiko dute herri-ikastetxeetan.

LODEk eskubide hau 4. artikuluan aitortu du:

4. «Los padres y tutores (...) tienen derecho:  
(...)

c) A que sus hijos reciban la formación religiosa y moral que esté de acuerdo con sus propias convicciones.»<sup>97</sup>

Edonola ere, LODEren 4. c) artikuluan aldarrikatutakoak ez du Estatua herri-ikastetxe bakoitzean ikasleek eskatu adina heziketa erlijioso mota desberdin antolatu eta finantziatzera behartzen. Esan beharrik ez dago Estatuko aurrekontuek horrelako egoera bati ezin izango lioketela eutsi. Hortaz, heziketa moral eta erlijioso hauek antolatzerako orduan, eskari errealarekin batera momentuan xedagarri dituen baliabideak aintzakotzat hartu beharko ditu Estatuak, hezkuntza zerbitzua modurik eragingarrienean eskaintzekotan.

LOGSEk ere erlijioaren irakaskuntzaren gaia bere bigarren xedapen gehigarrian ikutzen du, erlijio ikasketak ikastetxeentzako

---

(97) Ildo horretan, baina ikasleei dagokienez ikus LODEren 6.1.c) art.

derrigorrezkoak eta ikasleentzako aukerazkoak izango direla iragarritz:

«La enseñanza de religión se ajustará a lo establecido en el Acuerdo sobre enseñanza y asuntos culturales suscrito entre la Santa Sede y el Estado Español y, en su caso, a lo dispuesto en aquellos otros que pudieran suscribirse con otras confesiones religiosas. A tal fin, y de conformidad con lo que dispongan dichos acuerdos, se incluirá la religión como área o materia en los niveles educativos que corresponda, que será de oferta obligatoria para los centros y de carácter voluntario para los alumnos.»

Erlijio katolikoari dagokionez, historikoki Espainian hain egon da errotua<sup>98</sup> ezen Espainiako Estatuak eta Sede Santuak 1979an herri-ikastetxe guztietan heziketa erlijioso katolikoa irakas zedin hitzartu zuten<sup>99</sup>. Honela dio, hain zuzen ere, Espainiako Estatuak eta Sede Santuak sinaturiko Akordioaren 2. artikulua:

2. art.: «Los planes educativos en los niveles de educación preescolar, de educación general básica, de bachillerato unificado polivalente y grados de formación profesional correspondientes a los alumnos de las mismas edades, incluirán la enseñanza de religión católica en todos los centros de educación en condiciones equiparables a las demás disciplinas fundamentales.»

Ikusitako azken bi artikulua hauen argitan, erlijio katolikoaren irakaskuntza oinarrizko irakasgai bat izango da, gainerako oinarrizko irakasgaien -matematikak, historia, literatura...- parekoa.

Hala ere, LOGSEren garapenerako aterako arauak<sup>100</sup> ez dute goiko artikulua bi horiek xedaturikoa bete. Garapen arau hauen arabera:

- erlijio ikasketa aukeratzen ez duten ikasleek haren ordez «irakaslez lagunduriko ikastaldia» izango dute;
- erlijio ikasketen emaitzak ez dira ikaslearen espediente akademikoan kontuan izango.

---

(98 )Gogoratu 1978.eko Konstituzioa indarrean sartu arte Espainia estatu konfesionala zela.

(99 )1979ko urtarrilaren 3ko Estatu eta Sede Santuaren arteko Akordioa, urte bereko abenduaren 4an berretsi zen (EEO, abenduak 15).

(100)Ekainaren 14ko 1.006/1991 eta 1.007/1991 Erret Dekretuak (EAO, 1991ko ekainaren 26an, 152. zenb.).

Duela gutxi emandako lau epaietan, Auzitegi Gorenak arau hauek erlijioa ikastea erabakitzen duten ikasleen aurka gutxiespena sortzen zutela esan du. Erlijio ikasgaiaren alternatiba gisa «irakaslez lagunduriko ikastaldia» delakoa ipiniz gero, «se impone una desigualdad entre los que elijan la enseñanza de la Religión Católica y los que opten por las referidas actividades de estudio, quienes obtendrán un mayor bagaje de conocimientos producto de una mejor y mayor preparación que tales actividades han de proporcionarlos.(...) Y si esto fuera poco las evaluaciones en el área de conocimientos o materia de Religión Católica no se computan en los expedientes personales escolares, estableciendo una nueva discriminación desfavorable para los alumnos de religión»<sup>101</sup>.

Gauzak horrela, erlijio ikasketei legearekin bat datorren arauketa berri bat ematekotan, Hezkuntza Ministeritzak proiektu berri bat atera du. Proiektu honen ildotik, erlijio ikasketen emaitzak ikaslearen espedientean aintzat hartuko dira. Bestalde, erlijioa ikasgaitzat hartu ez dutenek beste aukera batzuk izango dituzte.

## H) **Katedra askatasuna**

Katedra askatasun honen inguruan, gainontzeko hezkuntza eskubide gehienekin gertatutakoaren antzera, autoreen artean iritzi ezberdinak aurki daitezke.

Katedra askatasunaren kokapen konstituzionalak lehendabiziko zalantzak planteatzen ditu. Jakinaenez, hezkuntza askatasun eskubide hau hezkuntza eskubideen berezko kokagunea den 27. artikuluan egon beharrean, adierazpen askatasunarekin batera, 20. artikuluan lekutua dago.

Nicolás Muñizek<sup>102</sup>, kokapen konstituzionalari arrazoi bat birlatu nahirik, katedra askatasunaren ezarpen eremua ez du

---

(101) 1994ko otsailaren 3ko Auzitegi Gorenaren Epaiia.

(102) NICOLÁS MUÑIZ, N. Los derechos fundamentales en materia educativa en la Constitución española, 351. or.

irakaskuntzaren mundura mugatzen, askatasun honek irakaskuntzatik kanpo eraginik baduela dio. Berorren ustez, beraz, hori litzateke katedra askatasunaren aipamen konstituzionala 27. artikuluan agertzearen arrazoia.

Dena den, gu -doktrina nagusiaren iritziari jarraituz- ez gatoz bat Nicolás Muñizek eginiko baieztapenarekin. Katedra askatasunaren zeregina irakaslearen irakaskuntza iharduera babestea den heinean, irakaskuntzatik at askatasun honen esistentzia onartzeak ez du zentzurik, guk uste. Orobat, zail egiten zaigu oso, katedra askatasunari irakaskuntzatik kanpo eraginik duen aplikaziorik aurkitzea.

Zentzu honetan, Barnes Vázquezek bere kokapen konstituzionala aintzat hartuz, katedra askatasuna adierazpen askatasunarekin lotzen du. Bere aburuz, katedra askatasuna «es una especial manifestación de la libertad de expresión, que protege al docente titular en su tarea científica e investigadora. Es, pues, la libertad de hacer ciencia y difundirla, en el seno del sistema educativo»<sup>103</sup>.

Embid Irujok, ildo beretik jarraituz, «la libertad de cátedra consiste, fundamentalmente, en la posibilidad de expresar las ideas o convicciones que cada profesor asume como propias en relación a la materia objeto de la enseñanza»<sup>104</sup>.

Autore gehienek<sup>105</sup> katedra askatasunaren ezarpen eremua irakaskuntzara mugatzean ados izanik ere, askatasun honen subjektua edo titulartasuna finkatzerakoan adostasun hori hautsi

---

(103) BARNES VÁZQUEZ, J. La educación en la Constitución de 1978, 51-52 orr.

(104) EMBID IRUJO, A. *Las libertades en la enseñanza*, 290. or.

(105) Besteak beste, BARNES VÁZQUEZ, La educación en la Constitución de 1978, 50. eta hurrengo orr.; CARRO, J.L. Libertades de enseñanza y escuela privada. *REDC*, 1982, 33. zenb., 211. eta hurrengo orr.; EMBID IRUJO, *Las libertades en la enseñanza*, 289. eta hurrengo orr.; GARRIDO FALLA, *Comentarios a la Constitución*, 264. or.; FERNÁNDEZ MIRANDA y CAMPOAMOR, *De la libertad de enseñanza al derecho a la educación*, 135. eta hurrengo orr.

egiten da. Antza denez, katedra askatasunaren titulartasuna irakasleei dagokie, baina guztiak ote dira askatasun horren jabe ala bakan batzuei bakarrik dagokie?

Auzi-mauzi honen inguruan, bi jarrera nagusi bereizi izan dira: jarrera murriztailea eta jarrera hedakorra.

Lehenengoaren jarraitzaileentzat<sup>106</sup> katedra askatasunaren titularrak unibertsitate mailan diharduten irakasleak bakarrik dira. Bigarren jarreraren defendatzaileen iritziz<sup>107</sup>, aitzitik, titulartasuna irakaskuntzan ari den irakasle orori dagokio<sup>108</sup>.

Aburuak aburu, aurrekari historikoek eta zuzenbide konparatuak jarrera murriztaileari arrazoia ematen diote itxura baten<sup>109</sup>.

---

(106) Besteak beste, GARRIDO FALLA, *Comentarios a la Constitución*, 353. or.; PUENTE EGIDO, J. Educación y Constitución. In *Educación y sociedad pluralista*. Bilbao: Fundación Oriol-Urquijo, 1980, 58. or.; ORTIZ DÍAZ, *Libertad de enseñanza*, 262. eta hurrengo orr.

(107) Besteak beste, EMBID IRUJO. *Las libertades en la enseñanza*, 282. eta hurrengo orr.; eta MARTÍNEZ LÓPEZ MUÑIZ, J.L. La educación en la Constitución española, 276. or.

(108) Jarrera hauetatik aparte, badira beste iritzi aipagarri batzuk. Adibidez, FERNÁNDEZ MIRANDA y CAMPOAMORrek katedra askatasuna batetik eta irakaslearen adierazpen askatasuna bestetik bereizten ditu. Azken hau, irakasleekiko irakaskuntza askatasunaren printzipio zuzentzailearen proiektzioa denez gero, irakasle guztiei dagokie. Katedra askatasuna, berriz, ikastetxe publikoetako irakasleei bakarrik dagokie. Bere ustez, ikastetxe pribatuetao irakasleek katedra askatasunaren jabe ez dira izango, zeren, ikastetxe publikoetako irakasleena ez bezala, beraien irakas-iharduera ikastetxe pribatuetao jabeek ezarritako ideiadurak baldintzatzen baitu. Hori dela eta, ikastetxe publikoetako irakasleak, pribatuetaoekin konparatuz, irakaskuntzan ihardun-eremu zabalagoa izango dute. FERNÁNDEZ MIRANDA y CAMPOAMOR, *De la libertad de enseñanza al derecho a la educación*, 125. eta hurrengo orr.

(109) Katedra askatasunaren lehenbiziko aldarrikapen konstituzionala ez zen kasualitatez izan. Unibertsitateko katedradun irakasleek estatuen aldetik pairatutako zampaketen halabeharrezko ondorioa baizik. Zehazki, Hannoverko erregeak 1837ko Konstituzioa suntsitu zuela eta, Gotingako Unibertsitate publikoaren zazpi irakaslek protesta egin zuten. Errege mendekariak protesta hauen ordainez, zazpi irakasleak beren katedretatik bota zituen. Bidegabekeria horren erantzun gisa, 1849ko San Pablo

Baina, balio interpretzaile garrantzitsua izan arren, argudio historikoak 20. artikulua interpretatzerakoan ez dira elementu erabakiorrak. Ez dugu ahaztu behar, aurrekari historikoetatik aparte, arauen interpretaziorako aintzakotzat hartu behar diren beste elementu interpretzaile batzuk badirela, hala nola, aurrekari legislatiboak, araua aplikatu behar den gizarte-errealitatea, arauen kokapen sistematikoa eta abar.

Horiek horrela, Konstituzio Auzitegiak katedra askatasunaren inguruan sortutako auzi ilun eta korapilatsua askatzeko, 1981ko LOECeri buruzko epaian zenbait argibide eman zuen. Izan ere, Konstituzio Auzitegiaren iritziz, katedra askatasuna ikastetxe publiko zein pribatuetan ari diren irakasle guztiei dagokien askatasuna da. Hitz bitan, jarrera hedakorren alde agertzen da.

«Aunque tradicionalmente por libertad de cátedra se ha entendido una libertad propia sólo de los docentes en la enseñanza superior o quizá, más precisamente, de los titulares de puestos

---

Elizako Konstituzio Inperialean eta 1950ko Prusiar Konstituzioan, estraineko aldiz «zientzia askatasuna» aldarrikatu zen. Ondoren, denboraren joan-etorriarekin askatasun honen aitortpena beste konstituzioetara ere hedatu zen.

Espainiari dagokionez, katedra askatasunaren lehenengo aitortpen ofiziala 1881ko martxoaren 3ko Albaredako Errege Aginduak egin zuen, unibertsitate mailako irakasgaiei bakarrik aplikatu zekiekena. Edozein kasutan, katedra askatasunak ez zuen aitortpen konstituzionalik lortu harik eta 1931ko konstituzioa indarrean jarri arte. Konstituzio honetan, katedra askatasuna eta irakaskuntza publikoaren arteko zalantzagabeko lotura ezarri zen.

48.3 art.: «Los maestros, profesores y catedráticos de la enseñanza son funcionarios públicos. La libertad de cátedra queda reconocida y garantizada.»

Ikusten denez, bada, katedra askatasunak irakaskuntza publikoko irakasleen askatasunak soilik bermatzen zituen.

1931ko Konstituzioaren ostean, indarrean egon zen lege-araubidean -1943ko LOU eta 1970ko LGE- katedra askatasunari buruzko aipamenik ez zen egiten. Hala eta guztiz ere, askatasun hori, izatez, ohitura unibertsitarioan eta usadio akademikoetan irakaskuntza publikoari lotuta mantendu zen.

docentes denominados precisamente «cátedras», (...) resulta evidente, a la vista de los debates parlamentarios, que son un importante elemento de interpretación, aunque no la determinen, que *el constituyente de 1978 ha querido atribuir esta libertad a todos los docentes, sea cual fuere el nivel de enseñanza en el que actúan y la relación que media entre su docencia y su propia labor investigadora.*»

Irakasleei dagokien askatasun indibiduala den aldetik, katedra askatasuna, funtsean, askatasun ideologikoaren eta irakasleek euren iritziak, ideiak eta pentsakerak adierazteko duten eskubidearen proiektzioa da eta irakasle bakoitzak bere irakasgaiari buruz dituen ideiak eta siniskerak adierazteko duen posibilitatean gauzatzen da. Halaxe aitortu du, aitortu ere, Konstituzio Auzitegiak abenduaren 1eko 217/1992 Epaian.

LOECeri buruzko Epaia bueltatuz, Konstituzio Auzitegiak katedra askatasuna, nahitaez, kasuan kasuko irakaspostuak dituen berezitasunek baldintzatzen dutela esan zuen. Berezitasun hauek, era berean, batik bat bi faktorek zehazten dituzte haren aburuz: ikastetxearen izaera publiko ala pribatua, batetik, eta irakaspostuaren irakaskuntza maila, bestetik.

Ikastetxe publikoei dagokienez, Auzitegiak eduki positiboa eta eduki negatiboa bereizten ditu katedra askatasunean.

«En los centros públicos de cualquier grado o nivel la libertad de cátedra tienen un contenido negativo uniforme, en cuanto que habilita al docente para resistir cualquier mandato de dar a su enseñanza una orientación ideológica determinada, es decir, cualquier orientación que implique un determinado enfoque de la realidad natural, histórica o social, dentro de los que el amplio marco de los principios constitucionales hacen posible. La libertad de cátedra es, en este sentido, noción incompatible con la existencia de una ciencia o doctrina oficiales.»

Eduki negatibo honekin batera, katedra askatasunak badauka, halaber, «un amplio contenido positivo en el nivel educativo superior (...) En los niveles inferiores, por el contrario, y de modo en alguna medida gradual, este contenido positivo de la libertad de enseñanza va disminuyendo, puesto que, de una parte, son los planes de estudios establecidos por la autoridad competente, y no



por el propio profesor, los que determinan cuál haya de ser el contenido mínimo de la enseñanza, y son también estas autoridades las que establecen el elenco de medios pedagógicos entre los que puede optar el profesor (art. 27.5 y 8) y, de la otra y sobre todo, éste no puede orientar ideológicamente su enseñanza con entera libertad de la manera que juzgue más conforme con sus convicciones.»

Bukatzeko, eta ikastetxe pribatuei dagokienez UAK zera esan du:

«En los centros privados la definición del puesto docente viene dada, además de por las características propias del nivel educativo y, en cuanto aquí interesa, por el ideario que, en uso de la libertad de enseñanza y dentro de los límites señalados, haya dado a aquél su titular. Cualquier intromisión de los poderes públicos en la libertad de cátedra del profesor sería así, al mismo tiempo, violación también de la libertad de enseñanza del propio titular del centro.»

## I) **Ikastetxearen kontrolean eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea**

27.7. «Los profesores, los padres y, en su caso, los alumnos, intervendrán en el control y gestión de todos los centros sostenidos por la Administración con fondos públicos, en los términos que la ley establezca.»

Artikulu honek ikastetxearen kontrolean eta kudeaketan parte hartzeko eskubidea, bakarrik diru publikoz lagundutako ikastetxeetako guraso, irakasle eta, hala dagokienean, ikasleei aitortzen die. Hala ere, 27.2. artikuluan aldarrikatzen diren hezkuntza helburuen poderioz, eskuhartze eskubide hau ikastetxe guztietako guraso, ikasle eta irakasle orori hedatu behar litzaiekelakoan gaude; demokraziaren zerbitzuean behar duen hezkuntzak, batetik, eta eskola elkarteak osatzen duten kideei ikastetxearen kontrolean eta kudeaketan parte hartzea ukatzen dien ikastetxe egitura agintezaleak, bestetik, ez baitira elkarrekin ondo ezkontzen.

Konstituzio Auzitegiak, bestalde, diru publikoz lagundutako ikastetxeak zeintzuk diren jakiteko argibide batzuk eman dizkigu LODERi buruzko epaian:

«El artículo 27.7 de la Constitución utiliza una fórmula extremadamente amplia, en cuanto deja a la libre apreciación del legislador lo que haya de entenderse por centros con tal sostenimiento, sin que pueda pues identificarse «sostenimiento» con «financiación total», y sin que se excluya pues la participación de la comunidad escolar en los centros parcialmente financiados» (28. oinarri juridikoa).

Diru publikoz lagundutako ikastetxe kontzeptuaren barruan, bada, ikastetxe publikoez gain, partzialki diru publikoz finantziatutako ikastetxeak ere egongo lirateke.

Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegiak ez du esaten finantzaketa horrek nolakoa eta zein neurritakoa izan behar duen. Gauzak horrela, 27.7. artikulua edozein eratarata eta edozein neurritan diru publikoz finantziatutako ikastetxe guztiei aplikatu dakiekeela pentsa liteke.

Irakasle, guraso eta, hala dagokienez, ikasleek ikastetxeen kontrolean eta kudeaketan izango duten partaidetza bideratzeko, LODEak, eskola kontseilua izeneko partaidetza-organoa arautzen du. Eskola kontseiluak ikastetxe guztietako partaidetza-organoa nagusia izan behar du LODEren aginduz. Dena dela, hauek arautzerakoan, legeak, herri-ikastetxeetako eskola kontseiluak eta diru publikoez lagunduriko ikastetxe pribatuetako eskola kontseiluak bereizten ditu.

Herri-ikastetxeetako eskola kontseilua<sup>110</sup> honako hauek osotuko dute: ikastetxearen zuzendaria, ikasketaburua, herri-arduralaritzaren ordezkari bat, barne erregelamenduek finkatuko duten eta, hurrenez hurren, kontseiluaren herena baino txikiagoa ezin izan daitekeen irakasle, guraso eta ikasle kopurua eta, azkenik, idazkaria (41.1 art.). Partaidetza-organoa honen fakultateak, LODEren 42.1 artikuluan azaltzen dira:

- Zuzendaria aukeratu eta honek proposaturiko zuzendaritza-taldea izendatzea.

---

(110) Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak, LODEk eskola kontseiluei buruz ezarritako oinarriari jarraiki, euskal herri-ikastetxeetako partaidetza-organoa nagusia behar duena arautzen du (31. art. eta ondorengoak), «ordezkaritza organo goren» izenpean.

- Zuzendariaren kargugabetzea proposatzea, bi hiru-  
neko gehiengoz.
- Ikasleen onarpena erabakitzea.
- Ikasleen artean diziplina arloan gertatzen diren  
gatazkak konpondu eta, hala dagokionean, hauei zigorrak  
jartzea.
- Ikastetxearen aurrekontu proiektua onartzea.
- zuzendaritza-taldeak eginiko ikastetxearen urteko  
programazio orokorra onartzea.
- Eskola ekintza osagarri, bisita eta bidaia, jantoki eta  
udalekuetako programazio eta garapenerako jarraituko diren  
irizpideak finkatzea.
- Gainerako ikastetxeekin lankidetzaren harremanak  
ezartzea hezkuntza eta kultura mailako helburuak ahalbi-  
detzeko.
- Barne-araudia onartzea.
- Instalakuntzak eta eskola tresneria zaindu eta  
berritzea.
- Irakasle eta administrazio aspektuei buruzko ikaste-  
txearen iharduera orokorra ikuskatzea.
- Barne araudiak ezarritako beste edozein eskuduntza.

Diru publikoz lagunduriko ikastetxe pribatuei dagokienez, eskola kontseiluaren konposaketa honako hau izango da: zuzendaria, ikastetxearen titularraren hiru ordezkari, irakasle eta gurasoen lau ordezkari, ikasleen bi ordezkari eta zerbitzu eta administrazio langilegoaren ordezkari bat (56.1 art.). Ikastetxe kontzertatuetako eskola kontseiluen fakultateak eta herri-ikastetxeetako kontseiluetakoak nahiko antzekoak dira (57. art.). Hala ere, bi dira nabarmentzeko moduko desberdintasunak:

- Herri-ikastetxeetan eskola kontseiluak zuzendaria zuzenean aukeratzen du; ikastetxe kontzertatuetan, berriz,

zuzendariaren hautaketak ikastetxearen jabearen eta eskola kontseiluaren arteko akordioa eskatzen du (59.1 art.).

- Herri-ikastetxeetako eskola kontseiluak ez du zuzenean irakasleen aukeraketan ezta irazpenean esku hartzen, bai ordea ikastetxe kontzertatuetakoak (60. art.).

Ikastetxeetako partaidetza-organo nagusia den eskola kontseiluaren konposaketa eta fakultateen berri eman ondoren, gaituzten Konstituzioak aitorturiko partehartze eskubidearen mugak aztertzea. Guraso, irakasle eta, beharrezko denean, ikasleei dagokien ikastetxearen kudeaketan eta kontrolean parte hartzeko eskubidea, gainontzeko hezkuntza eskubideak bezala, mugatua dago. Honako hauek mugatzen dute:

- Printzipio eta balio konstituzionalek.
- 27.2. atalak hezkuntzari ezarritako helburuek.
- Aginte publikoek beraien konpetentziak egikaritzean indarrean jarritako xedapenek.
- Eta hezkuntza-harreman juridikoan parte hartzen dutenen hezkuntza eskubide konstituzionalek.

Momentu honetan interesatzen zaiguna azken puntuan aipaturiko muga da, hots, Konstituzioaren 27. artikuluan aitortzen diren hezkuntza eskubide desberdinen artikulazio dialektikotik sortzen den elkar mugatze hori. Zentzu horretan, partaidetza eskubidea hiru eskubideek mugatzen dute: ikastetxeak zuzentzeko eskubideak eta ideiadura finkatzeko eskubideak, ikastetxeen jabeei dagokienak, baita ikasle eta gurasoei dagokien hezkuntza mota aukeratzeko eskubideak ere.

- Esan bezala, ikastetxea zuzentzeko eskubidea ikastetxeak sortzeko eskubidetik eratortzen da eta dagoeneko KAK bere funtsezko edukia finkatu du<sup>111</sup>. Ikastetxeak zuzentzeko eskubidearen funtsezko eduki horrek partaidetza

---

(111) Ikus 100. or.

eskubidearen muga gisa jokatzen du; hargatik, guraso, irakasle eta ikasleei 27.7. artikulua aitortzen dien parte-hartze eskubide hori gauzatu eta bideratzeko sortuko diren partaidetza organoek ezin izango dute ikastetxearen jabe-ari dagokion zuzendaritzazko funtsezko eremu hori erasotu.

LODEk, bere 61. artikuluan, ikastetxearen jabea eta eskola kontseiluaren arteko tirabirak konpontzeko gatazka-batzordea arautzen du<sup>112</sup>. Gatazka batzordea, hezkuntza administrazioaren ordezkari batek, eskola kontseiluaren beste batek eta ikastetxearen jabeak osatuko dute (61.2 art.). Batzordeko kideen artean akordiorik lortu ezean, hezkuntza administrazioak auzian parte direnen erantzukizuna erabakitzeko espediente bat instruituko du, eta egoerak hala eskatzen badu, behin-behineko neurriak hartu ahal izango ditu (61.3 art.). Hala ere, administrazioak ezin izango du inoiz ere eskola kontseilu edota ikastetxe jabearen fakultateetan subrogatu (61.4 art.).

- Badakigunez, ideiadura ezartzeko eskubidea ikastetxeak sortzeko eskubidearen barne dago. Izan ere, irakas-kuntza askatasunaren printzipioan oinarritzen den gurea bezalako hezkuntza sistema batean, ideiadura ezartzeko eskubideak berebiziko garrantzia duen funtzioa betetzen du, alegia, guraso eta ikasleek hezkuntza mota aukeratzeko duten eskubidea gauzatu dadin ahalbidetzea. Izan ere, ideiadura desberdina duten ikastetxeen bitartez, gurasoei bizi-tzaren kontzeptio desberdinetatik burututako hezkuntza mota ezberdinak hautatzeko aukera ematen zaie. Horiek horrela, guraso, ikasle eta irakasleek partaidetza organoen bidez euren partaidetza eskubidea egikaritzera,

---

(112) 61.1 «En caso de conflicto entre el titular y el Consejo Escolar del centro o incumplimiento de las obligaciones derivadas del régimen de concierto, se constituirá una comisión de conciliación que podrá acordar por unanimidad la adopción de las medidas adecuadas para solucionar el conflicto o subsanar la infracción cometida.»

ikastetxearen jabearen ideiadura ezartzeko eskubidea bere osotasunean errespetatu beharko dute. Hartara, eskola elkar-  
tearen kideek ikastetxearen ideiadura erasoko balute ikas-  
tetxe jabearen sortzeko eskubidea ez ezik guraso eta ikas-  
leen hezkuntza aukeratzeko eskubidea ere erasoko lukete.

## **J) Ikastetxe pribatuen finantzaketaren arazoa**

Bere garaian ikastetxe pribatuen aitormenak sektore ideologiko ezberdinen artean eztabaida latzak sortu bazituen, pentsa nolakoak ez zituen sortuko beraien finantzaketa publikoak.

Ikastetxe pribatuen finantzaketa publikoaren azken arrazoia irakaskuntza askatasunean bilatu behar da, zehazki, azken honen adierazpena den hezkuntza mota aukeratzeko eskubidean. Hezkuntza mota aukeratzeko eskubidea eraginkorra izan dadin, kanpo aniztasunezko ikastetxeen esistentzia ezinbestekoa da. Hala, aginte publikoek, guraso eta ikasleek gogokoa duten heziketa mota aukera dezaten, heziketa mota desberdinak eskaintzen dituzten ikastetxe pribatuak sustatu beharko dituzte. Ez da nahikoa, ordea, aginte publikoek guraso eta ikasleen eskakizunak asetzeko adina ikastetxe sortzea, honekin batera, aginte-sailek hiritarrari ikastetxe horiek eskaintzen dituzten ikasketak eskuratzeko bideak ere ireki behar dizkiote. Ezer gutxi aurreratuko genuke, hezkuntza-eskaintza anitza eskaintzen duten ikastetxe pribatuak sortu eta gero, hiritarrak horietara iristeko aukera ekonomikorik ez baleuka. Horrelakorik gerta ez dadin, ikastetxe pribatuen finantzaketa nahitaezkoa da.

Aipaturiko ondoriora ailegatuta ere, hezkuntza pribatuaren finantzaketari buruzko kezka amaitu baino, hasi besterik ez dira egiten. Zein neurritan zertu beharko litzateke finantzaketa hori? Finantzaketak erabatekoa ala partziala izan beharko luke? Zein hezkuntza mailatan gauzatu beharko litzateke?

Ikastetxe pribatuen finantzaketa publikoaren pilarri konstituzional nagusia 27.9 artikulua da.

27.9 art.: «Los poderes públicos ayudarán a los centros docentes que reúnan los requisitos que la ley establezca».

Artikulu honek ez du ikastetxe pribatuen jabeen aldeko eskubide subjektiborik sortzen, bertan legegileari igorritako agindu bat besterik ez zaigu azaltzen<sup>113</sup>. Hortaz, jabeek jabe izate hutsagatik ez dute aginte publikoetatik dirulaguntzak jasotzeko eskubiderik. Indarreko legeriak esan beharko du zein baldintzatan eta zein neurritan jasoko dituzten jabeek dirulaguntza horiek<sup>114</sup>.

Konstituzioak hezkuntza pribatuaren finantzaketa legegilearen esku uzten badu ere, legegilearen konfigurazio ahalmena ez da nolana ere erabil daitekeen ahalmen mugagabea. Ahalmen hori egikaritzeko orduan, beti ere Konstituzioaren printzipio orokorrak eta 27. artikuluan aldarrikatzen diren gainerako hezkuntza eskubideek mugatuko dute legegilea. Legegilearen iharduera bideratu beharko duten printzipio eta eskubideen artean, berdintasun sustantzialaren printzipioa (9.2 art.) eta oinarrizko irakaskuntza dohain jasotzeko eskubidea nabarmendu daitezke. Hari beretik KAK honako hau esan zuen 77/1985 Epaian:

*«...no puede interpretarse como una simple afirmación retórica, de manera que quede absolutamente en manos del legislador la posibilidad de conceder o no esa ayuda, ya que, como señala el art. 9º de la CE, ‘los poderes públicos están sujetos a la Constitución’ y, por ello, los preceptos de ésta, expuestos o no,*

---

(113) «El citado art. 27.9, en su condición de mandato al legislador, no encierra, sin embargo, un derecho subjetivo a la prestación pública. Y, materializada en la técnica subvencional o de otro modo, habrá de ser dispuesta por ley.» (KAre 77/1985 Epaia, 11. oinarri juridikoa).

(114) Zentzu honetan, Auzitegi Gorenak honako hau aditzera eman zuen 1990eko urriaren 18ko Epaian (Ar. 7.968):

«La llamada «dimensión prestacional» del derecho a la educación y de la libertad de enseñanza (...) es compatible, y hasta presupone, el sistema mixto de enseñanza, tradicional en España, al tiempo que contribuye a la realización del derecho a la educación básica obligatoria y gratuita dentro de las consignaciones presupuestarias. Pero *para la efectividad de ese derecho, los centros privados que solicitan la ayuda de los poderes públicos han de cumplir los requisitos que la ley establezca y asumir las obligaciones que aseguran el destino de los fondos recibidos con las consecuencias que la ley determine*» (2. oinarri juridikoa).

como en este caso, en forma imperativa, tienen fuerza vinculante para ellos. *Ahora bien, tampoco puede aceptarse el otro extremo, esto es, como hacen los recurrentes, que del art. 27.9 de la CE se desprende un deber de ayudar a todos y cada uno de los centros docentes sólo por el hecho de serlo*, pues la remisión a la ley que se efectúa en el 27.9 de la CE puede significar que esa ayuda se realice teniendo en cuenta otros principios, valores o mandatos constitucionales. Ejemplos de éstos podrían ser el mandato de gratuidad de la enseñanza básica (27.4 CE), la promoción por parte de los poderes públicos de las condiciones necesarias para que la libertad y la igualdad sean efectivas (arts. 1 y 9 CE) o la distribución más equitativa de la renta regional y personal (40.1 CE). El legislador se encuentra ante la necesidad de conjugar, no sólo diversos valores y mandatos constitucionales entre sí, sino también tales mandatos con la insoslayable limitación de los recursos disponibles. Todo ello, desde luego, dentro de los límites que la Constitución establece.»(11. oinarri juridikoa).

Orduan, bada, Konstituzioaren 27.9 artikuluan ikastetxe pribatuak diruz laguntzeko agindu bat baino ez da agertzen. LODEak agindu hori gauzatu eta ikastetxe pribatuen aldeko laguntza publikoa jasotzeko eskubidea sortzeko baldintzak finkatu zituen, delako kontzertu-sistema antolatuz. Kontzertua ez da hezkuntza administrazioak egiten duen kontzesio edo emakida diskrezionala, baldintza legalak betetzen dituztenen eskubide subjektiboa baino<sup>115</sup>. Konkretuki, eskubide honen titulartasuna ikastetxe pribatuen jabe diren eta espainiar naziotasuna duten pertsona fisiko eta juridiko pribatuei dagokie (erregelamenduaren 4.1 art.). Atzerritarrak ere eskubide honen titularrak izan daitezke,

---

(115) LODEren 47.1 art.: «Para el sostenimiento de centros privados con fondos públicos se establecerá un régimen de concierto al que podrán acogerse aquellos centros privados que, en orden a la prestación del servicio público de la educación en los términos previstos en esta ley, impartan la educación básica y reúnan los requisitos previstos en este título. A tal efecto, los citados centros deberán formalizar con la administración educativa que proceda el pertinente concierto.»



hori bai, beti ere gai honen gainean nazioarteko hitzarmenak eta elkarrekikotasunaren printzipioak agindutakoa aintzat hartuz (4.2 art.).

Kontzertu-sistema honen inguruan aztergai interesgarri ugari aurki daitezke: kontzertuen edukia, baldintzak, eskuratzeko lehentasuna eta abar luze bat. Nolanahi ere, aspektu ezberdin horiek guztiak aztertzeak luze joko lukeenez gero, ez dugu horretan lanik hartuko.

**III**  
**HIZKUNTZEN ARAUKETA**  
**ESPAINIAKO KONSTITUZIOAN**

### 3.1. SARRERA: HIZKUNTZA ARLOKO KONSTITUZIO ARAUKETA OROKORRA

Espainiako Konstituzioan, hizkuntza arloari buruzko erregulazioaren giltzarria 3. artikulua da zalantzarik gabe, bertan hizkuntz ofizialtasunaren lerro nagusiak ezartzen dira eta. Duen garrantziagatik artikulua honi arreta berezia eskainiko diogu azterlan honetan. Edonola ere, 3. artikulutik kanpo Konstituzioan zehar hizkuntz arloa behin baino gehiagotan ikutzen da.

Hizkuntzaren gaineko lehen aipamen konstituzionala hitzaurrean agertzen da. Nahiz eta hitzaurreak binkulazio-indarrak ez izan, bertan adierazitakoa arau juridikoen interpretaziorako tresna erabilgarria izan daiteke<sup>116</sup>. Konkretuki, EKren hitzaurreak honako hau adierazten du:

«La Nación española, deseando establecer la justicia, la libertad y la seguridad y promover el bien de cuantos la integran, en uso de su soberanía, proclama su voluntad de:

Proteger a todos los españoles y pueblos de España en el ejercicio de los derechos humanos, sus culturas y tradiciones, lenguas e instituciones.»

Bestalde, adierazpen askatasuna arautzen duen 20. artikuluko bigarren atalak, hizkuntzek komunikabide publikoetan errespetatuak izango direla esaten du<sup>117</sup>.

---

(116) Hitzaurreen arau-indarra eta beren balio interpretatzaileari buruz ikus EZQUIAGA GANUZAS, J. Concepto, valor normativo y función interpretativa de las Exposiciones de Motivos y Preámbulos. *RVAP*, 1988, 20. zenb.

Zentzu berean, Konstituzioan autonomia erkidegoek eskura ditzaketen eskuduntzak sailkatzerakoan, hauen artean, autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzaren irakaskuntzarena aipatzen da (148.1.17 art.)<sup>118</sup>.

Azkenik, Konstituzioaren azken xedapenak, Konstituzioa Espainiako gainerako hizkuntzetan ere publikatuko dela esaten du.

Beste barik, hizkuntz ofizialtasunaren ardatza den Espainiako Konstituzioaren 3. artikuluari helduko diogu.

### 3.2. KONSTITUZIOAREN 3. ARTIKULUA

#### 3.2.1. Zuzenbide konparatua: hizkuntz ofizialtasunaren arauketa mendebaldeko konstituzio liberaletan

Eleaniztasuna ez da estatu bakan batzuei dagokien kontua, eleaniztasuna munduko bazter guztietara hedatzen den fenomeno orokorra da. Estatu txiki zein zabal, demokratiko zein totalitario, aurreratu zein atzeratu eragiten diena. Dena den, eleaniztasunaren aurrean estatuak jarrera desberdinak azaldu dituzte: batzuk errealitateari bizkarra eman eta elebakartasunaren izenean, eleaniztasuna jazarri dute; beste batzuk, hizkuntz aberastasuna begirune eta babes berezia merezi duen ondare kulturala dela jabetu, eta eleaniztasunaren zaintzarako babesbideak antolatu dituzte; azkenik, badira erdibidean geratu eta eleaniztasunaren fenomenoaren aurrean indiferentzia azaldu dutenak.

---

(117) 20.3 art.: «La ley regulará la organización y el control parlamentario de los medios de comunicación social dependientes del Estado o de cualquier ente público y garantizará el acceso a dichos medios de los grupos sociales y políticos significativos, respetando el pluralismo de la sociedad y de las diversas lenguas de España.»

(118) 148.1 artikulua: «Las Comunidades Autónomas podrán asumir competencias en las siguientes materias:

17.º El fomento de la cultura, de la investigación y, en su caso, de la enseñanza de la lengua de la Comunidad Autónoma.»

Hizkuntzekiko jokabide ezberdin hauek tokian tokiko antolamendu juridikoetan islada propioa izan dute. Izan ere, estatuek historian zehar hizkuntz arazoei ematen dieten tratamendu juridikoa ez da beti-batekoa, kasuan kasukoa baizik. Hori dela eta, on genuke estatu desberdinetako konstituziogileek eleaniztasunari zer nolako harrera eman dioten aztertzea. Horixe da, izan ere, ondorengo lerroetan egingo duguna.

Mamiari heldu baino lehen, eta azterketaren nondik norakoa finkatzekotan, hona hemen aurrez aintzat hartu beharreko hiru ohar:

- Azterketa honen objektua mendebaldeko estatuaren Konstituzio demokratikoak izango dira. Hau da, XVIII. mendearen bukaera aldeko Ipar Ameriketako eta Frantziako Konstituzioek ezarritako ereduari jarraitzen diotenak, eta gure artean eskuarki «Konstituzio modernoak» deritzegunak<sup>119</sup>.

- Azterketa honen ondorioetarako Konstituzio hitza zentzu edo adiera formalean ulertuko da. Hori dela eta, Konstituzioak deritzen formalitatez eta ospetasunez hornituriko testu idatzi kodifikatuak izango dira aztergai<sup>120</sup>.

- Izenburutik osterantzekorik uler daitekeen arren, azterlan honek ez du inolaz ere hizkuntz eskubide

---

(119) Konkretuki, aztergai, ondoko estatu hauetako konstituzioak izango dira: Alemania, Austria, Belgika, Danimarka, Espainia, Estatu Batuak, Finlandia, Frantzia, Grezia, Herbehereak, Irlanda, Islandia, Italia, Luxenburgoko, Kanada, Malta, Norvegia, Portugal, Suedia eta Suitza.

(120) Britainia Handiko Konstituzioa, gainerako konstituzio kontinentalak ez bezala, ez da testu unitario eta sistematikoa. Izan ere, Britainia Handiko konstituzioa, izaera kontsetudinarioa duen kodifikatu gabeko konstituzioa da, eta neurri handi batean, baita idatzirik gabeko konstituzioa ere. Edozertara ere, bada konstituzio izaera aitortua duen zenbait testu idatzi. Hauetan bertako hizkuntzen gaineko erreferentziarik ez da ageri (1215.eko Carta Magna, 1629.eko Petition of Rights, 1689.eko Bill of Rights, 1701.eko Act of Settlement, 1911 eta 1949.eko Parliament Acts, 1918.eko Representation of the People Act, eta 1931.eko Westminster Estatute).

konstituzionalen azterketa konparatua izan nahi, hau hertsiki ulertuz gero behinik behin<sup>121</sup>. Lerro hauen helburua askoz ere mugatuagoa da: ikuspegi deskriptibo hutsetik, hizkuntz arazoa Konstituzioek nola isladatu duten aztertzea.

Saiz Arnaizek eginiko sailkapenari jarraituz<sup>122</sup>, eta hizkuntzei eskaintzen dieten trataeraren arabera, liberal-demokratiko kutsuko Konstituzioak lau taldetan sailka daitezke:

1) Hizkuntz gutxiengoen gaineko aipamenik egiten ez duten Konstituzioak.

2) Hizkuntzarengatiko gutxiespena debekatzen duten Konstituzioak.

3) Hizkuntz gutxiengoei babes orokorra aitortzen dieten Konstituzioak.

4) Hizkuntza bat baino gehiagoren ofizialtasuna ezartzen duten Konstituzioak.

1) *Hizkuntz gutxiengoen gaineko aipamenik egiten ez duten Konstituzioak*

Talde honetan honako Konstituzio hauek koka daitezke: Danimarkakoa (1849), Estatu Batuetakoa (1877), Frantziakoa (1958), Herbeheretakoa (1983), eta Islandiakoa (1944).

Islandiako Konstituzioan hizkuntzari buruzko aipamenik eza ez da harritzekoa, bertan hizkuntz gutxiengorik<sup>123</sup> ez dago eta.

---

(121) Azterketa konparatu konstituzional batek nola behar duen ikusteko: CASCAJO CASTRO y GARCÍA ÁLVAREZ. *Constituciones extranjeras contemporáneas*. Madrid: Tecnos, 1988, 11. eta hurrengo orr.

(122) SAIZ ARNAIZ, A. La regulación de las lenguas en las constituciones democrático-liberales: perspectiva europea. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. HAEE-IVAP, 1990, 426. orr.

(123) Lan honen ondorioetarako erabiliko dugun «hizkuntz gutxiengo» kontzeptua MEIC STEPHENSEk *Linguistic Minorities in Western Europe* liburuan erabiltzen duena izango da:

Baina Islandiako kasuan salbu, aipatutako gainontzeko estatuetan hizkuntz gutxiengorik egon badago, hori bai, hauek estatu bakoitzean indar edo intentsitate desberdinez azaltzen zaizkigu. Horrela, Herbeheretan hizkuntz gutxiengo bat baino ez dagoen bitartean -frisiarrak<sup>124</sup>-, Danimarkan hiru -alemaniarak<sup>125</sup>, groenlandiarrak<sup>126</sup> eta feroetarrak<sup>127</sup>-, eta Frantzia zazpi<sup>128</sup> -alemaniarak, bretoiak, flandiarrak, korsikarrak, euskaldunak, katalanak, eta okzitaniarrak- aurki daitezke.

---

«By 'linguistic minority' is meant a community where a language is spoken which is not the language of the majority of the State's citizens.(...) The term 'linguistic minority' should be taken, for the purposes of this book, as referring to indigenous and, in some cases, to autochthonous populations, or to communities so well established that they can be properly regarded as the historic occupants of the territories in which they live. It therefore excludes all refugees, expatriates and immigrants.»

STEPHENS, M. *Linguistic Minorities in Western Europe*. Llandysul: Gomer Press, 1976.

- (124) 1955eko abuztuaren 28an Upstalboomen Frisoi Agiria atera zen. Agiri honen testua ikusteko, PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1942-1989)*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra, 1990, I. alea, 332. or.
- (125) 1955eko martxoaren 29an Danimarkako gobernuak, Alemaniar gutxiengoaren Estatutuari buruzko Adierazpena egin zuen. Adierazpen honen berri izateko ikus PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 233-235. orr.
- (126) 1978ko azaroaren 29an Groenlandiako Autonomi Estatutua indarrean jarri zen. Estatutu honen 1, 2, 8 eta 12. artikuluen berri izateko ikus PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 375-378. orr.
- (127) 1948ko martxoaren 23an Feroe Iretako Autonomi Estatutua indarrean jarri zen. Estatutu honen 8, 9, 10 eta 11. artikuluen berri izateko ikus PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas en Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 263-264. orr.
- (128) Aipatzekoa da hizkuntza eta dialektoen irakaskuntzarako 1951ko urtarrilaren 11ko Legea (Deixonne Legea). Lege honen berri izateko ikus PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas en Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 317-319. orr.

Estatu Batuetako kasua albo batera utzita<sup>129</sup>, hizkuntzei buruzko omisiorik nabarmen eta harrigarriena Frantziako Konstituzioan gertatzen da. Frantzian barrena frantsesatik aparte bestelako hizkuntzetan mintzatzen diren lau milioi pertsona inguru bizi dira<sup>130</sup>, alabaina, Konstituzioan hizkuntz gutxiengo horiei buruzko aipamen txikienarik ere ez da ageri. Eta ez hori bakarrik, frantziar agintariek Europar Batasuneko eskakizunetara egokitu zedin burutu zen 1992ko Konstituzio eraberriketa aprobetxatu zuten bertako hizkuntz gutxiengoei beste eztenkada bat emateko; hala, Konstituzio testuan frantsesa Frantziako hizkuntza ofiziala izango dela esplizitoki jaso zen. Ikus daitekeenez, 1789ko Frantziako Burges Iraultzatik heredatutako eta jaurbide osoaren ardatz nagusi den joera erdirakoi eta bateratzaile hori hizkuntz arloan ere argi eta garbi isladatzen da.

## 2) *Hizkuntzarengatiko gutxiespena debekatzen duten Konstituzioak*

Talde honetan ondorengo Konstituzioak koka daitezke: 1949ko Bonneko Oinarrizko Legea (3. art.), 1948ko Greziako Konstituzioa (5.2 art.), 1948ko Italiako Konstituzioa (3. art.) eta 1975eko Suediako Konstituzioa (8. art.).

Izendatutako konstituzioek, hizkuntzarekin batera, gutxiespenik sor ezin dezaketen beste faktore batzuk aipatu ohi dituzte, hala nola, arraza, kolorea, sexua, erlijioa eta abar.

---

(129) Estatu Batuetako kasua hain berezia denez, albo batera utziko dugu. Dena den, Estatu Batuetako gutxiengoei buruzko informazioa nahi izanez gero, ikus WARNER, W.L. - SROLE, L. *The social system of american ethnics groups*. New Haven: Yale University press, 1960.

(130) Frantzian 1.700.000 pertsona inguru alemanez mintzo dira, 800.000 inguru bretoieraz, 80.000 inguru euskaraz, 90.000 inguru flandesez, 200.000 inguru katalanez, 160.000 inguru korsikeraz, eta 1.500.000 inguru okzitaniaraz. Datu hauen iturria: *Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Européenne*. Luxembourg: Commission des Communautés Européennes, 1986.



Esandakoaren adibide gisa, hona hemen Booneko Oinarrizko Legearen 3.3 artikulua berri: «Nadie podrá ser perjudicado ni privilegiado en consideración a su sexo, ascendencia, raza, idioma, patria y origen, creencias o concepciones religiosas o filosóficas.»

Era berean, lehentxoago ikusi dugunez, ugariak dira hizkuntzagaratiko gutxiespena galerazten duten giza eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenak, besteak beste, GEAUren 2.1 artikulua, EZPNPren 2.1 artikulua, eta GEFAEHren 14. artikulua<sup>131</sup>.

Oraindik orain aipatutako estatu guztiek bere baitan hizkuntz gutxiengoak daukate: Alemanian daniarrak<sup>132</sup> eta frisiarrak<sup>133</sup>; Suedian laponiarrak eta finlandiarrak; Grezian pomaktarrak<sup>134</sup>, turkiarrak<sup>135</sup>, eslaviarrak, baladiarrak, aramuniarrak eta arbaniarrak; Portugalen mirandarrak; eta Italian albaniarrak, alemaniarrak, frantsesak, frisiarrak, friuldarrak, greziarrak, katalanak, kroaziarrak, ladinoak, okzitaniarrak, sardiniarrak, eta esloveniarrak.

### 3) *Hizkuntz gutxiengoei babes orokor bat aitortzen dieten Konstituzioak*

Talde honetan, Austriako Konstituzioa (1920), Italiako Konstituzioa (1948)<sup>136</sup>, eta Norvegiako Konstituzioa (1812) sar daitezke.

---

(131) Ikus 23. or. eta hurrengoak.

(132) 1955eko martxoaren 29an Alemaniako Errepublikako Federaleko gobernuak Danialar Gutxiengoari Buruzko Adierazpena egin zuen. Adierazpen honen berri izateko ikus PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas de Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 231-233. orr.

(133) 1926ko urriaren 12an Ipar Frisiarrak Alemaniarekin bat egitearen aldeko Agiria atera zen. Agiri honen berri izateko ikus PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías de Europa occidental: documentos (1942-1989)*, 199. or.

(134) 1923ko Lausanako Hitzarmenak turkiar gutxiengoaren eskubideak babesten ditu.

(135) Pomaktar gutxiengoa ere, Lausanako Hitzarmenak babesten du.

(136) Ohartuko zinetenez, Italiako hau aurreko taldean ere sartu dugu.

**Austriako** Konstituzioaren 8. artikulua honela dio: «El idioma alemán será, sin perjuicio de los derechos que se concedan por ley federal a las minorías lingüísticas, el idioma oficial de la República.»

Austriako Konstituzioak berak, 194. artikulua bitartez Konstituzio aurreko zenbait lege indarrean mantentzen du. Eta ez bakarrik hori, izaera konstituzionala ere aitortzen die. Lege horietatik bereziki bi dira kontuan izatekoak hizkuntz arloari dagokionez:

-Austrohungariar Inperioaren garaiko 1867ko abenduaren 21eko Oinarrizko Legea. Honek bere 19. artikuluan zera dio:

«Todos los pueblos del Estado tendrán los mismos derechos y cada pueblo tiene un derecho inviolable a la conservación y cultivo de su nacionalidad y de su idioma.

Será reconocida por el Estado la igualdad de derechos de todos los idiomas usuales en el país, en la escuela, en la administración y la vida pública.»

-Lehen Mundu Gerrateari bukaera eman zion 1918ko irailaren 10eko Saint Germaineko Hitzarmena. 63. artikulua araberak: «Austria se obliga a asegurar plena y completa protección de vida y libertad a todos los habitantes de Austria sin distinción de nacimiento, nacionalidad, lengua, raza o religión.»

Konstituzio aurreko lege bi hauetatik aparte, garrantzi handiko beste testu bat ere bada. Austriak berak eta lau potentzia aliatuek 1955eko maiatzaren 15ean sinaturiko Austria Independiente eta Demokratikoaren Berrezarpeneko Hitzarmena, alegia. Hitzarmen honen 7. artikulua eslobeniar eta kroaziar gutxiengien babeserako neurriak arautzen ditu<sup>137</sup>.

---

(137) 7. art.: «Los súbditos austríacos de las minorías eslovena y croata en Carintia, Burgenland y Estiria gozarán de los mismos derechos sobre la base de iguales condiciones que para los demás súbditos del Estado austríaco, incluso el derecho a sus propias organizaciones, reuniones y prensa en su propio idioma.

**Italiari** dagokionez, Konstituzioaren 6. artikulua honela dio: «La república protegerá mediante normas adecuadas a las minorías lingüísticas.»

Horrezaz gain, Italiako Konstituzioak, automomi estatutu «bereziei» Konstituzio lege-indarra aitortzen die (116. art.). Bost dira Konstituzio maila duten estatutu «bereziak»: Sardiniakoa, Friul-Venezia- Juliakoa, Siziliakoa, Trentino-Alto-Adigekoa eta Aosta-Aranekoa. Hauetatik hiru dira hizkuntz arloaz kezkatu azaltzen direnak<sup>138</sup>:

- Friul-Venezia-Juliako Autonomi Estatutuak bere 3. artikuluan honako hau aditzera ematen digu: «En la Región se reconoce la igualdad de derechos y de trato a todos los ciudadanos cualquiera que sea el grupo lingüístico al que pertenecen, con la salvaguardia de las respectivas características étnicas y culturales.»

-T rentino-Alto-Adigeko Autonomi Estatutuak bertan mintzo diren hiru hizkuntzen -alemaniera, italiara, eta ladinoren- babeserako neurriak xedatzen baditu ere, alemaniera eta italierari bakarrik aitortzen die ofizial maila.

---

Tendrán derecho a enseñanza primaria en idioma esloveno o croata y a un número proporcional de escuelas propias de enseñanza media (...).

En los distritos administrativos y judiciales de Carintia, de Burgenland y de Estiria con población eslovena, croata o mixta, se admitirá la lengua eslovena o croata además del alemán como idioma oficial (...).

Los súbditos austríacos de las minorías eslovenas y croatas en Carintia, Burgenland y Estiria participarán en los establecimientos culturales, administrativos y judiciales de dichos territorios en las mismas condiciones que los demás súbditos austríacos.

Se prohibirá la actividad de cualesquiera organizaciones que tiendan a privar a la población croata o eslovena de su cualidad y de sus derechos como tal minoría.»

(138) Harritzekoa bada ere, 1948ko Sardiniako Autonomi Estatutuan ez da inon sardinierari buruzko aipamenik egiten.

-Aosta-Araneko Autonomi Estatutuak, bere V. kapitulu frantsesa eta italieraren arteko ofizialkidetasuna arautzen du.

**Norvegiaren** kasuan, 1988ko erreformararte ez zen gutxiengoan gaineko aipamen konstituzionalik gauzatu. Berandu izan bazen ere, azkenean samiera edo laponieraren aldeko aldarrikapen konstituzionala egin zen, 110. artikuluan hain zuzen: «Se impone a las autoridades del Estado que faciliten las condiciones necesarias para que el grupo étnico sami pueda asegurar el desarrollo de su idioma, su cultura y su vida social.»

### *3) Hizkuntza bat baino gehiagoren ofizialtasuna ezartzen duten Konstituzioak*

Hizkuntza bat baino gehiagoren ofizialtasuna ezartzen duten Konstituzioak honako hauek dira: Belgikakoa (1831), Finlandiakoa (1919), Irlandakoa (1919), Luxenburgokoa (1868), Kanadakoa (1867), Maltakoa (1964), Suitzakoa (1867) eta Espainiakoa (1978)<sup>139</sup>.

Konstituzio hauen artean ere, bakoitzak ofizialtasuna nola antolatzen duen, azpisaillkapen bat egin daiteke: batetik, hizkuntz ofizialtasuna lurraldetasun printzipioan oinarritzen dutenak (Belgika, Suitza, eta Kanada), eta bestetik, hizkuntz ofizialtasuna pertsonatasun printzipioan oinarritzen dutenak (Finlandia, Irlanda, Luxenburgo eta Malta)<sup>140</sup>.

Lurralde estatutuaren arabera, hizkuntza baten ofizialtasunaren ondorioak estatuko lurralde konkretu eta zehatz batera bakarrik hedatzen dira. Hizkuntza bakoitzak bere lurralde eremua du, eta bertako hiritarrek lurralde eremu horretan mantentzen diren

---

(139) Espainiako Konstituzioari buruz aurrerago arituko gatzaizkizue luze eta zabal.

(140) Estatu batzuk, esaterako Espainia eta Italia, beren mugen barneko hizkuntzen ofizialtasuna antolatzeko, lurraldetasun eta pertsonatasun printzipioen erdibidean dagoen printzipio mistoaz baliatu dira.

neurrian soilik gozatuko dute hizkuntza horrekiko eskubide guztiez. Lurralde eremu horretatik kanpo, bertako hiztunen hizkuntz eskubideak murriztuak geratzen dira.

Estatutu pertsonala duten estatuak, ordea, hizkuntza bakoitzaren ofizialtasunaren eraginkortasuna finkatzeko ez dute lurraldearen irizpidea aintzat hartzen, pertsonarena baino. Beraz, estatu bateko edozein hiritarrek hizkuntz eskubide guzti-guztiaz gozatuko du estatu horren luze-zabalera osoan, zeren bertako hizkuntzen ofizialtasunak estatu lurralde eremu osoan eragina izango baitu.

a) Lurralde estatutua duten estatuak:

- **Belgikan** barrena hiru hizkuntza hitzegiten dira: frantsesa (6 milioi hiztun inguru), nederlandera (5 milioi inguru) eta alemaniera (60.000 inguru)<sup>141</sup>.

1931ko Belgikako Konstituzioa, inspirazio napoleonikodun estatu erdirakoi eta unitario baten Konstituzioa izatetik, estatu erregional (1970eko erreformarekin) eta ondoren estatu federal (1980, 1988, eta 1993ko erreformekin) baten Konstituzio izatera pasatu da.

Hizkuntz politikari dagokionez, hasiera batean belgikar agintariek hizkuntz askatasunaren printzipioa jasotzen zuen Konstituzioaren 23. artikuluan<sup>142</sup> oinarriturik, estatu-lurralde osorako frantsesa eta nederlanderaren elebitasunaren alde egin zuten apostu, hots, pertsonatasun printzipioan oinarritutako hizkuntz politikaren alde.

Hizkuntza aukeratzeko askatasuna elebitasunak sortzen dituen arazoak arautzeko biderik demokratiko eta egokiena

---

(141) Hitzunei buruzko datuen iturria: OBIETA CHALBAUD, J.A. *Las lenguas minoritarias y el derecho*. Bilbao: Mensajero, 1976, 62. or.

(142) 23. art.: «Es facultativo el empleo de las lenguas usadas en Bélgica y no podrá ser regulado más que por ley, y sólo para actos de la autoridad y para los asuntos judiciales».

eman dezakeen arren, ez da beti horrela izaten. Lurralde batean hitzegiten diren hizkuntzen arteko egoera desorekatua denean eta batek besteak baino pisu sozial eta politiko dezente handiagoa duenean, hizkuntz askatasunaren printzipioaren aplikazio itsuak desoreka hori areagotu lezake, hizkuntza ahulenaren asimilazio prozesua arinduz. Eta hori izan zen, izan ere, hastapeneko urteetan Belgikan jazo zena. Pertsonatasun printzipioan oinarritzen zen hizkuntz politika horren bidez nederlandera *de facto* frantsesaren menpe geratzen ari zen. Argi ikusi zen frantsesa eta nederlandera norgehiagoka librean utziz gero, bigarrenak lehenengoa zapalduko zuela.

Egunetik egunera nabariago zen asimilazio prozesu hura etetearren, komunitate frantsesak estatuko agintariak gogor presionatu zituen. Presio honek bere fruituak izan zituen eta belgikar agintariak orduraino erabilitako hizkuntz politika zeharo aldatu zuten. Pertsonatasun printzipioa baztertu eta lurraldetasun printzipioan oinarritutako hizkuntz politikari ekin zioten. Hau da, bertako hizkuntzen erabilerari jarraiki Belgikako lurraldea eskualde linguistikoetan banatu zuten eta eskualde bakoitzean elebakartasuna inposatu zen. Hizkuntz politika berri hura hezurmamitzearren, belgikar agintariak lurraldetasun printzipioan inspiratzen ziren hainbat xedapen indarrean jarri zituzten<sup>143</sup>.

Legedi arrunt mailan burutu zen hizkuntz politika aldaketak, Konstituzio testuaren eraberriketa eskatzen zuen, eta hau 1970. urtean egin zen. 1970.eko erreformarekin,

---

(143) Aipagarrienak honako lege hauek dira: 1932ko ekainaren 28ko Administrazio alorrean hizkuntzen erabilpena arauzkotzezko Legea; 1932ko uztailaren 14ko Lehen eta ertain irakaskuntzarako hizkuntz jaurbideari buruzko Legea; 1963ko uztailaren 30eko *Irakaskuntzarako hizkuntz jaurbideari buruzko Legea*; eta 1963ko abuztuaren 2ko *Administrazio alorrean hizkuntzen erabilpenenari buruzko Legea*.

Belgikako lurraldea lau eskualde linguistikotan banatu zen: frantzes hizkuntzaren eskualdea, nederlandar hizkuntzaren eskualdea, alemaniar hizkuntzaren eskualdea eta Bruselako elebidun eskualdea (3 bis art.)<sup>144</sup>. Eskualde bakoitzean elebakartasuna ezarri zen, Bruselan izan ezik, zeinak eskualde elebiduna izaten jarraituko zuen.

- **Kanada**, 1867an eratu zen estatu federala da eta gaur egun hamar probintziaz eta bi lurraldez osatutako estatu federala da<sup>145</sup>. Bertan bi hizkuntza nagusi azaltzen zaizkigu: ingelesa eta frantsesa. Hamar probintzia horietatik, bai biztanle kopuruari dagokionez eta bai garrantzi ekonomikoari dagokionez, bi probintzia gailentzen dira: Ontario eta Quebec. Lehenengoak gehiengo anglofonoa eta bigarrenak gehiengo frankofonoa edukiagatik ere, beraien mugen barna kopuru aldetik hizkuntz gutxiengo nabarmenak dituzte (600.000 mila frankofono Ontarion eta 500.000 anglofono Quebec-en)<sup>146</sup>. Gainerako probintzia eta lurraldeetan ingelesa da gehiengoaren hizkuntza.

Oraindik indarrean dirauen 1867.eko Konstituzioak ez du esplizitoki frantsesa eta ingelesaren ofizialtasunik aldarrikatzen, baina Konstituzioaren 133. artikulutik ofizialtasun hori zeharka edo inplizitoki ondoriozta daiteke.

133. art.: «Tanto la lengua inglesa como la francesa podrán ser usadas en el Parlamento Federal de Canadá y en el Parlamento de Quebec;

---

(144) Aitaturiko lau eskualde linguistikoekin batera, Belgikako Konstituzioak hiru komunitate -frantsesa eta nederlandarra eta alemaniarra (3 ter art.)- eta hiru eskualde

-Walonia, Flandria eta Brusela (107 quarter art.)- bereizten ditu.

(145) Hamar probintziak, honako hauek dira: Terranova, Eduardo Printzearen Irla, Eskozia Berria, Brunswick Berria, Quebec, Ontario, Manitoba, Saskatchewan, Alberta eta Britainiar Columbia. Probintzi estatuturik ez duten lurralde biak Yukon eta Ipar-Mendebaldeko Lurraldeak dira.

(146) Kopuruei buruzko datuen iturria: PLOURDE, M. La legislación lingüística en Quebec. In *Ordenación legal del plurilingüismo en los estados contemporáneos*. Barcelona: Consejo consultivo de la Generalidad de Cataluña, 1983, 66. or.

ambas lenguas serán usadas en las respectivas publicaciones de dichos legislativos. Así mismo cualquiera de las dos lenguas podrá ser utilizada en cualquier proceso que se sustancie ante los Tribunales Federales y ante los Tribunales de la Provincia de Quebec.

Las disposiciones emanadas del Parlamento Federal de Canadá y del Parlamento de Quebec serán publicadas en estas dos lenguas».

Artikulu honek, batetik, Kanadako erakunde federaletan eta bestetik, Quebec-eko probintzian, eta bakarrik Quebec-eko probintzian, legegintzan eta auzitegi mailan elebitasuna inposatzen du. Hau da, Kanadako Konstituzioarentzat probintzia elebidun bat bakarrik dago, errealitateak bestelakorik esaten badu ere. Zalantzarik gabe, elebitasuna Quebec-en bakarrik inposatzea eta gainontzeko probintziak -gehiengo anglofonoak- betebeharrak horretatik aske egotea esanguratsua da oso. Argi dago Konstituziogileek artikulu honekin ingelesaren nagusitasuna bultzatu nahi izan zutela frantsesa bigarren mailan kokatuz.

Bestalde, Kanadako Konstituzioak bere 93. artikuluan<sup>147</sup>, probintziek hezkuntza mailan bakarkako eskuduntza izango dutela xedatzen du. Artikulu honen bidez, beraz, Konstituzioak Quebec-eko agintariei frantsesa eta ingelesaren arteko desoreka hori nolabait zuzentzeko aukera ematen zien, batez ere hezkuntzak hizkuntzen sustapenean zer nolako papera betetzen duen kontuan izanik. Dena den, Quebec-eko agintariek hasiera batean ez zuten 96. artikulua frantsesaren suspertze eta bultzapenerako eskaintzen zuen aukera aprobetxatu, aitzitik, ia 100 urtetan zehar frantsesaren garapenaz baino gehiago ingelesaren hizkuntza eskubideez arduratu ziren. Ingelesaren aldeko hizkuntza politika honen ondorioz, biztanleria anglofona ugartzen zen heinean

---

(147) 93. art.: «En y para cada Provincia el Legislativo podrá aprobar Leyes de forma exclusiva en materia de Educación, de acuerdo con las siguientes previsiones...»



biztanleria frankofonoa gero eta urriago bilakatzen ari zen Quebec-en.

Gainera, Quebec-eko agintariak ingeles gutxiengoari eskainitako babesak ez zuen Quebec-eko probintziatik kanpo mereziriko ordainik izan. Hala, Quebec-en haurrak ikasketak zein hizkuntzatan egingo zituen erabakitzea gurasoen esku uzten zen bitartean, pronbitzia anglofonoetan, eskola publikoan frantsesez ikasteko aukerarik ez zegoen eta frantsesa ikasteko eragozpenak baino ez ziren jartzen. Hortaz, Quebec-eko probintzian pertsonatasun printzipioan oinarritutako hizkuntz politika aplikatzen zen eta gehiengo anglofonoa zuten gainerako probintzietan, ordea, lurralde- elebakartasuna.

Horiek horrela, egunean baino egunean ahulagoa zen frantsesaren presentzia, bai Quebec-en eta baita gainerako probintzietan ere. Egoera hau nolabait zuzentzeko eta frantsesaren erabilera sustatu nahirik, Quebec-eko agintariak 1969ko azaroaren 28an Frantsesa Quebec-eko lurraldean sustatzeko Legea (63 Legea) aldarrikatu zuten. Lege honek ez zuen sortu zeneko helburua lortu, hots, ez zuen ingelesak Quebec-en zuen indar asimilatzailea geldiarazi.

1974. urtetik aurrera<sup>148</sup>, eta batik bat 1976.eko abuztuaren 26ko 101 Legearen bitartez -»Frantses Hizkuntzaren Karta» deritzana- Quebec-eko agintarien jarrera puntatik puntara aldatu zen. 101 Legea Quebec-eko Alderdi Nazionalista agintera heltzeaz batera indarrean jarri zen. Quebec-eko nazionalistek hizkuntz politika goitik behera aldatu zuten. Urte luzeetan nagusi izan zen elebitasunaren

---

(148) 1974ko uztailaren 31n Quebec-eko hizkuntza ofizialari buruzko Legea (22 Legea) sortu zen. Lege honek ordurarte Quebec-en burutu zen hizkuntz politikarekiko lehen haustura serioa dakar. Elebitasuna oraindik erabat alboratzen ez duen arren, frantsesaren lehentasunaren alde agertzen da argi eta garbi.

politika zeharo zokoratu eta frantsesaren elebakartasuneko neurri gogorak hartu zituzten<sup>149</sup>.

- **Suitza** kantoietan banaturik dagoen estatu federala da. Bertan lau hizkuntza mintzo dira, alemaniera, frantsesa, italiara eta erromantxea. Historikoki Suitza kultur eta hizkuntza desberdinen bizikidetasun baketsu eta lasaiaren eredutzat hartua izan da. Edozertara, azken bolada honetan, Suitzak lau haizetara harro zabaldu duen *paix linguistique*en ideia hori kolokan jar lezaketen hizkuntz arazoak muturra azaltzen hasiak dira: erromantxearen desagertzearen arriskua, komunitate alemaniarra eta komunitate frantsesaren arteko ezin-ulertuak, Federazioko administrazioan gertatzen ari den alemanieraren nagusitza eta abar.

Suitzako 1848ko Konstituzioak bere 111. artikuluan -1938ko erreforman indarrean jarri zena- honela dio:

116. art.: «Las lenguas nacionales de Suitza son el alemán, el italiano y el retorromano (romanche).

Se declaran lenguas oficiales de la Confederación el alemán, el francés y el italiano.»

---

(149) Besteak beste, administrazioak ateratako arauak eta iragarkiek gutxienez frantsesez egon beharko dute, administrazioan lan egiteko frantsesaren ezagupena eskatuko da, kontsumorako produktuen iragarkiak eta erabilpen instrukzioak ere gutxienez frantsesez egon beharko dute; lan arloari dagokionez, lanbide eskaintzetan debekatua egongo da frantsesa ez den beste hizkuntza baten ezagupena eskatzea; irakaskuntza mailan, irakas-hizkuntza funtsean frantsesa izango da, lehen hezkuntza ingelesez burutu zuten gurasoen haurrek bakarrik izango dute ikasketak ingelesez burutzeko aukera.

101 Legeak gaurdaino hiru aldaketa izan ditu, lehena 1983an, bigarrena 1986an eta hirugarrena 1993an. 86 Legea deritzan azken aldaketa honek, aurrekoak ez bezala, Frantses Hizkuntzaren Kartan funtsezko aldaketak sartzen ditu. Aldaketa hauek 1982ko martxoaren 29an indarrean jarri zen Kanadako Eskubide eta Askatasunen Kartak eragin zituen. Izan ere, konstituzio izaera duen Karta honek bere 23. artikuluan hezkuntza mailako hizkuntz eskubideei trataera berria ematen die.

Suitzako Konstituzioak hizkuntza ofizial eta hizkuntza nazionalen arteko bereizketa egiten du. Hala, Suitzako hizkuntza ofizialak zein izango diren aditzera ematen duen 116.2 artikulua Federazioko erakunde eta organoekiko harremani bakarrik aplikatu dakieke. Kantoiek, ostera, hizkuntz alorrean subiranuak direnez gero, lau hizkuntza nazionaletatik beren mugen barna ofizial maila zeinek izango duten erabakiko dute<sup>150</sup> eta baita beraien arauketa burutu ere.

Konturako zinetenez, erromantxea hizkuntza ofizialen artean ageri ez den hizkuntza nazional bakarra da. Konstituziogileen erabakiak erromantxea erakunde federalekiko harremanetatik kanpo utzi zuen, eta jakina, horrek ez zion erromantxeari inolako atarramendurik ekarri, bai ordea, kalte ugari. Izan ere, erromantxea egun gal aginean dagoen hizkuntza da, Suitzako biztanleriaren %8ak (50.000 pertsona inguru) bakarrik hitz egiten du, eta bere egoera egunean baino egunean larriagoa da.

b) Estatutu pertsonala duten estatuak:

- **Finlandian** biztanlego osoaren %7ak soilik errepresentatzen duten 325.000 suediar inguru daude. Kopuruz horren txikia den gutxiengo honek gozatzen duen babesak ez du mundu osoan parerik. Antza denez, suediar gutxiengoari Finlandiako estatuak ematen dion trataera berezi horren arrazoa, finlandiar eta suediar herriek ezaugarri berdintsuak dituzten kulturak izatean datza, bai ohituraz, bai arrazaz, bai erlijioz...

---

(150) Suitzar Federazioa osotzen duten 23 kantoietatik, 19 elebakarrak (14tan alemaniera, 4tan frantsesa eta batetan italiara dira, hurrenez hurren, hizkuntza ofizialak), hiru elebidunak (Berna, Friburgo eta Valaisen frantsesa eta alemana dira hizkuntza ofizialak) eta azken bat trilinguea (Grisoien kantoian alemaniera, italiara eta erromantxea dira ofizialak).

Konstituzioaren 14.1 artikulua bere lehen atalean finlandiera edo suomiera eta suedieraren ofizialtasuna aldarrikatzen du. Gainera bere bigarren atalak honela dio: «Se garantizará por ley el derecho de los ciudadanos fineses a su lengua materna, sea la finesa o la sueca, ante los tribunales y autoridades administrativas, y a obtener de unos y otras documentos en dichos idiomas, y se velará porque los derechos de la población de habla finesa y de la población de habla sueca sean promovidos por el Estado sobre un pie de igualdad.»

Finlandiako Konstituzioak, beraz, hiztunen kopuru aldetik horren garrantzi ezberdina duten suomiera eta suediar hizkuntzak maila berean jartzen ditu. Finlandiako Estatuak suediar gutxiengoarenganako duen begirunea ez da nonahi aurkitzen.

Esandakoaren adibide adierazgarria gehiago suediarra duten Aaland Uharteek gozatzen duten jaurbide juridiko berezia da. Jaurbide berezi honen sorburua aurkitzeko, denboran atzera salto egin behar dugu, Nazio Elkartearen indarrean egon zen garaira hain zuzen ere (1919-1946). Nazio Elkartearen sortu zen garaian Finlandian gatazka etniko bat bizi zen. Aaland Uharteetako suediar gutxiengoak Finlandiako Estatutik alde egin eta Suediako Estatuan sartzearen alde zegoen. Egoerari soluziobide bat idoro nahiz, Nazio Elkarteak Finlandiari bere kide izan zedin, Aaland Uharteetan suediar gutxiengoaren babeserako neurriak har zitzala aurre-baldintza gisa jarri zion. Finlandiak konprometzu hura bere gain hartu zuen eta Aaland Uharteetako suediar gutxiengoaren aldeko babes berezi hori handik lasterrera egia bihurtu zuen. Nazio Elkartearen 1946an desagertu arren, Finlandiako Estatuak suediar gutxiengoaren aldeko babesari eutsi ez ezik, areagotu egin zuen. Horrela, 1951. urtean Aaland Uharteetako Autonomi Legea onartu zen. Autonomi Estatutu honek eskaintzen duen babes bereziaren adibide gisa hona hemen bere 35. artikulua zer dioen:

35. art.: «El gobierno provincial y los municipios de las Islas Aaland no estarán obligados a mantener o a contribuir al mantenimiento de las escuelas, salvo a aquellas en las que el idioma de la enseñanza sea el sueco.

La lengua de la enseñanza en las instituciones educativas del estado será el sueco.

En las escuelas de educación primaria mantenidas por el Estado o por los municipios o que reciban el apoyo de tales instituciones, no se podrán impartir las clases en un idioma que no sea el sueco sin el consentimiento del municipio bajo cuya jurisdicción estén.»

Nahiz eta kopuru aldetik antzemangaitza izan, Finlandian beste hizkuntz gutxiengo bat ere badago, laponiar gutxiengoa hain zuzen ere. Arktiar eskualdeetan bizi den hizkuntz gutxiengo honi eskaintzen zaion babesa ez da, ezta urrunetik ere, suediarrei eskaintzen zaiena bezain sendoa. Dena den, ez dugu ahaztu behar gutxiengo honen kasuan eta suediar gutxiengoaren kasuan jokatzen duten baldintzak oso bestelakoak direla: herri nomada izatea, kopuruz oso gutxi izatea, baldintza berezietan bizitzea...

- **Irlandak** 1922. urtean Britainia Handiko Estatuarekin zituen lokarriak hautsi zituen independentzia erdietsiz. 1922. urtean Irlandako lehen Konstituzioa onartu zen. Konstituzio honen 4. artikulua araberak Irlandak bi hizkuntza ofizial izango zituen -gaelikoa eta ingelesa-, eta hizkuntza nazional bakarra -gaelikoa-.

Irlandako agintariek, gaelikoaren garrantzia areagotzearen, gaelikoa eta ingelesaren arteko bereizketa Konstituzioan modu nabariago batean islada zedin komenigarria izango zela pentsatu zuten. Horrela, 1937. ean Konstituzioa eraberritua izan zen. Hizkuntzei buruzko arauketa berria Konstituzioaren 8. artikuluan gauzatu zen:

8. art.: «El idioma irlandés, como lengua nacional, es el primer idioma oficial.

Se reconoce la lengua inglesa como segundo idioma oficial.

Se podrá, sin embargo, disponer por medio de ley el uso exclusivo de una cualquiera de dichas lenguas para una o varias finalidades

oficiales, ora en todo el territorio del Estado, ora en una parte determinada del mismo».

Konstituzioaren eraberriketarekin, bada, gaelikoa Irlandako hizkuntza nazionala ez eze bertako lehenengo hizkuntza ere bilakatu zen. Edozein kasutan, ospe handiko aldarrikapen horiek ez dira nahikoa izan, edo ez behintzat espero zitekeen moduan, gaelikoaren erabilera suspertzeko. Irlandan gertatzen ari denak argi utzi du lege-arauak berez hizkuntza baten erabilera bermatzeko gauza ez direla.

Bi hizkuntza ofizialetatik aparte, Irlandan bada hemen aitaturia izan dadin merezi duen hirugarren hizkuntza bat. Mantarren hizkuntzaz ari gara. Man Irlandako itsasoan dagoen irla da. Bertan 70.000 pertsona edo bizi dira eta euren barne-antolamendurako administrazio-erregimen berezia dute.

- **Luxenburgoko Printzerriak**, 1830. urtetik aurrera Belgikako Erresumapean egon zenak, 1867.ean independentzia lortu zuen. Urte baten buruan Luxenburgoko Dukatu Handiko Konstituzioa aldarrikatu zen. Honek alemaniera eta frantsesa Luxenburgoko hizkuntza ofizialak deklaratu zituen 29. artikuluan. 1948. urtean Konstituzioak eraberriketara jasan zuen, honek 29. artikulua edukia erabat antzaldatu zuen. Testu berriak honela dio: «La ley regulará el empleo de las lenguas en materia administrativa y judicial».

Erreformarekin hizkuntzen ofizialtasuna Konstituziotik atera eta legedi arruntaren esparruan kokatu zuten, ofizialtasunaren arauketa legegileei egotziz. Edonola ere, 29. artikuluan garapenezko legedi hori oraindiko sortzeke dago eta sortuko den susmo handirik ere ez dago.

- **Malta** hiru hizkuntza mintzo dira: maltar hizkuntza, ingelesa eta frantsesa. Erdi Aroan Malta Siziliari lotua egon zenez, italiara uhartean gogotik sartu zen. Administrazio, justizi eta merkatal munduan italiara nagusitu zen. 1800. urtean ingelesak uharteaz jabetu ziren eta harez geroztik

ingeleza maltarren hizkuntza bihurtu zen. 1964.ean, Maltak independentzia lortu eta bere lehen Konstituzioa aldarrikatu zuen. Honek bere 5. artikuluan honela dio:

5. art.: «El idioma nacional de Malta es el maltés.

Las lenguas maltesa e inglesa y cualquier otra que en su caso disponga el Parlamento mediante ley aprobada por no menos de dos tercios de Representantes, serán los idiomas oficiales de Malta, y la Administración podrá utilizar para cualquiera fines oficiales una de dichas lenguas.»

5.2 artikulua dioenez, ingeleza eta maltera Maltako hizkuntza ofizialak izango dira. Badaezpada ere, Konstituzioak beste hizkuntzaren batek ofizial maila eskura dezan ateak zabalik uzten ditu. Ofizialtasuna erdiesteko legebiltzarraren bi herenen oneritzia beharrezkoa izango da. Konstituziogileek aukera hori zabalik utzi izana ez da menturazkoa, ez bairik gabe italiar hizkuntzaren balizko ofizialtasuna gogoan zuten.

### 3.2.2. **Aurrekari historikoak: 1931.eko Konstituzioaren 5. artikulua**

1978ko Konstituzioaren 3. artikulua aurrekari historiko hurbilena eta bakarra II. Errepublikara garaitik 1931ko Konstituzioaren 4. artikuluan aurki daiteke. Azken hau, hizkuntz arazoez arduratu zen aurreneko Konstituzioa izan zen. Denboran atzera egin ez gero, aurreko Konstituzioetan -Baionako 1808.ekoa barne-, hizkuntzaren gaineko aipamen txikiak ere ez zela egin ikus genezake.

1931ko Konstituzioak, ez zuen 1978koak bezain modu zabalean onartzen hizkuntz aniztasuna, edo beste era batera esanda, ez zen hizkuntz gutxiengoekiko hain eskuzabala izan.

Errepublikara garaitik Konstituziogileek nola-hala gaztelaren nagusitasuna testu konstituzionalean argi eta garbi utzi nahi izan zuten, eta baita lortu ere. Horretaz ohartzeko, 4. artikulua irakurri besterik ez dago:

4. art.: «El castellano es el idioma oficial de la República.

Todo español tiene obligación de saberlo y el derecho de usarlo, sin perjuicio de los derechos que las leyes reconozcan a las lenguas de las provincias o regiones. Salvo lo que se disponga en las leyes especiales, a nadie se le podrá exigir el uso de ninguna lengua regional.»

Lehen atalak zioen modura, Errepublikako hizkuntza ofiziala «gaztelera» (castellano) zen, eta ez «espainiera» (español). Gaztelera ala espainiera berben artean, lehenengoa aukeratu zuten Konstituziogileek. Azaleko irakurketa batek, berba bata zein bestea erabiltzea hizkuntzalariei askatzea zegoen hizkuntz arazo hutsala zela eman zezakeen. Baina ez zen horrela izan, ustez garrantzirik gabeko eztabaida linguistikoa zenak, bere atzetik arazo politiko sakonago bat ezkutatzen zuen. García Álvarez en esanetan: «de haberse adoptado la expresión «español», ello hubiera equivalido, en cierto modo, a cosiderar que las otras lenguas no eran españolas»<sup>151</sup>.

Aipaturiko artikulua ez zuen nahikoa gaztelaniaren ofizialtasuna aldarrikatzearekin, harago joan zen, eta gaztelaren ezagupena eskubide bat legez ez ezik, betebeharrak bat legez ere konfiguratu zuten<sup>152</sup>.

Gainerako hizkuntzen ofizialtasunari buruz Konstituzioak ez zuen deusik ere esan. Dena den, 4. artikuluko 2. atalak gaztelera ez beste hizkuntzak ofizial maila lor zezaten ateak zabalik utzi zituen. Izan ere, 4.2 artikulua probintzia eta eskualdeei zegozkien hizkuntz eskubideak estatuko legez finkatuko zirela zioen<sup>153</sup>. Aukera honetaz baliatuz, lehenengo Kataluniako (1932) eta ondoren Euskadiko (1936) Autonomi Estatutuek, nork bere lurralde eremuetan, katalana eta euskara hizkuntza ofizialak izendatu zituzten.

---

(151) GARCÍA ÁLVAREZ, M.B. La cuestión lingüística en las Cortes constituyentes de la II. República. *RDP*, 1978, 71. zenb., 307. or.

(152) Betebeharrak honi buruz aurrerago arituko gatzazkizue luze eta zabal.

(153) Ohartuko zinetenez, artikulua honetan ikuspegi tekniko-juridikotik akats bat dago. 4.2 artikulua, hizkuntzak eskubide subjektiboen titularrak izan daitezkeela esaten baitu, eskubide subjektiboen jabetza, pertsonen -fisiko nahiz juridiko- eta bakarrik pertsonen dagokienez.





buruzko adostasuna erabatekoa izan zenik, ezta gutxiago ere, aurregitasmoak aurkako oposaketa bortitz bati aurre egin behar izan zion, bereziki indar abertzaleen aldetik. Hala, EKren 3. artikulua Gorteetan eztabaidatu eta onetsi zenean, indar nazionalista guztien arbuio eta gaitzespena jaso zuen.

Aurregitasmoaren 3. artikuluaen aurka bi eratako objezioak planteatu ziren: formaltzat jo ditzakegun objezioak -«castellano-español» sinonimiari buruzkoak- eta mamiari edo edukiari buruzko objezioak.

Konstituzio aurregitasmoaren testuaren erredakzioak senatuko osoko bilkurararte ez zuen inolako aldaketarik pairatu. Lehen aldaketa, Cela Trulockek tarteraturiko emendakinak eragin zuen<sup>156</sup>. Honek *Real Academia de la Lengua* eta *Real Academia de la Historiak* egin zuten erreguari jarraituz, testu konstituzionalean «castellano o español» sinonimia agertzea eskatu zuen<sup>157</sup>. Horrela,

---

(155) 3. art.: «El castellano es la lengua oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerlo y el derecho a usarlo.

Las demás lenguas de España serán también oficiales en las comunidades autónomas de acuerdo con sus respectivos Estatutos.»

La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección» (EEO, 1978ko otsailak 5).

(156) 103. emendakina: «El castellano o español es la lengua oficial del Estado y común de los españoles, quienes tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla. *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*. Madrid: Servicio de publicaciones de las Cortes Generales, 1980, III. alea, 3.061. or.

(157) Ildo beretik OLLERO senadoreak sinonimiaren aldeko adierazpen interesgarriak egin zituen: «Desde finales del siglo XV se han usado como sinónimos el «castellano» y «español» (o «lengua castellana» y «lengua española»). El segundo nombre ha ido preponderando cada vez más, y es el único que tiene vigencia en el uso internacional. En lingüística es abrumador el uso del «español» y se reserva «castellano» para la lengua de la Edad Media o la variedad dialectal propia del español hablado en Castilla. Las Academias de los países hispanoamericanos usan la denominación «lengua española» que aparece también en Constituciones, Tratados internacionales y otros documentos oficiales. Podría llegarse a la anormal

termino bietatik bat aukeratu beharrean, biak batera Konstituzioan jasotzearen alde agertu zen. Talde zentristak, hasera batean, Cela Trulocken emendakinari bere atxekimendua eman zion Senatuko osoko bilkuran. Dena den, atxekimendu horrek gutxi iraun zuen, zeren Batzorde Mistoak -zentristen laguntzarekin- testuaren erredakzioa berriz ere aldatu baitzuen. Azkenean, behin-betiko erredakzioa honela geratu zen: «El castellano es la lengua española oficial del Estado.»

Ikusten denez, eta guztien harridurarako, azken formulazio korapilotsu eta erredundante honek ez du Senatuan eztabaidatu zenarekin zerikusi handirik. Batetik, ez da «castellano o español» sinonimiaren agerpena onartzen, baina bestetik, ez da aurregitasmoaren erredakzioa errespetatzen. Azken finean, Entrena Cuestak ironiaz dioen moduan, «se llega al feliz descubrimiento de que el castellano es una lengua española(!).»<sup>158</sup>

Edonola ere, gure aburuz, behin-betiko formulazio bitxi horrek itxurazko arazo terminologiko horren atzetik arazo politiko sakonago batzuk bazeudela aditzera ematen digu. Konstituziogileak gaztelera ez beste estatuko hizkuntzak ez ote zituzten espainoltzat hartuko beldur ziren nonbait. «Se prefirió hablar de lengua castellana, en cuyo favor se argumentó que tan españolas como la castellana eran las restantes lenguas que se hablaban en la península, que el privarlas de tal condición era un factor separatista.»<sup>159</sup>

---

situación de que el «español» fuese la lengua oficial de muchos países pero no de España.(...) Finalmente, esta lengua no es creación exclusiva de Castilla ni patrimonio privado de ella, sino que ha sido creada y desarrollada por todos los españoles, hispanoamericanos y otros pueblos que la tienen como propia.» *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*, III. alea, 3.058 or.

(158) ENTRENA CUESTA, R. Comentario al artículo 3º de la Constitución. In GARRIDO FALLA. *Comentarios a la Constitución*. Madrid: Civitas, 1878, 59. or.

(159) ALZAGA, O. *La Constitución española de 1978*. Madrid: Foro, 1978, 107. or.

Aipatutako aldaketa «terminologiko» horiek izan ziren aurregitasmoak pairatu zituen bakarrak. Edukiaren edo mamiaren aldetik ez zen aldaketarik gertatu. Hala ere, legebiltzarkideek aurregitasmoaren testuari zentzu bateko zein besteko objezioak planteatu zizkioten.

Horrela, Alianza Popularreko (AP) de la Fuente diputatua hizkuntz ofizialkidetasuna testu konstituzionalean agertzearen aurka azaldu zen. Bere iritziz, eskualde hizkuntzen ofizialtasunaren aldarrikapena, tokian tokiko autonomi estatutuen esku soilik utzi beharreko gauza zen, 1931.eko Konstituzioak egin zuen bezalaxe. De la Fuente jaunak, besteak beste, honako hau esan zuen Kongresuko Konstituzio Arazoetarako Batzordearen aurrean: «En definitiva, quisiéramos una línea parecida a la que siguió la Constitución del año 1931 que aquí ha sido citada, sustituyendo, por tanto, en este párrafo la afirmación tajante de «las demás lenguas de España serán también oficiales»; es decir, dejando la definición última de este tema a lo que en los propios estatutos territoriales se establezca (...) Yo creo que si en la Constitución del año 1931 no se quiso hacer una declaración tan tajante como la que nosotros intentamos hacer ahora, fue justamente porque se tuvo conciencia por quienes la hicieron de los gravísimos problemas que plantea la declaración de cooficialidad de dos lenguas en un mismo territorio»<sup>160</sup>.

Ildo beretik Azcárate Flores senadoreak, 1931.eko Konstituzioaren erredakzioari jarraituz, ondorengo emendakina proposatu zuen: «Salvo lo que se disponga en leyes especiales, a nadie se le podrá exigir el conocimiento y el uso de ninguna lengua regional»<sup>161</sup>.

Talde Komunistako Sole Tura diputatu jaunak aurregitasmoaren testua oro har onargarritzat jotzen zuen. Hala eta guztiz ere, gartzelera eta gainontzeko hizkuntzen arteko erabateko

---

(160) *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*, I. alea, 882. or.

(161) *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*, III. alea, 3.057 or.

berdintasun juridikoa Konstituzioan argi eta garbi islada zedin lortu nahi zuen, horretarako, 3.1 artikulua bukaeran «sin perjuicio de lo dispuesto en el número segundo del presente artículo» esaldia eransteari komenigarria zeritzon. Bere hitzetan, «aquí no se trata de imponer el conocimiento forzoso de una lengua; se trata de crear las condiciones para que las dos lenguas se manejen con igualdad»<sup>162</sup>.

Aurregitasmoaren kontrako oposaketarik tinko eta sutuena alderdi nazionalistek (katalanak eta euskaldunak) planteatu zuten. Aurregitasmoaren edukiak ez zituen ezta urrutetik ere alderdi abertzaleen hizkuntz eskaerak asetzen. Zalantza izpirik gabe esanguratsua da oso, hizkuntz arazoak zuzenkiago afektatzen ziztuzten herrialdeen ordezkarien oposaketa indartsu hura.

Minorí Catalana legebiltzar taldearen izenean Trías Fargas jaunak Konstituzio Arazoetarako Batzordearen aurrean tartearri zuen emendakinean -105.a-, Kataluniako administrazio autonomoaren hizkuntza ofizial bakarra katalana izatea proposatu zuen<sup>163</sup>. Hala ere, gauzak nola zeuden ikusita, bere eskakizunak urrunegi joan zirelakoan edo, emendakin hura atzera bota eta ondorengo hau tarteratu zuen horren ordezkari Kongresuko osoko bilkuran eztabaidatua izan zedin: «las demás lenguas de España serán también oficiales en los territorios autónomos de acuerdo con sus respectivos Estatutos. Todos los residentes en dichos territorios tienen el deber de conocer y el derecho a usar ambas lenguas».<sup>164</sup>

---

(162) *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*, II. alea, 1.933 or.

(163) Zentzu berean, Esquerria Republicana-ko bozeramalea zen PUNCERNAU jaunak honako hau esan zuen Senatuaren Konstituzio Arazoetarako Batzordearen aurrean: «Creemos que la oficialidad del castellano ha de limitarse a los órganos del Estado. Si, a excepción de éstos, es también oficial en el territorio de las CCAA, las lenguas propias de dichas comunidades se hallan en tal situación de inferioridad que, a la larga, implica su progresiva pero inevitable desaparición.» *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*, III. alea, 3.055 or.

(164) 106. emendakina. *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*, I. alea, 868. or.

Euskal talde parlamentarioa -ondoren Euskal Ezkerra legebiltzar taldearen atxekimenduarekin- gaztelera ezagutu beharra Konstituzio testutik ezabatzearen alde jo eta su aritu zen. Ikusi bestela Aguirre Querejeta jaunak Kongresuko osoko bilkuraren aurrean esandakoa: «La misma declaración de oficialidad del castellano como lengua oficial del Estado conlleva per se, intrínsecamente, la necesidad de conocerlo para poder utilizarlo, pero en ningún caso la obligatoriedad de conocerlo. Una reiteración como la que presenta el texto que se nos propone no aporta absolutamente nada al articulado, no enriquece en absoluto ninguna variante. Únicamente, la reiteración de este carácter impositivo puede interpretarse también como rechazo y marginación de otras lenguas y, por supuesto, es un claro atentado contra ese espíritu igualitario con el que tratamos todos de colaborar en aras de lograr una sociedad pluralista, justa, libre, igual, y democrática»<sup>165</sup>.

#### 3.2.4. Edukiaren azterketa

**3.1 art.:** «El castellano es la lengua española oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla y el derecho a usarla.»

Artikulu honen inguruan, hiru dira funtsean planteatzen zaizkigun kuestioak: «estatu» berbaren adiera edo zentzua, gaztelera-  
ren ofizialtasunaren alkantzea edo nondik norakoa, eta gaztelera  
ezagutu beharraren balio juridikoa eta bere ondorio praktikoak.

1) Konstituzio Auzitegiak onartu duen moduan<sup>166</sup>, Konstituzioan zehar «estatu» hitzaren bi adiera desberdin aurki daitezke: bata estua -besteak beste 1, 5, eta 137. artikuluetan-, eta bestea zabala -besteak beste 149, eta 150. artikuluetan-.

Adiera estuaren ildotik, «estatu» hitza estatu zentralaren sinonimoa da. Estatu kontzeptu horren barnean aginte

---

(165) *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*, II. alea, 1.929. or.

(166) KAren uztailaren 28ko 32/1981 Epaia (5. oinarri juridikoa).

publiko zentral edo orokorrak eta honen organo periferikoak sartuko lirateke soilik.

Zentzu zabalean, ostera, «estatu» berbak «la totalidad de la organización jurídico política de la nación española»<sup>167</sup> adierazten du. Hargatik, adiera edo zentzu zabal honen arabera, «estatu» hitzak Espainiako lurralde eremu osoan eraginkorrak diren aginte publiko guzti-guztiak barne hartuko lituzke, baita aginte publiko lokalak eta autonomikoak ere.

3.1 artikulua «estatu» hitza zentzu zabalean darabilenik jadanik ez du inork zalantzan jartzen. Nagusiki hiru dira erabili ohi diren argudioak:

- 1931.eko Konstituzioak ere «estatu» hitza adiera zabal batean erabili izana.

- 3.1 artikulua eratzeko prozesuan gaztelaren ofizialtasuna estatu zentralera mugatzearen aldeko emendakinak baztertu izana<sup>168</sup>.

- 3. artikulua testu-inguru juridikoa. Zehatzago esanda, 3. artikulua bere bigarren atalean zer dioen kontuan izan behar dugu. Honek «Las demás lenguas españolas serán **también** oficiales en sus respectivas Comunidades Autónomas...» esaten du. Konstituzioak gaztelania autonomia erkidegoetan hizkuntza ofiziala izan ez zedin gura izan balu, ez zukeen «también» adberbioa erabiliko. Izan ere, «también» hitzak, autonomia erkidegoetan bertako hizkuntzekin batera, gaztelera ere ofizial izango dela adierazten du.

KAK ere, «estatu» hitzaren zentzu zabala defendatu zuen<sup>169</sup>, besteak beste, Euskararen Legeari buruzko ekainaren 26ko 82/1986 Epaian:

---

(167) *Ibidem*.

(168) Ikus 48. orri-oina.

«Según el artículo 3.1 de la Constitución, el castellano es la lengua española oficial del Estado, y entendiéndose obviamente aquí por «Estado» el conjunto de los poderes públicos españoles, con inclusión de los autónomos y locales, resulta que el castellano es lengua oficial de todos los poderes públicos en todo el territorio español.» (2. oinarri juridikoa).

2) Nahiz eta 3.1 artikulua arabera gaztelera Estatuko hizkuntza ofiziala izan, Konstituzioak ez du ofizialtasunaren definiziorik ematen<sup>170</sup>. Zer esan nahi du, bada, ofizial izate horrek? Galdera horren erantzuna bideratzeko, KAK argibide batzuk eman zituen oraintsu aipatutako 82/1986 Epaian:

«Aunque la Constitución no define sino que da por supuesto lo que sea una lengua oficial, la regulación que hace de la materia permite afirmar que es oficial una lengua, independientemente de su realidad social y peso como fenómeno social, *cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados con plena validez y efectos jurídicos* (sin perjuicio de que, en ámbitos específicos, como el procesal, y a efectos, concretos, como evitar la indefensión, las leyes y tratados internacionales permitan también la utilización de lenguas no oficiales por los que desconozcan las oficiales). Ello implica que el castellano es el medio de comunicación normal de los poderes públicos y ante ellos en el conjunto del Estado español.»(2. oinarri juridikoa).

---

(169) Guztion harridurarako KAK kontrako iritzia defendatu zuen uztailaren 28ko 32/1981 Epaian: «por el contrario (así en los artículos 3.1, 149 y 150) por Estado se entiende sólo el conjunto de las instituciones generales o centrales y sus órganos periféricos, contraponiendo estas instituciones a las propias de las Comunidades Autónomas y otros Entes territoriales autónomos» (5. oinarri juridikoa).

(170) Egia esan, zuzenbide konparatuan ez dago oro har onartua den ofizialtasunaren definiziorik.



Horrela, bada, gaztelera hizkuntza ofiziala den aldetik, aginte publikoen arteko nahiz hauen eta hiritarren arteko harremanetarako komunikazio tresna egokia izango da.

Hizkuntz ofizialtasunak, hortaz, harreman publikoez dihardu, hiritar eta aginte publikoen arteko, harreman pribatuen esparruan sartu barik.

Konstituzio Auzitegiak ofizialtasun kontzeptua finkatzerako orduan irizpide juridiko-formal bat darabilela dirudi («independientemente de su realidad social y peso como fenómeno social»). Baina bestalde KAK dioenez, hizkuntza bat ofiziala izango da aginte publikoek hura «medio normal de comunicación» gisa aitortzen dutenean. Itxura baten, azken baieztapen hau ez dator bat irizpide juridiko formalari buruz esan berri dugunarekin. Kontraesan baten aurrean ote gaude? Nola liteke bestela, batetik, KAK hizkuntza bat ofizialtzat hartzeko bere egoera soziologikoa edo pisu soziala kontuan hartu behar ez dela esatea, eta bestetik, hizkuntza ofizial batek aginte publikoen arteko eta hauen eta subjektu pribatuen arteko harremanetarako komunikazio tresna **normala** izan behar duela esatea.

Gure ustez, Konstituzio Auzitegiak eginiko adierazpenetan ez dago benetakoa kontraesanik. Auziaren iltzea «normal» hitzari ematen zaion zentzu edo adieran datza. «Normal» hitza, kasu honetan, ez da bere adiera arruntean ulertu behar, hau da, «usual», «corriente», «habitual»en sinonimo gisa, bestela KAK pisu sozialari buruz egindako adierazpenak ez luke zentzurik izango. «Normal» hitza bere zentzu juridikoan ulertu behar da, guk uste, hau da, «norma» edo arau juridikoaren sinonimo bezala. Hartara, hizkuntza bat ofiziala izango da, arau juridikoek ofizial maila hori aitortzen diotenean, bere egoera soziologikoa nolana hikoia izanda ere.

Egia esan, eztabaida honek gaztelararen kasuan ez dakar inolako ondorio praktiko aipagarririk, zeren, azken finean,

gaztelaren egoera soziala oso osasuntsua baita. Tamalez, Estatuko gainerako hizkuntzei buruz ez dago beste horrenbeste esaterik. Hargatik, ofizialtasuna zehazteko irizpide soziologikoak erabiliko balira, eta aginte publiko eta hiritarren arteko komunikazio tresna arrunta edo ohizkoa ez diren neurrian, euskara moduko hedapen urriko hizkuntzek ez lituzkete ofizialtzat hartuak izateko baldintza guztiak beteko. Argi baino argiago dago, beraz, hizkuntz ofizialtasunaren kontzeptua irizpide soziologikoetan ez baidzik juridiko-formaletan oinarritu behar dela.

Eskararen Legeari buruzkoaz gain, KAK hizkuntz ofizialtasuna jorratzen duten epai gehiago eman ditu, hauen artean, eduki bera duten urriaren 25eko 87 eta 88/1983 Epaiak aipamen berezia merezi dute:

«El Gobierno Vasco hace particular hincapié en el hecho de la cooficialidad del castellano y el euskera; en efecto, todos los habitantes de Euskadi tienen derecho a conocer y usar ambas lenguas (art. 6.1 del Estatuto). Ello supone naturalmente que *ambas lenguas han de ser enseñadas en los Centros escolares de la Comunidad con la intensidad que permita alcanzar ese objetivo*. Y es de observar en este mismo sentido que tal deber no deriva sólo del Estatuto, sino de la misma Constitución.(...) De estos preceptos (art. 3) resulta que el *Estado en su conjunto (incluidas las Comunidades autónomas) tiene el deber de asegurar el conocimiento tanto del castellano como de las lenguas propias de aquellas Comunidades que tengan otra lengua como oficial*. Una regulación de horarios mínimos que no permita una enseñanza eficaz de ambas lenguas en esas Comunidades incumpliría el artículo 3 de la Constitución.» (5. oinarri juridikoa).

Epai garratzitsu honetatik ondorengo ondorioak atera daitezke gaztelaren ofizialtasunari dagokionez<sup>171</sup>:

- Gaztelaren ofizialtasunak, gaztelera ezagutzeko eta erabiltzeko eskubideak barne hartzen ditu. Erabilpen

eskubideak bi alderdi ditu: aktiboa eta pasiboa. Lehenengoaren arabera, hiritarrak gaztelera harreman publiko zein pribatuetan erabili ahal izango du. Alderdi pasiboari dagokionean, hiritarrak aginte publikoek gaztelera erantzun diezaioten eskubidea izango du.

- Gaztelera aginte publikoen arteko nahiz hauen eta hiritarren arteko benetako komunikazio tresna izan dadin, Estatuak -autonomia erkidegoak barne- gaztelera ezagupena ziurtatu behar du.

- Azken ondorio bi hauek eraginkorrak izan daitezten, aginte publikoen partetik halabeharrezkoa da gaztelera irakaskuntza ziurtatzea, eta ez dago gaztelera irakaskuntza ziurtatzerik, baldin eta hezkuntza sisteman gaztelera derrigorrezko irakaskuntza ezartzen ez bada. Gainera, Agirreazkuenagak dioenez, «No basta, por consiguiente, con garantizar la enseñanza de las lenguas oficiales, sino que es preciso organizarla de forma eficaz, de tal modo que una vez finalizada la enseñanza obligatoria todos los alumnos que la hayan cursado, cualquiera que fuere el centro o modelo elegido, conozcan la lengua o lenguas oficiales en el ámbito territorial de que se trate»<sup>172</sup>.

- Aginte publikoei dagozkien eginbehar hauek guztiak Konstituzioaren 3. artikulutik zuzenean eratortzen dira.

Konstituzio Auzitegiak gaztelera ofizialtasunari buruz orain artean esandakoa laburbilduz, zera esan dezakegu: Auzitegiarentzat hizkuntza baten ofizialtasunak -kasu

---

(171) Oraingoan gaztelera ofizialtasunaz ari gatzazkizue baina hemen esandakoa gainontzeko hizkuntza ofizial guztiei buruz berdin-berdin esan geniezazueke. Azken finean bata zein besteen ofizialtasuna gauza bera dira eta.

(172) AGIRREAZKUENAGA, I. Reflexiones jurídicas sobre la oficialidad y conocimiento de lenguas. In *Estudios sobre la Constitución Española*. Homenaje al profesor García Enterría. Madrid: Cívitas, 1991, II. alea, 683 or.

honetan gaztelerarenak- , hizkuntza hori aginte publikoen artean eta hauen eta subjektu pribatuen arteko harremanetarako komunikazio tresna egokia dela esan nahi du. Eta jakina, hizkuntza hori zinez komunikazio tresna egokia izan dadin, aginte publikoek hizkuntza horren ezagutza ziurtatu beharko dute, eta hizkuntza baten ezagutza ziurtatzeko era bakarra hizkuntza horrekiko derrigorrezko irakaskuntza ezartzea da. Beste modu batean esanda, KAK eraiki duen hizkuntz ofizialtasun kontzeptutik hiru eskubide subjektibo ondorioztatzen dira: hizkuntza ofiziala ezagutzeko eskubidea, hizkuntza ofiziala harreman publiko nahiz pribatuetan inolako eragozpenik gabe erabiltzeko eskubidea, eta hizkuntza ofizialaren irakaskuntza jasotzeko eskubidea.

Orain artean, KAK gaztelaniaren ofizialtasunari buruz emandako argibideez baino ez gatzaizkizue aritu eta, gure aburuz, Auzitegiak bere epaietan konfiguratu duen ofizialtasunaren kontzeptuak ez ditu hizkuntz ofizialtasunaren aukera guztiak agortzen. Hizkuntza ofizialtasunak KAK aipatu ez duen beste ondorio nagusi bat dakar, hizkuntza ofizial horren ezagupenaren presuntzioarena hain zuzen ere. Presuntzio hori dela eta, aginte publikoek eta hiritarrek beren arteko harremanetan, ofizial maila duen hizkuntzaren ezagupenik eza ezin izango dute alegatu<sup>173</sup>.

Esandakoa gaztelaniari aplikatuz gero, hirritarrek aginte publikoen aurrean -eta alderantziz- ezin izango dute

---

(173) Doktrinan tesi hau, nahiko errotoa dago, eta besteak beste: MILIÁN i MASSANA, A. La regulación constitucional del multilingüismo. *REDC*, 1984, 10. zenb., 132. or.; SEGURA GINARD, L.J. Comentario sobre el régimen jurídico del Estatuto de Autonomía de las Islas Baleares. *RVAP*, 1984, 8. zenb., 239. or.; COBREROS, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*. Oñati: HAEE-IVAP, 1989. Azken honek dioenez: «la oficialidad también significa que tal lengua es apta para las relaciones del poder público con los particulares y viceversa, de tal manera que ni éstos ni aquél pueden alegar su desconocimiento a la hora de cumplir con sus obligaciones» (37. or.).

gaztelaniaren ezagutzarik eza alegatu beraien arteko obligazioetatik salbuesteko zeren, esan bezala, gaztelaniaren ofizialtasunak bere ezagutzaren presuntzioa baitakar.

Dena den, honek ez du esan nahi gaztelararen ezagupenik eza alegatu ezina erabatekoa denik. Baliteke hiritarren batek gaztelararen ezjakintasuna alegatzea eta alegazio horrek eragin juridikorik izatea, baina horretarako hiritar horrek gaztelarerekiko pairatzen duen ezjakintasun egoera hori frogatu beharko du, izan ere, gaztelararen ezagupenaren aldeko presuntzioa *iuris tantum* denez gero, aurkako froga onartzen du. Edonola ere, gaztelararen egoera soziala aintzat hartuz gero, oso zail gertatuko zaio espainiar hiritartasuna duen bati gaztelera ezagutzen duen presuntzioa baliogabetzea.

Hortaz, gaztelararen ezjakintasuna alegatzerik badago, baina ezjakintasun hori zuzenbidean onartzen diren frogabideen bitartez egiaztatu behar izango da.

Esandako guztia laburbilduz, gaztelararen ofizialtasunaren kontzeptu bi ikusi ditugu; bata, Konstituzio Auzitegiak erabiltzen duen kontzeptu estua, eta bestea, guk geuk defendatzen dugun kontzeptu zabala. Kontzeptu bien arteko funtsezko desberdintasuna hauxe da: kontzeptu estuaren arabera, gaztelararen ofizialtasunak berez ez dakar gaztelararen ezagupenaren presuntziorik; hori dela eta, ofizialtasun deklaraziotik ez dago gaztelararen ezagupenik eza alegatu ezina ondorioztatzerik. Kontzeptu zabalaren arabera, aldiz, gaztelararen ofizialtasunak gaztelararen ezagupenaren presuntzioa dakar, eta horren ondorioz, printzipioz ez dago gaztelararen ezjakintasuna alegatzerik<sup>174</sup>.

---

(174) Geroago ikusiko dugun bezala, KAK gaztelararen ezagupenaren presuntzioa ofizialtasun deklaraziotik ondorioztatu beharrean, Konstituzioak ezartzen duen gaztelera jakin beharretik ondorioztatzen du.

Esan bezala, guk ofizialtasunaren kontzeptu zabala defendatzen dugu. Hizkuntz ofizialtasunak hizkuntza hori aginte publikoen arteko eta hauen eta hiritarren arteko harremanetarako komunikazio tresna egokia dela uste duela onartuz gero, ez du zentzurik gero hizkuntza horren ezjakintasunaren alegazioa onartzerik, zeren orduan hizkuntz ofizialtasunari bere eraginkortasuna kenduko bailitzaioke, ondoriorik gabeko aldarrikapen hutsala bihurtuz.

Hizkuntz ofizialtasunaren azken jomuga hiritar eta aginte publikoen arteko harremanei segurtasun juridikoa ematea da, hots, beraien arteko harremanetarako komunikabide jakin bat finkatzea. Horrela, hiritarrak aginte publikoekin -edo alderantziz- harremanetan jarri nahi izanez gero, aurretiaz zein hizkuntza edo hizkuntzak erabili ahal izango dituen jakingo du. Eta ez hori bakarrik, baita hizkuntza ofizial horiek erabiliz gero aginte publikoek horiekiko ezjakintasunik ezin izango dutela alegatu ere, zeren legea bera izan baita hizkuntza horiek harreman publiko guztiak bidera daitezen tresna egokitza hartu dituen. Aurrez finkaturiko komunikabide ofizialik ez balego, hiritar eta aginte publikoen arteko harremanak erabateko kaosa izango lirateke.

3) Konstituzioaren 3. artikulua bere bigarren zatian zera dio: Espainiar guztiak gaztelera jakin beharra eta erabiltzeko eskubidea dute. Gaztelera erabiltzeko eskubidearen konstituzionalizazioak ez dakar inolako arazorik, azken finean hura hizkuntz ofizialtasunaren ondorioa baizik ez da eta. Gaztelera jakin beharrari buruz ezin dezakegu gauza bera esan. Zuzenbide konparatuan parekorik ez duen betebeharrak hau, oraindik orain ikusi dugun bezala, Konstituzio eratze-prozesuan oso eztabaidatua izan zen. Indar abertzaleek betebeharrak hau testu konstituzionalean ager ez zedin gogotik ekin zioten. Zoritxarrez, eurena alferriko lana izan zen.

Betebehar honen aurrean bi jarrera kontrajarri nagusi azaldu dira autoreen artean: bateko, gaztelera jakin beharrak gaztelaren ofizialtasunari ezer ez diola gehitzen pentsatzen dutenak, eta horren ondorioz betebehar horretatik ondorio juridikorik eratorzea zilegi ez dela deritzotenak; eta besteko, gaztelera jakin beharrari eraginkortasun juridikoa aitortzen diotenak<sup>175</sup>.

Lehenengoen artean Segura Ginard autorea azaltzen zaigu. Honek gaztelaren ezagupenaren betebeharrak, eta gainerako betebehar konstituzionalak -adibidez, 30.1 eta 31. artikuluetakoak<sup>176</sup>- izaera juridiko desberdina dutela dio<sup>177</sup>. Beretzat, gaztelera jakin beharra ez da benetako betebehar juridikoa, zeren Konstituzioan agertzen diren gainerako betebeharrak ez bezala, betebehar horren hausturak ez baitu zigorbide edo koakzio mekanismorik martxan jartzen<sup>178</sup>. Hargatik, betebehar hau ez betetzeak ez du hiritarrengan inolako erantzukizunik sortzen. Gaztelera jakin

---

(175) Autoreen artean badira gaztelera jakin beharra ofizialtasun kontzeptutik ondorioztatzen dutenak ere, adibidez: ENTRENA CUESTA, R. Comentario al artículo 3. In GARRIDO FALLA, F. *Comentarios a la Constitución*, 52. or.; eta ALZAGA VILLAAMIL, O. *La Constitución española de 1978*, 107-108. orr.

(176) 30.1 art.: «Los españoles tienen el derecho y el deber de defender a España.»

31. art.: «Todos los españoles contribuirán al sostenimiento de los gastos públicos...»

(177) SEGURA GINARD, L. Comentario sobre el régimen jurídico del Estatuto de Autonomía de las Islas Baleares, 239. or.

(178) VARELA DÍAZ ez dator bat SEGURA GINARDEK defendatzen duen betebehar konstituzionalaren kontzeptuarekin. Berorrek KELSENen teoriei jarraituz, betebehar konstituzionalak juridikoki irrelebanteak direla dio. Betebehar konstituzionalak eraginkortasun juridikoa duten arau bihur daitezten, hauek garatuko dituen legedia indarrean jartzea nahitaezkoa da, zeren autore honen iritziz, eskubide eta betebehar konstituzionalak ez baitute hiritarrekiko eraginkortasunik, hots, ez dute «erga omnes» eraginkortasunik. VARELA DÍAZ, S. La idea de deber constitucional. *REDC*, 1982, 4. zenb., 69. eta hurrengo orr.

beharra hiritarrari ezartzen zaion zama edo karga da. Hala, jakin behar hori urratzeak dakarren ondorio bakarra, hiritar ezjakituna desabantaila egoeran jartzea da, hau da, zama edo karga bera betetzeak ekarriko lizkiokeen abantailak galtzea eragingo luke, baina besterik ez. Eta zertan zertuko litzateke desabantaila hori? Bada, gaztelarrik ezagutzen ez duen hiritarrak, aginte publikoekiko harremanetarako komunikazio tresna normala den gaztelera erabiltzeko aukera galduko luke. Edo beste era batera esanda, hiritar ezjakitunak ez luke aginte publikoen aurrean gaztelararen ezagupenik eza alegatzeko aukerarik izango.

Segura Ginarden iritziz, 3.1 artikuluan azaltzen dena ez da zentzu tekniko batean betebeharr juridikoa, «sino más bien lo que hace es fijar un precepto que posibilite la eficacia de normas y actos jurídicos en el territorio nacional, o fuera de él cuando los poderes públicos se relacionen con ciudadanos de nacionalidad española que se hallen en el extranjero (...) Así, como por esta razón no se defiende la existencia de un deber de conocimiento de las leyes, tampoco parece necesario proclamar un deber de conocimiento de la lengua oficial.»

Esandakoogatik guztiarengatik autorea bi ondorio hauek iristen da:

- Gaztelera jakin beharra ez da gaztelararen ofizialtasunetik eratortzen den zerbait.

- Gaztelera jakin beharrak ez dio gaztelararen ofizialtasunari deus ere gehitzen, ez du ezer berririk aportatzen, beraz, betebeharr hau esistituko ez balitz, gaztelararen ofizialtasunak ez luke ezer galduko, berdin-berdin mantenduko litzateke.

Cobrerosek gai honetan Segura Ginarden antzeko tesia defendatzen du. Autore honek betebeharr horren agerpen konstituzionala gogorki kritikatzeko du. Beretzat betebeharr



honek balorazio negatiboa merezi du. Hiru dira balorazio negatibo hau justifikatzen duten arrazoi nagusiak:

- Lehenengoa. Gaztelera jakin beharrak gaztelerearen ofizialtasunari ez dio ezer aportatzen, jakin behar honek ez baitakar inolako ondorio juridikorik. Baieztapen honetara iristeko *reductio ad absurdum* teknika erabiltzen du. Bere buruari erantzunik gabeko honelako galderak egiten dizkio: Zein neurritan esiji daiteke gaztelera jakin behar hau? Zein da betebeharrak hau urratzearen ondoriozko zigorra? Zenbateraino ezagutu behar da gaztelera? Noiztik esiji daiteke? Eta abar.

- Bigarrena. Gaztelera jakin beharrak, gaztelerearen nagusitasun linguistikoa argi eta garbi utzi nahi zuen inposaketa-egintza izan zen. Bere ustez, esanguratsua da oso eleaniztasunaren gaiari buruz sentiberagoak ziren legebiltzar taldeek -talde abertzaleak batik bat- 3.1 artikulua gehien kritikatu zutenak izatea.

- Hirugarrena. Jakin behar honen interpretazio oker batek, zeharka bada ere, Estatuko gainontzeko hizkuntzen ofizialtasuna ahuldu dezake. Zentzu horretan, KAK espainola ezagutu beharrari buruzko emandako epaiek ez diote Estatuko hedapen urriko hizkuntzei mesede handirik egin<sup>179</sup>.

Orainarte aipatu ditugun iritzi doktrinal biek gaztelera jakin beharraren eraginkortasun juridikoari uko egiten diote. Dena den, bada betebeharrak honen eraginkortasun juridikoa defendatzen duen autorerik ere<sup>180</sup>. Hauen ustetan, Konstituziogileek betebeharrak hau gaztelerearen ofizialtasunari erantsi bazioten zeozergatik izan zen. Betebeharrak hau gaztelerearen ofizialtasunari gehitzen zaion «plus»a da.

---

(179) Ikus 61. or.

(180) Esaterako GUAITA y MARTORELL, A. *Las lenguas de España y el artículo 3º de la Constitución*. Madrid: Cívitas, 1989, 42. or.

Gaztelera jakin beharra ez da betebeharrak morala, ondorio juridikoak dituen benetako betebeharrak juridikoa baizik. Eta eduki juridiko propioa duen betebeharrak den neurrian, gaztelera gainontzeko hizkuntza ofizialekin konparatuz maila juridiko altuagoan kokatzen du.

KAk ere azken jarrera doktrinalarekin bat dator. KAK gaztelera jakin beharrak ondorio juridikorik baduela onartu du, gaztelerearen ezagupenaren presuntzioarena, alegia:

«...en directa conexión con el carácter del castellano como lengua oficial común del Estado español en su conjunto está la obligación que tienen todos los españoles de conocerlo, que lo distingue de las otras lenguas españolas que con él son cooficiales en las respectivas Comunidades Autónomas, pero respecto a las cuales no se prescribe constitucionalmente tal obligación. Ello quiere decir que *sólo del castellano se establece constitucionalmente un deber individualizado de conocimiento, y con él, la presunción de que todos los españoles lo conocen.*»<sup>181</sup>

Gaztelera jakin beharrari buruz, aipagarria da Konstituzio Auzitegiak 1986ko otsailaren 20an emandako Epaia. Errekurritzaileek, Auzitegi Gorenaren aurrean euskaraz deklaratzeko debekatu zirela eta, 14. (berdintasun printzipioari buruzkoa), 20. (adierazpen askatasunari buruzkoa), 24.1 (babes judizialari buruzkoa) eta EZPNren 27. (erlijio-, etnia- eta hizkuntza-gutxiengoei buruzkoa) artikuluen haustura alegatu zuten. KAK errekurtsioa ezetsi zuen ondorengo argudiatuz:

«Mas de tal alegación no se desprende la lesión de ningún derecho constitucional, porque, aun admitiendo a efectos dialécticos que tal podría ser el caso si la negativa se hubiera producido en las declaraciones efectuadas en dichas provincias, donde la lengua vasca es oficial, lo cierto es que, efectuadas fuera de las mismas, los demandantes no tienen derecho a exigir que sus manifestaciones ante los órganos del poder se hagan en una lengua que no sea la castellana, que por mandato de la misma Constitución (art. 3) tienen el deber de conocer. Así pues, procede concluir que ni hay infracción de art. 14. porque no cabe comparar a quienes declararon en en el País Vasco con quienes lo hicieron ante el

---

(181) KAK 82/1986 Epaia, 3. oinarri juridikoa.

Juzgado Central o ante la Sala Segunda del Tribunal Supremo, ni de la libertad de expresión, como es obvio, porque la expresión en un proceso está sometida a los requisitos de esté; *ni tampoco del art. 24.1, porque los demandantes tienen la obligación de conocer el idioma en el que se les exigió que declarasen, lo que significa que, si efectivamente se hubiera producido una merma en su defensa al desconocer el idioma, se habrá debido a una ignorancia indebida.*» (4. oinarri juridikoa).

Gure ustez, KAK 24.1 artikuluar buruz eginiko adierazpenetan nabarmenki sartu zuen hanka, zeren Konstituzioaren 24.1 artikuluan aldarrikatzen den epaitegietatik benetakoko babesa lortzeko eskubidea, bere kokapen konstituzionala -I. tituluaren II. kapituluaren I. saila- dela-eta 53.2 artikulua babes bereziaz gozatzen duen heinean, gaztelera jakin behararen gainetik baitago. Beraz, gaztelaren ezjakitasuna zela eta, benetan defentsa-gabezia gerta zitekeela frogatu izan balitz, itzultzaile batez baliatzea guztiz zilegi izango zatekeen<sup>182</sup>.

Ezinbestekoa zenez, KAK iritzi jurisprudenzial hura aldatu zuen 1987ko maiatzaren 25eko Epaian. Epai honetan, KAK gaztelera ezagutzen ez duten atxilotuei itzultzaile baten laguntzaz deklaratzeko eskubidea aitortzen die, berdin delarik atxilotu horiek atzerritar zein espainolak izatea, eskubide hori 24. artikuluan arautzen den defentsa eskubidean sartzen da eta.

«...es evidente que del derecho a ser asistido de un intérprete deriva del desconocimiento del idioma castellano que impide al detenido ser informado de sus derechos, hacerlos valer y formular las manifestaciones que considere pertinentes ante la administración policial (...). Este derecho debe entenderse comprendido en el art. 24.1 de la Constitución en cuanto dispone que en ningún caso puede producirse indefensión (...) La atribución de este derecho a los españoles que no conozcan suficientemente el castellano y no sólo a los extranjeros que se encuentren en ese caso no debe ofrecer duda. Lo contrario supondría una discriminación prohibida por el art. 14 de la Constitución. *No cabe objetar que el*

---

(182) Zentzu honetan ikus LECr (398., 440., 711., 758.2 artikulua) eta LOPJ (231.5 artikulua).

*castellano es la lengua española oficial del Estado y que todos los españoles tiene el deber de conocerla (art. 3.1 de la Constitución), ya que lo que aquí se valora es un hecho (la ignorancia o conocimiento insuficiente del castellano) en cuanto afecta al ejercicio de un derecho fundamental, cual es el de defensa.* Ciertamente, el deber de los españoles de conocer el castellano, antes aludido, hace suponer que ese conocimiento existe en realidad, pero tal presunción puede quedar desvirtuada cuando el detenido o preso alega verosímelmente su ignorancia o conocimiento insuficiente o esta circunstancia se pone de manifiesto en el transcurso de las actuaciones policiales.» (3. oinarri juridikoa).

Kasu honetan, Auzitegiak gazteleraren ezagupenaren betebeharra urratzeak inolako garrantzirik ez duela onartzen du, zeren azken finean, gaztelera jakin beharretik gazteleraren ezagupenaren *iuris tantum* presuntzioa baino ez baita ondorioztatzen. Eta, jakina denez, presuntzio hori kontrako frogara bidez baliogabetu daiteke. Hala ere, espainiar bati presuntzio hori apurtzea ez zaio erraza gertatuko, eta are zailago ikasketak Espainian burutu baldin baditu, edota Espainian luzaroan bizi izan baldin bada.

Laburbilduz, gaztelera jakin behararen aurrean bi jarrera nagusi azaltzen zaizkigu: bata, kritikoa, eraginkortasun juridikoa ukatzen diona eta inposaketa aktutzat jotzen duena; eta bestea, -KA buru delarik- begi onez ikusteaz gain, eraginkortasun juridikoa aitortzen diona.

Iritziak iritzi, gure ustez gauza bat argi dago, bere burua demokratiko<sup>183</sup>, giza eskubideen defendatzaile<sup>184</sup> eta eleaniztasunaren sustatzailetzat<sup>185</sup> daukan estatu batek, halaberharrezkoa du bere mugen barneko hizkuntza guztiei trataera juridiko igualitarioa eskaintzea. Estatuko hizkuntza guztiek legearen aurrean maila berean agertu beharko lukete.

---

(183) Konstituzioaren 1.1 artikularen arabera, «España se constituye en un Estado social y democrático de derecho, que propugna como valores superiores de su ordenamiento jurídico la libertad, la justicia, la igualdad y el pluralismo político».

(184) Ikus Konstituzioaren hitzaurrea eta batik bat lehen titulua.

(185) Ikus Konstituzioaren hitzaurrea eta 3.3 artikulua.

Espainiako Estatuaren kasuan, gainera, esijentzia hau areagotu egiten da, zeren hizkuntza arloari dagokionez, salbuespen txiki batzuk izan ezik, Espainiako Estatuaren historia, gaztelera ez beste hizkuntzen zapalketa eta pertsekuzioaren historia izan baita<sup>186</sup>.

Demokraziaren etorrerarekin eta Konstituzio berriarekin, gutxiengoaren hizkuntzek urteetan zehar jasandako oinaze eta menpekotasun egoera bukatzeko aukera aproposa suertatu zen. Menpekotasun egoera hori aldatzeko eman beharreko pausorik garrantzitsuena, gainegitura juridikoan hizkuntz erregulazio igualitarioa ezartzea zen.

Dena den, ordukoak oso garai latzak izan ziren eta urak uher baino uherrago zetozen. Ez da ahaztu behar Espainian demokrazia ez zela aurreko jaurbidearen apurketatik etorri, izan ere, demokraziarako bidea, indar kontrajarrien arteko kontzesio edo emakiden bitartez burutu zen. Horrela, poliki-poliki jaurbide diktatorialek, jaurbide demokratikora igaro zen<sup>187</sup>. Hori dela eta, historian zehar gaztelerek gozatu duen nagusitasun linguistikoari momentu horretan bat-batean amaiera ematea ez zen txantxetako gauza, baina saiatu beharra zegoen.

---

(186) Espainia Estatu-Nazio legez konfiguratu zenetik, gaztelera ez beste hizkuntzek jasandako diskriminazioaren adibideak ugariak dira, adibidez: 1768ko ekainaren 23ko Errege Zedula, non Erresuma osoan gaztelerez ihardutea eta irakastea inposatzen zen; 1780ko irailaren 22ko Errege Zedula, non Erresumako berezko hizkuntzatzat gaztelera soilik jotzen zen; 1857ko irailaren 9ko Heziketa Publikorako Legea, non Erresuma osoan gaztelaniar gramatikaren irakaskuntza inposatzen zen. Frankismoaren garaian gaztelera ez beste hizkuntzen aurkako lege-neurriak ugariak izan ziren; neurri hauei buruzko xehetasunik gura izanez gero, ikus EUSKALTZAINDIA. *Libro blanco del euskera*. 1977, 440. eta hurrengo orr.

(187) Frankismoaren bukaera eta demokraziaren sorrerari buruz ikus, bestek beste, GONZÁLEZ CASANOVA, J.A. *La lucha por la democracia en España*. Avance, 1975; DE ESTEBAN y LÓPEZ GUERRA. *De la dictadura a la democracia*. Madrid: Universidad Complutense, 1979.

Antza denez, Konstituziogileek, gauza guztien gainetik, erdaldun elebakarren eskubideak bermatu nahi zituzten. Gehien kezkatzen omen zituena, erdaldun elebakarren autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzetan agindutakoa betetzeko obligaziorik izan ez zezatela segurtatzea zen. Ulertzen ez zuten ezerk erdaldunengan behartze-indarrak ez zuela izango ziurtatzeko edo, Konstituziogileek munduan parekorik ez duen gaztelaren jakin beharra sortu zuten. Konstituziogileak ez ziren konturatu, edo ez zuten konturatu gura izan, erdaldun elebakarren eskubideak babesteko ez zela beharrezkoa gaztelera jakin beharra bezalako betebeharrak bitxirik Konstituzio testuan sartzea, nahikoa baitzen hizkuntza ezberdinen ofizialtasuna beste barik aldarrikatzea. Izan ere, Estatuko hizkuntza guztiak maila juridiko berean kokatzeak erdaldunei ulertzen ez dutena egiteko obligazioa dakarkielako beste barik esatea faltsukeria hutsa da.

Gure iritziz, hizkuntza ofizialtasunaren Konstituzio-arauketak beste era batera behar zuen. Konstituzioak Estatuko hizkuntza guztien ofizialtasuna deklaratzera mugatu behar zuen inolako eraskin arrarorik gabe. Gaztelera jakin beharraz ari gara noski. Bestalde, hizkuntza ofizialtasuna zentzu zabalean ulertu beharko litzateke eta ez zentzu estuan KAK ulertu duen moduan.

Esan bezala, ofizialtasunaren kontzeptu zabalak hizkuntza ofiziala ezagutzearen presuntzioa dakar<sup>188</sup>, eta bide batez, baita hizkuntza hori ez jakitea alegatu ezina ere. Horrela, gaztelera ezagutzearen presuntzioa ez ezik, gainontzeko Estatuko hizkuntza guztiak ezagutzearen presuntzioa ere barne hartuko luke eta horren ondorioz, harreman publikoetan ez legoke hizkuntza ofizial hauen -nork bere autonomia lurraldean noski- ezjakintasuna alegatzerik.

---

(188) Gogoratu KAK presuntzio hau gaztelera jakin beharretik ondorioztatzen duela.

Esandakoarengatik, hizkuntza ofizial guztien ezjakintasuna alegatu ezinak erdaldun elebazarren eskubideak kalte ditzakeela eman dezake, baina ez da horrela. Aurrerago ikusiko dugun moduan, alegatu ezin horrek eraginkortasunik izan dezan, nahitaezkoa da aurretik tokian tokiko aginte publiko autonomikoek berezko hizkuntza ofizialaren ezagupen orokorra ziurtatzea. Orduan ba, autonomia erkidegoetako berezko hizkuntza ofizialen ezagupen orokorra ziurtatua izan artean bertako erdaldun elebazarrek berezko hizkuntza horiek ez dakizkitela alegatu ahal izango dute. Alderantziz, aginte publikoek autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzen ezagutza orokorra ziurta dezaten momentutik ezin izango da hizkuntza horiekiko ezjakintasunik alegatu. Ordurako erdaldun elebakarra zenak elebazar izateari utzi ahal izango dio, aginte publikoek horretarako aukera guztiak eman dizkiote eta.

Ikusi dugunez, beraz, baliteke hizkuntza ofizial guztien Konstituzio arauketa igualitarioa lortzea erdaldun elebazarren eskubideak kaltetu gabe. Baina zorigaitzez Konstituziogileek -ez dakigu garaiko egoera korapilatsu eta labankorrek eraginda ala benetan borondate politikoa falta zelako- ezaguna dugun Konstituzio-arauketaren alde egin zuten apostu, ezagupenaren betebeharra bakar-bakarrik gaztelaren alde ezarriz.

Nahiz eta autore batzuk gaztelera jakin beharrari ondorio juridikoak ukatu eta honen ondorioz hizkuntza guztiak Konstituzio maila berean daudela adierazi, gauza bat ukaezina da, KAK bere eguneroko praktika jurisprudentzian ez ditu gaztelera eta gainerako hizkuntza ofizialak berdin tratatu. Horrela, gaztelaren nagusitasunaren ondorioak jurisprudentzia konstituzionalean behin baino gehiagotan azaldu zaizkigu. Agirreazkuenagak gaztelaren nagusitasun edo lehenetasun horren adibide batzuk aditzera ematen dizkigu:

«a) Gaztelaniarekiko bakarrik dago «una presunción de que todos los españoles lo conocen»; zeren «sólo del castellano se establece un deber individualizado de conocimiento» (KAre 82/1986 Epaia, 3. oinarri juridikoa).

b) Espediente administratiboak ezin dira euskaraz soilik gauzatu parte desberdinen artean ez badago akordiorik, zeren bestela egongo bailitzateke «una vulneración de lo dispuesto en el art. 3 de la Constitución, cuando se excluyera el uso oficial del castellano» (KAre 82/1986 Epaia, 9. oinarri juridikoa).

d) Parlamentu Autonomoetan (adibidez Katalunian) hizkuntza koofizial batean eztabaidatu eta onartzen direnean legeak, ezin da «zalantzazko interpretazioetan» hizkuntza koofiziala inposatu, zeren orduan urratu baitaitezke «la seguridad jurídica y los derechos a la tutela judicial efectiva de los ciudadanos que, sin tener que conocerla, pueden alegar el desconocimiento de una de las lenguas cooficiales, aquella a la que se da prioridad en cuanto a la interpretación de las leyes publicadas en forma bilingüe» (KAre 83/1986 Epaia, 3. oinarri juridikoa).

e) (...) Konkretuki Auzitegi Konstituzionalak Euskararen Legearen 8.3 artikulua inkonstituzionaltzat jo zuen -gogoratu artikulua horrek salbuespen gisa, biztanle erdaldunen eskubideak urratu gabe, udaletxe batzuetan euskara soilik erabiltzea posibilitatzen zuela- honako hau argudiatuz, hitzez hitz: «el art. 8.3 viene a ser inconstitucional por infracción de lo dispuesto en el art. 3.1 de la Constitución, en relación con la no existencia del deber de conocimiento del euskera en zona alguna del territorio del Estado, que resulta del art. 6 del E.A.P.V.» (KAre 82/1986 Epaia, 10. oinarri juridikoa)<sup>189</sup>.

---

(189) AGIRREAZKUENAGA, I. Ikuspegi juridiko batetik euskararen ahuleziak. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardumaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 255-256. orr.



**3.2 art.: «Las demás lenguas españolas también serán oficiales en sus respectivas Comunidades Autónomas de acuerdo con sus Estatutos»**

Artikulu honen inguruan hiru kuestio plantzeatzen zaizkigu: lehena, «autonomia erkidego» («comunidad autónoma») hitzari ematen zaion esangura; bigarrena, artikulua nahitazko ala agintezko izaera; eta hirugarrena, autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzen ofizialtasunaren alkantzea edo nondik norakoa.

1) Autore batzuek<sup>190</sup>, 3.2 artikulua interpretazio murriztaile bati eutsi zioten, zeinaren arabera berezko hizkuntzen ofizialtasuna autonomi erakundetara soilik hedatzen zen. Haatik, Konstituzio Auzitegiak argi utzi zuen autonomia erkidego hitza zentzu zabalean ulertu behar zela, hau da, berezko hizkuntzen ofizialtasuna autonomi lurralde esparruan dauden aginte publiko orotara hedatzen zela, erakunde zentral edo orokorrak eta lokalak barne:

«...al añadir el artículo 3.2 que las demás lenguas españolas serán también oficiales en las respectivas Comunidades autónomas, se sigue asimismo que *la consecuente cooficialidad lo es con respecto a todos los poderes públicos radicados en el territorio autonómico, sin exclusión de los órganos dependientes de la Administración central y de otras instituciones estatales en sentido estricto*, siendo, por tanto, el criterio delimitador de la oficialidad del castellano y de la cooficialidad de otras lenguas españolas el territorio, independientemente del carácter estatal (en sentido estricto) autonómico o local de los distintos poderes públicos»<sup>191</sup>.

2) Gure aburuz, 3.2 artikulua izaera agintezkoa edo manuzkoa da eta ez nahitazkoa. Nahitazkoa izango balitz 3.2 artikulua ez luke Espainiako gainontzeko hizkuntzak euren autonomia erkidegoetako estatutuen arabera ofizial

---

(190) Besteak beste, ENTRENA CUESTA, R. Comentario al artículo 3, 62. or.; MARTÍN MATEO, R. *Manual de derecho autonómico*. Madrid: Trivium, 1984, 122. or.

(191) KAren 82/1986 Epaia, 2. oinarri juridikoa.

izango direnik esango («serán»), ofizial izan daitezkeela baizik («podrán ser»). Halaxe egin zuen, egin ere, II. Errepublikako 6. artikulua. Espainiako gainontzeko hizkuntzen ofizialtasunaren deklarazioa, beraz, ez zen autonomia erkidegoen autonomi estatutuen esku utzi zen erabakia, izan ere, estatutuek Konstituzioaren aginduz behartuta zeuden, gaztelerekin batera noski, gainerako hizkuntzak ofizial deklaratzera.

Berezko hizkuntzen ofizialtasunaren erregulazioa, aldiz, 3.2 artikulua kasuan kasuko estatutuen esku uzten du. Eta eskertzekoa da, zeren horrela autonomia erkidego bakoitzari bere egoera soziolinguistikoaren ñabarduren arabera ofizialtasun horren nondik norakoa modulatzeko, zehazteko eta egokitze aukera eman baitzaio. Hala ere, egia esan, autonomia erkidegoetako estatutuek eta ondorengo hizkuntz normalkuntzarako legeek hizkuntz arazoei eman dieten trataera berdin samarra izan da autonomia erkidego denetan.

3.2 artikulua aginduari jarraituz, Euskal Herriko Estatutuak (6.1 art.), Kataluniako Estatutuak (3.2 art.), Galiziako Estatutuak (5.2 art.), Valentziako Estatutuak (7.1 art.), Nafarroako Jaurbide Foralerako Berrintegratze eta Hobekuntzarako Lege Organikoak (9.2 art.), eta Balear Uharteetako Estatutuak (3. art.), gaztelerearekin batera, euskara, katalana, galiziera, eta valentzieraren<sup>192</sup> ofizialtasuna deklaratu zuten.

Esan bezala, 3.2 artikulua gainontzeko Espainiako hizkuntzak ofizialak izatea agintzen du. Hortaz, printzipioz gaztelera ez diren hizkuntza guztiak ofizial behar dute deklaratuak izan. Baina praktikan ez da horrela gertatu.

---

(192) Hizkuntzalari gehienak, eta hauen artean Real Academia de la Lengua Española eta «Institut d'Estudis Catalans» bat datoz valentziera katalaneraren dialekto bat dela esaterako orduan. Eta gauza bera esan daiteke Balear Uharteetan mintzatzen den mintzairaz ere.

Hartara, nahiz eta Asturiasen bablea<sup>193</sup> hitz egin, bertako Autonomi Estatutuak ez dio ofizial mailarik aitortzen<sup>194</sup>. Eta gauza bera esan daiteke Aragoi eta Katalunian hitz egiten diren katalana eta aranerari buruz. Araneraren kasua zertxobait berezia da, zeren bere garaian Kataluniako Estatutuak egin ez zuena<sup>195</sup>, Kataluniako Legebiltzarraren uztailaren 13ko 16/1990 Legeak bere 2.1 artikuluan egin baitzuen, hots, aranera hizkuntza ofiziala deklaratzeko. Egia da, aranerari ofizialtasun maila egozteko oso ihardunbide zalantzazkoa erabili izan dela, baina ez dugu ahaztu behar araneraren ofizialtasuna bere garaian Kataluniako Estatutuan ez agertu izana, hau lege arrunten bidez deklaratzeko bezain zalantzazkoa dela.

Egia esan, batetik 3.2 artikulua izatera aginduzkoa edo manuzkoa dela mantentzeak, eta bestetik, praktikan zenbait kasutan agindu hori bete ez dela ikusteak, kontraesana dirudi. Kontraesan hau aska dezakeen bakarra Konstituzioak «hizkuntza» berbari ulerkera berezia eman izana da. Konstituzioak hizkuntza hitzari ez-ohiko erabilpena eman bide dio. Izan ere, 3. artikulua onorioetarako, «hizkuntza», autonomia erkidego bakoitzean bere pisua,

---

(193) Autoreen artean, bablea gazteleraren dialekto edo modalitate bat den hizkuntza desberdindu bat den eztabaidatzen da. Lehenengo jarreraren alde esaterako, NEIRA MARTÍNEZ, J. *La situación lingüística de Asturias*. In *Revista de Occidente* 10-11 zenb., 1982, 120. or.; eta bigarren jarreraren alde, GARCÍA ARIAS, X.L. Informe sobre la lengua asturiana. In *Las lenguas nacionales en la administración*. Valencia: Diputación Provincial de Valencia, 1981, 177. or.

(194) Asturiaseko Autonomi Estatutuak bere 4. artikuluan honela dio hitzez hitz: «El bable gozará de protección. Se promoverá su uso, su difusión en los medios de comunicación y su enseñanza, respetando en todo caso, las variantes locales y voluntariedad de su aprendizaje.»

Ikus, halaber, bablearen babeserako bulego baten sorrerari buruzko 1985eko irailaren 23ko Dekretua.

(195) Kataluniako Autonomi Estatutuak bere 3.4 artikuluan honela dio hitzez hitz: «El habla aranesa será objeto de enseñanza y de especial respeto y protección.»

garrantzia eta hedadura dela eta, bertako berezko hizkuntzatzat jo daitekeen hori izango omen da. Berezko hizkuntzatzat hartzeko pisu, garrantzi edo hedadura nahikoa ez duten hizkuntzek Konstituzioaren 3. artikulua ondotarako ez dira hizkuntzak izango, bablea, Aragoi mintzatzen den katalana, eta Arán haraneko hizkuntza kasu.

Konstituzioak 3. artikuluan erabiltzen omen duen kontzeptu murriztaile hori ikuspegi linguistiko batetik ez da batera zuzena, zeren hizkuntza kontzeptua irizpide kuantitati-boetara soilik mugatzen baitu. Hala eta guztiz ere, Konstituzioak interpretazio murriztaile hau erabili izanaren zantzuak badaude. Konstituzioaren azken xedapenak zera esaten du: «Esta Constitución entrará en vigor el mismo día de la publicación de su texto oficial en el Boletín Oficial del Estado. Se publicará también en las demás lenguas de España.»

Beno ba, xedatua betez, 1987.eko abenduaren 29an Konstituzioa, gaztelera, euskaraz, galizieraz, katalanez, valentzieraz, eta mailorkeraz argitaratu zen EEOn<sup>196</sup>. Orduan, ba, Konstituzioa Espainako hizkuntzez ari zenean, bable, aranera eta Aragoiko katalana bezalako hizkuntzak, ez zituen antza kontuan hartu.

3) 3.2 artikulua honen azterketarekin bukatzeko, gainerako Espainiako hizkuntzen ofizialtasunaz arituko gatazka. Gai honen inguruan askatu beharreko lehen zalantza hauxe da: Konstituzioan gaztelera zein gainontzeko hizkuntzentzako baliagarria den ofizialtasun kontzeptu bakarra agertzen da ala gaztelararen ofizialtasuna gauza bat da, eta eta gainontzeko hizkuntzena beste bat?

Gure aburuz, 3.2 artikuluan azaltzen den ofizialtasuna eta 3.1 artikuluan azaltzen dena gauza bera dira, eta horren

---

(196) 77. orri-oinean aditzera eman dugun eran, valentziera eta mailorkera katalaneraren dialektoak dira, beraz, hauek hizkuntza desberdintzat jotzea -kasu honetan egin den bezala- gure iritiz ez da zuzena.

ondorioz, ondorio juridiko berak izan beharko lituzkete<sup>197</sup>. Izan ere, 3.2 artikulua «serán también oficiales» dioenean, aurreko paragrafoan azaltzen den ofizialtasunari erreferentzia egiten diola ematen du.

Beraz, Konstituzioak ofizialtasunak desberdintzen ez baditu, ez dagokigu guri horrelakorik egitea. Konstituzio Auzitegia ere iritzi berekoa omen da, izan ere hark epaietan sarri askotan koofizialtasun hitza erabiltzen du eta, jakina denez, «ko-» aurrizkiak bi terminoen arteko parekotasuna adierazten du.

Orduan, arestian gazteleraren ofizialtasunari buruz esandako guztia, Estatuko gainerako edozein hizkuntza ofiziali zuzen-zuzenean aplikatu dakioke. Hizkuntza ofizialtasun hauen desberdintasun bakarria ezarpen eremuarena da; horrela, gazteleraren ofizialtasuna Estatuko lurralde eremu osora zabaltzen den bitartean, gainerako hizkuntzena, euren autonomi lurraldeetara mugatzen da.

Lehenago gazteleraren ofizialtasunaz aritu garenean, ofizialtasun kontzeptua zentzu bikoitzean uler daitekeela esan dugu: zentzu estuan eta zentzu zabalean. KAK berak defendatzen duen ofizialtasun kontzeptu estutik hiru eskubide eratorzen dira: hizkuntza ofiziala ezagutzeko eskubidea, hizkuntza ofiziala harreman publiko zein pribatuetan erabiltzeko eskubidea eta hizkuntza ofizialaren irakaskuntza hartzeko eskubidea. Ofizialtasunaren kontzeptu zabala ez da horretan geratzen, dezente haruntzago doa eta, aipaturiko hiru eskubideez gain, hizkuntza ofizialaren

---

(197) BARRERE UNZUETak kontrako tesia defendatzen du. Bere ustez, 3. artikulua interpretatuz ofizialtasun desberdin bi ondoriozta daitezke, bata gaztelerari dagokiona, eta bestea, gainerako hizkuntzei dagokiona. BARRERE UNZUETA, M. Sobre la oficialidad lingüística (Observaciones iusfilosóficas a una reciente contribución doctrinal). In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak. Oñati: HAEE/IVAP*, 1990, 279-280 orr.

ezagutzaren presuntzioa dakar. Hori dela eta, aginte publikoen arteko, eta hauen eta hiritarren arteko harremanetan ezin izango da, printzipioz, hizkuntza ofizial horren ezagupenik eza alegatu. Edo beste era batera esanda, ezjakintasunaren alegazioak ondorio juridikorik izan dezan, hiritar -edo kasurako aginte publiko- ezjakitunak hizkuntza ofizialaren ezagupenaren presuntzioa hautsi behar izango du, eta horretarako ezinbestekoa gertatuko zaio nozitzen duen ezjakintasun egoera hori, zuzenbidean onarturiko edozein frogaren bidez, egiaztatzea.

Konstituzio Auzitegiak mantentzen duen ofizialtasun kontzeptu estuaren barnean, ez dago aipatutako presuntzio horretarako lekurik. Jadanik ikusi dugun bezala, Auzitegiaren iritziz, gaztelaren presuntzioa ez da ofizialtasun kontzeptutik eratortzen, gaztelera jakin beharretik baizik.

Ofizialtasunaren kontzeptu estua gaztelania ez diren beste hizkuntza ofizialei aplikatzerakoan ez da arazorik sortzen, baina tamalez, ofizialtasun kontzeptu zabalari buruz ezin dezakegu beste horrenbeste esan. Izan ere, Estatuko zenbait berezko hizkuntzen egoera soziala ikusirik<sup>198</sup>, ofizialtasunaren kontzeptu zabal hori, dakartzan ondorio guztiekin -ezjakintasuna alegatu ezina barne-, momentu konkretu honetan baldintza eta neurririk gabe praktikan aplikatzeari ezinezkoa deritzogu. Pentsa, adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoan aginte publikoek erdaldun elebakar bati euskara hutsez jakinarazpen bat egiten diotela. Ofizialtasunaren kontzeptu zabalaren arabera, hiritar horrek ezin izango luke bere ezjakintasuna alegatu, edo hobeto esanda, ezjakintasuna alegatzeko aukera izango luke baina berari egokituko litzaioke ezjakintasunaren frogaren zama, horrek lekarzkiekeen kalte guztiekin.

---

(198) Adibidez EAEn biztanlegoaren %25ek eta Nafarroan %12k bakarrik dakite ondo euskaraz.

Horrelako erabaki bat -ezjakintasuna alegatu ezinartu aurretik baldintza *sine qua non* bat bete beharra dago, ezpere, berezko hizkuntza ofizial hori ezagutzen ez duten hiritarren eskubideak kaltetuak izan daitezen arrisku handia legoke. Baldintza hori hauxe da: aginte publikoen partetik hizkuntza ofizialaren ezagupena ziurtatzea. Milián i Massanaren hitzetan: «...la principal consecuencia que se deriva de la oficialidad, consistente en que los ciudadanos no pueden alegar incomprensión ante las comunicaciones, notificaciones y publicaciones llevadas a cabo en cualquiera de las lenguas oficiales, *no sería eficaz en el supuesto de las lenguas propias mientras los poderes públicos no hubieran puesto los medios necesarios que permitieran facilitar y asegurar su conocimiento*. Por ello, las normas (leyes y reglamentos) habrán de publicarse, si no se quieren vulnerar los principios de la seguridad jurídica y de la igualdad ante la ley (ambos garantizados por la Constitución), a la vez en las lenguas oficiales de la Comunidad hasta que los poderes públicos hayan hecho posible asegurar su conocimiento»<sup>199</sup>.

Orduan, aginte publikoek berezko hizkuntza ofizialen ezagupen orokorra ziurtatzen ez duten bitartean ezin izango da erabili hizkuntza ofizial horien ezagupenaren presuntzioa, eta ezta hizkuntza horien ezjakintasuna alegatu ezina ere.

Berezko hizkuntzen ezagutza ziurtatzearen zeregina bere gain hartu dutenak aginte publiko autonomikoak izan dira<sup>200</sup>. Eta egia esan, autonomia erkidegoetako aginte

---

(199) MILIÁN i MASSANA, A. La ordenación estatutaria de las lenguas españolas distintas del castellano. *RVAP*, 1983, 6. zenb., 242. or.

(200) Horrela EAEko Autonomi Estatuaren 6.2 artikulua arauera: «Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta *beroi*en

publikoek lan zaila eta nekeza izango dute berezko hizkuntza guztien ezagupena ziurtatu artean.

Autonomia erkidego bakoitzaren egoera soziolinguistikoa arras desberdina denez gero<sup>201</sup>, autonomia erkidego bakoitzak bere egoera soziolinguistikoari ondoen egokitzen zaion hizkuntz politika aurrera eraman beharko du. Zalan-tzarik gabe, egoerarik larrienean dagoen berezko hizkuntza ofiziala euskara da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan egoera larria baldin bada, are larriagoa Nafarroan. Horregatik Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako aginte publikoek bere gain egundoko erronka dute, eta -EAEren kasuan bederen- aurrerapauso garrantzitsuak eman badira ere, oraindik eragozpenez jositako ibilbide luzea dago urratzeko.

**Art. 3.3: «La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección»**

Autore batzuek artikulua honi ez diote aurreko atal bien hainbateko garrantzi juridikorik aitortzen eta bigarren

---

*ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.»*

Zentzu berean ikus: Kataluniako Autonomi Estatutua (3.3 art.), Galiziako Autonomi Estatutua (5.3 art.) eta Valentziar Elkarteko Autonomi Estatutua (7.2 art.).

(201)

	hitz egin	ulertu	ez ulertu
Katalunia	%64,00	%90,28	%9,40
Valentzia	%49	%74,36	%25,64
Balearr Irlak	%70,82	%89,47	%10,53
EAE	%24,58	%42,00	%58,00
Nafarroa	%12,00	%15,00	%85,00
Galizia	%90,00	%94,00	%6,00

Aipatutako datuak, 1986ko erroldan oinarritutako autonomia erkidego desberdinetako berezko hizkuntzen ezagupena eta erabilerari buruzkoak dira. Datu hauen iturria: SIGUÁN, M. *Las minorías lingüísticas en la CEE: España, Portugal y Grecia: resumen del informe*. Luxemburgo: Oficina de publicaciones de las Comunidades Europeas, 1990, 10. or.



mailan kokatzen dute. Gure ustez, ordea, 3.3 artiluluak hizkuntz erregulazio konstituzionalean berebiziko garrantzia du. Artikulu honek ofizialtasunaren gaia jorratzen duten aurreko pasarte biak osatzen ditu, zentzu edo esangura berezia ematen dielarik.

Artikulu honek planteatzen duen lehen kuestioa, bere objektu edo ezarpen eremuarena da. Gai honen inguruan hiru interpretazio desberdin aurki ditzakegu:

a) Interpretazio murriztailea: hizkuntz modalitate («modalidad lingüística») hitza zentzu estuan ulertzen da. Horrela kontzeptu horren barnean bakarrik ofizial mailarik ez duten hizkuntzak sartuko lirateke. Interpretazio honen defendatzaileentzat<sup>202</sup>, 3. artikulua egitura hierarkikoa du, hau da, Estatu mailako hizkuntzatik hasi, eskualde mailako hizkuntza ofizialek segi eta ofizial mailarik ez duten hizkuntzekin bukatzen du. Beraz, hauentzat, lehen atalaren objektua gaztelera, bigarrenaren objektua gainerako hizkuntza ofizialak, eta hirugarrenaren objektua ofizial mailarik ez duten hizkuntzak izango lirateke.

b) Erdibideko interpretazioa: Interpretazio honen ildotik, 3.3 artikulua objektua gaztelera ez beste hizkuntza guztiak (ofizialak zein ez-ofizialak) izango lirateke.

d) Interpretazio hedakorra: hizkuntz modalitate hitzari zentzu edo adiera zabalagoa ematen zaio. Hizkuntz modalitatetzat Estatuko hizkuntza oro jotzen da, gaztelera barne. Beraz, berdin dio hizkuntza ofizial ala ez-ofizial izatea.

---

(202) Besteak beste: FRAGA IRIBARNE, M. Diario de Sesiones del Congreso de Diputados (D.S.C.D.), 1978, 67. zenb., 2.335-2.336. orr.; eta AGUIRRE QUEREJETA, I. D.S.C.D., 1978, 104. zenb., 3.841 or.

Doktrinan oihartzun ozenena izan duen interpretazioa azken hau izan da<sup>203</sup>, eta Auzitegi Gorena ere ildo beretik abiatu bide da<sup>204</sup>.

Beste alde batetik, 3.3 artikuluan bi dimentsio ezberdin nabari direla esan beharra dago. Bata estatikoa, «begirune» («respeto») hitzetik eratortzen dena, eta bestea dinamikoa, «babes» («protección») hitzari dagokiona.

- Cobrerosek dioenez, talde linguistikoekiko begirunea edozein Estatu demokratikori esiji dakiokkeen gutxienezkoa da<sup>205</sup>. 3.3 artikuluan agertzen den begiruneari buruzkoa, ez da balio juridikorik gabeko baieztapen hutsa<sup>206</sup>, aitzitik, ondorio juridikorik eduki badauka eta garrantzitsua gainera<sup>207</sup>. Izan ere, Konstituzioak modalitate linguistikoekiko begirunea agintzen duenean, aginte publikoek hizkuntz manifestazio bakarkako zein kolektiboetan

- 
- (203) Besteak beste: ENTRENA CUESTA, R. Comentarios al artículo 3º de la Constitución, 68. or.; MILLÁN i MASSANA, A. La regulación constitucional del multilingüismo, 144. or.; COBREROS, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*, 46. or.
- (204) Geroago ikusiko dugun 1988ko urtarrilaren 19ko Epaian (Ar. 284), adibidez.
- (205) COBREROS, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*, 47. or.
- (206) ALZAGA VILLAAMILen iritziz, «el término ‘respeto’ tiene prácticamente un nulo valor jurídico y se mueve más en el terreno de lo reverencial y cuasi-religioso.» ALZAGA VILLAAMIL, O., *La Constitución española de 1978*. Madrid: Foro, 1978, 111. or.
- (207) ENTRENA CUESTAren aburuz, 3.3 artikuluan azaltzen den begiruneari buruzko aipamen konstituzionalak, «comporta un sinnúmero de consecuencias jurídicas, imposibles de relacionar de forma exhaustiva (...) Piénsese, por ejemplo, en los derechos al uso de las distintas lenguas por los medios de difusión y en los actos y reuniones de carácter cultural; a la inscripción en el Registro civil consignándose el nombre en la lengua oficial en la lengua española que se considere conveniente; la rotulación de las calles y la designación de los Municipios y Provincias con el nombre de la lengua regional en actos sociales y públicos, etc.» ENTRENA CUESTA, R. Comentarios al artículo 3º de la Constitución, 69. or.

interferituko ez dutela bermatu nahi du, nolabait askatasun printzipioa hizkuntz arloan aplikatuz.

- 3.3 artikulua delako dimentsio estatikoaz ihardun eta gero, gatozen «babes» hitzetik eratortzen den dimentsio dinamikoaren gaia jorratzera. Dakigunez, Konstituzioan berdintasun sustantzialaren printzipioa 9.2 artikuluan azaltzen da<sup>208</sup>. Beno ba, 3.3 artikulua, hizkuntza arloari lotutako 9.2 artikulua konkrezio edo zehaztapena da, berdintasun sustantzialaren printzipioa hizkuntza arlorak dakarrena.

Jakinaenez, berdintasun printzipioak bi alderdi ditu, alderdi formala edo legezkoa (EKren 14. art.), eta alderdi sustantziala edo egitatezkoa (EKren 9.2 art.). Berdintasun printzipioa zinez eraginkorra izan dadin, ez da nahikoa egoera edo egitate guztiak modu berean arautzea -berdintasun formala edo legezkoa-, maiz egitatezko desberdintasunak zuzentzeko ezinbestekoa baita egoera bakoitzari trataera desberdina ematea. Izan ere, berdintasun printzipioak egoera berdina modu berean eta egoera desberdina modu desberdinean tratatzea eskatzen du.

Nazioarte mailan egitatezko berdintasunaren gaia aurrengo aldiz Nazio Elkartearen babespean zegoen Nazioarteko Justizi Auzitegi Iraunkorrak jorratu zuen Albaniako gutxiengoaren eskolei buruzko 1935eko apirilaren 6ko Irizpenean. Hantxe esandakoak egun ere erabateko aplikagarritasuna du:

«Tal vez no sea fácil precisar la noción de igualdad de hecho en relación con la igualdad de derecho; se puede sin embargo afirmar que se opone a la puramente formal...»

---

(208) 9.2 art.: «Corresponde a los poderes públicos promover las condiciones para que la libertad y la igualdad del individuo y de los grupos en que se integra sean reales y efectivas, remover los obstáculos que impidan o dificulten su plenitud y facilitar la participación de todos los ciudadanos en la vida política, económica, cultural y social.»

La igualdad de derecho excluye toda discriminación; la igualdad de hecho, por el contrario hace necesario en trato diferente a fin de llegar a un resultado que establezca el equilibrio entre situaciones diferentes.

Se pueden imaginar fácilmente casos en que un trato igual de la mayoría y de la minoría, cuya condición y necesidades son diferentes, produciría una desigualdad de hecho (...) La igualdad entre mayoritarios y minoritarios debe ser una igualdad efectiva, real»<sup>209</sup>.

Esandakoa hizkuntz arloari aplikatuz, baldintza eta premia desberdinak dituzten hizkuntzen trataera juridiko homogeneoak, ez du hizkuntzen egitatezko parekotasunik bermatzen, aldiz, gehienetan gehiengoaren hizkuntzaren egoera gero eta sendoagoa izango da eta gutxiengoaren hizkuntzarena gero eta kezkarriagoa<sup>210</sup>. Horrelakorik gerta ez dadin, eta hizkuntzen egitatezko egoera parekatzeko, nahitaezkoa deritzogu errealitatean gertatzen diren desoreka linguistikoak gaindi ditzaketen gutxiengoaren hizkuntzen aldeko babes neurriak hartzeari.

Zentzu horretan, 3.3 artikulua egoera kaskarrean dauden gutxiengoaren hizkuntzak suspertzeko ekintza eta neurri bereziak har ditzaten ateak zabalik uzten dizkie aginte publikoei. Hartara, 3.3 artikulua argitan, adibidez, ez luke inolako gutxiespenik sortuko hizkuntz gutxiengoaren sustapena ahalbidetzeko salbuespenezko legedia indarrean jartzeak. Salbuespen legedi hori dela medio, gutxiengoaren hizkuntzek gehiengoaren hizkuntzaren ondoan trataera faboragarriagoaz gozatuko lukete, baina trataera

---

(209) Iturria: OBIETA CHALBAUD. J.A. *Las lenguas minoritarias y el derecho*. Bilbao: Mensajero, 1976, 32. or.

(210) DE WITTEK dioenez: «...the absence of distinctions, the application of one-and-the-same rule to everyone is precisely the favourite instrument of linguistic domination and assimilation...». WITTE, B. de. *Linguistic equality. A study in comparative constitutional law*. *Llengua i Dret*, 1985, 6. zenb., 64. or.

Zentzu honetan ere, aipagarriak dira NINYOLESek elebitasun kontzeptuari buruz egin dituen gogoetak. NINYOLES, R. Ll. *Cuatro idiomas para un Estado*. Madrid: Cambio 16, 1977.

desberdindu hori -babes positiboa<sup>211</sup> - zilegia litzateke, eurak pairatzen ari diren egitatezko egoera desorekatuarengatik justifikatua legokeelako. Eta are gehiago, kasu gehienetan babes edo gutxiespen positibo hori ematea hil ala bizikoa suertatuko da hizkuntzen egitatezko egoera desorekatu hori oreka dadin.

Hori bai, trataera juridiko desberdin horrek gutxiespenik sor ez dezan, bi baldintza bete behar ditu dagoeneko errotoa dagoen GEEAren jurisprudentziaren arauera: arrazoizko justifikazio objektibo bat izatea, eta lortu nahi diren helburu eta hartuko diren neurrien arteko proportzionaltasuna<sup>212</sup>. KAK GEEAk ezarri dituen baldintza biei beste bat gehitu die: trataera desberdinaren bidez lortu nahi diren helburuak Espainiako Konstituzioarekin bat etor daitezela<sup>213</sup>.

*Affirmative equality*ari buruz, bada orain arte aipatutako aspektu desberdinak ikutzen dituen Auzitegi Gorenaren Epai ospetsu bat, 1988ko urtarrilaren 19koa (Ar. 284) hain zuzen ere. Kataluniako Generalitateak, agindu bidez, Kataluniako Autonomia Erkidegoko Zinemagintza sariak eskuratzeko baldintza batzuk ezarri zituen. Ezarritako baldintzen artean, filmeak derrigorrez katalanez agertzearena zegoen. Agindu

---

(211) «Babes positibo»arena italiar doktrinan errotutako kontzeptua da. PIZZORUSSO, A. In *BRANCA, G. Comentario della Costituzione*. I. alea. Bolonia: Zachinelli, 1975, 307. or.

Praktikan babes edo diskriminazio positiboaren ideia egia bihur dadin, halabeharrezkoa da hizkuntza gutxituaren aldeko sustatze-ekintzak edo ekintza positiboak aurrera eramatea. Ekintza positiboa honela defini daiteke: aldez aurretik esistitu den gutxiespen egoeraren zeharkako zein zuzeneko ondorioak gainditzera bideratuta dauden aldibaterako ekintza espezifikoak dira, euren azken helburua hizkuntzen arteko egitatezko berdintasuna lortzea delarik».

(212) Iritzi doktrinal hau GEEAren hainbat eta hainbat epaitan agertzen zaigu, besteak beste 1968ko uztailearen 23koa, 1975eko urriaren 27koa, 1979ko ekainaren 13koa, 1984ko azaroaren 28koa, 1986ko uztailearen 8koa, eta abar.

(213) Besteak beste, KAren uztailearen 2ko 22/1981 Epaia, 3. oinarri juridikoa.

hau, berdintasun printzipioa urratu eta gutxiespena sortzen zuelakoan inpugnatua izan zen, baina AGk ez zituen errekurritzaileen argudioak ontzat hartu, eta instantziako epaia berretsi zuen:

«...una Orden que tiende con normativa de contenido positivo, a fomentar el conocimiento de la lengua catalana y si bien la convocatoria es desigual en tanto en cuanto excluye a las producciones cinematográficas estrenadas en lengua castellana, tal desigualdad es razonable dentro de los objetivos perseguidos que por otra parte tienden a dotar de contenido efectivo al mandato constitucional recogido en el art. 3.3 de la Primera Ley del Estado, por lo que *no cabe hablar de discriminación entendida ésta como tratamiento desigual ante situaciones parangonables para recibir un idéntico tratamiento normativo, ya que si lo que se pretende es fomentar el desarrollo de la lengua catalana, como riqueza y patrimonio cultural, tal fomento ha de conllevar, necesariamente, medidas favorecedoras respecto de la otra lengua cooficial -el castellano- lo que siempre ha de suponer un tratamiento desigual o desequilibrado que no tiene por qué traducirse en el quebranto del derecho a la igualdad* en tanto en cuanto están condicionados sus fundamentos por motivaciones razonables e incluso, en el presente caso, por dotar de contenido material a un precepto constitucional, puesto que la operatividad del principio igualitario impone que sean tratados de forma idéntica hechos o situaciones iguales pero no implican en todos los casos un tratamiento legal con abstracción de cualquier elemento diferenciador de relevancia jurídica por lo que según el Tribunal Constitucional -Sentencias 10 de julio y 10 de noviembre de 1981 (R.T. Const. 19 y 68)- *sólo existirá desigualdad si la discriminación está desprovista de una justificación objetiva y razonable*, puesto que el principio de igualdad ha de entenderse en función de las circunstancias que concurren en cada supuesto concreto en relación con el

cual se invoca, y en relación, también, con la finalidad y la medida considerada *debiendo de darse una proporcionalidad entre los medios empleados y la finalidad perseguida...»*.

Konstituzio Auzitegiak ere babes positibo eta ekintza positiboaren zilegitasuna aitortu du. Auzitegiaren aburuz, hiritarren hizkuntz eskubideen eragingarritasuna ahalbidetzeko, erakunde autonomoek ekintza politikoak aurrera eraman ditzakete, eta haren hitzetan, «dentro de estas acciones políticas se incluyen, (...) las disposiciones de las CCAA encaminadas a promover la normalización lingüística en su territorio. Disposiciones cuyo objetivo general no es otro que la de asegurar el respeto y fomentar el uso de la lengua propia de la CA y cooficial en ésta y, a este fin, corregir positivamente una situación histórica de desigualdad respecto al castellano, permitiendo alcanzar, de forma progresiva y dentro de las exigencias que la Constitución impone, el más amplio conocimiento y utilización de dicha lengua en su territorio»<sup>214</sup>.

### 3.3. **ESPAINIAKO KONSTITUZIOAK ELEANIZTASUNAREN ANTOLAKETARAKO JARRAITUTAKO EREDUA**

Hizkuntz elkarkidetasunaren fenomenoak historian zehar jatorri desberdinak izan ditu.

Sarritan, hizkuntzen bizikidetasuna herrialde ezberdinen hedakuntza politiko prozesuen ondorioa da. Horrela, herrialde indartsuenek bere buruzagien handi-nahiaren handi-nahiez, indarraren poderioz kultur eta hizkuntza desberdinak dituzten herrialdeak menpe hartu dituzte. Egoera horietan, herrialde menperatzailearen hizkuntza botere politikoarekin identifikatu ohi da eta bertako hizkuntzak izango ez duen ospe eta entzutea lortuko

---

(214) KAren abenduaren 23ko 337/1994 Epaia, 7. oinarri juridikoa.

du. Honen ondorioz, herrialde menperatzailearen hizkuntza menperatuaren hizkuntzaren gainetik kokatuko da, eta lehenengoa eremu publiko zein pribatuetarako komunikazio tresna bilakatuko den bitartean, bigarrenaren erabilpena eremu pribatuetara mugatuko da. Hizkuntza bien arteko desoreka egoera horri «diglossía»<sup>215</sup> deritzo. Egoera diglosikoak, ondorio gisa, pisu sozial gutxiago duen hizkuntza pisu sozial gehiago duen hizkuntzak asimilatzea dakar.

Beste batzuetan, hizkuntzen bizikidetasuna emigrazio prozesuek eragiten dute. Kasu hauetan herrialde batera bertako hizkuntza ez den beste hizkuntza batean mintzo den gizatalde nabarmen bat ailegaten da, eta ailegatu ez ezik, luzaro geratzeko asmoz bertan instalatu ere egiten da.

Normalean etorkinen hizkuntzak ez du bertako hizkuntzak adinako ospe eta entzute sozialik izango. Hala ere, baliteke emigrazioa, herrialde menperatzaileak herrialde menperatuaren batasun kulturala lortzeko aurretiaz pentsaturiko estrategia bat izatea. Halakoetan, etorkinen hizkuntza menperatzailearen hizkuntza ere izango da eta, jakina, hau bertako hizkuntzaren gainetik kokatuko da diglosia fenomenoaren sortaraziz.

---

(215) «Diglosia» berba FERGUSONek sortu zuen, Grezian herri-hizkuntzak hizkuntza purifikatuarekiko jasaten zuen menpekotasuna salatzeke, hain zuzen. Ildo beretik eta MILIÁN i MASSANAREN iritziz, diglosia berba «se aplica, consiguientemente, para denotar aquellas situaciones de contacto de lenguas en las que el uso de unas lenguas (lenguas A) se limita a un ámbito reducido, generalmente el de las comunicaciones que podemos clasificar convencionalmente como no formales (situaciones familiares o amicales, coloquiales en la mayoría de los casos, y temas poco transcendentales) mientras que las otras lenguas (lenguas B), además de vehicular las comunicaciones no formales, extienden su ámbito de uso, en la mayoría de los casos sin dar cabida a las primeras (A), a aquellas comunicaciones que, en contraposición a las anteriores, llamamos formales (amplia y divulgada literatura, enseñanza, *mass media*, Administración pública, difusión mundial)». MILIÁN i MASSANA. A. La regulación constitucional del multilingüismo. *REDC*, 1984, 10. zenb. 126-127. orr.



Azkenik, zenbait herrialdetan, arrazoi desberdinengatik -adibidez, merkatal gunea delako- hizkuntza desberdinak hitz egiten dituzten pertsonak bizi dira elkarrekin. Herrialde hauei eskuarki kosmopolita izena ematen diegu, eta normalean bertako talde linguistiko ezberdinen artean ez da ageri-ageriko lehentasunik antzematen.

Hizkuntz bizikidetasunaren iturburuak aipatu eta gero, gatozen estatuek fenomeno horri nola aurre egin dioten ikustera. Oro har estatuek eleaniztasunaren fenomenoaren aurrean hiru jokabide har ditzakete:

a) Asimilazio aktiboaren jarrera. Jarrera honen iturburua, XVIII. mendeko Frantzia aurki daiteke, estatua Estatu-Nazio gisa konfiguratu zenetik hain zuzen. Estatu-Nazio doktrinaren ildotik, estatu bakoitzak bere atzetik nazio bakar bat izan behar du, eta bide batez, baita hizkuntza bakar bat ere. Estatuak, nazioaniztasuna eta eleaniztasuna, bere barne-osasunerako kaltegarria den zerbait gisa antzematen ditu, ahalik eta azkarren zuzendu beharreko gaitza legez. Horretarako estatuak bere burua pisu politiko handien duen hizkuntzarekin identifidatuko du. Hizkuntza horri «nazional» kalifikatiboa erantsiko dio, eta «estatu bat nazio bat» edo berdina den «estatu bat hizkuntza bat» lelopean hizkuntz gutxiengoak sistematikoki zanpatuko ditu harik eta hizkuntza horien asimilazioa erdietsi arte.

b) Tolerantzia linguistikoaren jarrera. Estatuak ez du hizkuntza arloan esku hartuko, hizkuntzak beren kontura utziko ditu, bakoitza hizkuntz norgehiagoka horretan nola edo hala molda dadin. Bestelakorik pentsa badaiteke ere, eleaniztasunaren defentsaren aldeko ikuspegitik, *laissez faire, laissez passer*arena ez da batere jarrera onargarria. Kontuan izan behar dugu, estatu eleanizdunetan, maizenik, hizkuntzen egoera soziala guztiz desberdina izaten dela eta hizkuntza bakoitzak norbere beharrianak dituela; batzuk sasoi onean eta osasuntsu izango dira, beste batzuk

kili-kolo ibiliko dira, beste zenbait galdu aginean egongo dira, eta abar. Hizkuntza bakoitzak bere baldintzak eta premiak izango ditu, eta hauei eraginkotasunez aurre egiteko era bakarra, bakoitzari norbere premien arabera berarizko erantzun bat ematean datza. Bestela, bere erabilpen esparrua batik bat komunikazio ez-formaletara -senideartekoak, lagunartekoak...- mugatua duen hizkuntza, eta erabilpen esparrua komunikazio ez-formaletara ez ezik komunikazio formaletara ere -literaturan, komunikabideetan, administrazioan, irakaskuntzan, epaitegietan...- hedatua duen hizkuntza norgehiagoka librean utziz gero, bigarrenak bere pisu sozialaren poderioz, gero eta hitzun gehiago erakarriko ditu eta ahuleziak jota dagoen hizkuntza poliki-poliki asimilatuko du. Hortaz, gehien-gehienetan tolerantzia politika horren atzean asimilazio pasiboaren politika ezkutatu da<sup>216</sup>.

d) Hizkuntz aniztasuna lege bidez aitortzearen jarrera. Hizkuntz aniztasunaren errealitateak, antolamendu juridikoan bere islada izango du. Formalki behinik behin, gutxiengoen hizkuntzak aitortuak izango dira, eta normalean aitorten formal hori hizkuntza horien ofizialtasun deklarazio batean gauzatuko da.

Gure aburuz, azken hau da benetako estatu demokratiko batekin bateragarria den hizkuntz politika bakarra.

Hizkuntzen aitorten formula era desberdinetan gauza daiteke, edo beste era batera esanda, hizkuntz ofizialtasunak praktikan

---

(216) «La tolerancia, el *'laissez faire, laissez passer'* en materia de lengua, ha sido siempre y es todavía hoy probablemente la política más practicada. Esta política, como el liberalismo económico, es una manera tan eficaz como cualquier otra -más eficaz en realidad, puesto que supone omisión, no una acción cuya responsabilidad alguien tiene que cargar- de favorecer unas lenguas y postergar otras: es, por lo tanto, una política, no una falta de política.» CASTELLS ARTECHE, J.M. La normativa sobre el euskera. In *Reflexiones sobre la autonomía vasca*. Oñati: HAEE/IVAP, 1986, 229. or.

antolabide ezberdinak eskaintzen ditu. Funtsean bi dira estatu eleanitz demokratikoez hizkuntza antolaketarako jarraitzen dituzten sistema nagusiak:

- **Pertsonatasun printzipioan oinarritutako hizkuntz politika.** Hiritarrari hiritar izateagatik bakarrik, estatuko luze-zabalera osoan hizkuntz eskubide batzuk aitortzen zaizkio. Hau da, hiritarrari estatuan zehar zenbait zerbitzu publiko -administrazio zerbitzuak, hezkuntza, justizia...- bere hizkuntzan izateko eskubidea bermatzen zaio, berdin delarik hiritar hori estatuko zein lurraldetan dagoen. Printzipio honen arabera, estatuko hizkuntza desberdinak ofizialkideak izango dira, eta hauen ofizialtasuna estatu-lurralde guztira barreiatuko da.

Pertsonatasun printzipioan oinarrituriko hizkuntz politikaren jomuga, estatuko hiritar gehienek bertako hizkuntza guztiak uler eta erabil ditzaten lortzea da, hots, hiritar eleaniztunak sortzea. Hizkuntz politika honek espero den arrakasta izan dezan ezinbestekoa da, bederen, hiru baldintza nagusi hauek betetzea: estatuan barrena elkarrekin bizi diren hizkuntzak ugariegiak ez izatea, talde linguistikoz ezberdinak estatu-lurraldean zehar sakabanatuak egotea, eta talde linguistikoz horien pisu sozial eta politikoa nahikoa orekatua egotea.

Esan bezala, pertsonatasun printzipioak hiritarrari estatu-lurralde osoan bere hizkuntzan zenbait zerbitzu publikoez gozatzeko aukera ematen dio. Estatu bateko hizkuntzak ugariegiak balira, estatu horri teknikoki oso zail izango litzaioke hango hizkuntza guztietan zerbitzu publiko horiek estatu-lurralde guztian zehar eskaintzea. Izan ere, azken hau ahalbidetzeko beharrezkoak diren baliabide material eta pertsonalak eskuratzea estatu batek nekez jasan lezakeen zama ekonomiko astuna izango litzateke. Hori dela eta, hiru hizkuntza baino gehiago elkarrekin bizi diren estatu bat pertsonatasun printzipioaren ildotik antolatzea ez

da oso komenigarria izaten. Horrez gain, eta arazo teknikoak aparte, pertsonatasun printzipioaren helburua hiritar eleaniztunak sortzea dela kontuan izanik, hizkuntza anitz dagoen estatu batean ez da batere erraza izango hiritar guztiak horrenbeste hizkuntza ezagutu eta erabil ditzaten lortzea.

Bestalde, estatu batean pertsonatasun printzipioa eraginkortasunez aplikatua izan dadin, bertako talde linguistikoak estatuan barna sakabanatuak egon daitezten halabeharrezkoa da. Bestela, talde linguistikoak lurralde eremu jakin batzuetan kontzentratuak edo pilatuak egongo balira, eremu horietan -nahiz eta formalki hizkuntzak estatu osoan parekatuak egon- hizkuntzen arteko zinezko ekiparazioa ezinezkoa bihurtuko litzateke, talde maioritarioak talde minoritarioa asimilatuko luke eta. Pertsonatasun printzipioa eragingarritasunez aplikagarri izan dadin, beraz, hizkuntzen lurralde-banakera orekatua ezinbestekoa suertatzen da.

Azkenik, hirugarren baldintza gisa, estatuko talde linguistikoek pisu eta garrantzi sozial eta politiko berdintsua<sup>217</sup> izan ditzaten eskatzen du pertsonatasun printzipioak. Dagoeneko jakina denez, pertsonatasun printzipioak hizkuntzen ofizialkidetasuna suposatzen du, hau da, estatuko hizkuntza guztiak estatu-lurralde osoan ofizialak izango direla. Formalki edo juridikoki hizkuntza guztiak parekatuak egongo dira eta guztiak hizkuntz funtzio berdinak garatzeko gai izango dira. Egoera bakoitzean zein hizkuntzatan mintzatu hiritarraren esku geldituko den hautaketa da. Hori dela eta, pertsonatasun printzipioa garrantzi sozial arras desberdina duten hizkuntzei aplikatuz gero, garrantzi sozial handiagoa duen hizkuntzak -esaterako botere egituretan indar handiagoa duelako, egoera teknologiko berrietara hobeto moldatu delako...- garrantzi

---

(217) Ikusten den bezala, hizkuntzen arteko pisu sozial eta politikoak berdintsua izan behar duela esaten dugu, eta ez berdina, errealitate ekilingue bat aurkitzea ia ezinezkoa da eta.

sozial gutxiago duen hizkuntza desplazatuko du, hizkuntzen egitatezko berdintasuna ilusio bihurtuz. Ninyolesen hitzetan, «la coigualdad legal, fundada en una desigualdad efectiva, impediría la efectiva igualdad»<sup>218</sup>.

**- Lurraldetasun printzipioan oinarritutako hizkuntz politika.** Estatu-lurraldea, bertoko hizkuntzen erabilpenaren arabera geografikoki zatituko da. Hizkuntza bakoitzak norbere lurralde-eremua izango du eta lurralde linguistiko bakoitzean hizkuntza batek -bertakoak- bestee-kiko lehentasuna izango du. Hala ere, lurralde eremu horren mugaz gaindi hizkuntza horrek bere lehentasuna galduko du beste hizkuntza baten edo batzuen alde. Hartara, hizkuntzen ofizialtasuna hizkuntza bakoitzak lehentasuna duen estatu-lurraltera mugatuko da. Hiritarrari bere hizkuntzan zenbait zerbitzu publikoez gozatzea bermatuko zaio, baina bakarrik bere hizkuntzak lehentasuna duen lurralde-eremuan mantentzen den neurrian.

Lurraldetasun printzipioan oinarritutako hizkuntz politikaren bidez lurralde linguistiko bakoitzean elebakartasuna lortu nahi da, hizkuntza bakoitzak norbere lehentasunezko lurralde erabilpen eremua ziurtaturik izan dezan. Horrela, bada, pertsonatasun printzipioarekin hizkuntzen arteko berdintasuna estatu mailako hizkuntzen trataera juridiko parekatuaren bidez lortzen den bitartean -ofizialkidetasunaren bidez, hain zuzen-, lurraldetasun printzipioarekin, ostera, paradoxa ematen badu ere, hizkuntz berdintasun hori lurraldearen araberrako hizkuntzen trataera desberdinaren bitartez lortzen da -lurralde elebakartasunaren bidez, hain zuzen-. Izan ere, estatu eleaniztunaren azken xedea ez da hiritarren elebitasuna edo eleaniztasuna lortzea, bertako hizkuntzen erabilera bermatzea baizik, eta sarritan xede hori lortzeko estatuko lurralde desberdinetan elebakartasuna bultzatu beharra dago.

---

(218) NINYOLES, R. Ll. *Cuatro idiomas para un Estado*, 256. or.

Lurraldetasun printzipioan oinarritutako politikak arrakasta izan dezan baldintza nagusi bat bete behar du, talde linguistikoen kontzentrazioarena alegia. Talde linguistikoa lurralde-eremu jakin batzuetan bildurik egotearen premia logikoa da, zeren bestela ez baikenuke estatua lurralde linguistikoetan banatzeko irizpide baliozkorik.

Bestalde, Charles-Albert Morandek dioenez, lurraldetasun printzipioak helburu bikoitza du: «Por una parte se trata de un principio relevante del orden público que permite, al asegurar una homogeneidad territorial, prevenir conflictos lingüísticos y culturales, asegurar la paz lingüística entre las diferentes comunidades que forman el país. Por otra parte se trata de un principio que asegura la protección de las minorías lingüísticas y destinado a conservar su identidad. Estas dos finalidades permiten circunscribir el alcance del principio.»<sup>219</sup>

Zentzu horretan, lurraldetasun printzipioan oinarritutako hizkuntz politika egoera diglosikoak zuzentzeko oso hizkuntz politika egokia da. Askotan hizkuntzen arteko desorekak hain denbora luzean gertatzen dira ezen oso zail gertatzen den pertsonatasun printzipioan oinarritutako politika baten bidez hizkuntza hauen arteko egoera orekatzea, zeren kasu horietan hizkuntzen lege-ekiparazioa ez baita nahikoa izaten sozialki hain errotua dagoen egoera desorekatu hori zuzentzeko. Lurraldetasun printzipioa erabiliz, berriz, gainbehera doan hizkuntzaren aldeko elebakartasuna ezarriko da, eta honek egoera kaskarrean dagoen hizkuntza susperraraziko du.

Lurraldetasun printzipioa ez da ia inoiz bere egoera puruan gertatzen, normalean, printzipio horren aplikazioak

---

(219) MORAND, C.A. Aspectos del derecho de las lenguas de Suiza. In *La ordenación legal del plurilingüismo en los estados comtemporáneos*. Barcelona: Consejo Consultivo de la Generalidad de Cataluña, 1983, 105 or.

salbuespenak izaten ditu, praktikan hizkuntzen lurralde banaketa homogenea burutzea oso zaila gertatzen delako. Horrela, estatu batzuetan lurraldetasun eta pertsonatasun printzipioak batera aplikatzen dira. Adibidez Belgikan, ikusi dugun bezala, frantses, nederlandar eta alemaniar eskualde elebakarrekin batera Bruselako eskualde elebiduna dago, non pertsonatasun printzipioa aplikatzen den.

Horrez gain, eskualde linguistiko elebakar baten mugen barneko zenbait gunetan, eskualde hizkuntza ez den beste hizkuntza baten erabilera oso hedatua egotea gerta daiteke. Halakoetan, lurraldetasun printzipioa bere osotasunean aplikatuz gero, gune berezi horietako hitzunen eskubideak kaltetzeko arriskua legoke. Horrelakorik gerta ez dadin, gune berezi horietan lurraldetasun printzipioaren salbuespen gisa pertsonatasun printzipioa aplikatzen da maiz<sup>220</sup>.

Eleaniztasunaren arauketarako erabili ohi diren sistemak ikusi ostean, orain Espainiako 1978.eko Konstituzioak zein bidetatik abiatu zen ikusiko dugu. Esaera zaharrak dioenez, *Spain is different*, eta hizkuntzen antolaketa juridikoari dagokionez ere esaera honek bete-betean asmatzen du. Espainiako Konstituzioak hizkuntzen legezko antolaketarako ez du *strictu sensu* oraindik orain aipatu dugun lurraldetasun printzipioan oinarritutako sistema ezartzen,

---

(220) Adibidez, Belgikan frantziar hizkuntzaren eta nederlandar hizkuntzaren eskualde linguistikoaren barrena lurraldetasun printzipioaren aplikatzeetik salbuetsita dauden zenbait udalerrri dago. Bertako gutxiengo linguistikoak babestearren udalerrri hauek jaurbide linguistiko bereziak dituzte, pertsonatasun printzipioan oinarritzen direnak.

Horrela, frantziar hizkuntzaren eskualde linguistikoan jaurbide berezi hau honako udalerrri hauek dute: Comines, Mouscron, Flobecq, Enghien, Malmédy eta Waimés. Eta nederlandar hizkuntzaren eskualdean beste hauek: Drogenbos, Kraainem, Linkebeek, Rhode-Saint-Genèse, Wemmel, Wezembeek-Oppem, Fouron, Biévène, Renaix, Espierres-Hechin, Messines eta Herstape.

baina ezta pertsonatasun printzipioan oinarritutako bat ere. 1978.ko Konstituzioak bi sistemen erdibidean dagoen eta hauen hibridoa den sistema mistoa ezartzen du.

Nahiz eta hizkuntzen erabilera lurralde eremu konkretu batzuetara mugatu -gaztelaren kasuan izan ezik, zeina estatu lurralde osoan ofiziala den-, Konstituzioak ezarritako hizkuntz antolaketarako eredu ezin daiteke territoriala denik esan, zeren lurralde eremu horietan ez baitzaio lurralde-hizkuntzari lehentasuna ematen. Beste modu batera esanda, ez da autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzen ofizialtasun eksklusiboa ezartzen, gaztelarekin erkideturiko ofizialtasuna baizik.

Era berean, berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetako hiritarrei zein hizkuntza erabiliko duten hautatzeko eskubide indibiduala aitortzen dien arren, Konstituzioak eredu pertsonal bat jarraitzen duenik ezin daiteke esan, zeren hautatze eskubide indibidual hori ezin baitaiteke nonahi egikaritu. Izan ere, eskubide hori berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan soil-soilik egikari daiteke.

Autore batzuek<sup>221</sup> Konstituzioak indarrean jarri zuen eredu misto hau kritikatu dute. Euren iritziz, Espainiako Estatuak Konstituzio garaian pairatzen zuen egoera linguistikoa ikusirik, -batetik, talde linguistikoen lurralde pilaketa edo kontzentrazioa, eta bestetik, diglosia fenomenoaren hedakuntza- egoera linguistiko horri ondoen egokituko zitzaiokeen hizkuntz politika lurraldetasun printzipioan oinarriturikoa izango zatekeen. Are gehiago, autore hauentzat gaztelera izan ezik gainerako hizkuntzek urteetan zehar jasan duten egoera diglosikoa gainditzeko

---

(221) Besteak beste: NINYOLES, R. Ll. *Cuatro idiomas para un Estado*, 235. eta hurrengo orr.; eta MILIÁN i MASSANA, A. La regulación constitucional del multilingüismo, 149. eta hurrengo orr.



era bakarra lurralde printzipioan oinarritutako hizkuntz politika ezartzea zatekeen, zeren, eredu mistoak hizkuntzak formalki parekatzen baditu ere<sup>222</sup>, ez baita gauza egoera diglosikoan dauden hizkuntzak egitatez edo *de facto* parekatzeko.

Lurraldetasun printzipioa talde linguistikoaren egoera desorekatuak edo diglosikoak gainditzeko neurri aproposa dela ezin dezakegu uka, baina gure iritziz, Konstituzio garaiko zenbait eskualde hizkuntzen egoera ikusita, lurraldetasun printzipioa gordintasun osoz estatu-lurralde osoan aplikatzeari zuhurtziagabekeria politikoa izan zitekeela deritzogu. Garai hartan Estatuko zenbait eskualdetan lurraldetasun printzipioa eraginkortasunez aplikagarria izan zedin ez ziren premiazko baldintza guztiak betetzen, guk uste. Egia da gaztelera izan ezik Estatuko talde linguistiko guztiak lurralde eremu konkretuetan pilatuak zeudela -eta daudela noski-, eta egia da, halaber, diglosia fenomenoaren eskualde elebidunetan arraz hedatua zegoela, baina bi baldintza hauek maiz ez dira nahikoak lurraldetasun printzipioa eraginkortasunez aplikagarria izan dadin. Kontuan izan beharreko beste faktore batzuk daude, hala nola lurraldetasun hizkuntz politika egokia burutzeko ezinbestekoak diren baliabide teknikoak, hizkuntz politika hori aplikatzeak ekar ditzakeen ondorio politikoak, e.a.

Gogoratu, adibidez, Euskal Herriak Konstituzio garaian bizi zuen egoera. Gaur egun oraindik euskararen presentzia euskal lurraldeetan minoritarioa bada, pentsa 70. hamarkadan nolakoa izango zen. Euskararen erabilera komunikazio ez formaletara -eremu pribatuetan gertatzen direnak, lagunartekoak, senidearteakoak...- mugatzen zen, eta batik bat nekazal mundura. Dakigunez, Euskal lurraldean

---

(222) Lehenago ikusi dugun bezala, antza denez, gure Konstituzioak ez ditu hizkuntzak juridikoki erabat parekatzen, zeren jakin beharra gaztelaren ofizialtasunari bakarrik atxekitzen baitio.

euskararen aldeko lurraldetasun printzipioaren aplikazioak euskararen aldeko lehentasuna ekarriko luke, edo beste era batera esanda, euskararen bakarkako ofizialtasuna ekarriko luke, baina garai hartan euskararen bakarkako ofizialtasuna bermatzeko nahikoa baliabide pertsonal eta material ez zegoenez gero, ez zen posible izango hiritarrari oinarrizko zerbitzu publikoak euskara hutsez eskaintzea.

Bestalde, gaztelaren presentzia garrantzitsua zen lurraldeetan, lurraldetasun printzipioaren salbuespen gisa, pertsonatasun printzipioa aplikatzeak ez zuen arazoa konponduko, zeren hain zegoen hedatua gaztelera gure lurraldean ezen salbuespen bat izan behar zuena erregela orokorra bihurtuko zen. Horrez gain, orduko mapa sozio-linguistikoa gogoan izanik eta orduko egoera politikoa pil-pilean zegoela ikusirik, esan beharrik ez dago zer nolako gatazka politikoa sor zezakeen gure gizartean horrelako hizkuntz politika batek.

Kontuak kontu, Konstituzioak ezarritako irizpide mistoa Estatuko hizkuntzen antolaketarako konponbide onargarria izan zelakoan gaude, batez ere garaiko egoera aintzat harturik. Honek ez du esan nahi, gaur egun berezko hizkuntzen erabilera dezente hedatua dagoen eta beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta materialak dituzten autonomia erkidegoetan -kasurako Katalunian- lurraldetasun printzipioa ezarri ezin daitekeenik, baina horretarako Konstituzioa eraberritu beharko litzateke.

Bestetik, ez da ahaztu behar hizkuntz politika mistoak ez dituela *per se* egoera desorekatuak edo diglosikoak zuzentzen, aldiz, askotan areagotu eta betirakotzen ditu. Horregatik, hizkuntzen benetako parekatzea lortuko bada, hil ala bizikoa da egoera diglosikoa jasaten duten hizkuntzen aldeko suspertze eta sustapen neurri egokiak hartzea, hots, hauen aldeko ekintza positiboak. Hartara, hizkuntz politika mistoak hizkuntzen arteko desoreken zuzenketan espero

diren fruituak eman ditzan, gutxiengoen hizkuntzen aldeko sustapen neurriez hornitu beharko da, ezpere, hedapen urriko hizkuntzek jai izango dute eta.

**IV**  
**HEZKUNTZA-ESKUBIDEAREN ETA**  
**ELEANIZTASUNAREN ARTEKO**  
**LOTURA ESPAINIAKO**  
**KONSTITUZIOAN**

#### **4.1. NORBERAREN HIZKUNTZA ERABILTZEKO ESKUBIDEA**

Ikusi dugun moduan, zentzu zabalean ulertuta, hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan arautzen da. Berau ez da eskubide arrunta, bere lekutze konstituzionalak berresten duenez -I. tituluaren II. kapituluaren I. saila-, hezkuntzarako eskubidea funtsezko eskubidea da, eta hargatik, eraginkortasun eta babes juridiko bereziaz gozatzen du (KAren 53. art.).

Aldiz, Konstituzioak espresuki ez du inon esaten eleaniztasuna eskubidea denik. Hizkuntzen gaineko erreferentzia konstituzionalek -hitzaurreak, 20. artikulua, 148. artikulua, azken erabakia, eta batik bat 3. artikulua- gizarte errealitate eleanitza aitortu besterik ez dute egiten. Konstituzioak ez du eleaniztasuna eskubide gisara tajutzen, egitate bezala baizik.

Izan ere, Konstituzioak ez die hiritarrei espresuki beren hizkuntza propioa erabiltzeko eskubiderik aitortzen. Edo hobeto esanda, Konstituzioak hiritarrei norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortu aitortzen die, baina ez hiritar guztiei, baizik eta soilik gaztelania hizkuntza propiotzat dutenei, zeren, Konstituzioaren 3.1 artikulua dioenez, espainiar guztiek gaztelania erabiltzeko eskubidea baitute. Gainontzeko Espainiako hizkuntzez diharduen 3.2 artikulua, ostera, ez du bestelako hizkuntzekiko horrelako eskubide aitorten egiten; hizkuntza hauek beraien Autonomi Estatutuen arabera ofizialak izango direla esatera mugatzen da.

Edozein kasutan, Konstituzioak gaztelania ez beste Estatuko hizkuntzen hiztunei norbere hizkuntza erabiltzeko eskubiderik

zuzenki edo esplizitoki ez aitortzeak, gure aburuz, ez du esan nahi eskubide hori zeharka edo inplizitoki ezin erator daitekeenik. Ondorengo lerrotan, iharduera deduktiboaren bitartez, gaztelania ez diren gainontzeko Estatuko hizkuntzen hiztunek ere, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubide konstituzionala badutela frogatzen saiatuko gara.

Esan bezala, EKren 3.2 artikulua Espainiako gainerako hizkuntzak ofizialak izango direla xedatzen du. Zentzu horretan, Konstituzioa bera da hizkuntza horien ofizialtasuna ezartzen duena; geroztik tokian tokiko estatutuek agindu horri men besterik ez diote egin. Beno ba, dagoeneko ezaguna dugunez, edozein hizkuntzaren ofizialtasunaren ondorioz garrantzitsuena eta lehenbizikoa, hizkuntza hori erabiltzeko eskubidea da. Horregatik, Konstituzioak bere 3.2 artikuluan Estatuko gainontzeko hizkuntzen ofizialtasuna ezartzen duen heinean, zeharka edo inplizitoki hizkuntza horien erabilpen eskubidea ere aitortzen ari da. Konstituzio Auzitegiak adierazia duenez:

«La instauración por el artículo 3.2 de la Constitución de la cooficialidad de las respectivas lenguas españolas en determinadas Comunidades Autónomas tiene consecuencias para todos los poderes públicos en dichas Comunidades, y en primer término el derecho de los ciudadanos a usar cualquiera de las dos lenguas ante cualquier administración en la Comunidad respectiva con plena eficacia jurídica.» (KAren 82/1986 Epaia, 5. oinarri juridikoa).

Hortaz, ofizial maila duten hizkuntzek norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea ofizialtasunaren aitortpen horren barnean daramate. Baina zer gertatzen da ofizial mailarik eskuratu ez duten hizkuntzekin? Hizkuntza ez-ofizial bat norbere hizkuntzatzat duten hiritarrei Konstituzioak hizkuntza propio hori erabiltzeko eskubiderik aitortzen ote die? Oraingo honetan ere, gure ustez, erantzunak baiezkoa behar du.

Konstituzioaren 96.1 artikulua eraginez, Espainiak berretsiriko nazioarteko hitzarmen guztiak Estatuko barne antolamendu juridikoaren parte izango dira, erabateko eraginkortasun juridikoaz. Horrez gain, Konstituzioak, bere 10.2 artikuluan, funtsezko eskubideei buruzko arauak Espainiak giza

eskubideen arloan berretsiriko nazioarteko hitzarmenen arabera interpretatuko direla esaten du. Beno ba, Espainiak berretsiriko hitzarmenen artean 1966ko Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktua dago<sup>223</sup>. Honek bere 27. artikuluan hizkuntz gutxiengoan kideei norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea espresuki aitortzen die:

«En los Estados en que existan minorías (...) lingüísticas, no se negará a las personas que pertenezcan a dichas minorías el derecho que les corresponde, en común con los demás miembros de su grupo (...), a emplear su propio idioma.»

Orduan, bada, 96.1 eta 10.2 artikuluen indarrez, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea Estatuko antolamenduaren parte izango da eta ez hori bakarrik, González Villanuevak dioenez, «el derecho al uso de la propia lengua -que no sea el castellano- por parte de un ciudadano español ha de considerarse como un derecho fundamental, similar en su reconocimiento y garantías a los restantes, contenidos en el Título Primero de la Constitución, y, entre ellos, el derecho a la educación del artículo 27».<sup>224</sup>

Beraz, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea gizabakakoaren funtsezko eskubideetariko bat da, honek dakartzan ondorio guztiekin. Baina hori ez da dena, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea Konstituzioak aitortzen dituen beste funtsezko eskubide batzuk egikaritzeko aurretiazko baldintza

---

(223) EEO, 1977ko apirilaren 30ekoa, 103. zenb.

(224) GONZÁLEZ VILLANUEVA, J.A. Derecho a la educación y plurilingüismo. *Revista de Occidente*, 1982, 10-11 zenb., 171. or. MILIÁN i MASSANA ez dator bat autore honekin, bere iritziz, «la calificación de derecho y libertad fundamental que se hace al derecho al uso de la propia lengua nos parece inexacta si aquélla es en sentido técnico, puesto que técnicamente los derechos y libertades fundamentales serían sólo aquellos susceptibles de protección vía de amparo (art. 53.2 CE)». MILIÁN i MASSANA, A. Los derechos lingüísticos en la enseñanza, de acuerdo con la Constitución. *REDC*, 1983, 7. zenb., 363. or. Ildo beretik, BAÑO LEÓNek zera dio: «El derecho al uso de la lengua propia no es un derecho fundamental pero deriva de una decisión fundamental del constituyente...» BAÑO LEÓN, J.M. El ejercicio del pluralismo lingüístico en la Administración Pública. *REDA*, 1987, 54. zenb., 233. or.

premiazkoa ere bada. Edo bestela esanda, funtsezko zenbait eskubidek, beti ere, errespetatua izan behar duen eduki linguistikoa du<sup>225</sup>. Pentsa, adibidez, idazle euskaldun bati, adierazpen askatasunaren eta honen zehaztapena den sorkuntza literario eskubidearen aitorten konstituzionalek zertarako balioko lioketen, gerora berari sormen iharduera hori bere hizkuntza propioan adierazteko aukera ukatuko balitzaio, edota atxilotu bati bere defentsarako eskubidearen aitortpenak zertarako balioko liokeen, hau bere hizkuntzan egikaritu ezin izango balu.

Gizabanakoari legeak aitorturiko funtsezko eskubideak norbere hizkuntzan aurrera eramatea galeraztea, hein handi batean, funtsezko eskubide horiek ukatzea bezala izango litzateke. Baño Leónen hitzetan, «cuando en un Estado existe un pluralismo lingüístico es difícilmente sostenible reconocer a la persona como titular de derechos fundamentales e imponerle al mismo tiempo, directa o indirectamente, el uso de una lengua distinta a la materna. Si ello ocurriera habría que convenir (...) que aquella libertad sería ilusoria.»<sup>226</sup>

Hortaz, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea funtsezko eskubide bat ez ezik, beste funtsezko eskubide batzuen egikaritze erreal eta eragingarrirako aurretiazko baldintza ere bada.

Izaera juridikoari dagokionez, norbere hizkuntza erabiltzeko funtsezko eskubidea, askatasun eskubidea da. Bere garaian ikusi dugun moduan<sup>227</sup>, askatasun eskubideek gizabanakoari aginte publikoek esku hartuko ez duten eremu bat bermatzen diote. Hargatik, gizabanakoek norbere hizkuntza harreman pribatu nahiz publikoetan erabiltzeko askatasun osoa izango dute, aginte publikoek askatasun hori egikaritzea kaltetu dezakeen edozein

---

(225) Hizkuntz eskubideen eduki linguistikoari buruz ikus MILIÁN i MASSANA, A. Derechos lingüísticos y derechos fundamentales en España. *RVAP*, 1991, 30. zenb., 74. or. eta hurrengoak.

(226) BAÑO LEÓN, J.M. El ejercicio del pluralismo lingüístico en la Administración Pública, 230. or.

(227) 65. eta hurrengo orr.



iharduera omititu beharko dutelarik. Eta ez hori bakarrik, askatasun eskubide askorekin gertatzen den bezala<sup>228</sup>, aginte publikoen zeregina ez da ez-egite edo omisio iharduera horrekin bukatzen -status negatiboa-, askatasun eskubide hauek mamirik gabeko deklarazio teoriko hutsalak bihur ez daitezten, aginte publikoek eskubide horiek egikaritzea posible egin dezaketen neurri legislatibo eta administratibo aproposak hartu beharko dituzte -status positiboa-. Azken honi askatasun eskubideen dimentsio objektiboa edo organizatzailea deritzo.

Hala bada, nor bere hizkuntza erabiltzeko eskubidea edukirik gabeko *flatus voci* izan ez dadin, administrazio-aparatuak bere egiturak eleaniztasunaren eskakizun berrietara egokitu beharko ditu.

Oraindaino esandako guztia kontuan izanik, atera daitekeen ondorio nagusia zera da: hezkuntzarako eskubidearekin batera, norbere hizkuntza erabiltzeko eskubideak ere gure erregulazio konstituzionalean leku propioa duela, nahiz eta azken honen presentzia zeharka eta iharduera deduktiboaren bitartez ondorioztatu.

#### **4.2. NORBERAREN HIZKUNTZAREN IRAKASKUNTZA JASOTZEKO ESKUBIDEA ETA NORBERAREN HIZKUNTZAN IRAKASKUNTZA JASOTZEKO ESKUBIDEA**

Hezkuntzarako eskubidearen eta norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidearen Konstituzio maila onartu eta gero, bi eskubide hauei buruzko zenbait galdera datozkigu gogora. Zer nolako harremana dago bi funtsezko eskubide hauen artean? Eleaniztasunak nola baldintzatzen du 27. artikuluan arautzen den hezkuntzarako eskubidea? Konstituzioak bermatzen ote du irakaskuntza gaztelaniaz beste hizkuntzetan jasotzeko eskubidea?

---

(228) Abibidez, prentsa askatasuna ez da zentsurarik ezarekin agortzen, harago doa, eta aginte publikoetatik benetako aniztasun informatiboa lortzeko bide eman dezaketen neurriak hartzea eskatzen du.

EKren 27. artikuluaeren erredakzioa luze askoa izanagatik ere, bertan ez da hizkuntza arloari buruzko aipamen txikienik ere egiten. Edozertara, lehen hurbilpen modura, Konstituzioak inplizitoki hezkuntzaren zati bat norbere hizkuntzan jasotzeko aukera bermatzen duela esan dezakegu.

Mamiari heldu baino lehen ohar bat. Hezkuntza eta hizkuntzaren gaia jorratzerakoan argi eduki beharreko bereizketa bat dago, norbere hizkuntzaren irakaskuntza jasotzeko eskubidea eta norbere hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubidearen artekoa hain zuzen ere. Izenez antzekoak izanik ere, izanez ez dira gauza bera. Lehenengoak, gizabanakoari norbere hizkuntza ikasgaitzat izateko aukera ematen dio, bigarrena, ordea, harago doa eta gizabanakoari ikastetxeetan erabiliko den irakaskuntzetako bat norbere hizkuntza izango dela bermatzen dio.

Esan bezala, Konstituzioaren 27. artikulua eleaniztasunak gure hezkuntza sisteman zein eragin izango duen ez digu esaten. Hau da, ez ditu norbere hizkuntzaren eta norbere hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubideak aipatzen. On genuke, beraz, gainerako prezeptu, printzipio eta balio konstituzionaletatik eskubide bi horien esistentzia ondorioztatzerik dagoenentz aztertzea.

Ulergarriagoa izango zaizuelakoan, aurrena norbere hizkuntzaren irakaskuntza jasotzeko eskubideaz arituko gataizkizue eta ondoren norbere hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubideaz.

a) *Norbere hizkuntzaren irakaskuntza jasotzeko eskubidea*

Hizkuntza ofizialen kasuan, norbere hizkuntzaren irakaskuntza jasotzeko eskubidea EKren 3.2 artikulutik ondoriozta daiteke. Ezaguna denez, artikulua honek gaztelaniaz beste hizkuntzen ofizialtasuna ezartzen du eta KAK iragarria duenez, hizkuntza ofizialtasunaren aitorenak berarekin nahitaez hizkuntza ofizialaren derrigorrezko irakaskuntza dakar eta, jakina, bide batez baita hizkuntza horren irakaskuntza jasotzeko eskubidea ere. Konstituzio Auzitegiaren esanetan:

*«Todos los habitantes de Euskadi tienen el derecho a conocer y usar ambas lenguas (art. 6.1 del Estatuto). Ello supone naturalmente que ambas lenguas han de ser enseñadas en los Centros escolares de la Comunidad con la intensidad que permita alcanzar ese objetivo. Y es de observar en este mismo sentido que tal deber no deriva sólo del Estatuto, sino de la misma Constitución.(...) De estos preceptos resulta (art. 3 de la CE) que el Estado en su conjunto (incluidas las Comunidades Autónomas), tiene el deber constitucional de asegurar el conocimiento tanto del castellano como de las lenguas propias de aquellas Comunidades que tengan otra lengua como oficial. Una regulación de los horarios mínimos que no permita una enseñanza eficaz de ambas lenguas en esas comunidades incumpliría el artículo 3 de la Constitución»<sup>229</sup>.*

Ofizial mailarik ez duten hizkuntzei dagokienez, EKren 3.2 artikuluari buruz eginiko erreferentziak ez digu balio. Hizkuntza horiek ama-hizkuntzatzat dituzten hiritarrek norbere hizkuntzaren irakaskuntza jasotzeko eskubidea dutela frogatzeko beste printzipio eta balio konstituzionaletara jo beharko dugu, bada. Eta hori da, izan ere, segidan egingo duguna.

Esana dugunez, Konstituzioak bere 27. artikuluan ez du hezkuntza mailako hizkuntz eskubideei buruzko erreferentzia espresurik egiten. Alabaina, 27. artikuluaaren arazoizko interpretazio batek Konstituzioak hizkuntza ez-ofizialen irakaskuntzarako eskubidea inplizitoki bermatzen duela pentsarazten digu. Izan ere, 27. artikulua bere bigarren atalean hezkuntzaren azken helburua aipatzen du:

27.2. art.: «La educación tendrá por objeto el pleno desarrollo de la personalidad humana en el respeto a los principios democráticos de convivencia y a los derechos y libertades fundamentales.»

---

(229) KAren urriaren 27ko 87/1983 Epaia, 5. oinarri juridikoa.

Orduan, 27.2 artikulua dioen gisara, hezkuntzaren helburua giza nortasunaren erabateko garapena baldin bada, hezkuntzak ezin izango du gizabanakoaren nortasunaren adierazpidea den hizkuntza baztertu. Gure aburuz, hezkuntzak nekez lortuko du gizabanakoaren nortasunaren erabateko garapena, baldin eta nortasun horren berezko agerbide den hizkuntzari irakas-ihardunbidean lekurik uzten ez bazaio. Era berean, EKren 27.2 artikulua dioenez, giza nortasunaren erabateko garapena printzipio demokratiko eta funtsezko eskubide eta askatasunen errespetuan egin beharreko gauza da. Eta ez da ahaztu behar, gizabanakoaren funtsezko eskubide horietako bat norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea dela.

Hortaz, antza denez, hezkuntzaren azken helburua behar duen giza nortasunaren erabateko garapenak, ondorio linguistiko garrantzitsu bat dakar berekin, alegia, historikoki talde linguistiko bat bizi izan den eta bizi den lurraldean kokaturiko eskoletan talde linguistiko horren kideen haurrak, hizkuntza horretan irakaskuntza jasotzeko eskubidea izatea<sup>230</sup>.

Honetaz gain, norbere hizkuntzaren -ikasgai soil gisa- iraskaskuntzarako eskubidea badela erakusten duen beste frogar bat Estatuko Funtsezko Legearen 148. artikuluan aurki genezake. Artikulu honek bere lehen atalean Estatuko autonomia erkidegoek eskura ditzaketen eskuduntzak zerrendatzen ditu eta hauen artean, autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzen irakaskuntzaren sustapena espresuki aipatzen da<sup>231</sup>. Lektua dagoen testuingurua kontuan

---

(230) Zentzu horretan ikus MILIÁN i MASSANA, A. *Derechos lingüísticos y derecho fundamental a la educación. Un estudio comparado: Italia, Bélgica, Suiza, Canadá y España*. Madrid: Civitas, 1994, 73. eta hurrengo orr.

(231) 148.1 art.: «Las Comunidades Autónomas podrán asumir competencias en las siguientes materias: (...)

17.º *El fomento de la cultura, de la investigación y, en su caso, de la enseñanza de la lengua de la Comunidad Autónoma.*»

izanik artikulua honek eragin materialik ez duela ematen badu ere, konstituziogileek norbere hizkuntzaren irakaskuntza jasotzeko eskubidea Konstituzioaren edukien artean sartu nahi izanaren frogari baliogarriztat jo daiteke.

b) *Norbere hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubidea*

Ikusi bezala<sup>232</sup>, hezkuntza jasotzeko eskubidearen funtsezko edukiak ez du norbere hizkuntzan irakaskuntza osoa jasotzeko eskubidea barne hartzen. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak aitortua duenez, «los derechos a la instrucción y a la educación garantizados en el artículo 2 del primer Protocolo adicional no tiene por efecto el garantizar a los niños o a sus padres el derecho a una instrucción impartida en la lengua de su elección»<sup>233</sup>. Orobat, artikulua honek gurasoiei aitortzen die beren siniskera erlijiosoan arabera hezkuntza jasotzeko eskubidea, eta honek «no impone a los Estados el respeto en el campo de la educación o de la enseñanza, de las preferencias lingüísticas de los padres, sino únicamente el de sus convicciones religiosas y filosóficas»<sup>234</sup>.

Hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukiak zinez barne hartzen duena irakaskuntza ikasleari ulergarria zaion hizkuntzan jasotzeko eskubidea da<sup>235</sup>. Hezkuntzarako

---

(232) 94. eta hurrengo orr.

(233) Doktrina honi jarraiki, Konstituzio Auzitegiak zera adierazi zuen 195/1989 Epaian:

«...ninguno de los múltiples apartados del art. 27 CE (...) incluye, como parte o elemento del derecho constitucionalmente garantizado, el derecho de los padres a que sus hijos reciban educación en la lengua de preferencia de sus progenitores en el Centro docente público de su elección».

(234) Belgikako erregimen linguistikoen aspektu jakinei buruzko Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren 1968ko Epaia. Hari berari jarraiki, ikus KAren azaroaren 27ko 195/1989 Epaia (3. oinarri juridikoa) eta KAren otsailaren 12ko 19/1990 Epaia (4. oinarri juridikoa).

eskubideak bermatu behar duena, ikasleek hezkuntza-  
-edukiak behar bezala jasotzeko aukera izatea da, eta  
ikasleak hezkuntza-edukiak bereak nekez egingo ditu  
irakaskuntza ulertzen ez duen hizkuntza batean ematen  
bazaio.

Printzipioz ikaslearen ama-hizkuntzaz beste hizkuntza  
batean burutzen den irakaskuntzak ez du ikaslearen  
hezkuntzarako eskubidea zertan kaltetu. Hori bai,  
halakoetan ikasleak berea ez den hizkuntza batean emango  
zaizkion hezkuntza-edukiak aparteko arazorik gabe  
eskuratuko dituela bermatzeko neurriak jarri beharko dira.  
Horrela, irakas-hizkuntza behar bezala jakin artean,  
haurraren ama-hizkuntzaren erabilera instrumentala edo  
auxiliarra ezinbestekoa izango da, hark hezkuntza-edukiak  
behar adinbateko trebezia eskura ditzan eta bere  
errendimendu eskolarra larriki kaltetua izan ez dadin.

Bestalde, hizkuntz ofizialtasun kontzeptutik ere ez dago  
irakaskuntza osoa norbere hizkuntzan jasotzeko eskubidea  
ondorioztatzerik. Ofizialtasun aitortpenaren aginduz, aginte  
publikoek oinarrizko hezkuntza bukatzerakoan ikasleek  
hizkuntza ofizialaren ezagutza praktikoa nahikoa eskuratuko  
dutela segurtatu beharko dute, horretarako neurri egokiak  
jarriz. KAK esan bezala, neurri horietako bat hizkuntza  
ofizialaren derrigorrezko irakaskuntza ezartzea da. Edozelan  
ere, hizkuntza ofiziala irakaskuntza planetan derrigorrezko  
ikasgaitzat hartzea ez da beti ere aski hizkuntza egoki  
eskuratzeko. Ofizial maila izanagatik ere gizarte mailan  
erabilera eskasa duten hizkuntza gutxituetan, hauek irakas-  
-hizkuntza gisara erabili ezean, ikasleei oso zaila izango  
zaie hizkuntza horiek maila jasoan eskuratzea. Hori dela

---

(235) Funtsezko edukia aztertzerakoan esan genuen bezala, gogoratu  
hezkuntzarako eskubideak, irakaskuntza hizkuntza ulergarrian ez ezik,  
ikaslearen bizitza-ingurunearekin lotuta dagoen hizkuntza batean burutu  
dadila ere eskatzen duela.

eta, halakoetan hizkuntza ofiziala irakasbide bihurtzea nahitaezkoa izaten da.

Testuinguru horretan uler daitezke Konstituzio Auzitegiak hizkuntza ofizialean irakaskuntza jasotzeko eskubideari buruz egindako adierazpenak. Izan ere Auzitegiaren iritziz, Konstituzioak hizkuntza ofizialean -irakasbide gisa beraz- irakaskuntza jasotzeko eskubidea bermatzen du oinarritzko hezkuntza osatzen duten ikasmailetan<sup>236</sup>.

EKren 27.2 artikuluari dagokionez, hezkuntzaren azken helburuak, hots, ikaslearen giza nortasunaren erabateko garapenak, ez du esan nahi irakaskuntza osoa norbere hizkuntzan jaso behar duenik, ezta gutxiagorik ere. Ikaslearen garapen intelektual, kognitibo eta komunikatiborako halabeharrezko baldintza denean bakarrik egongo da justifikaturik irakas-hizkuntza ikaslearen ama-hizkuntza izatea. Azken hau, bereziki, haurrak irakas-hizkuntza ezagutzen ez duenean gertatuko da. Halakoetan, harik eta irakas-hizkuntzaren gutxienezko ezagutza -hezkuntza-edukiak aparteko arazorik gabe eskuratzeko hainbatekoa- lortu arte, haurrek irakaskuntza norbere hizkuntzan jasotzeko eskubidea izango dute.

Laburbilduz, prezeptu, printzipio eta balio konstituzionaletatik ez dago norbere hizkuntzan irakaskuntza

---

(236) «...corresponde a los poderes públicos competentes, en atención a los objetivos de la normalización lingüística en Cataluña y a los propios objetivos de la educación, organizar la enseñanza que ha de recibirse en una y otra lengua en relación con las distintas áreas de conocimiento obligatorio en los diferentes niveles educativos para alcanzar un resultado proporcionado con estas finalidades; y *ello al objeto de garantizar el derecho de los ciudadanos a recibir, durante los estudios básicos en los Centros docentes de Cataluña, enseñanza en catalán y en castellano. Derecho que se deriva no sólo de los arts. 3 y 27 CE sino del art. 3 del Estatuto de Autonomía de Cataluña.*» (KAre 337/1994 Epaia, 10. oinarri juridikoa).

guzti-guztia jasotzeko eskubidea eratortzerik. Gehien jota, Konstituziotik ondoriozta daitekeena, kasu jakin batzuetan irakaskuntzaren zati bat norbere hizkuntzan jasotzeko eskubidea da, hain zuzen ere, hezkuntza-edukiak eskuratzeko, hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa bermatzeko eta ikaslearen nortasunaren erabateko garapena lortzeko nahitaezkoa denean.

Norbere hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubidearen hedapenak garrantzi praktikorik gabeko ezbadaida juridiko hutsa eman badezake ere, ez da inondik inora horrela. Eztabaida honek ondorio praktikoak eduki badauzka, eta nolakoak gainera! Azken bolada honetan gai honen inguruan Katalunian sortu diren istiluei erreparatu besterik ez dago.

Kataluniako Hizkuntz Normalkuntzarako Legeak, Euskal Herriko Autonomia Erkidegokoak ez bezala, ez die hiritarrei norbere hizkuntzan ikasketak burutzeko eskubidea irakasmaila guztietan bermatzen, «lehen irakaskuntzan»<sup>237</sup> bakarrik baizik. Ondorioz, lehen irakaskuntza osteko irakasmaitan irakaskuntza zein hizkuntzatan izango den aginte publiko autonomikoen esku uzten du. Hala, Kataluniako Generalitateak abuztuaren 30eko 362/1983 Dekretuaren bidez, eta urte bereko irailaren 8ko Irakaskuntza Sailaren Aginduaren bidez, OHoko 2. eta 3. zikloetan derrigorrez zein ikasgai burutu behar ziren katalanez finkatu zuen. Gauzak horrela, Kataluniako hiritarrek lehen irakaskuntzatik aurrera irakaskuntza zein hizkuntza ofizialetan hartuko duten hautatzeko aukerarik ez dute izango, aginte publikoek agindutakoaren pentzutari geratuz.

---

(237) Kataluniako Generalitatearen abuztuaren 30ko 362/1983 Dekretuak zioenez, «lehen irakaskuntzak» Eskolaurreko azken ikasturtea eta OHoko lehen bi ikasturteak barne hartzen zituen. Alabaina, LOGSEk ezarritako hezkuntza egitura berriaren arabera, «lehen irakaskuntza» haur hezkuntzaren azken ikasturtea eta lehen hezkuntzaren lehen ikasturte biak barne hartzen ditu.



Orduan, bada, Konstituzioaren printzipio eta balioetatik irakaskuntza norbere hizkuntzan jasotzeko eskubidea irakasmaila guztietarako ondorioztatzerik balego, Kataluniako hezkuntza sistema Konstituzio kontrakoa izango litzateke. Zentzu horretan, 1994ko otsailaren 15eko Auto baten bidez, Auzitegi Gorenak Konstituzio Auzitegiaren aurrean Katalanaren Normalkuntzarako Legearen aurkako konstituzionaltasun arazoa planteatu zuen legearen zenbait prezeptu Konstituzio kontrakoa zelakoan<sup>238</sup>.

AGren ustez, Konstituzioak ikasleei norbere hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubidea aitortzen die eta ez bakarrik Lehen Hezkuntzan, baita gainontzeko irakasmailetan ere. Bere hitzetan, «la protección de las distintas modalidades lingüísticas de España, la garantía de su conocimiento y la consecución de una igualdad entre las lenguas oficiales no pueden alcanzarse privando a los niños, más allá de su primera enseñanza, del derecho a recibir las ulteriores en su lengua materna».

Eta hori ez da dena, Auzitegi Gorenaren iritziz, Konstituzioak printzipioetatik norbere hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubidea ez eze, irakaskuntza zein hizkuntza ofizialetan jaso erabakitzeko eskubidea ere ondoriozta daiten irakasmaila guzti-guztietarako<sup>239</sup>.

Abenduaren 23ko 337/1994 Epaiaren bitartez, KAK arazo korapilatsu honi askabide bat eman dio behingoz. Konstituzio Auzitegiak Katalanaren Normalkuntzarako Legea konstituzionaltzat jo du, Auzitegi Gorenaren eskakizunak erabat ezetsiz. KAK argi utzi du: batetik,

---

(238) Zehazki, aurkaturiko prezeptuak 15.1, 14.2, 14.4 eta 20.a izan ziren eta denek konstituzionaltasunaren froga gainditu zuten.

(239) «Este y otros puntos recogidos en la Carta Magna configuran un auténtico derecho de los padres y de los hijos a escoger la lengua en que éstos han de ser enseñados en cualquier etapa educativa.» (1994ko otsailaren 15eko Autoa).

Konstituzioak berez ez duela irakas-hezkuntza aukeratzeko biderik ematen, eta bestetik, norbere hizkuntzan irakaskuntza osoa jasotzeko eskubiderik ez dagoela, hizkuntza hori gaztelania izanda ere.

«...ni del contenido del derecho constitucional a la educación de sus apartados 2, 5 y 7 se desprende el derecho a recibir la enseñanza en sólo una de las dos lenguas cooficiales en la Comunidad Autónoma, a elección de los interesados. (...) el derecho a la educación que la Constitución garantiza no conlleva que la actividad prestacional de los poderes públicos en esta materia pueda estar concionada por la libre opción de los interesados de la lengua docente. Y por ello los poderes públicos -el Estado y la Comunidad Autónoma- están facultados para determinar el empleo de las dos lenguas oficiales que son cooficiales en una Comunidad Autónoma como medio de comunicación en la enseñanza, de conformidad con el reparto competencial en materia de educación. (9. oinarri juridikoa).

Bestalde, guk arestian esandakoari jarraiki, Konstituzio Auzitegiak hezkuntza ikasleari ulegarria zaion hizkuntza batean eman behar dela esaten du; hala, irakas-hizkuntza eta ikaslearen ama-hizkuntza bat ez datozenean, ikasleari aurretiaz irakasbide duen hizkuntzaren gutxienezko ezagutza maila bermatu beharko zaio, hezkuntza-edukiak behar bezala jasotzeko adinakoak, hain zuzen. Horrela, ikaslearen irakaskuntza bere ama-hizkuntza ez izateagatik eskola-errendimendua nabarmenki kaltetua gerta dadin saihestu nahi da<sup>240</sup>.

---

(240) «Aunque no exista un derecho a la libre opción de la lengua vehicular de enseñanza (...) es evidente que quienes se incorporan al sistema educativo en una Comunidad Autónoma donde existe un régimen de cooficialidad lingüística han de recibir la educación en una lengua que puedan comprender y asumir los contenidos de las enseñanzas que se imparten; ya que en otro caso podrían quedar desvirtuados los objetivos propios del sistema educativo y afectada la plenitud del derecho a la educación que la Constitución reconoce. En particular y desde la perspectiva del art. 27 CE, pero también desde la relativa al art. 14 CE, resulta esencial que la incorporación a la enseñanza en una lengua que no sea la habitual se produzca bajo el presupuesto de que los ciudadanos hayan llegado a dominarla, cuando menos en la medida suficiente para que su rendimiento educativo no resulte apreciablemente inferior al que hubieran alcanzado de haber recibido la enseñanza en su lengua habitual.» (11. oinarri juridikoa).

**V**  
**HIZKUNTZA ETA HEZKUNTZAREN**  
**ARAUKETA EUSKAL AUTONOMI**  
**ESTATUTUAN**

## 5.1. IKUSPEGI OROKORRA

Estatutu hitza adiera ezberdinekin erabilia izan da gure lege-  
-arabidean, kasu, Kontsumitzaileen Estatutua, Langileen  
Estatutua, Autonomi Estatutua, eta abar luze bat.

Estatutu hitza, autonomi lurraldearen antolaketarako oinarrizko  
araua adierazteko, mendearen hasieran erabili zen aurrengo aldiz  
gure artean, lehenbiziko mugimendu autonomistak gertatu  
zirenean hain zuzen ere<sup>241</sup>.

Estatutuak Espainia moduko estatu erregionalek barne  
antolaketarako erabiltzen dituzten tresna tekniko juridikoak dira.  
1931.ekoak egiten zuen antzera<sup>242</sup>, 1978ko Konstituzioak  
Autonomi Estatutuaz zer ulertu behar dugun azaltzen digu bere  
147.1 artikuluan:

147.1 art: «Dentro de los términos de la presente Constitución, los Estatu-  
tos serán la norma institucional básica de cada Comunidad Autónoma y el Esta-  
do los reconocerá y amparará como parte integrante de su ordenamiento jurídi-  
co.»

Konstituzioak berak emaniko definizio honetan, bi zati bereiz  
daitezke:

---

(241) Konkretuki, Euskal Estatutuaren ideia 1905ean sortu zen Liga Foral  
Autonomistak plazaratu zuen lehenengo aldiz. Zentzu honetan ikus  
ARTOLA, M. *Partidos y programas políticos 1808-1936*. Madril, 1974,  
451. or.

(242) II. Errepublikako 1931ko Konstituzioak Estatutuak honela definitzen  
ziten: «auténticas leyes básicas ordenadoras de la organización políti-  
co-administrativa de las regiones que se rigen autónomamente».

### **a) Estatutua Autonomia Erkidegoko oinarrizko arau juridikoa da**

Esan denez, Estatutua arau juridikoa da, baina ez nolana hikoia. Estatutua, izan ere, Autonomia Erkidegoaren oinarrizko arau instituzionala da. Baina zer esan nahi du oinarrizko arau instituzionala izate horrek? Zein ondorio dakar horrelako baieztapen batek?

Konstituzioak Estatutua Autonomia Erkidegoko oinarrizko arau instituzionala dela dionean, Estatutua etorkizunean aginte publiko autonomikoek aterako dituzten lege eta arau guztiak tinkatuko diren lege-zimentarria izango dela adierazi nahi du. Estatu mailan Konstituzioa den antzera, Autonomia Erkidego mailan Estatutua bertako arau juridikorik garrantzitsuena da, Autonomia Erkidegoko arauzko hierarkian goreneko mailan dagoena. Hargatik, etorkizunean aginte publiko autonomikoek indarrean jarriko dituzten lege eta arau autonomiko guztiak Estatutuan xedatutakoa errespetatu beharko dute, osterantzean arau horiek balio gabeak izango baitira. Horrela, Estatutuaren aurkako araua legebiltzar autonomoak ateratako lege bat balitz, lege horren aurka KAren aurrean Konstituzio-kontrakotasun helegitea jartzeko aukera legoke, honek Estatutu-kontrako legea baliorik gabe utz zezan. Ordea, Estatutu-kontrako arauak lege mailarik izango ez balu, arau hori jurisdikzio kontentzioso-administratiboaren aurrean inpugnagarria litzateke.

Aurrera jarraitu baino lehen ohar txiki bat. Oraindik orain esandakoarengatik, Estatutua eta estatu federaletako Konstituzioak gauza bera direla pentsa daiteke. Egia da, bai Estatutua bere autonomia erkidegoan, eta bai Konstituzio federala bere estatu federalean, funtsezko arau juridikoak direla, baina hala eta guztiz ere, bata eta bestearen izaera juridikoak ezberdinak dira.

Estatu federaletako Konstituzioa estatu bakoitzak norbere buruari ematen dion oinarrizko legea da. Estatu librea da Konstituzioa eratzeke eta onartzeko orduan, Federazioak ez du zeregin horretan parterik hartzen. Estatu bakoitzak norbere Konstituzioa sortzen du eta Konstituziogileei jartzen zaien muga bakarra

Batasun Federalarekin buruturiko hitzarmen edo paktu federala errespetatzea da. Estatutuen kasuan, berriz, Estatutua ez da autonomia erkidegoen esku uzten den gauza, Estatu zentralak Estatutuaren eratze eta onartze prozesuan parte aktiboa hartzen baitu. Estatutua Madrilgo Gorte Nagusiek onetsi behar duten legea da eta, onespren hori ezean, ez da Estatuturik izango.

### **b) Estatuak bere lege-antolamenduaren zati bat bezala onartu eta zainduko du Estatutua**

Estatutua Estatuako lege bat da, Gorte Orokorrek onetsiriko legea alegia. Estatuako lege-antolamenduaren zati bat den aldetik, Estatutua, gainerako Estatuako lege guztiak bezala, Konstituzioaren menpe dago, bertan xedatzen dena errespetatu beharko duelarik. Estatutua Konstituzioaren menpe dago, baina Konstituzioaren menpe bakarrik, ez du beste inork mugatzen. Horregatik, Estatuako legediak ezin izango du inolaz ere Estatutuaren edukia erasotu.

Bestalde, esan dugun legez, Estatutuak aginte publiko autonomikoak behartzen eta lotesten ditu, baina ez hori bakarrik, Estatuako legea ere badenez gero, Estatutuak Estatu eta bere aginte publikoak ere binkulatzen ditu; hori dela eta, hauek bere esanetara egon beharko dute.

Nolanahi ere, Estatutua ez da Estatuako lege arrunta, berezitasun propioak ditu. Hala, 81. artikulua eraginez, estatutuak lege organikoen bidez onartzen dira. Horrezaz gain, estatutuen izapidetza ez da Madrilgo Gorteei bakarrik dagokien kontua. Autonomia erkidegoek ere Estatutuaren eraketan eta onespenean partehartze zuzena dute. Eskuhartze hau bi momentu edo unetan gauzatzen da bereziki: batetik, autonomia erkidegoetako Legebiltzarkideen Asanbladak Estatutu-ekimena hartzen duenean, eta bestetik, Gorte Orokorrek onartutako estatutuek indarrean sar daitezen lurralde autonomoetako hautesleek erreferendum bidez sendesten dituztenean.

Orduan, bada, Estatutuaren sorkuntzan bi borondate ezberdin elkartzen dira: Autonomia Erkidegoarena eta Madrilgo Gorteena.

Eta borondate horiek osagarriak direnez gero, ezin izango dute bata bestea kontuan izan gabe bere kasa Estatuturik sortu.

Bestetik, eta Konstituzioak Estatutuari buruz ematen duen definizioa albo batera utzita, orain hizkuntza eta hezkuntza arloak Estatutuaren zein artikulutan jorratzen diren aipatzera goazkizue.

Gure Estatutuan hizkuntza arloaren arauketa orokorra 6. artikuluan agertzen da. Edozein kasutan, hizkuntzen gaineko aipamenik egiten duen beste artikulua bat ere bada, 35. artikulua hain zuzen ere:

35.1 artikulua: «Magistratu, Epaikari eta Idazkarien izendapena Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Lege Organikoetan aurrikusten den bezalaxe egingo da, Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna emanez, izatasuna eta auzotasuna dela eta, salbuespenik egin gabe.»

35.3 artikulua: «Bere eremuan Komunitate Autonomoari dagokio Justizi Administrazio zerbitzuko pertsonala eta bere funtzionamendurako behar diren medio materialak eta ekonomikoak hornitzea, Botere Judizialaren Lege Organikoak eskubide hori Gobernuaren eskutan uzten duen hitz beretan, pertsonala hornitzeko sistemetan Euskal Zuzenbide Forala eta euskara ezagutzen dutenei lehentasuna emango zaielarik.»

Beraz, Euskal Herriko Justizi Administrazioari buruzko kapitulu-luan kokaturik dagoen 35. artikulua dioenez, euskara ezagutzen dutenek funtzio judizialera (35.1 art.) zein Justizi Administrazioa (35.3 art.) iristeko lehentasuna izango dute.

Edozein modutan, sei urte pasatu behar izan ziren 1985.eko Aginte Judizialaren Lege Organikoa (LOPJ) indarrean jarri artean. Gainera lege honek euskararen ezagutzaren balorazioan Estatutuarekiko atzerapauso nabarmena ekarri zuen<sup>243</sup>. Alde batetik,

---

(243) 341.1 art.: «Para la provisión de las plazas de Presidente de los Tribunales de Justicia y de las Audiencias, en aquellas Comunidades Autónomas que gocen de derecho Civil Especial o Foral, así como de idioma oficial propio, el Consejo General del Poder Judicial valorará como mérito la especialización de estos Derechos Civil Especial o Foral y el conocimiento del idioma propio de la Comunidad».

341. 2 art.: «Reglamentariamente se determinarán los criterios de valoración sobre el conocimiento del idioma y del Derecho Civil

Estatutuak euskararen ezagutza lehentasunezko meritutzat («mérito preferente») hartzen duen bitartean, LOPJk meritu soiltzat bakarrik jotzen du. Beste alde batetik, Estatutuak euskararen ezagutzaren balorazioa magistratu, epaile, idazkari eta Justizi Administrazioaren zerbitzura dauden langileen aukeraketara hedatuko dela esaten duen bitartean, LOPJk euskararen ezagutza bakarrik Jutzitzi Auzitegi eta Entzutegien lehendakarien aukeraketan aintzat hartuko dela dio. Gainontzeko magistratu eta epaileei dagokienez, LOPJk hizkuntzen ezagueraren baloraziorako irizpideak erregelamendu bidez arautuko direla xedatzen du (341.2 art.)<sup>244</sup>.

LOPJ 1985ean onartu arren, 1991ko urriaren 23rarte Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiak (CGPJ) ez zuen aipatutako erregelamendua onetsi. Horrezaz gain, onartu eta berehala, epaile eta magistratu elkarte bik erregelamenduaren aurka helegitea aurkeztu zuten, haren aplikazioa eten zedila eskatuz. CGPJk helegileen eskaria betez erregelamenduaren aplikazioa eten zuen baina, harritzekoa bada ere, oraindik ez ditu helegiteak ebatzi.

Horiek horrela, badira 16 urte Euskal Estatutua indarrean sartu zenetik eta, momentuz, bertan epaile edo magistratu izateko aukeratze-prozesuan euskararen balorazioari buruz agindutakoak bete barik jarraitzen du, Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorraren zabarkeria edo utzikeria dela eta<sup>245</sup>. CJPJren jokabideak Estatu-tuaren eta, bide batez, LOPJren lege-hauste larria suposatzen du,

- 
- Especial o Foral de las referidas Comunidades Autónomas, como mérito preferente de los concursos para Órganos jurisdiccionales de su territorio.»
- (244) FAIRÉN GUILLÉNek erregelamenduzko bidalketa horren konstituzionaltasuna zalantzan jartzen du. FAIRÉN GUILLÉN, V. *Comentarios a la Ley Orgánica del Poder Judicial de 1 de julio de 1985*. Madrid: Edersa, 1986, 353. or.
- (245) Gai honi buruz ikus LORCA NAVARRETE, A.M. La Administración de Justicia y la utilización del idioma cooficial en la Ley Orgánica del Poder Judicial. *RVAP*, 1986, 13. zenb., 287-294. orr.; eta Bizkaiko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko Euskara Batzordearen *Justizia Administrazioan. Euskararen normalkuntzari buruzko txostena*. Bilbo, 1994.



lege organikoen aplikazioa ezin baitaiteke interes korporatiboen pentzutan geratu. Egoera hau salatu guran, 1995ean euskal talde parlamentarioak bi hizkuntza ofizial dituzten autonomia erkidegoetan estatu zentralako administrazio periferikoetako zerbitzuetan gaztelera ez beste hizkuntza ofizialaren erabilera normaltzeko asmoz, gobernu zentralaren konpromezua esijitzen zuen legekanpoko proposamen bat aurkeztu zuen, Diputatuen Kongresuan aho batez onartu zelarik.

Ildo beretsutik, 1988ko abenduaren 28ko Planta eta Demarkaziorako Legeak, autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzaren ezagutza Justizi Auzitegi Nagusiaren lehendakariaren kasuan bakarrik jotzen du meritutzat (32.5 art.). Eta are okerrago egiten dute judizial karguak arautzen dituzten erregelamendu organikoek, hauetan ez baita autonomia erkidegoetako berezko hizkuntzei buruz tutik ere esaten<sup>246</sup>.

Gaia aldatuz eta hezkuntza arloari dagokionez, Estatutuan xedapen kompetentzial bat baino ez da ageri, 16. artikulua alegia.

16. artikulua: «Konstituzioaren lehen Erabaki Gehigarrian erabakitzen dena aplikatzeko, irakaskuntza, zabalera, maila, gradu, era eta espezialitate guztietan, Euskal Herriko Komunitate Autonomoaren kompetentziapean dago, Konstituzioaren 27. artikulua eta berori zehaztuko duten Lege Organikoei, haren 140.1.30. artikulua Estatuari ematen dizkion ahalmenei eta guztiori betetzeko eta bermatzeko behar den goi inspektzioari kalterik egiteke.»

16. artikulua honen kausa Konstituzioaren 149.1.30<sup>247</sup> artikuluan bilatu behar dugu. Artikulu honen arabera, ikasketa eta

---

(246) Zentzu horretan, Ofizial-, Laguntzaile- eta Agente- Kidegoei buruzko irailaren 19ko 2.003/1986 Erret Dekretua eta Idazkari Judizial Kidegoari buruzko apirilaren 24ko 429/1988 Erret Dekretua.

(247) 149.1: «El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias (...):

30.º Regulación de las condiciones de obtención, expedición y homologación de títulos académicos y profesionales y normas básicas para el desarrollo del artículo 27 de la Constitución, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones de los poderes públicos en esta materia».

profesional tituluen lorpen, jaulkipen eta homologaziorako baldintzen erregulazioa, eta EKren 27. artikulua eragapenerako oinarritzko arauen ekoizpena, Estatuaren esku uzten den eskuduntza da. Hauetatik aparte, hezkuntza arloko gainerako gai guztiak, hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuduntzapean egongo dira, Autonomia Erkidegoko erakunde amankomunen esku<sup>248</sup>, alegia.

Edozelan ere, eguneroko praktikan gauzak ez dira teorian ematen duten bezain soilak eta, zoritxarrez, hezkuntza arloan ere Estatu eta Euskal Autonomia Erkidegoko eskuduntza banaketa ez da gai batere baketsua izan. 149.1.30 artikulua 27. artikulua eragapenerako oinarritzko arautzat zer ulertu behar dugun esaten ez digunez gero, interpretazio desberdinetarako ateak zabalik uzten ditu. Eta jakina, honetan ere, normala denez, nor bere opilari hurbildu nahi izaten dio ikatza. Honen ondorioz, espero ziren baino ugariagoak izan dira Konstituzio Auzitegiak askatu behar izan dituen Estatu eta Autonomia Erkidegoaren arteko eskuduntza-gatazkak<sup>249</sup>.

Bestalde, konturatuko zineten moduan, EHAren 16. artikulua Konstituzioaren lehen erabaki gehigarria aipatzen du. Erabaki gehigarri honek Konstituzioak foru-lurraldeen eskubideak onartu

---

(248) Ikus azaroaren 25eko 27/1983 Legea, «Autonomia-Elkarte Osorako Erakunde eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakunde Arteko Harreman»ei buruzkoa. Lege honen 6. artikuluan azaltzen den hondakin atalaren eraginez, hezkuntza arloari buruzko eskuduntza Autonomia Erkidegoko erakunde amankomunei egozten zaie.

(249) Hezkuntza arloko eskuduntza banaketari buruz eta gai honetan KAK jarraitutako lerro jurisprudentzialari buruz ikus, besteak beste: AURTENETXE GOIRIENA, J.L. El sistema de distribución de competencias en materia de enseñanza: estudio de su situación actual. In *Estudios sobre el Estatuto de Autonomía del País Vasco*. Oñati: HAEE/IVAP, 1991, 559-633. orr.; DIEGO CASALS, J.L. *Las competencias de la Comunidad Autónoma en materia de educación*. Oñati: HAEE/IVAP, 1989.; LÁZARO, E. *Atribución y ejercicio de competencias educativas*. Madrid: Ministerio de Educación y Ciencia, 2. edizioa, 1985; eta LÓPEZ GUERRA, L. Competencias del Estado y de las Comunidades Autónomas en educación. *REDC*, 1983, 7. zenb., 293-333. orr.

eta babesten dituela dio<sup>250</sup>. Honenbestez, planteatzen zaigun kuestioa zera da: EHAeren 16. artikulua foru lurraldeen esku-bideei buruz egiten duen erreferentziak, EAeren esku dagoen hezkuntza arloari buruzko eskuduntzaren edukia nola edo hala baldintzatzen ote du? Hau da, gainerako autonomi estatutuek honelako aipamenik egiten ez dutela kontuan izanik, kondaira-eskubideen gaineko erreferentzia estatutario honek ematen al dio EAeri beste autonomia erkidegoekin alderatuz ez-ohiko konpetentzi eremu zabalagorik?

Bestelako iritzirik badago ere<sup>251</sup>, KAK 1982ko otsailaren 28an esandakoarengatik, Euskal Estatutuak Konstituzioaren erabaki gehigarriaren gainean egiten duen erreferentziak ez duela EAeren aldeko plus konpetentzialik suposatzen ondoriozta daiteke. Auzitegiaren ustetan, EHAeren 16. artikulua «reserva a la Comunidad Autónoma del País Vasco, sustancialmente, iguales competencias y con la misma salvedad que las existentes en el artículo 15 del Estatuto catalán.» (7. oinarri juridikoa)<sup>252</sup>.

## 5.2. AUTONOMI ESTATUTUAREN 6. ARTIKULUA

### 5.2.1. Aurrekari historikoak: II. Errepublikako Autonomi Estatuturako egitasmoak eta 1936ko Estatutua

1979ko Gernikako Estatutua ez da ezerezetik tupustean ateratako zerbait, aitzitik, egun indarrean dagoen gure funtsezko arau

---

(250) D.A.1.º «La Constitución ampara y respeta los derechos históricos de los territorios forales.

La actualización general de dicho régimen foral se llevará a cabo, en su caso, en el marco de la Constitución y de los Estatutos de Autonomía».

(251) Zentzu horretan ikus FIGUEROA, A. El marco Constitucional y el Estatuto. In *Instituciones de la Comunidad Autónoma de Euskadi*. Oñati, 1982, 150. or.

(252) Ildo beretik, 1984ko abenduaren 18ko KAEk zera dio: «la idea de derechos históricos de las comunidades y territorios forales a que alude la disposición adicional primera de la Constitución no puede considerarse

autonomikoa, Euskal Herrian mendearen lehen herenean -batik bat Errepublikara garaian- itxuratzen eta tajutzen joan ziren autonomiarako mugimenduen jarraipen logikoa dugu. Izan ere, 1979.eko Estatutua mendeetan zehar bilakaera ez jarraitua izan duen prozesu estatutario baten gailurra edo kulminazioa da. Eta esandakoa baieztatzeko egungo eta orduko estatutuen zenbait artikululok elkarren artean duten antza ikusi besterik ez dago.

Nahiz eta 1931ko II. Errepublikaren etorrera arte hertsiki hartuta Euskal Autonomi Estatutu egitasmorik plazaratu ez, Oruetak Euskal Herriko lehen mugimendu estatutarioak 1905. urtean kokatzen ditu, Liga Foral Autonomista<sup>253</sup> sortu zenean hain zuzen ere. Errepublika aurreko 1905etik 1931rako aldarte horretan burutu ziren autonomiarako saiakeretan, jadanik, euskara arloari buruzko aipamen garrantzitsuak aurki ditzakegu<sup>254</sup>. Hauetatik, garai hartarako ez-ohikoa zen euskararen aldeko eskuzabaltasunarengatik aipamen berezia merezi duena, Romanones Kontearen gobernuaren garaian, Euskal Estatutua sortzekotan eraturiko Parlamentuaz kanpoko Batzordearen azpiponentziak atera zuen txostenaren 5. artikulua da. Honek lehenbizikoz euskara eta gaztelaniaren ofizialkidetasuna tratatzen du:

---

como un título autónomo del que puedan deducirse específicas competencias, pues la propia disposición adicional manifiesta con toda claridad que la actualización general de dicho régimen foral se ha de llevar a cabo en el marco de la Constitución y de los Estatutos de Autonomía.» (4. oinarri juridikoa).

- (253) Liga Foral Autonomistari buruz eta oro har mende hastepeneko mugimendu autonomistei buruz ikus ORUETA, J. *Fueros y Autonomía. Proceso del Estatuto Vasco (1905-1933)*. San Sebastián: Nueva Editorial, 1934.
- (254) Besteak beste, Diputatuen Kongresuaren Batzordeak 1919an ateratako txostenean, Gipuzkoako Aldundiak 1923an eta Bizkaiko Aldundiak 1924an, Direktorio Militarren aurrean aurkezturiko proiektuetan... Hauen eta beste batzuen berri izateko ikus ORUETA, J. *Fueros y Autonomía. Proceso del Estatuto Vasco (1905-1933)*; eta CASTELLS ARTECHE, J.M. El idioma en la política estatutaria. In *Reflexiones sobre la autonomía vasca*, 203. eta hurrengo orr.

«En los territorios de las mismas provincias (de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya) podrán usarse con igual carácter oficial los idiomas castellano y vasco. Todos los funcionarios del Estado que desempeñan cargo en la carrera judicial o fiscal o de notariado, secretarios judiciales y de sala y registradores de la propiedad, deberán conocer la lengua vascongada.»

Edozein kasutan, CASTELLS ARTECHEk dioenez<sup>255</sup>, euskararen arauketa arloan benetako aldaketa kualitatiboa Eusko Ikaskuntzaren Estatutu Aurregitasmoarekin gertatu zen.

### **A) Eusko Ikaskuntzaren Estatutu Aurregitasmoa eta Lizarrako Estatutua**

1931ko apirilaren 14an II. Errepublika aldarrikatu zen. Errepublika berriaren etorrerak Kataluniako eta Euskal Herriko autonomizaleen esperantzak berpiztu zituen. Errepublika aldarrikatu eta atoan, orduan Getxoko alkate zen Jose Antonio Aguirre jeltzalea buru zelarik, autonomiaren aldeko udal mugimendu bat abian jarri zen. Eusko Alderdi Jeltzaleak (EAJ) bultzatu, eta gainerako eskuin-indarren onespena izan zuen autonomiarako udal mugimendu honek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udal gehienek atxekimendua lortu zuen. Hala ere, ezker-indarren esku zeuden udalak mugimendu honetatik kanpo geratu ziren, besteak beste, Hego Euskal Herriko lau hiriburuak eta gune industrialetako nahiz nafar erriberako udalak. Hauek nahiago zuten autonomi-ekimena ezkertiarren menpe zeuden Aldundietako Gestio Bartzordeen esku uztea, eskuin indarrek gidaturiko udal mugimendu hartan baino.

Maiatzaren 8an autonomiarako udal mugimenduak Eusko Ikaskuntzari<sup>256</sup> Autonomi Estatutu egitasmo bat egin zezala eskatu

---

(255) CASTELLS ARTECHE, J.M. El idioma en la política estatutaria. In *Reflexiones sobre la Autonomía Vasca*, 206. or.

(256) Eusko Ikaskuntza mendearen lehen hamarkadan sorturiko konposaketa aniztun mugimendu euskaltzalea da. Bere araudiaren lehen artikulua zioenez, «Euskaleria maite duten ta ikasbidez argitu nai luketen guziak biltzea da Baltzu onen tsede». Araudi honen berri izateko ikus *Primer*

zion. Eusko Ikaskuntzak erronka gustora onartu zuen, eta astirik galdu barik bere gain hartutako lanari ekin zion. Hala, maiatzaren 31rako Eusko Ikaskuntzaren Autonomi Batzordeak «Euskal Estatuko Estatutu Orokorra» delakoa atera zuen.

Estatutu egitasmo honetan hizkuntzaren erregulazioa V. tituluari agertzen zen, 16. eta 17. artikuluetan hain zuzen:

16. art.: «La lengua nacional de los vascos es el euskera. Ella será reconocida como oficial en iguales condiciones que el castellano.»

17. art.: «En las escuelas de los territorios euskaldunes del País Vasco se utilizarán para la enseñanza los dos idiomas observándose al efecto las reglas que fije la Diputación en que se halle enclavado el territorio de que se trate.

Todos los funcionarios, así administrativos como judiciales, que presten servicio en las mismas deberán ser conocedores del euskera.

Las expresadas Diputaciones demarcarán los territorios que deben merecer a estos efectos la calificación de euskaldunes.»<sup>257</sup>

Ikusten den legez, Eusko Ikaskuntzaren Estatutu aurregitasmoan euskara euskaldunen hizkuntza nazionala deklaratzeko, bera eta gaztelaren arteko ofizialkidetasuna ezarri. Euskararen ofizialtasunaren aplikazioa, euskararen erabilkeraren arabera egin beharreko lurralde banaketak baldintzatu zuen. Euskaldun eta erdaldun eremuen arteko lurralde banaketa Aldundiei zegokien. Ondorengo lerroetan ikusiko dugunez, euskararen erabilpenaren arabeko lurralde banaketa gure estatutugintzaren nahiko ezaguri ohikoa da.

Gure iritzian, hizkuntz erregulazio honen akatsik nagusia bere anbiguitasuna eta konkretzio falta da. Alde batetik, euskaldun eremuan irakaskuntzarako gaztelera zein euskara erabiliko direla dio, baina elebitasun hori nola hezurramituko den ez du esaten. Bestalde, euskarak eremu erdaldunean izango zuen trataeraz ez

---

*Congreso de Estudios Vascos*. Bilbao: Bilbaína de Artes gráficas, 1919, 962-968. orr.

(257) Estatutu Aurregitasmo honen testua eta oro har Euskal Herriko Estatutu egitasmo guztien testuen berri nahi izanez gero, ikus TAMAYO, T. eta V. *Fuentes documentales y normativas del Estatuto de Gernika*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1981.

du deus ere esaten, airean uzten du. Horrez gain, elebitasuna bakarrik eskoletara hedatzen du, Bigarren Hezkuntzan eta goi mailako hezkuntzan euskarak izango duen trataera omitituz.

Eusko Ikaskuntzaren Estatutu Egitasmoa plazaratu zenean, bi alderdik bakarrik -Alderdi Errepublikano Autonomoak eta Acción Nacionalista Vascak- onartu zuten testua bere osotasunean. Gainerako alderdiek, bai eskuindarrek, bai ezkertiarrek, Egitasmoari emendakin ugari bezain kontrajarriak egin zizkioten. Zentzu guztietako emendakinak izan ziren arren, Gizpuzkoako alkate batzuek Eliza-Estatu harremani buruz planteaturiko emendakin famatua izan zen benetan eskuin eta ezker indarren arteko ordurarteko adostasuna hautsi zuena.

Eusko Ikaskuntzaren Autonomi Estatutu Egitasmoan Eliza-Estatu harremanak Estatuaren eskuduntzapean uzten ziren, eta alkate hauek egindako emendakinarekin eliz arazoak Euskal Herriak Erromarekin zuzenean eta inolako bitartekaririk gabe konpon zitzaizkien lortu nahi zuten. Coalición Tradicionalistak (CT) eta Eusko Alderdi Jeltzaleak emendakinarekin bat zetozenez gero, hura bere egin zuten. Ezkerreko indarrek, ordea, izatez antiklerikalak, ez zuten emendakina begi onez ikusi, batez ere, beraientzat Eliza-Estatu harremanak Estatuaren esku uztea alde aurretik hartutako erabakia zelako eta emendakin horrek aurreko konpromezuei muzin egitea suposatzen zuelako<sup>258</sup>.

---

(258) ORUETAren iritziz, «No es que punto tan importante como el de la vida religiosa hubiese pasado desapercibido en Estudios Vascos. Concedo-res todos sus vocales de lo intenso de ese sentimiento en el País Vasco se había allí ya apuntado esa solución y sólo después de una amplia e interesante discusión, en la que intervinieron sacerdotes y dignatarios de la Iglesia y personas calificadísimas de opiniones particulares de extrema derecha, se tomó por unanimidad el acuerdo de dejar esa facultad al Estado (...). Fue grande pues, nuestro asombro al enterarnos de que tres días después algunas de las mismas personas que intervinieron en nuestras discusiones en favor de esa solución amparaban en Azpeitia por afanes políticos lo contrario y luego se afirmaban en Estella en lo mismo.» ORUETA, J. *Fueros y Autonomía. Proceso del Estatuto Vasco (1905-1933)*, 191-192. orr.

Hain izan ziren kontrajarriak alderdien arteko jarrerak gai honetan, ezen akordio batera ailegatzea ezinezko bihurtu zen. Eskuin eta ezkerreko indarren jarrerak elkartu ezin honen ondorioz, ezkerreko indarrek Iruñean burutu behar zen Estatutu Egitasmo honen eratze-prozesutik kanpo lotu ziren. Horrela, Iruñean izan zedin iragarrita zegoen eta, arazo batzuk medio, Lizarran burutu zen Euskal Udalen Biltzarrean Lizarrako Estatutua deritzan testua onetsi zen.

Esan ohi denez, 1931ko Lizarrako Estatutua, Eusko Ikaskuntzaren Estatutuaren seme abertzale eta konfesionala da. Izan ere, lehenengoa, bigarrenari eskuin kutsuko 20 bat emendakin sartzearen emaitza izan zen. Haatik, bien artean desberdintasun franko zegoen.

Hizkuntza arloan ere aldaketa batzuk sartu ziren, eta egia esan, hizkuntz erregulazioak jasandako aldaketak onerako izan ziren, guk uste. Izan ere, Lizarrako Estatutuaren 16. artikulua Eusko Ikaskuntzaren Aurregitasmoak aurrakusten zuen hizkuntz arauketa osotu eta zehaztu zuen.

Artikulu honen erredakzioaren arabera, euskaldun eremuan euskara irakas-hizkuntza eta gaztelania derrigorrezko ikasgaia izango ziren ikasmaita guztietan. Erdaldun eremuan, aldiz, aldrebes izango zen, gaztelania irakas-hizkuntza eta euskara derrigorrezko ikasgaia. Ikus daitekeenez, erredakzio berriaren bitartez<sup>259</sup>, batetik, euskarak euskaldun eremuko irakaskuntzan izango zuen trataera zehaztu, eta bestetik, euskarak erdaldun eremuan izango zuen trataerari buruzko hutsunea zuzendu zen. Hala ere, Bigarren Hezkuntzaren eta unibertsitate mailako hezkuntzaren elebitasunaz, honakoan ere, ez zen tutik ere esaten.

---

(259) 17.2 art.: «En las escuelas de los territorios de lengua vasca se utilizará el euskera como idioma vehículo de la enseñanza, cursándose como asignatura en todos los grados el castellano, mientras que en las escuelas de zonas de lengua castellana se dará la enseñanza en este idioma, cursándose el euskera como asignatura en todos los grados.»



Lizarrako Estatutuak ez zuen inolako lege-indarririk izan. Euskal udalen asanbladak Lizarrako bilkuran Estatutua onetsi eta gero, Madrilgo Gorteetara bidali zen hauek onar zezaten. Baina, espero zitekeenez, ez zen horrelakorik gertatu. Gorte Orokorrek Lizarrako Estatutu Egitasmoari ezetz borobila eman zioten. Gaitzespen honen atzetik arrazoi juridikoez gain arrazoi politiko sendoak ere izan ziren.

Batetik, Estatutuari buruzko erreferendumik eza prozedurazko akats larria zen. Bestetik, Estatutu Egitasmoa Madrilera iritsi eta hiru egunen buruan, hango Gortek Konstituzioaren I. titulua onetsi zuten. Momentu horretan, bi testuen arteko elkarrezintasuna, edo nahi bada, Lizarrako Estatutuaren Konstituzio-kontrakotasuna ageri-agerian geratu zen.

Edozein kasutan, eta aipaturiko pisuko arrazoi juridikoez aparte, Estatutuaren onespena zinez eragotzi zutenak arrazoi politikoak izan ziren. Garai hartan, Madrilgo Gobernua -Alcala Zamora buru zelarik- eta Gortetan ezkerreko indarrak ziren nagusi, izatez aurrerakoi eta laikoak. Gauzak horrela, argi zegoen izatez atzerakoi eta klerikalak ziren eskuin alderdien (besteak beste, EAJ eta CT) arteko aliantza batetik sorturiko Estatutu batek ez zuela, inondik inora, zereginik ezkertiarren menpe zeuden Gorte batzuetan.

## **B) 1932 eta 1933ko Gestio Batzordeen Estatutuak**

Apirilaren 14ko 1931ko Konstituzioaren onespeneren ondorioz Lizarrako Estatutuaren bidea betirako hertsirik lotu zenez gero, estatutu-prozesuak berriro ere hutsetik hasi behar izan zuen. Baina, hori bai, oraingoan ezinbestekoa zen estatutugintza Konstituzio berriak autonomia lortzeko 12. artikuluan ezartzen zuen legezko prozedurara egokitzea. Artikulu honen garapenerako Azañaren gobernuak dekretu bat indarrean jarri zuen<sup>260</sup>, non Estatutuaren eraketarako jarraitu beharreko prozedurazko arauak ezarri ziren<sup>261</sup>. Dekretuak Estatutu Egitasmoaren prestaketa Aldundietako Gestio

---

(260) 1931ko abenduaren 8ko Dekretua.

Batzordeen esku utzi zuen. Hortaz, orduan estatutu-ekimena udaletatik ezkertiarren kontrolpean zeuden Gestio Batzordeetara pasatu zen.

Dena den, eta nahiz eta ekimena berea izan, ezkertiarrek ezin zuten Estatutua bere kabuz bakarrik aurrera atera, zeren Estatutuaren onespenerako euskal udalen eta euskal hautesleagoaren baietza halabeharrezkoa zen neurrian, «quorum»a lortzeko bestelako alderdien lankidetzak beharrezkoa baitzuten. Lankidetzak hori EAJren aldetik heldu zitzaion. Jeltzaleek aurreko esperientziatik eskarmentaturik, hasiera batean Estatutua erdiesteko bide okerra hartu zutela kargutu ziren. Hartara, Errepublikako erregimenaren arerioak ziren eskuin muturreko tradizionalistekin aliantza baztertu, eta posibilismoari eutsiz, erregimeneko ezkerreko indarrek loturak sendotzen hasi zen. Izan ere, Estatutu egitasmo honen onarpenaren pisua ezkertiarrek eta jeltzaleek hartu zuten bere gain. 1932ko hastapenetan, 4 errepublikazale, 3 sozialista, jeltzale bat, katoliko foruzale bat eta independente batek osaturiko Batzordeak, 1932ko Gestio Batzordeen Estatutua izeneko Estatutu egitasmoa prestatu zuten. Estatutu hau Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako udalek Iruñean onetsi zuten, ez ordea Nafarrokoek<sup>262</sup>. Nafarroako udalen ezetzak Nafarroa Estatutu prozeduratik kanpo utzi zuen. Horiek horrela, Estatutu Egitasmoaren testua, hiru probintzietako egoera berri hartara egokitzeko aldatu behar izan zen. 1933ko Gestio Batzordeen Estatutua deritzon testu berria,

---

(261) Dekretu horrek, Estatutu Egitasmoaren testuaren prestakuntza Aldundietako Gestio Batzordeei egozten zien eta onespenerako prozedura berezia zehazten zuen. Honen ildotik, lehenengo eta behin, probintzietako udalek, probintzia bakoitzekoak euren aldetik, lau probintzietarako Estatutu bakarra ala probintzia bakoitzerako Estatutu bana nahi zuten erabaki behar zuten; ondoren, eta erabakia Estatutu bakarraren alde izango zen kasurako, testua onartzeko lau probintzietako udalen batzarra egin beharko litzateke; udalen batzarraren oniritzia lortu eta gero, euskal hautesleagoak erreferendumaren bidez Estatutu egitasmoa onetsi beharko zuten, azken erabakia Madrilgo Gorteen esku lotzen zelarik.

(262) 1932ko ekainaren 19an Iruñean burututako Euskal Estatutuari buruzko udal asanbladaren emaitzak:

lehenbizi hiru probintzietako udal asanbladak<sup>263</sup> Gasteizen, eta ondoren euskal hauteslegoak erreferendum bidez (1933/11/05) onetsi zuten<sup>264</sup>.

Gestio Batzordeen Estatutuan, hizkuntza arloko arauketa 11. artikuluan azaldu zen eta Lizarrako Estatutuaren ondoan, arauketa berri honek atzerapauso bat suposatu zuen.

11. artikulua lehen atalaren arabera, euskara gaztelaniarekin batera Euskal Herriko hizkuntza ofiziala izango zen, baina orduan euskaldunen «hizkuntza nazionala» deklaratu beharrean, euskaldunen «jatorrizko hizkuntza» deklaratu zen.

<b>Udalak</b>	<b>Alde</b>	<b>Aurka</b>	<b>Abstentzioak</b>	<b>Guztira</b>
Bizkaia	109	1	6	116
Gipuzkoa	84	2	3	89
Araba	52	11	14	77
Nafarroa	109	123	35	267
E.H.	354	137	58	549

Datuen iturria: LA GRANJA SAINZ, J.L. *El Estatuto Vasco de 1936*. Oñati: HAEE/IVAP, 1988, 30. or.

(263) 1933ko abuztuaren 8an Gasteizen burututako Euskal Estatutuari buruzko udal asanbladaren emaitzak:

<b>Udalak</b>	<b>Alde</b>	<b>Aurka</b>	<b>Abstentzioak</b>	<b>Guztira</b>
Bizkaia	115	0	1	116
Gipuzkoa	83	2	4	89
Araba	41	26	10	77
E.H.	239	28	15	282

Datuen iturria: op. cit.

(264) Euskal Estatutuari buruzko erreferendumaren emaitzak:

	<b>Bizkaia</b>	<b>Gipuzkoa</b>	<b>Araba</b>	<b>Euskal Herria</b>
Hautesleak	267.456 (100)	166.635 (100)	56.056 (100)	490.147 (100)
Botuemaileak	241.629 (90,3)	151.861 (91,1)	32.819 (58,5)	426.309 (87,0)
Baiezkoak	236.564 (88,4)	149.177 (89,5)	26.015 (46,4)	411.756 (84,0)
Ezezkoak	5.064 (1,9)	2.436 (1,5)	6.695 (11,9)	14.196 (2,9)
Baliogabeak eta zuriak	—	248 (0,1)	109 (0,2)	357 (0,1)
Abstentzioak	25.827 (9,7)	14.774 (8,9)	23.237 (41,5)	68.838 (13,0)

Datuen iturria: op. cit., 31. or.

Bigarren atalean, Euskal Herria eta Errepublikaren arteko harreman ofizialetarako hizkuntza ofizial bakarra gaztelania izango zela xedatu zen.

11. artikulua gainerako atalek euskarak euskaldun eremuan izango zuen trataeraz ziharduten<sup>265</sup>.

Eusko Ikaskuntzaren Aurregitasmoan gertatzen zen bezalaxe, honetan ere, euskarak erdaldun eremuan izango zuen trataeraz ez zen fitsik ere esaten. Goraipatzekoa da, hala ere, Gestoreen Estatutu honetan lehenbizikoz elebitasuna Bigarren Hezkuntzara eta unibertsitate mailako hezkuntzara hedatu izana.

«Biurteko beltza» izeneko agintaldian, zehazki 1933ko abenduan, plebiszitu berria zen Estatutu Egitasmoa Madrilgo Gortean

---

(265) 11. art. «El idioma originario de los vascos es el euskera, que tendrá, como el castellano, carácter de lengua oficial en el País Vasco.

En las relaciones oficiales entre el País Vasco y el resto de España, así como en las de las Autoridades de la República con las de aquél, la lengua oficial será el castellano.

Los habitantes de los territorios euskeldunes tendrán el derecho de emplear el euskera en los Tribunales de Justicia y ante los órganos de la Administración, dentro del País Vasco.

Las disposiciones o resoluciones oficiales dictadas por los organismos administrativos y judiciales del país serán publicadas o notificadas en castellano y en euskera cuando hayan de causar efecto en territorio euskeldun.

En las escuelas de los territorios euskeldunes del País Vasco se utilizarán para la enseñanza los dos idiomas, observándose al efecto las reglas que fije la Diputación en que se halle enclavado el territorio de que se trate.

La segunda enseñanza y la superior podrán darse en ambos idiomas en las condiciones prescritas por la Constitución de la República.

Los funcionarios, así administrativos como judiciales, que presten servicio en dichos territorios, deberán ser conocedores del euskera, exceptuándose los que estuvieren prestándolo al tiempo de implantarse este Estatuto, a quienes les serán respetados la situación y los derechos que hubieran adquirido, recomendándoles aprendan aquel idioma en el término de cinco años.

Las expresadas Diputaciones demarcarán los territorios que deben merecer a estos efectos la calificación de euskeldunes».

aurrean aurkeztu zen. Eratu berri ziren Gorte horietan, gehiengoa zentro eta eskuineko indarrek zuten, Lerrouxen Alderdi Radikalak eta Gil Roblesen CEDAk, alegia. Garaiko Gorteak, beraz, ez ziren 1931ko Gorte Konstituziogileak bezain autonomizaleak eta, horren ondorioz, Euskal Estatutu Egitasmoaren izapidetza Madrilgo Gorteetan aurreraezinean paralizaturik geratu zen.

#### **D) 1936ko Estatutua**

1936ko hauteskundeetan Frente Popular izeneko ezkerreko koalizioak Madrilgo Gorteetan erabateko gehiengoa lortu zuen. Frente Popularra lehenengo momentutik euskal autonomiaren alde agertu zen. Ondorioz, berau eta EAJren arteko harremanak estutu ziren. Biek helburu amankomun baten inguruan indarrak batu zituzten; helburu amankomun hori Euskal Autonomi Estatutua eratzea zen. Izan ere, 1936ko Estatutua, funtsean, Frente Popular eta EAJren elkarlanaren ondorioa izan zen.

Apirilaren 16an Gorteetan Estatutu Batzordea eratu zen. Batzordearen lehendakari eta idazkari, hurrenez hurren, Indalecio Prieto sozialista eta Jose Antonio Aguirre jeltzalea izendatu zituzten. Batzorde honek, Gorteetan aurreraezinean lotu zen 1933ko Gestoreen Estatutuari bultzada berri bat eman zion. Batetik, 1933ko azaroaren 5eko erreferenduma baliozkotzat jo zuen, eta bestetik, Gorteen oniritzia lortzekotan, Gestio Batzordeen Estatutua eraberritu zuen. Testuari aldaketa ugari sartu zizkion; bai egituraren aldetik, bai edukiaren aldetik eta baita hedapenaren aldetik ere. Hainbeste izan ziren Gestoreen Estatutuari sarturiko aldaketak eta hain garrantzi handikoak, ezen lorturiko testu berriari izen berri bat jarri baitzioten: 1936ko Estatutua.

1936ko Estatutuan hizkuntza arloaren gaineko erregulazioa 1.2 eta 7. artikuluetan azaltzen zen. Lehenengo artikulua bigarren atalean, euskara Euskal Herriko hizkuntza ofiziala deklaratu arren, ez da euskaldunen «hizkuntza nazional»tzat (Lizarrako Estatutua) ezta euskaldunen «jatorrizko hizkuntza»tzat (Gestoreen Estatutua) ere jotzen. Aipaturiko artikulua euskal aginte

autonomikoen xedapenak hizkuntza bietan idaztea eta Estatuarekiko harremanak gazteleraz izatea agintzen zuen<sup>266</sup>.

Elebitasunari buruzko gainerako erregulazioa 7. artikuluan<sup>267</sup> azaltzen zen. Honetan ere, euskarak erdaldun eremuan izango zuen tratamenduari buruzko araurik ez zen agertzen. Euskarak euskaldun eremuan izango zuen trataera, berriz, luze eta zabal arautzen zen.

1936ko Autonomi Estatutua Gorteetako osoko bilkurara ailegatu orduko, gerrate zibila eztandarazi zuen uztailaren 18ko altxamendu militarra jazo zen. Altxamendu hau dela eta, legebiltzar

---

(266) 1º.3: «El vascuence será, como el castellano, lengua oficial en el País Vasco y, en consecuencia, las disposiciones oficiales de carácter general que emanen de los poderes autónomos serán redactadas en ambos idiomas. En las relaciones con el Estado español o sus autoridades el idioma oficial será el castellano».

(267) 7º.1 art.: «El País Vasco regulará la cooficialidad del castellano y el vascuence con arreglo a las siguientes normas:

a) Publicará y notificará en ambos idiomas las resoluciones oficiales de todos sus órganos que hayan de surtir efecto en los países de habla vasca.

b) Reconocerá a los habitantes de los territorios de habla vasca el derecho a elegir el idioma que prefieran en sus relaciones con los Tribunales, autoridades y funcionarios de todas clases del País Vasco.

c) Admitirá que se redacten indistintamente en uno u otro idioma los documentos que hayan de presentarse ante las autoridades judiciales vascas o hayan de ser autorizados por los fedatarios del país.

d) Establecerá la obligación de traducir al castellano los mismos documentos redactados en vascuence cuando lo solicite parte interesada o deban surtir efecto fuera del territorio vasco.

e) Regulará el uso de las lenguas castellana y vasca en la enseñanza, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 50 de la Constitución.

f) Podrá exigir el conocimiento del vascuence a todos los funcionarios que presten servicio en territorio de habla vasca, exceptuados aquellos que estuvieren actuando al tiempo de implantarse este Estatuto, los cuales serán respetados en su situación y en los derechos adquiridos.

2. Las Diputaciones u órganos representativos que las sustituyan de Álava, Guipúzcoa, y Vizcaya, demarcarán en sus respectivas provincias los territorios que, a los efectos de este artículo, deban considerarse como de habla vasca».



oinarrizko testua egiteko zeregina ponentzia baten esku utzi zuen. Horrela, 1978.eko azaroaren 28an euskal legebiltzarkideen ponentziak Estatutuaren oinarrizko testua edo lehen aurregitasmoa atera zuen.

- Oinarrizko Testua edo Lehen Aurregitasmoa

Oinarrizko testua sei artikuluk osatzen zuten. Lehen artikulua, euskara Euskal Herriko «hizkuntza nazionala»<sup>269</sup> zela esaten zuen. Gainerako artikulua, aldaketa txiki batzuekin, behin-betiko testuan mantendu zituzten.

- Bigarren aurregitasmoa

Ponentziak egin zuen oinarrizko testuari 30 emendakin tartearatu zitzaizkion<sup>270</sup>, baina testuak bi aldaketa baino ez zituen jasan. Batetik, euskara Euskal Herriko «jatorrizko hizkuntza»<sup>271</sup> («idiotzua originario») deklaratu zen, eta bestetik, oinarrizko testuari atal berri bat erantsi zitzaion. Atal berri honek honela zioen hitzez hitz: «Nadie podrá ser discriminado por razón de la lengua».

Aldaketak aldaketa, ponentziak abenduaren 22an atera zuen bigarren aurregitasmoa.

- Estatutu egitasmoa

Ponentziak bigarren aurregitasmoa Euskal Legebiltzarkideen Asanbladaren aurrean aurkeztu zuen, honek eztabaidatu eta onarrezan. Legebiltzarkideek, oro har, ponentziaren lana begi onez ikusi zuten, horrexegatik, testuari aldaketa bat baizik ez zitoten

---

1982, 131. or. Era berean, COBREROS, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskera*. Oñati: HAEE/IVAP, 1989, 61. or.

(269) Ikusi dugun moduan, euskara Euskal Herriko hizkuntza nazionaltzat jotzea ez da gauza berria, 1931ko Lizarrako Estatutuan ere euskara euskaldunen hizkuntza nazional deklaratu baitzen (1. art.).

(270) Emendakin hauen berri eta, oro har, eratze prozesu osoaren berri izateko ikus TAMAYO, T. eta V. *Fuentes documentales y normativas del Estatuto de Gernika*.

(271) Kalifikapen honen aurrekari historikoa Gestio Batzordeen Estatutuaren lehenengo artikuluan azaltzen zaigu.



egin. Hain zuzen ere, euskara Euskal Herriko «jatorrizko hizkuntza» izatetik, Euskal Herriko «berezko hizkuntza» («lengua propria») izatera pasatu zen. 1978.eko abenduaren 29an erabateko gehiengoz Euskal Legebiltzarkideen Asanbladak Estatutu egitasmoa onartu zuen.

## **B) Gorte Nagusietan burututako izapideak**

- Ponentziaren txostena

Estatutu egitasmoa Diputatuen Kongresuan aurkeztu zen. Hantxe, Kongresuko Konstituzio Batzordearen eta Euskal Legebiltzarkideen Asanbladaren ordezkarien artean ponentzia bateratua eratu zuten. Egitasmoa aztertu eta gero, ponentzia bateratu honek txosten bat atera zuen.

Txostenak egitasmoan hiru aldaketa sartu zituen. Batetik, Egitasmoaren 3. eta 4. atalak atal bakarrean uztartu zituen, 3. atalean azaltzen zen «egoera diglosikoa gainditzeko beharrezko baliabide»ei buruzko aipamena omitituz. Bestalde, 5. atalean agertzen zen eta Euskaltzaindiari erakunde aholku-emaile gisa eskusibotasuna ematen zion atzizki mugatzailea ezabatu zen. Eta, azkenik, egitasmoaren azken pasartea, beste herrialde euskaldunekiko harremani buruzkoa, Konstituzioak nazioarteko hitzarmenei buruz xedatutakora egokitu zen.

- Estatutu egitasmoaren behin-betiko testua

1979ko uztailaren 21ean Kongresuko Konstituzio Batzordeak eta Euskal Legebiltzarkideen Asanbladaren ordezkariak ez-ohiko bilera batean ponentziak eginiko txostena ia aho batez -hiru abstentzio baino ez ziren izan- berretsi zuten. Honenbestez, abuztuaren 1ean behin-betiko testua izango zen ponentziaren txostena Gorte Nagusien Egunkari Ofizialean argitaratu zen.

Euskal Herriak behin-betiko Estatutu egitasmo hau azaroaren 8ko erreferendumean onetsi zuen<sup>272</sup>. Ondoren, berriro ere, Estatutu

egitasmoa Madrilgo Gorte Nagusietara bidali zen, hauek lege organiko bidez testua berretsi zezaten. Azkenik, erregearen sendespenarekin, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriko Autonomi Estatutuari buruzkoa, Estatuko Egunkari Ofizialean publikatu zen<sup>273</sup>.

Argigarri izango zaizuelakoan, hona hemen Estatutuaren 6. artikulua izapidetza osoan zehar pairatu zituen antzaldaketa guztiak baterabildurik azaltzen dituen koadro sinoptikoa.

---

(272) BOZKETAREN ONDORIOA

	Hautesleak	Bozemaileak	Alde	Aurka	Zuri	Baliogabe
Araba	174.930	110.609	92.535	10.023	6.363	1.688
Gipuzkoa	507.002	302.847	278.399	12.290	9.018	3.140
Bizkaia	883.609	507.980	460.905	25.216	16.038	5.821
Guztira	1.565.541	921.436	831.839	47.529	31.419	10.649

Datuen iturria: TAMAYO, T. eta V. *Fuentes documentales y normativas del Estatuto de Gernika*, 763. or.

(273) EEO, 1979ko abenduak 22.



### 5.2.3. Edukiaren azterketa

A) 6.1 art.: «Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea».

Euskal Autonomi Estatutuaren 6. artikulua EKren 3.2 artikuluan aurrikusitakoaren ondorio logikoa da. Hala, Euskal Estatutuak, euskarari dagokionean, Konstituzioak aipatutako artikuluan xedatzen duena garatu eta eguneratu baino ez du egin<sup>274</sup>.

EHAren 6.1 artikulua dioenez, Euskal Autonomia Erkidegoan bi hizkuntza ofizial, euskara eta gaztelera, eta berezko hizkuntza bakarra, euskara, izango da. Estatutuak euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza deklaritzen duenean<sup>275</sup>, Euskara Euskal Herriaren izatearen funtsezko osagaia eta bere nortasunaren seinalerik adierazgarriena dela adierazi nahi du. Savaterrek dioenez, «el euskera es la lengua de los vascos: y lo es, no porque sea la única que tienen, sino por que son los únicos que la tienen»<sup>276</sup>.

Beraz, euskarak EAEn ofizial maila izatea, ez da momentuko buruzagien burutazio edo gutizia, baizik eta eskubide propioz eta merezimendu osoz lortutako zerbait. Gehiago esango genuke geuk, inork ofizial maila merezi izatekotan, hori, euskal kulturaren ezauzgarri funtsezkoena eta adierazgarriena den euskarak mereziko luke.

---

(274) Gauza bera egin dute, bakoitzak norbere hizkuntzari dagokionez, Kataluniako Estatutuak (3. art.), Balear Iretako Estatutuak (3. art.), Galiziako Estatutuak (5. art.), Valentziako Estatutuak (7. art.) eta Nafarroako Hobekuntzarako Legeak (9. art.) egin dute.

(275) Nafarroako Hobekuntzarako Legeak, berezko hizkuntza duten gainontzeko autonomia erkidegoen estatutuek ez bezala, ez du Nafarroako jatorrizko hizkuntza, hots, euskara, bertako berezko hizkuntzatzat jotzen.

(276) SAVATER, F. Darle gusto a la lengua. In *Contra las patrias*. Barcelona: Tusquets, 1984, 181. or. COBREROS, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara-n* zitua, 75. or.

Zalantza izpirik gabe, Estatutuak Euskal Herriko berezko hizkuntza deklaratzeko, euskarari nolabaiteko garrantzi edo balio berezia ematen dio; baina balio hori testimoniala da, extrajuridikoa, printzipioz euskarari inolako berariazko ondorio juridikorik ez dakarkiona.

Euskara eta gaztelaren ofizialtasun bikoitzari dagokionez, Konstituzioaren 3. artikulua azterketa egiterakoan adierazitakoa ez errepikatzearen, hantxe esandakoari lotzen gatzazkio. Dena den, orduan adierazi genizkizuen baieztapen bi gogoraziko dizkizuegu labur-labur: Bata, gaztelera eta euskararen ofizialtasuna maila berean daudela, hots, ez dago hizkuntza bat bestea baino ofizialagorik; eta bestea, euskararen ofizialtasunaren deklarazioak Autonomia Erkidegoan kokaturiko aginte publiko guzti-guztiak lotesten dituela, Estatuarenak barne.

6.1 artikulua azken aldera, hiritarrei euskara zein gaztelera ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea aitortzen zaie. Jadanik ikusi dugun moduan, hizkuntza bat erabiltzeko eskubidea bere ofizialtasunaren deklarazioaren ondorio garrantzitsuena eta lehenbizikoa da. Gogoratuko duzue, Konstituzioak espainiar guztiei gaztelera erabiltzeko eskubidea espresuki aitortzen die (3.1 art.). Aldiz, Konstituzioak gainerako hizkuntzei buruz ez du honelako adierazpenik egiten<sup>277</sup>. Estatutuak omisio hori zuzendu du, euskara erabiltzeko eskubidea espresuki aitortuz.

**B) 6.2 art.: «Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontuan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte.»**

Ulertzekoa denez, Konstituzioak eta autonomi estatutuek hizkuntz ofizialtasunaren lerro nagusiak baino ez dituzte ezartzen.

---

(277) Dena den, gorago esan dugun moduan, Konstituzioak, inplizitoki bada ere, gaztelania ez beste hizkuntzak erabiltzeko eskubidea ere aitortzen du. Gai honi buruz ikus IV. kapituluaren adierazitakoa.

Ofizialtasunaren arauketa zehatza estatutuen betekizunetatik kanpo geratzen da. Estatutuei dagokiena, arauketa zehatz hori nork burutuko duen erabakitzea da. Euskal Estatuak adierazpen hori 6.2 artikuluan egin du. Honek dioenaren arabera, ofizialtasun bikoitzaren erregulazioa Autonomia Erkidegoko erakunde amankomunei eskusiboki dagokie, Eusko Jaurlaritza eta Legebiltzarrari alegia. Orduan, bada, Euskal Kondaira Lurraldeek eta Estatuak ez dute zeregin legislatibo honetan esku sartzerik; hauei dagokiena, bere menpe dauden organo eta zerbitzuak erakunde amankomunek ateratzen duten erregulazio orokor horretara egokiaraztea da.

Ofizialtasun bikoitzaren erregimen juridikoaren erregulazioa Autonomia Erkidegoko erakunde amankomunen esku uzteak ukaezinezko logika du<sup>278</sup>. Ofizialtasunaren erregulazioa, norberaren eskuduntza materialen esparruan, aginte publiko bakoitzaren esku utziko balitz, honek egoera zeharo korapilatsua eta disfuntzionala sorraraziko luke. Ez litzateke ofizialtasunaren erregimen bakarra egongo, baizik eta, aginte publiko adina erregulazio desberdin: Estatuarena, Autonomia Erkidegoarena, kondaira lurraldeena, eta udalena. Esan beharrik ez dago tesi hau logika guztitik kanpo dagoela. Pentsa, adibidez, hiritar xehari honelako erabaki batek zer nolako kalteak ez lizkioken sortuko. Hiritarrak momentu oro aginte publiko ihardutzailearen izaeri -estatala, autonomikoa, lokala...- begiratu beharko lioke bere hizkuntz iharduera aginte

---

(278) DÍAZ PICAZO magistratuak, bestelakorik pentsatzen zuela argiro aditzera eman zuen KAREN 82/1986 Epaiaeren bigarren botu partikularrean:

«No creo que exista un título competencial específico y concreto sobre la «materia lingüística». El artículo 6.º del Estatuto de Autonomía del País Vasco contiene algunas reglas sobre el uso del euskera, pero no atribuye competencias específicas a la Comunidad Autónoma.(...) En Derecho la lengua es instrumento de comunicación, que se inserta o se introduce en actos, relaciones y situaciones jurídicas de signo muy diferente. Por ello, la competencia para dictar una regulación sobre la lengua utilizada en la comunicación corresponde a quien la posea para regular los actos, relaciones y situaciones jurídicas a que la comunicación se refiere.»

publiko horren ofizialtasunaren berariazko erregulaziora egokitzeke, horrek dakarren segurtasun juridiko gabeziarekin. Edonor zoratzeko modukoa izango litzateke.

Hortaz, euskararen ofizialtasuna automoni lurralde osoan bakarra baldin bada, arrazoizkoa eta zentzuzkoa da ofizialtasun horren erregulazioa ere bakarra izatea; eta berdin-berdin gaztelaniaren kasuan.

Esandako guztiarengatik, 6.1 artikulua izaera kompetentziala duela aski argi dagoela esan daiteke. Dena den, Estatu zentralak ez zuen izaera kompetentzial hori hain argi ikusten nonbait, eta bere gorenko ordezkariaren bitartez, Gobernuko Presidentearen bidez alegia, 1982ko Euskararen Legearen kontrako konstituzionaltasun helegitea tartearri zuen, EHAren 6.2 artikulua izaera kompetentziala ukatuz.

Alde batetik, EKren 148. artikulua autonomia erkidegoek eskura ditzaketen kompetentzia edo eskuduntzen artean hizkuntza ofizialtasunari buruzkoa ez zela aipatzen argudiatuz<sup>279</sup>, eta bestetik, Estatuaren 6.2 artikulua Euskal Herriari dagozkion eskuduntzei buruzko titulutik kanpo -10.a eta hurrengo artikulua- zegoela defendatuz, Estatuako Abokatuak EHAren 6.2 artikulua titulu kompetentziala zela ukatzen zuen. Bere ustetan, EKren 149.1.1 artikulua indarrez<sup>280</sup>, hizkuntza ofizialen erabilpenari buruzko oinarriko aspektuen erregulazioa Estuari zegokion, eta ez

---

(279) Konstituzioaren 148. artikuluan hizkuntzen gaineko erreferentzia bakarra, lehen ataleko 17. zenbakian azaltzen da:

148.1: «Las Comunidades Autónomas podrán asumir competencias en las siguientes materias:

17.<sup>a</sup> El fomento de la cultura, de la investigación y, en su caso, de la enseñanza de la lengua de la Comunidad Autónoma.»

(280) 149.1 art.: «El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias:

1.<sup>a</sup> La regulación de las condiciones básicas que garanticen la igualdad de todos los españoles en el ejercicio de los derechos y en el cumplimiento de los deberes constitucionales.»

autonomia erkidegoei, zegokion. Edo beste era batean esanik, Estatuaren Abokatuaren aburuz, hizkuntz ofizialtasunaren oinarritzko erregulazioa burutzeko eskuduna Estatuak behar zuen.

KAk, gai honetan, Estatuko Abokatuaren pretentsioak ezetsi zituen. Auzitegiaren ustez, Estatuak 149.1.1 artikulua indarrez:

«...puede regular, si lo considera oportuno, las garantías básicas de la igualdad en el uso del castellano como lengua oficial ante todos los poderes públicos, así como las garantías del cumplimiento del deber de conocimiento del castellano (...). Y la norma vasca no excluye ni podría excluir una Ley estatal correctora en el supuesto de que se vulnera por la legislación autonómica la igualdad de los españoles en el ejercicio de derechos o el cumplimiento de deberes constitucionales, Ley a cuyas previsiones debería atenerse la Comunidad autónoma. Pero *no cabe entender que este título competencial habilite al Estado para regular, con carácter regular, siquiera en sus aspectos básicos, la cooficialidad de las lenguas españolas distintas del castellano* y su consiguiente utilización por los poderes públicos o el derecho al uso de las otras lenguas españolas oficiales por los particulares. *Interpretar el artículo 149.1.1, con el alcance que le otorga el Abogado del Estado, equivaldría a vaciar de contenido las competencias lingüísticas asumidas por las Comunidades Autónomas según sus Estatutos de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 3.2 de la Constitución.*» (KAren ekainaren 26ko 82/1986 Epaia, 4. oinarri juridikoa).

Ondoren KAk, egungo eta 1931ko Konstituzioak ofizialtasunaren trataeran duten desberdintasuna nabarmendu eta gero, honako baieztapen hauek egin zituen:

«...el artículo 3.2 de la de 1978 remite la regulación de la oficialidad de las lenguas españolas distintas del castellano a los Estatutos de Autonomía de las respectivas Comunidades Autónomas, y sobre la base de éstos, a sus correspondientes órganos competentes (...). *Los Estatutos contienen, de esta suerte, mandatos a las correspondientes instituciones autonómicas para regular la cooficialidad de las lenguas propias de las respectivas Comunidades Autónomas.*» (KAren 82/1986 Epaia, 4. oinarri juridikoa).

Azkenik, eta esandako guztiaren laburpen gisa, KAk zera esan zuen:

«De cuanto llevamos dicho en este fundamento se desprende que la competencia que al Estado otorga el artículo 149.1.1 de la Constitución no se opone a la que para las Comunidades Autónomas se deriva del artículo 3.2 de la Constitución y de sus respectivos Estatutos de Autonomía, y en concreto, para el País



Vasco, del juego entre el artículo 3.2 de la Constitución y los números 1 y 2 del artículo 6º de su Estatuto.» (KAre 82/1986 Epaia, 4. oinarri juridikoa).

Beraz, KAK epai honetan ofizialtasunaren arauketarako organo eskudunak autonomia erkidegoetakoak zirela argi eta garbi utzi zuen, eta baita eskuduntza hori, ez bakarrik EKren 3.2 artikulutik, baizik eta baita EHAren 6. artikulutik ere eratorzen zela. Azken artikulua honek dioenez, EAEn organo eskudun horiek erakunde amankomunak izango dira. Autonomia Erkidegoko erakunde amankomunek eskuduntza hau egikaritzean aterako duten legediak EAEn kokaturik dauden aginte publiko guztiak binkulatuko ditu. Eta zentzuzkoa da, zeren ofizialtasun bikoitza EAEn kokaturik dauden aginte publiko guztietara hedatzen baita, Estatu zentralari dagozkionak barne.

Bestelakorik pentsa badaiteke ere, honek ez du zertan aginte publikoen arteko konpetentzi zapalketarik suposatu. EAeko erakunde amankomunek eskuduntza hau egikaritzean ezin izango dute beste aginte publikoei dagozkien eskuduntzetan muturririk sartu. Bakoitzak bere eremu konpetentzial berezitua du, eta eremu hori ez dago elkarri zapaltzerik.

Zentzu horretan, erakunde amankomunek ofizialtasun bikoitzaren erregimen juridikoa arautzeko eskuduntza izango dute, baina gero, aginte publiko bakoitzari egokituko zaio legedi edo araudi horren aplikazioa, norbere zerbitzuak ofizialtasun bikoitzak eskatzen dituen eskakizunetara moldatuz. Konstituzio Auzitegiak, Epai berean, gai honi buruz ere bere iritzia emateko parada izan zuen:

«Es evidente que ninguna Comunidad Autónoma puede encontrar en la regulación de la materia lingüística una competencia que la habilite para dictar normas relativas a la organización y funcionamiento de la Administración estatal, como puede hacerlo respecto a la propia Administración autonómica, e incluso a la local, en virtud de lo que establezcan los respectivos estatutos. Pero *sí puede la Comunidad Autónoma determinar el alcance de la cooficialidad*, que se deriva inmediatamente de la Constitución y de su Estatuto de Autonomía y es inherente al concepto de aquélla, *correspondiendo a la Administración estatal la ordenación concreta de la puesta en práctica de aquella regulación legal en cuanto afecte a órganos propios*. La instauración por el artículo 3.2 de la

Constitución de la cooficialidad de las respectivas lenguas españolas en determinadas Comunidades Autónomas tiene consecuencias para todos los poderes públicos en dichas Comunidades, y en primer término el derecho de los ciudadanos a usar cualquiera de las dos lenguas ante cualquier Administración de la Comunidad respectiva con plena eficacia jurídica. *Puede ésta, pues, enunciar este derecho y, junto a él, el consiguiente deber de todos los poderes públicos (estatales, autonómicos o locales) radicados en la Comunidad de adaptarse a la situación de bilingüismo constitucionalmente prevista y estatutariamente establecida.*» (KAren 82/1986 Epaia, 5. oinarri juridikoa).

Epai garrantzitsu hau alde batera utzita, eta EHAren 6.2 artikulua edukia azterketarekin bukatzeko, bertan egoera soziolinguistikoaren ñabardurei buruz egiten den erreferentzia xehetasun bat edo beste ematera goazkizue.

Cobrerosek<sup>281</sup> adierazi duenez, aniztasun soziolinguistikoaren gainean egiten den aipamenak bi interpretazio desberdin onartzen ditu: hedakorra bata, eta murriztailea bestea.

Interpretazio murriztailearen arabera, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa, momentuko hizkuntz *statusari* eusteko bakarrik izango da kontuan. Helburu nagusia, hizkuntzen egoera dagoen moduan mantentzea izango litzateke, euskarak urteetan zehar pairatu duen etengabeko atzera-egite prozesuari batere jaramonik egin gabe. Interpretazio murriztaile honetan oinarritutako hizkuntz politika batek, gehienez jota, euskararen atzera-egite prozesua eten egingo luke, baina besterik ez.

Interpretazio hedakorrak, ordea, aniztasun soziolinguistikoari buruzko erreferentzia modu aurrerakoi eta positiboan ulertuko luke. Horrela, etorkizuneko hizkuntz erregulazioak EAeko bi hizkuntza ofizialen ezarpen desorekatuaren datutik abiatuz, euskararen atzera egite-prozesua eten ezeze iraulki ere egingo luke, harik eta euskarak bai kondairaz, bai eskubidez, merezi duen lekua berreskuratu arte. Bada, interpretazio hedakorrean oinarrituriko hizkuntz politika baten abiapuntua euskarak gaztelerarekiko duen

---

(281) COBREROS, E. *El euskara en el Estatuto vasco*. Oñati: HAEE/IVAP, 1989, 41. eta hurrengo orr.

gutxiagotasun egoera izango litzateke, eta azken jomuga bi hizkuntza ofizialen parekaketa edo ekiparazioa, hots, elebitasun eraginkor eta benetakoa.

Gure ustez, interpretazio hedakorra murriztailea baino zuzenagoa da zalantzarik gabe. Horra zergatik: 6.2 artikulua garbi dio erakunde amankomunek bi hizkuntzen erabilpena bermatu beharko dutela. Beno ba, euskararen erabilpena nekez bermatuko da baldin eta euskara dagoen putzu sakon eta ilunetik ateratzen ez badugu; eta jakina, hau euskararen normalizazioa eta berreskurapena xedetzat duen hizkuntz politika batek baino ez du lortuko.

**D) 6.3 art.: «Hizkuntza dela eta, ez da inor gutxietsiko»**

Espainiako Konstituzioan gutxiespenaren debekua oro har 14. artikuluan aurrikusten da<sup>282</sup>. Konstituzio testuan sar zedin eginalak egin ziren arren, akaberan, hizkuntza 14. artikuluan espresuki jasotzen diren gutxiespen zioetatik kanpo lotu zen. Ezbairik gabe omisio hau esanguratsua da oso.

Espresuki aipatu ez izangatik ere, gure ustez, hizkuntza 14. artikuluan azaltzen diren gutxiespen zioen artean inplizitoki azaltzen zaigu. Bi dira ondorio horretara garamatzaten arrazoiak.

Alde batetik, KAK onartu lege<sup>283</sup>, 14. artikuluan azaltzen den gutxiespenik sor ezin dezaketen zioen zerrenda, ez da zerrenda hertsia, irekia baizik. Izan ere, artikulua azken aipamenak gutxiespen zioen zerrenda «bestelako baldintza edo egoera pertsonal edo sozialetara» irekirik uzten du, eta hizkuntza gutxiespenik sor ezin dezakeen baldintza pertsonal edo sozial horietako bat dela ez dago zalantzan jartzerik.

Horrez gain, ezaguna denez, Konstituzioaren 10.2 artikulua eraginez, bertan azaltzen diren funtsezko eskubideei buruzko

---

(282) 14. art.: «Los españoles son iguales ante la ley, sin que pueda prevalecer discriminación alguna por razón de nacimiento, raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra condición o circunstancia personal o social.»

(283) Adibidez, KAren abuztuaren 3ko 75/1983 Epaia (3. oinarri juridikoa).

arauak Espainiak berretsiriko nazioarteko hitzarmenen arabera interpretatu beharko dira. Beno ba, Espainiak berretsiriko Nazioarteko Hitzarmen ugarik espresuki hizkuntzarengatiko gutxiespena debekatzen dute: GEAU (2.1 art.), IMGAH (1. art.), EZPNP (26. art.), EGKENP (2.1 art.) eta GEFABEH (14. art.)<sup>284</sup>.

Honenbestez, Konstituzioak -inplizitoki bada ere- hizkuntzarengatiko gutxiespena debekatzen duela ukaezina da. Haatik, badaezpada ere, Euskal Estatutuak Konstituzioaren omisioa 6.3 artikuluan zuzendu zuen, «hizkuntza dela eta ez da inor gutxiesiko» xedatuz.

Konstituzioak eta Estatutuak hizkuntzarengatiko gutxiespena debekatzeak ez du esan nahi, ezta gutxiago ere, hizkuntzagatiko edozein bereizketa zilegi ez denik. Berdintasun printzipioak ez du egoera guztiak berdin-berdin tratatuak izan daitezen eskatzen, berdina dena berdinean eta ezberdina dena ezberdin tratatzea baizik. Berdintasun printzipioa zinez eraginkorra izan dadin, hau da, berdintasun sustantziala lortzeko, sarri-askotan trataera desberdinak ezinbestekoak dira. Izan ere, Konstituzioak bere 9.2 artikuluan aginte publikoei gizabanako eta taldeen berdintasuna erreala eta eraginkorra izan dadin baldintzak sustatzea eta berdintasuna eragozten duten oztopoak gainditzea agintzen dienean, berdintasun sustantzialaren printzipioa aitortu baino ez du egiten.

Oraindik ere, Konstituzioan bada hizkuntzagatiko tratamendu ezberdina legitimatzen duen beste artikulua bat, 3.3 artikulua alegia. Arestian esan bezala, azken hau EKren 9.2 artikulua zehaztapena da, berdintasun sustantzialaren printzipioa hizkuntz arloa dakarrena<sup>285</sup>.

Orduan, bada, alde batetik Konstituzioaren 14, 9.2, eta 3.3 artikuluen indarrez, hizkuntza arloan trataera desberdinak ezarriko lituzketen arauak indarrean jarri ahal izango dira, baina beste alde batetik Konstituzioaren beraren 14. artikulua eta Estatutuaren

---

(284) Ikus 35. or.

(285) Berdintasun sustantzialari buruz ikus EKren 3.3 artikulua esandakoa.

6.5 artikulua hizkuntzagatiko gutxiespena debekatzen dute. Gauzak horrela, noiz gauden bidezko trataera desberdinu baten aurrean, eta noiz trataera diskriminatzaile baten aurrean jakitea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula. Konstituzio Auzitegiak Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren doktrinari jarraituz, dagoeneko finkatu ditu trataera ezberdin bat diskriminatzailea -EKren 14. artikulua aurkakoa beraz- noiz den jakiteko irizpideak. Zehazki, hiru dira trataera ezberdin batek Konstituzio kontrakoa izan ez dadin bete behar dituen baldintzak:

- a) Justifikazio objektibo eta arrazoizkoa izatea.
- b) Lortu nahi diren helburu eta harturiko neurrien arteko proportzionaltasuna.
- d) Lortu nahi diren helburuak babes konstituzionala izan dezatela.

Estatutuaren 6.5 artikulura bueltatuz, hauxe da bertan azaltzen den hizkuntzagatiko bereizkeria debekuaren printzipioaren inguruan bereziki istilutsua suertatu den arazoa: funtzio publikora sartzeko euskararen balorazioa. Edozertara, gai hori azterlan honen objektutik at dagoenez gero, ez dugu horretan lanik hartuko<sup>286</sup>.

**E) 4.4 art.: «Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku emaile.»**

Euskaltzaindia 1918. urtean sortu zen Oñatiko Unibertsitatean egin zen Eusko Ikaskuntzaren Lehen Kongresuan. Bere lehenengo

---

(286) Gai honi buruz ikus besteak beste AGIRREAZKUENAGA, I. El euskera discrimina al castellano a juicio del Tribunal Supremo. La igualdad lingüística efectiva a debate. *RVAP*, 1984, 9. zenb., 241. eta hurrengo orr.; COBREROS, E. Cooficialidad lingüística y discriminación por razón de la lengua. *REDA*, 1984, 42. zenb., 461. eta hurrengo orr.; autore beraren La jurisprudencia del Tribunal Supremo relativa al conocimiento del euskara en el acceso a la función pública. *RVAP*, 1988, 22. zenb., 171. eta hurrengo orr.; PRIETO DE PEDRO, J. El conocimiento de las lenguas propias de las Comunidades Autónomas y extranjeras como requisito de capacidad de los funcionarios de la Administración del Estado. *Llengua i Dret*, 1989, 12. zenb.

lehendakaria Resurrección María de Azkue bizkaitarra izan zen (1919-1951). Ordutik hona Euskaltzaindiaren lehendakaritzatik beste bost pertsona pasatu dira: Ignacio María Echaide (1952-1962), Jose María Lojendio (1962-1966), Manuel Lekuona (1966-1970), Luis Villasante (1970-1988) eta egungo lehendakaria den Jean Haritschelhar.

Euskaltzaindiak bere euskararen aldeko lana -gerrate zibilak eragin zuen etena salbu- gaurdaino etengabeki burutu du. Haatik, «Caudilloa» hil eta gutxirarte ez zuen Estatuko aginteen onespén formalik jaso. Onespén hau otsailaren 20ko 573/1976 Dekretuaren bidez heldu zen<sup>287</sup>. Euskaltzaindiaren onartze dekretuaren eranskinak Euskaltzaindiaren Estatutuak jasotzen ditu. Estatutu edo barne arautegiaren lehenengo artikuluan erakundearen helburuak aipatzen dira<sup>288</sup>. Helburu hauei eraginkortasunez aurre egiteko erakundea bi sail nagusitan banatua dago: euskararen munduaren ikerketa helburutzat duen Iker Saila eta euskararen babesa helburutzat duen Jagon Saila (2. art.). Barne araudian, besteak beste, erakundearen izaera, egitura, osaketa, ordezkaritzak... aipatzen dira<sup>289</sup>.

Beste alde batetik, Gernikako Estatutuaren eratze prozesuaz iharduterakoan ikusi dugun bezala, EHAEn 6.4 artikulua

---

(287) EEO, 1976.eko martxoak 25.

(288) a) Euskararen gramatika legeak ikertu eta mamitzea.

b) Hizkuntza honen idazlangintzarako argibideak eta arauak ematea.

c) Hiztegia biltzea.

d) Bai hiztegian eta bai gramatika eta grafian ere, literatur hizkera batura heltzeko lan egitea.

e) Euskararen enplegua aitzinatzea.

f) Hizkuntzaren eskubideak zaintzea.

g) Hizkuntza, gizarte maila guztietan gai bihurtzeko, lan egitea.

h) Literatur eta ikas-lehiaketak eragitea.

i) Filologia eta linguistikako estudioak sustatzea, euskara eta euskal literaturaren iraskas-aulkiak sortuaz.

j) Hartako titulu eta ageriak ematea.

(289) Euskaltzaindiaren aspektu hauen berri izateko, ikus *Euskaltzaindiaren arautegi eta barne-erregelak*. Bilbo, 1982.

Diputatuen Kongresuan burutu zen legebiltzar izapidetzan aldaketa garrantzitsu bat pairatu zuen. Konkretuki, egitasmoaren erredakziotik Euskaltzaindiari erakunde aholku emaile bezala eskusibotasuna ematen zion atzizki mugatzailea ezabatu zen. EAJk eta UCDe bultzatu zuten aldaketa honek, euskararen munduan antzeko zeregina burutzen duten bestelako erakundeei, euskarari dagozkionetan, erakunde aholku emaile izateko ateak zabalik uzten dizkie<sup>290</sup>.

Bukatzeko, Euskaltzaindiak 75 urte hauetan zehar euskararen alde eginiko lanaren garrantzia nabarmendu nahi dugu eta, batez ere, euskararen batasunaren alde eginiko lana. Izan ere, euskara batuaren sorkuntza Euskaltzaindiak bere gain hartu duen zeregin garrantzitsu eta aldi berean eztabaidatuena izan da. Ezin uka daiteke euskara batuaren inguruan hika-mika ugari sortu dela, baina hala ere, eta batasun hori nola egin den eta nola egin behar zen eztabaidatzen hasi barik, gauza bat argi dago, euskararen batasuna eta normatibizazioa euskararen normalkuntzarako ezinbestekoa zela. Euskara nekazal mundutik atera, eta gaur egungo gizartearen eskakizunetara egokitu beharra zegoen, zeren euskara gizarte funtzio guztiak betetzeko gai ez den bitartean, ez baititu hizkuntz ofizialtasunaren eskakizunak aseko, gaztelerarekiko parekatzea ilusio hutsa bihurtuz. Gizarte alor eta egoera guztietan erabilgai izan dadin, ezer baino lehen euskara normatibizatu beharra dago, eta horretan Euskaltzaindiak eginiko lana txalotzeko modukoa da.

**F) Art. 6.5:** «Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzutako ondarea ere izanik, erakunde akademiko eta kulturalerakoak beroiekin izan ditzaketen harreman eta loturez kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoak eskatu ahalko dio Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik daudeneko Estatuarekin itunak eta komenioak egin ditzala

---

(290) Nafarroako Euskararen Legean, ordea, Euskaltzaindiak eskusibotasun horri eusten dio (3. art.).

**-edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko-, horretara euskara zaindu eta bultzat dadin.»**

Euskal Estatutu egitasmoan, euskararen zaintza eta sustapenerako beste euskal lurralde eta komunitateekin zuzenean loturak ezartzeko ahalmena aitortzen zitzaion EAERI (6.6 art.). Hala ere, xedapen honek Diputatuen Kongresuan mozketak erabakiorra jasan zuen. Mozketak honen eraginez, beste lurraldeekin loturak ezartzeko, Konstituzioak nazioarteko hitzarmenei buruz xedatutakoaren ildoari jarraitu behar izango dio EAER. Hala, bada, EAERI hitzarmen horiek Estatuko gobernuak burutu ditzan eskatzeko eskubidea besterik ez zaio aitortzen. Eta jakina eskatzea libre da; gero eskari horri emango zaion erantzuna beste kontu bat da, Estatuko gobernuak eskari horiek asetzeko inolako obligazio juridikorik ez dauka eta. Ikus daitekeenez, honetan ere azken hitza Madrilgo gobernuak du.

Euskararen Normalkuntzarako Oinarrizko Legeak, lehen xedapen gehigarrian gai hau berreskuratu du. Edozelan ere, artikulua honen erredakzioa ez da Estatutuarena bezain handizalea. Xedapen bien azken xedea euskararen babespena eta sustapena izanik ere, honakoan ez da Espainia eta euskara ondareztat duten gainerako estatuen arteko hitzarmen eta komenioez hitz egiten, Eusko Jaurlaritza eta euskararen aldeko lana burutzen duten erakunde eta aginteen arteko lotura kulturalaz baizik. Konkretuki honela dio:

E.G. 1º: «Jaurlaritza, bere agintepideen hesparruan, Autonomia-Elkartearen mugartetik kanpo ihardun eta euskerarekiko ikerlan, babes eta sustapen-ekintzapidetan ihardun dezaten irakundeen edo agintaritzen lankide izango da, horretarako kultura-atxikipenak antolatuz».

Euskararen Normalkuntzarako Legearen Lehen Erabaki Gehigarriaren arauzko garapena, abenduaren 15eko 370/1987 Dekretuaren bidez gauzatu zen. Dekretu honek, EAERtik kanpo euskaldun lurraldeetako erakundeekin kultur-atxikipenak antolatzeko



eginbearra Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiari egozten dio<sup>291</sup>.

---

(291) 15. art.: «Euskal Herriaren soziokulturazko batasunari sendo eusteko eta bere etnolinguistikazko bizitasuna indartzeko, Euskararen Aholku Batzorde osoa entzun ondoren honako ekintza hauek bideratzeko ahalmena du Hizkuntz Politikarako Idazkaritza Nagusiak:

a) Ikerlanez edo jagoletzaz euskalgintzan diharduten Nafarroako Herri-Aginteekin Eusko Jaurlaritzak bere aginpide-alorrean eratuko dituen kulturazko lokarri-harremanak bideratzen saiatu eta indartzea.

b) Gainerako Euskal Lurraldeetako erakunde eta Herri-Aginteekin Jaurlaritzak, Legeak ezarritako ildotik, ezar ditzakeen lokarri-harremanak eratzeke beroni proposamen jakinak aurkeztea.

c) Jaurlaritzari beste nonnahiko bizigune elebidunekiko harreman-bideak sendotzeko proposamenak aurkeztea, hizkuntz aniztasuna aintzat hartuko duten herriarteko politika-neurriak indartu asmoz.»

**VI**  
**EUSKARAREN ERABILPENA**  
**ARAUZKOTZEKO OINARRIZKO**  
**LEGEA**

## 6.1. LEGEBILTZAR AURREKARIAK ETA KONSTITUZIO-KONTRAKOTASUNEZKO HELEGITEA

Euskararen Legea izenarekin eskuarki ezaguna den azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, ohikoa baino legebiltzar izapidez-tza luzeagoa izan zuen. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak lege egitasmoa Legebiltzarrean aurkeztu zuenetik -1981eko ekainak 9-, harik eta osoko bilkurak legea onartu arte -1982ko azaroak 24- kasik urte eta erdi igaro zen. Lege egitasmoari 99 emendakin tarteratu zizkioten. Hauetatik, hamairuk besterik ez zuten aurrera egin<sup>292</sup>: seik legebiltzar batzordean -denak Euskadiko Ezkerrak proposaturikoak-, eta beste zazpi osoko bilkuran -denak Alderdi Sozialistak proposaturikoak-.

Eusko Jaurlaritzak lehenengo momentutik argi eta garbi ikusi zuen ofizialtasun bikoitzaren arauketa bezalako zeregin zaila bere gain hartu beharko lukeen legeak Euskal Herriko gehiengo sozial eta politikoaren laguntza eta oniritzia izan behar zuela. Horretarako euskarak sektore baten tresna politiko eta ideologikoa izateari utzi behar zion euskotar guztien ondare kulturala bihurtzeko. Euskara borroka politikotik atera, eta euskotarren batasunerako tresna edo lokarri bihurtu beharra zegoen.

Euskararen berpizkundeak guztion konpromezua eta elkarlana eskatzen zuen, bai abertzaleena, eta baita ez-abertzaleena ere; eta

---

(292) Emendakin hauen eta, oro har, legebiltzar izapideen berri izateko ikus FIGUEROA LARAUDOGOITIA, A. *Leyes y documentos de la 1.ª Legislatura del Parlamento Vasco (1980-1984)*, 2. alea. Oñati: HAAE/IVAP, 1984.

egia esateko, hein handi batean helburu hori lortu zen. Izan ere, Euskararen Legearen inguruan Eusko Legebiltzarrak lortu zuen adostasuna ia erabatekoa izan zen, «Alianza Popular»ek salbu, gainerako legebiltzar talde guztiek legea onetsi baitzuten. Horren kontuzkoa eta labainkorra zen gai hartan, ideologikoki hain ezberdin ziren alderdiek erdietsi zuten adostasuna sekulako lorpena izan zen, euskarak beti eskertuko duen lorpena gainera.

Hala ere, guztion harridurarako, onartu bezain agudo Euskararen Legeak Madrileko Gobernutik kolpe latza jaso zuen. Gobernuko Presidenteak -Felipe González sozialistak- Legearen aurka Konstituzio-kontrakotasun helegitea tarteratu zuen. Helegite honez baliatuz Madrilgo Gobernuak, euskal sozialistek Eusko Legebiltzarrean eginiko lana zelanbait kolokan jarri zuten, zeren Gobernuak aurkaturiko zazpi prezeptuetatik lauk euskal sozialisten oniritzia jaso baitzuten ordurako<sup>293</sup>.

Edozertara, hainbestetan aipatu dugun 82/1986 Epaian, KA ia puntu guztietan Euskal Autonomia Erkidegoak hartutako jarre-  
ren alde atera zen. Legearen hiru xedapen baino ez ziren Konstituzio aurkakoak deklaratu, 6.2, 8.3 eta 12.1 artikulua<sup>294</sup> hain zuzen ere. Gainera hauek ez zuten Legearen funtsezko aspekturik ukitzen, hargatik «puede afirmarse claramente que la Ley de Normalización del Euskara salió ‘bien parada’ del recurso presentado ante el intérprete supremo de la Constitución»<sup>295</sup>.

---

(293) Madrilgo Gobernuak aurkaturiko prezeptuak honako hauek izan ziren: 5, 6, 8.3, 9, 12, eta 14.a. Hauetatik Eusko Legebiltzarrean burutu zen izapidetzan, 8.3 eta 14.ak bakarrik jaso zuten euskal sozialisten kontrako botua, gainerakoek hauen oniritzia izan zuten eta.

(294) 6.2 art.: «Elkar hartzerik ez bada, zehaztapidetza edo arazopideketa hasitakoak nahi dezan hizkuntza erabiliko da, bi aldetakoak argipideak bere aukerako hizkuntzan jasotzeko duten eskubidearen kaltetan gabe.»

8.3 art.: «Gorago agindutakoa hala dela ere, udalaren gizartehizkuntzazko egoera dela eta, herritarren eskubideen kalteango gerta ez dedinean, herri-agintariak, Toki-Arduralaritzaren alorrean, euskera bakarrik erabili ahal izango dute.»

12.1 art.: «Jaurlaritzak araupetuko ditu bi hizkuntzen arteko zinpeko itzultzaile-tituloa lortzeko eta emateko baldintzak.»

Madrilgo gobernuak tartearritako Konstituzio-kontrakotasun helegitea gora-behera, esan bezala, Euskararen Legeak Euskal Herriko indar politiko eta gizarte sail gehien atxekimendua lortu zuen. Lege hori garatu eta aplikatzeko orduan sortu izan dira bene-tako istilu eta liskarrak. Batzuen ustez mantsoegia delako, beste batzuen ustez, ordea, azkarregia delako, inor gutxi dator bat Euskararen Legeak izan duen aplikazio erritmoarekin. Eta hori ez da txarrena, azken bolada honetan gero eta gehiago dira duela 12 urte ia aho batez harturiko erabakien aurka azaltzen direnak eta legea berraztertzea eskatzen dutenak<sup>296</sup>.

## 6.2. EZAUGARRI OROKORRAK

KAK adierazi moduan<sup>297</sup>, Konstituzioaren 3.1 eta 3.2 artikuluek eta berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetako estatutuek, hizkuntz ofizialtasun bikoitzaren lerro nagusiak ezartzen dituzte. Baina jakina, lerro nagusi horiek hiritarrari zuzenean aplika dakizkiokeen xedapen bihur daitezten, lege-garapen egokia behar dute.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, lege-garapen hori 1982ko Euskararen Legean gauzatu da. Honek EHAren 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Euskal Autonomia Erkidegoan barrena hizkuntz ofizialtasun bikoitza arautzen du; edo beste era batera esanda, Euskararen Legeak ofizialtasun bikoitzak dakartzan ondorio juridikoak ezartzen ditu.

Euskal Herrikoa ez da hizkuntza gaiak arautu dituen autonomia erkidego bakarra, berezko hizkuntza duten gainerako erkidegoek

---

(295) COBREROS, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*, 105. or.

(296) Alderdi politikoaren artean, nabarmentzekoa da Partido Popularrek eta Unidad Alavesak Euskararen Legea eta honen aplikazioaren aurka azaldu duten jokabidea.

(297) «...el artículo 3.1 y 2 de la Constitución y los artículos correspondientes de los respectivos Estatutos de Autonomía son la base de la regulación del pluralismo lingüístico en cuanto a su incidencia en el plano de la oficialidad en el ordenamiento constitucional español» (KAre 82/1982 Epaia, 1. oinarri juridikoa).

ere -Kataluniak, Galiziak, Valentziak, Balear Irlek eta Nafarroak-hizkuntz ofizialtasuna legez arautu dute<sup>298</sup>. Autonomia erkidego hauen egoera soziolinguistikoa arras desberdina izan arren, Nafarroako Legea salbu, gainerako legeen antzekotasuna ondo nabarrena da<sup>299</sup>.

Legearen izenburutik igerriko zenutenez, Euskararen Legea ez da hizkuntz ofizialtasun bikoitza arautzera mugatzen, bere helburua harago doa, handinahikoagoa da, euskararen normalkuntza edo normalizazioa<sup>300</sup> lortzea, alegia<sup>301</sup>. Aurrera jarraitu aurretik, normalkuntza kontzeptuaren alkantzeari buruz zenbait argibide emateari komenigarria deritzogu.

Hasiera batean hizkuntz normalkuntza, hizkuntzaren barne arauak -gramatikalak, lexikoak, ortografikoak...- ezartzen dituen erabaki multzoa adierazteko erabili ohi zen. Urteak joan urteak etorri, «normalkuntza» berbaren esangura aldatuz joan da. Hala, gaur egun hizkuntz normalkuntza beste hizkuntza indartsuago baten presentziaren eraginez gutxiengotasun egoeran dagoen hizkuntzaren berrezartze eta suspertze prozesua adierazteko erabiltzen da. Dagoeneko hizkuntzaren barne araudia adierazteko ez da

---

(298) Katalunia: «Ley 7/1983, de 18 de abril, de normalización lingüística de Cataluña».

Galizia: «Ley 3/1983, de 15 de junio, de normalización lingüística de Galicia».

Valentzia. «Ley 4/1983, de 23 de noviembre, sobre uso y enseñanza del valenciano».

Balear Irlak: «Ley 3/1986, de 29 de abril, de normalización lingüística de las Islas Baleares».

Nafarroa: «Ley foral 18/1986, de 15 de diciembre, del vascuence».

(299) Estatuko hizkuntz normalkuntzarako legeen ikuspegi orokorra izateko ikus SIGUÁN, M. *España plurilingüe*. Madrid: Alianza, 1992.

(300) Gure artean, erdarazko *normalización* hitzetik sorturiko *normalkuntza* edo *normalizazio* mailegua hedatu da, eta ez Legearen izenburuan azaltzen den euskal ordaina, *arauzkotu* eta eratorriak.

(301) «La Ley 10/1982 del Parlamento Vasco no es sólo de cooficialidad, sino que tiene (como su nombre indica) un objeto más amplio, a saber, la normalización del euskera.» (KAre 82/1986 Epaia, 7. oinarri juridikoa).

*normalkuntza* hitza erabiltzen, *normatibizazio* hitza baizik. Hortaz, hizkuntz *normatibizazioak* hizkuntzan bertan eragiten duen bitartean, hizkuntz *normalkuntzak* hizkuntzaren erabileran eragina duela esan daiteke. Anglosaxoniarraren terminologia erabiliz, hizkuntz *normalkuntzak* *status planningari*, eta hizkuntz *normatibizazioak* *code planningari* eragiten diote erreferentzia.

Hizkuntz *normalkuntza* hizkuntzaren erabileraz, eta ez hizkuntzaren barne arauaz, kezkatzen dela argitu eta gero, jarrai dezagun Estatu mailan aurrenengo aldiz *normalkuntza* kontzeptua legeztatutako duen 1982ko Euskararen Legearen azterketa egiten.

Esan bezala, Euskararen Erabilpena Arauzkotezko Legearen asmoak ofizialtasun bikoitza arautzeaz haraindi doaz. Izenburuak berak adierazten duenez, ofizialtasun bikoitza arautzeaz gain, Euskararen Legearen asmoa euskararen *normalkuntza* edo berrezartze prozesua arautzea da. Azaltzen zaigun galdera zera da: zein da *normalkuntza* prozesu honen azken xedea? Noraino heldu behar du euskararen berrezarketak?

*Normalkuntza* prozesuaren helburua ez da gizarte euskaldun ala erdaldun elebatar bat lortzea, izan ere, Euskararen Aholku Batzardeak adierazia duenez, «egungo egoeratik abiatuta, gizarte elebiduna eraikitzea, hau da, elebidunez osatutako gizartearen garatzea, hizkuntza bat zein bestea erabiltzeko gai izango den herria egitea da Euskal Autonomia Erkidegoak Euskal Herriari opa dion helburua»<sup>302</sup>.

Bada, Euskararen Legeak arautzen duen *normalkuntza* prozesuaren azken xedea, eta orobat, euskal aginte sailak burutzen ari diren hizkuntz politikaren azken xedea hitzun guztiek eskubide berak izango dituzten benetako gizarte elebiduna eraikitzea da. Eta jakina, erabateko elebitasun hori erdiesteko, aginte publikoek ezer baino lehen egun euskara eta gaztelaniaren artean dagoen

---

(302) *Euskararen politikarako oinarritzko irizpideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1933, 10. or.

desoreka zuzenduko beharko dute, euskararen aldeko ekintzak sustatuz<sup>303</sup>.

Edozein kasutan, gizarte bat elebiduntzea ez da nolnahi egin daitekeen gauza. Elebiduntze prozesua inoren eskubide demokratikoak kaltetu gabe burutu beharreko lana da. Horrexegatik, ezer baino lehen, elebidun bilakatu beharreko herrialdearen momentuko egoera soziolinguistikoari erreparatu behar zaio. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, errealitate soziolinguistikoak ez digu datu pozgarriegirik ematen gaur egun.

Zentzu horretan, euskal legebiltzarkideek Euskararen Legea onartu zutenerako, euskal errealitate soziolinguistikoa ikusirik, Legearen eduki guztiak berehala praktikan jartzea ezinezkoa zela konturatu ziren. Hori dela eta, Legean behin baino gehiagotan esaten da bere ezarpena ezarian-ezarian izango dela<sup>304</sup>. Pixkanakako edo pausoz pausoko ezarpen honen adibide gisa hona hemen Legearen aldi baterako bigarren erabakiak zer dioen:

«Jaurlaritzak, tokiko herri-agintariek eskatuta, eta tokiko gizarte-hizkuntzarekiko egoerari bereziki begiraturaz, Lege honetan Konstituzioaren edo Estatutuaren aginduz noraezeko izan ez daitezen atalen batzuk egiteratzea aldi baterako barkatu ahal izango du, bere agintepide-eremuaren barruan.»

Nolanahi ere, ez da zilegi Legearen ezarpenean errealismoa eta progresibitatea beharrezkoak direnaren aitzakiaz baliatzea legea edukirik gabe uzteko. 2. aldi baterako erabakian azaltzen den

---

(303) Zentzu honetan, Konstituzio Auzitegiak Kataluniako Normalkuntzarako Legeari buruz zera esan berri du: «Nos encontramos, pues, ante una Ley cuya finalidad es la de corregir y llegar a superar los desequilibrios existentes entre las dos lenguas cooficiales en la Comunidad Autónoma.» (KAre abenduaren 23ko 337/1994 Epaia, 8. oinarri juridikoa). Bistan da KAK Kataluniko Legeari buruz esandakoa Euskararen Legeari ere zuzen-zuzen aplikatu dakiokoela.

(304) Zehazki, progresibitatearen ideia, nola edo hala ondorengo xedapenetan azaltzen zaigu: 6.1, 14.1, 15, 20.1, 22, 25. artikuluetan eta bigarren aldi baterako erabakian.



«progresibitate klausula» ez da administrazioei nahi dutena egin dezaten ematen zaien «txeke zuria». Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokaturik dauden administrazio guztiek bere egiturak ofizialtasun bikoitzaren eskakizunetara egokitu beharko dituzte, eta «si la utilización del euskera, en su caso, por los administrados, puede ocasionar dificultades en el seno de la Administración, tanto estatal como autonómica, tales dificultades son resultado de una decisión constitucional y no pueden ser motivo para convertir a ésta en irrelevante»<sup>305</sup>.

Euskararen Legearen barna azaltzen diren «arian-ariko ezarpen klausulen» helburua, hortaz, ez da administrazioa ofizialtasun bikoitzaren eskakizunetatik salbuestea, baizik eta denbora luzean elebakartasunean murgilduta egon den administrazio aparatua elebitasunaren eskakizun berrietara moldatzeko prozesua erraztea.

Euskararen Legearen ezaugarri orokorren azterketa bukatzeko, Legearen egiturari arreta egingo diogu.

Ohikoa den legez, Legeari hitzaurreak ematen dio hasera. Hitzaurre honetan, Legearen edukiei eta helburuei buruzko argibideak ematen dira. Ondoren Legearen alde xedagarria dator. Alde xedagarri hau hiru titulutan banaturiko 30 artikuluk, hiru erabaki gehigarrik, aldibaterako bi erabakik, baliogabetze erabaki batek eta azken erabakiak osatzen dute.

Aitzin-tituluan Estatutuaren 6. artikuluan xedatutakoa errepikatu baino ez da egiten (1-4. artikulua). Lehenengo tituluan, herritarren funtsezko hizkuntza eskubideak sailkatzen dira (5. art.), hauen eraginkortasunaren erantzule aginte publikoak egiten direlarik. Bigarren tituluak, azkenik, aginte publikoek gizarte sail ezberdinetan burutu beharreko ihardunak arautzen ditu. Bigarren titulu hau bost kapitulutan banatua dago:

Lehenengoa. «Euskera Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko lur-eremu barruko herri-arduralaritzan erabiltzeaz» (6-14. artikulua).

---

(305) KAren 82/1986 Epaia, 8. oinarri juridikoa.

Bigarrena. «Euskeraren irakaskuntzango erabilpena» (15-21. artikulua).

Hirugarrena. «Euskeraren gizarte-adierazpideetango erabilpena» (22-25. artikulua).

Laugarrena. «Euskeraren gizarte-erabilpena eta erakunde-alarreko beste alderdi batzuk» (26-29. artikulua).

Bostgarrena. «Euskeraren idatzitako hizkuntza ofiziala deneko erabilera» (30. art.)

Azterlan honen ondorioetarako batez ere interesatzen zaigun kapitulua bigarrena denez gero, goazen beste barik Euskeraren Legeak hezkuntza arloan xedatzen duena aztertzeraz.

### **6.3. EUSKARAREN ERABILPENAREN IRAKASKUNTZAN**

Dituen mugak eta guzti, eskola hizkuntza prozesuaren eragile garrantzitsuenetakoa da, akaso garrantzitsuenak. Horra hizkuntza normalkuntza gizartratzea ezinezko langintza izango da, baldin eta aurretiaz edo aldi berean hau eskolara eramaten ez bada. Euskararen erabilpena araukatzeko Legeak hau aintzat hartu du, eta horregatik irakaskuntzaren arloari garrantzi berezia eman dio. Euskararen Legeak irakaskuntzaren gaineko gaiak II. kapituluaren garatzen ditu, 15etik 22ra bitarteko artikuluetan hain zuzen ere.

Euskararen Legeak ikasle guztiei, irakaskuntza maila guztietan irakaskuntza euskaraz zein gazteleraz hartzeko eskubidea aitortzen die (15. art.). Beraz, legeak ikasleari irakaskuntza zein hizkuntza ofizialean jasoko duen hautatzeko eskubidea ematen dio. Ikaslearen hautatze eskubide hori bermatzeko, ikasleek hautaturiko hizkuntzen arabera Jaurilaritzak hezkuntza-sistema irakastereduka banatuko du (16.2 art.). Horrela, bada, euskara irakas-hizkuntza hautatu dutenei irakasteredu bat egokituko zaie (D eredia), eta gaztelania irakasbidetzat hautatu dutenei beste bat (A eredia). Eta hori ez da dena, aurrerago ikusiko dugun legez, hizkuntza biak -euskara eta gaztelania- irakas-hizkuntzat hartuko dituen ikasteredurik ere bada, B eredia hain zuzen.

Nahiz eta hezkuntza-sistema hizkuntz-eredu desberdinetan banatu, Unibertsitateko ikasketak bitarteko irakaskuntzan, ikasketak burutzeko aukeratu ez duten hizkuntza ofiziala ere irakatsi beharko zaie ikasleei (16.1 art.). Hau da, ereduak eredu, bi hizkuntza ofizialen irakaskuntza derrigorrezkoa izango da, eta ez hori bakarrik, Jaurlaritzak, ikasleagoak Bigarren Hezkuntza amaitzerakoan bi hizkuntza ofizialak eguneroko bizitzan erabiltzeko beste dakizkiela bermatzeko neurriak hartuko ditu<sup>306</sup>. Ikasketak EAetik kanpo hasi dituzten ikasleei edota bere ohiko egoitza Autonomia Erkidegoan ez dutela egiazta dezaten ikasleak bakarrik geratuko dira euskera ikastetik libre (21. art.).

Bada, Euskararen Legeak irakaskuntza mailan lortu nahi duen azken xedea ikasle elebidunak ateratzea da, derrigorrezko ikasketak amaitzerakoan hizkuntza ofizial biak erabiltzeko gai izango direnak.

Estatuan zehar indarrean dauden normalkuntza legeak, oro har, bai egituraz eta bai edukiz nahiko antzekoak dira. Hala ere, irakaskuntzaren arauketari dagokionez, denek ez dute hezkuntza sistema bera ezartzen. Orain arte ikusi dugunarengatik, Euskararen Legeak gure hezkuntza-sisteman «hizkuntz bereizketaren» eredia ezartzen du, hots, ikasleak hizkuntzaren arabera eskola unitate desberdinetan bananduak izango dira. Katalunian, berriz, ez da horrelakorik gertatzen. Ikasleak ez dira hizkuntzen arabera bereizten, guztiak eskola-unitate berean elkarrekin mantentzen dira, nahiz eta ikasleek lehen irakaskuntza hartzeko hautaturiko

---

(306) Oinarrizko ikasketak amaitutakoan ikasleek bi hizkuntza ofizialak ezagutu behar izanak ez da euskal legegileei otu zaien bapateko burutazioa, Konstituziotik eta Autonomi Estatutuetatik eratortzen den betebeharra baizik. KAK onartu duen legez: «...el deber que se deriva de la Constitución y de los Estatutos de Autonomía en este ámbito es que los poderes públicos aseguren, al término de los estudios básicos, que los estudiantes conozcan suficientemente y puedan usar correctamente una y otra lengua cooficial en la Comunidad.» (KAreN 337/1994 Epaia, 12. oinarrizko juridikoa).

hizkuntza desberdina izan. Azken honi, «hizkuntz konjuntzioaren» edo «elebitasun integralaren» eredu deritzo.

Katalanaren Normalkuntzarako Legeak<sup>307</sup> umeei lehen irakaskuntza beren ohiko hizkuntzan hartzeko eskubidea aitortzen die, hau katalana nahiz gaztelania izan (14.2 art.). EAEn gertatzen dena ez bezala, Kataluniako legeriak ez du, hertsiki hartuta, irakaskuntza burutuko den hizkuntza ofiziala aukeratzeko eskubiderik aitortzen, aitortzen duena lehen irakaskuntza norbere ohiko hizkuntzan jasotzeko eskubidea da, besterik ez<sup>308</sup>. Dena den, praktikan egungo Kataluniako hezkuntza sistemak ikasleei lehen irakaskuntza osotzen duten irakasmailetan irakasbide izango duten hizkuntza ofiziala hautatzeko aukera ematen die, baina, hori bai, Lehen Hezkuntzan bakarrik.

Honetaz gain, ikasleak hizkuntzaren arabera ikastetxe desberdinetan bananduak izan ez daitezen administrazioak neurriak hartu beharko dituela dio Kataluniako normalkuntzarako Legeak 14.5

---

(307) Kataluniako hezkuntza sistemaren konstituzionaltasunari buruz ikus VI. kapituluaren esan duguna.

(308) SIGUÁNen iritziz, eskubide biak ondorio berak dakartzate «dado que el derecho a recibir la enseñanza en una lengua sólo se hace efectivo si el padre o el propio alumno lo reclama y evidentemente puede renunciar a reclamarlo, lo que queda en definitiva es la libertad de elección». SIGUÁN, M. *La España plurilingüe*, 93. or.

Haatik, SIGUÁNen baieztapenak matizazio bat behar du. Izan ere, irakas-hizkuntza hautatzeko eskubideak eta nork bere ohizko hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubideak, ez dituzte aginte publikoak hein berean lotesten, zeren arrazoi osoz MILIÁN i MASSANAK esaten duenez, «La Ley catalana compromete jurídicamente a los poderes públicos (en especial a la Administración regional) y los obliga a proveer de los medios necesarios (escuelas, aulas, personal docente) que permitan ejercer efectivamente el derecho de recibir la enseñanza en la lengua habitual durante la primera enseñanza, pero no garantiza, en cambio, la disponibilidad de medios materiales y personales suficientes que permitan ejercer la libre elección». MILIÁN i MASSANA, A. *Derechos lingüísticos y derecho fundamental a la educación. Un estudio comparado: Italia, Bélgica, Suiza, Canadá y España*. Madrid: Civitas, 1994, 395. or.

artikuluari. Eta ez hori bakarrik, ikasleek ondo dakiten neurrian katalana irakaskuntzan gero eta gehiago erabiliko dela ere badio.

Orduan, bada, Kataluniako agintariek, elebitasun integralaren ereduarekin lehen irakaskuntza burutzeko gaztelania hautatu duten ikasleak katalanarekin erlazionatuz joan daitezten lortu nahi dute, gerora katalana ongi dakiten neurrian, katalana irakaskuntzaren irakas-hizkuntza nagusia bihurtzeko<sup>309</sup>.

Ikasleak hizkuntzaren arabera ez bereizteak, hots, elebitasun integralaren ereduak, KAK onartu duen bezala, bai pedagogikoki -tolerantzia eta elkarbizitzaren sustapena- eta bai sozialki -kataluniar eta gazteluniar komunitateen integrazioa-, onura garrantzitsuak ekar ditzake. Hala ere, zuhurtziaz eta tentu handiz aplikatu ezik, onurak galbide -hizkuntz inposaketa eta marginazioa- bihurtu daitezten arriskua dago.

Hizkuntz konjuntzioaren eredu aplikatzeko, aurrez baldintza batzuk bete behar dira, hala nola irakasleko elebidun nahikoa, hizkuntzen hurbiltasun linguistikoa, bitarteko materialak eta berezko hizkuntzaren hiztun kopuru garrantzitsua. Zoritzarrez Euskal Autonomia Erkidegoan aipatutako baldintzak betetzen ez zirenez gero, Euskararen Legeak bestea lortu ezinean hizkuntz bereizketaren ereduaren alde egin zuen apostu. Edozelan ere, Jaurilaritzak ezarritako ikastereduen artean elebitasun integralaren ereduari jarraitzen dion bat bada, B eredu alegia, non ikasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk erdaraz hartzen dituzten ikasleek.

Bestetik, Euskararen Legeak II. kapituluari irakaslearen gaia jorratzen du. Argi dago Legearen 15. artikulua aitortzen duen irakaskuntza euskaraz hartzeko eskubidea bermatzeko irakasleko

---

(309) Asmo honen adierazgarri Kataluniako Generalitateak martxoaren 9ko 75/1992 Dekretuaren 3.1 artikulua da non zera xedatzen den:

3.1.º «El catalán como lengua propia de Catalunya también lo es de la enseñanza. Se utilizará normalmente como lengua vehicular y de aprendizaje de la educación infantil, de la educación primaria y de la educación secundaria obligatoria».

euskalduna behar dela. Ezaguna denez, irakaslegoaren euskalduntzea bi erataro egin daiteke: batetik irakaskuntza lanetan diharduten irakasleei euskara irakatsiz, eta bestetik, irakasle berriei euskaraz jakitea esijituz. Euskararen Legeak aukera biak aurrikusi ditu 19. eta 20. artikuluetan<sup>310</sup>.

Azkenik, bakarrik gogoratu irakaskuntzari buruzko kapitulu honetan ere aurki daitezkeela Legearen hainbat zatitan azaltzen zaizkigun progresibotasunari buruzko erreferentziak. Horrela, 15. artikulua bigarren pasartean «Legebiltzarrak edo, hala badagokio, Jaurlaritzak, elebitasuna arian-arian Euskal Herriko Autonomia-Elkarteko hezkuntza-erapidetza osora hedatu dedineko xedezko neurri egokiak hartuko ditu»ela dio. Halaber, 19. artikulua, irakaslegoaren euskalduntzea ere arian-arian burutu beharreko eginbeharra dela gaineratzen du.

#### 6.4. EUSKARAREN LEGEAREN ARAUZKO GARAPENA

Euskararen Legeak irakaskuntza arloan garapen luze-zabala izan du. Horren adibide hor daude Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak burutu dituen programa eta ekintzak: IRALE (Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntze Programa), NOLEGA (Normalizazio Legearen Garapena), EIMA (Euskal Ikasmaterialgintza), EIFE (Elebiko Irakastereduen Ebaluazioa), HINE (Hizkuntza Idatziaren Neurketa Eskolan) eta beste batzuk.

Hezkuntza Sailak bultzaturiko programa eta ekintza horiek guztiak sakon aztertzeak berariazko azterketa bat beharko lukeenez

---

(310) 19. art: «Irakasleen gaikuntzarako unibertsitate-eskolek irakasleak bere berarizkotasunak eskatzen duenaren arauera euskeraz eta gazteleraz erabai izan daitezela lortzeko egokituko dituzte bere ikasketa-egitarauak.»

20. art: «Jaurlaritzak, irakaskuntza euskeraz hartzeko eskubidea egiteratzeko, irakasleak arian-arian gehiago euskalduntzeko bideak jarriko ditu.

Halaber, eta Lege honen 15. eta 16. ataletan oharmandakoa betetzeko, euskeraz jakitea nahitaezko izango duten lantoki edo irakaskuntza-gelak zehaztuko ditu.»

gero, lan honetatik kanpo utzi ditugu. Atal honetan ukituko ditugun alderdiak honako hauek izango dira:

1. Ezarritako irakastereduak.
2. Irakaslegoaren euskalduntze prozesua.
3. Hezkuntza administrazioaren euskalduntzea.

#### 6.4.1. Ezarritako irakastereduak

##### 6.4.1.1 Irakastereduen izaera

Euskararen Legearen aurrikuspenak hezurmamitzeko asmoz, Elebitasun Dekretua deritzon 1983ko Dekretuak<sup>311</sup> hizkuntzaren araberrako hiru irakasteredu desberdin ezarri zituen euskal hezkuntza sisteman<sup>312</sup>:

A EREDUA: Irakasgai guztiak -euskara izan ezik- gaztelaniaz landuko dira funtsean. Euskara ikasgai modura beste edozein gai bezala irakatsiko da. Ikasleak beren euskara mailaz nahiko trebaturik badaude, beste irakasgaietako zenbait gai ere euskaraz landu ahal izango dituzte OHoko goi-mailetan. Bestalde, irakasteredu honen hizkuntza helburuak honako hauek izango dira: euskara ongi ulertu, eguneroko egoera arruntetan oinarritzko azalpenak euskaraz eman ahal izateko gaitu, euskararenganako jarrera baikorra indartu, eta ikaslea ingurugiro euskaldunetan txertatu ahal izateko gaitu.

B EREDUA: Bai gaztelania eta bai euskara, biak beste irakasgaiak lantzeko erabiliko diren irakas-hizkuntzak izango dira.

---

(311) Uztailearen 11ko 138/1983 Hezkuntza eta Kultura Sailaren Dekretua, Euskal herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautzeko buruzkoa (EHAA 1983/07/19, 108. alea). Elebitasun dekretu hau 1983ko abuztuaren 1eko Aginduak garatzen du (EHAA 1983/06/19).

(312) Egia esan, lege eta dekretu hauek baino lehenagokoa da irakasteredu elebidunen benetako sorrera. Irakasteredu elebidun horien iturbururik urrunena 1978 inguruan jarri beharko litzateke. Hiru eredu ez, lau baizik, tajutu ziren garai hartan, A, B, C eta D ereduak alegia.

Gaztelania, berez, irakurketa-idazketa eta matematika bezalako irakasgaietarako erabiliko da. Euskara beste arloetako gaiak lantzeko, esperientziak, plastika eta dinamika bereziki. Euskara eta gaztelania irakasgai eran ere landuko dira. Hizkuntza helburuak, euskararen ulermen-maila ona lortzea, euskaraz iharduteko trebetasun egokia eskuratzea, eta ondorengo ikasketak euskaraz egiteko gaitzea izango dira.

D EREDUA: A ereduaren alderantzizkoa da. Irakasgai guztiak -gaztelania izan ezik- euskaraz landuko dira funtsean. Euskara bera ere irakasgai moduan landuko da. Hizkuntza helburuei dago-kionez, aurreko eredueta baino handinahikoagoak dira: euskal gaitasuna sendotu, hizkuntza aberastuz eta elkarriketarako nahiz irakaskuntzarako mintzaira bihurtuz; ikasle euskaldunen multzoa indartu, erdal ingurugiroaren erasan-indarrari aurre emanez eta Autonomia Erkidegoko bizilagunen euskalduntze-eragile bihurtuz; eta gaztelaniaren ezaguera egokia eskuratzea.

Edonola ere, Irakaskuntza Ertainetan (BBB, UBI, LH, IEE eta Moduluak) legez B eredurik ez dagoela esan beharra dago. Badaude, ostera, A ereduko ikasle-talde batzuek zenbait ikasgai benetan euskaraz hartzen dutenak, eredu hau -A eredu irmotua edo indartua deitzen dena- eredu elebidunera, -B eredura- hurbilduz.

Bestalde, 1983ko Elebitasun Dekretu eta Aginduak, Euskararen Legeak 21. artikuluan xedatua betez, OHOk ikasketak Euskal Herriko Autonomia Erkidegotik kanpo hasita eduki edo bere ohiko egoitza Autonomia Erkidegoan ez dutela egiazta dezaten ikasleei, euskara ikastea barka dakiekeela esaten dute. Euskararik ikasten ez duen ikaslegoa, X izeneko ereduan sartu ohi da estatistikoki.

#### 6.4.1.2 Irakastereduen bilakaera

Ondoko lerroetan oraindik orain aitaturiko irakastereduek Euskararen Legea onartu zenetik (1982) gaurdaino egin duten ibilbideaz arituko gatzaizkizue. Horretarako, euskal irakas-sistemak




azken hamairu urteotan aurrera daraman hizkuntz antzaldaketaren zenbakizko azalpena eskainiko dizuegu. Aurrena, Eskolaurre (EA) eta Oinarrizko Hezkuntza Orokorrari (OHO) buruzko datuak zuen-ganatu eta komentuko ditugu, eta ondoren Irakasmila Ertainekin (IE) ere gauza bera egingo dugu. Bereizketa hau ez da kapri-txozkoa, bere zergatia badu. EA+OHOn eta IEetan jotzen duten baldintza akademiko eta pedagogikoak ezberdinak dira; adibidez, IEetan ikasletoa helduagoa da, ikasketak espezializazio maila handiagoa dute, legez B eredurik ez dago eta abar. Baldintza horiek guztiak irakasmila bakoitzaren euskalduntze erritmoan nahitaez eragiten dutenez gero, OHO+EA eta IEetan euskalduntze prozesuak izan duen bilakaera bereizturik ikustea merezi du, guk uste. Beste barik, ikus dezagun EA+OHOn azken hamairu urteotako matrikulazio datuek ematen duten taula.

3. TAULA



	I		K		A		S		T		U		R		T		E		A		K	
	1982-83	1983-84	1984-85	1985-86	1986-87	1987-88	1988-89	1989-90	1990-91	1991-92	1992-93	1993-94	1994-95									
<b>Ikasleak</b>	396.169	392.882	386.098	376.224	364.292	350.525	332.297	312.772	293.749	275.948	259.479	224.267	233.976									
<b>Guztira</b>	73.404	41.988	17.184	3.746	3.015	2.610	2.411	2.369	2.380	1.883	2.286	2.387	2.276									
X																						
Ikasleak																						
%	18,53	10,69	4,45	1,00	0,83	0,74	0,73	0,76	0,84	0,68	0,88	0,98	0,97									
EREDUA																						
A	222.744	244.744	253.664	249.384	229.208	209.620	187.434	165.275	145.424	126.761	111.124	98.086	85.816									
Ikasleak																						
%	56,22	62,11	65,70	66,28	62,92	59,80	56,41	52,84	49,50	45,94	42,83	40,16	36,68									
EREDUA																						
B	41.270	39.548	43.872	50.834	57.174	63.378	67.928	71.373	72.343	73.705	7.254	67.939	66.358									
Ikasleak																						
%	10,42	10,07	11,36	13,51	15,69	18,08	20,44	22,82	24,63	26,71	27,95	27,81	28,36									
EREDUA																						
D	58.751	67.308	71.378	72.260	74.895	74.917	74.524	73.755	73.602	73.599	73.555	75.855	79.526									
Ikasleak																						
%	18,53	17,13	18,49	19,21	20,56	21,37	22,93	23,58	25,06	26,67	28,35	31,05	33,99									
EREDUA																						
A + X	296.148	286.026	270.848	253.130	232.223	212.230	189.845	167.644	147.804	128.644	113.410	100.473	88.092									
Ikasleak																						
%	74,75	72,80	70,15	67,28	63,75	60,55	57,13	53,60	50,32	46,62	43,71	41,13	37,65									
EREDUA																						
B + D	100.021	106.856	115.250	123.094	132.069	138.295	142.452	145.128	146	147.304	146.069	143.794	145.884									
Ikasleak																						
%	25,25	27,20	29,85	32,72	36,25	39,45	42,87	46,40	49,68	53,38	56,29	58,87	62,35									
EREDUA																						

ITURRIA: EUSTAT. 1993-94 eta 1994-95 ikasturtekoak. HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

Zenbakizko azalpen horiek irudi bidez emanik, hona hemen eskura daitezkeen adierazpide grafikoak:



#### 4. IRUDIA



## 5. IRUDIA

Adierazitako datuetatik ondorio garrantzitsuak atera daitezke:

- 1982-83 iraskasturtetik hoinainokoan EA eta OHOkoko ikasle multzoa etengabe murriztuz joan da, 369.169 ikasletatik 233.976 ikasletara jaitsiz. Honen ondorioz, irakas-sistemak orain artean ezezaguna zuen fenomeno berri bati aurre egin beharko dio. Ikasle gabeziaz ari gara. Ikasgeletan haur gutxiago izateak ikasgela gutxiagoren beharra eragingo du. Eskola-merkatu atzerakoi baten testuinguruan, ikastetxeek haurrengatik izango duten lehia biziak hurrengo urteetan gure hezkuntza sisteman presio bortitza sorraraz dezake. Presio bortitz horri behar bezala eusteko irakas-

-sistema berregokitzea ezinbestekoa da. Hezkuntza-eskaintza berrantolatu beharko da eta sare bakoitzak -sare pribatuak eta sare publikoak- dagokion proportzioan ikasle eskasiaren zama bere gain hartu beharko du, eskari gabeziak jota ikastetxerik desagertzerik ez badugu gura behintzat.

- Pasa den hamarrurtearen hasieran euskal irakaskuntzan jaun eta jabe zen X eredu<sup>313</sup>, euskal irakas-sistematik zitzu biziko abiadura desagertuz joan da. 1986-87 ikasturterako X eredu<sup>a</sup> ia guztiz suntsiturik zegoen, eta harrezkeroztik legeak aitortzen zion salbuespen izaera inoiz baino argiago azaldu zaigu.

- X ereduaren jaitsieraren eraginez, A ereduak hasieran hazkunde nabarmena izan zuen. Hazkunde horrek 1986-87 ikasturtean jo zuen bere goi erpina, %62,92 portzentaiarekin. Orduetik hona beheranzko joeradun ibilbidea egin badu ere, egun A ereduak ikasle-kopuruz nahiz ikasgelaz nagusi izaten darrai oraindik.

- D eredu<sup>a</sup> azken urteotan etengabe hazi da. Hamairu urteren buruan, %18,53tik %33,99ra igo da eta hazkunde sendo honen ondorioz, D eredu<sup>a</sup> A ereduaren ia pare-parean dago.

- B ereduaren bilakaera D ereduarenaren antzekoa izan da, honek ere urterik urte etengabeko hazkunde<sup>a</sup> izan du. Hala ere, azken bi urte hauetan etengabeko goraldi hori nolabait eten egin dela antzeman daiteke.

Ikus daitekeenez, euskal irakas-sistema elebakartasunetik elebitasunerako igarobidean dago, eta EA eta OHOri dagokienez bederen, ibilera dezente azkarrean gainera. Esandakoaren erakuslerik leialena, B eta D ereduak batetik, eta A eta X ereduak bestetik, aurrez aurre jarritz gero ateratzen zaizkigun emaitzak dira: azken hamairu urteotan A+X ereduak abiadura azkarrean murriztuz joan

---

(313) Nahiz eta goiko taulan agertu ez, 1979-80 ikasturtean EA eta OHOk herri-ikastetxeetako ikaslegoaren %70,3k X eredu<sup>a</sup> aukeratu zuten ikaspede gisa. Herri-ikastetxeek EA eta OHOn izandako bilakaerari buruz ikus *Euskal irakaskuntza: hamar urte*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1990, 14-16. orr.


diren bitartean, B+D ereduak 37 puntutako igoera izan du termino portzentualetan, %25,25etik %62,35era pasatuz.

EA eta OHOri buruzko datu esperantzarriak albo batera utzi eta gatozen irakasteredu elebidunek 1983tik honainokoan Irakaskuntza Ertainetan izandako zenbakizko bilakaera ezagutzera ondoko taula eta irudien laguntzaz.

**6. TAULA**


	82/83	83/84	84/85	85/86	86/87	87/88	88/89	89/90	90/91	91/92	92/93	93/94	94/95
A	95.017	91.565	113.662	117.683	125.621	129.785	129.808	131.216	129.963	128.762	126.678	124.945	119.886
eredua	75,55	69,6	84,18	85,95	86,99	87,03	85,02	84,02	82,04	80,59	78,92	78,16	76,70
B	3.188	2.853	2.542	2.091	1.862	1.443	1.773	1.682	2.139	2.319	2.859	1.975	3.510
eredua	2,5	2,17	1,88	1,53	1,29	0,97	1,16	1,08	1,35	1,45	1,78	1,86	2,25
D	4.948	7.034	9.941	10.735	14.128	16.211	19.383	21.521	23.992	26.543	28.695	29.877	31.131
eredua	3,88	5,35	7,36	7,84	9,87	10,87	12,70	13,78	15,15	16,61	17,88	18,69	19,92
X	24.300	30.114	8.882	6.413	2.797	1.690	1.716	1.753	2.319	2.149	2.273	2.055	1.768
eredua	19,07	22,89	6,57	4,68	1,94	1,13	1,12	1,12	1,46	1,35	1,42	1,29	1,13
GUZTIRA	127.453	131.566	135.027	136.922	144.408	149.129	152.680	156.172	158.413	159.773	160.505	159.852	156.295
A + X	119.317	121.679	122.544	124.096	128.418	131.475	131.524	132.969	132.282	130.911	128.911	127.000	121.654
eredua	93,62	92,49	90,76	90,63	88,93	88,16	86,14	85,14	83,50	81,94	80,34	79,45	77,84
B + D	8.136	9.887	12.483	12.826	15.990	17.654	21.156	23.203	26.131	28.862	31.554	32.852	34.641
eredua	6,38	7,51	9,24	9,37	11,07	11,84	13,86	14,86	16,50	18,06	19,66	20,55	22,16

ITURRIA: EUSTAT. 93/94 eta 94/95 HUIS



## 7. IRUDIA





## 8. IRUDIA

Matrikulazio taulan agerienez, 1984-85 ikasturtetik ia gaurdaino Irakaskuntza Ertainetako ikasle multzoa ugalduz joan da. Matrikulazio kopuruaren igoerak 1993-94 ikasturtean goia jo zuen. Izan ere, EA+OHOn gertaturiko ikasle murrizketaren ondorio nabarmenenak 1994-95 ikasturterarte ez direla IEetara iritsi esan daiteke.

Irakastereduei dagokienez, A eta D ereduak dira funtsean esistitzen direnak, zeren B eredu, zenbaitetan «A eredu indartua» deitzen dena, eta X eredu oso hedadura laburrekoak baitira. Urtez urte termino portzentailetan pixkanaka-pixkanaka beherantza badao ere -%81,40tik %76,70ra-, oraindiko A eredu da zalantzarik

gabe jaun eta jabe IEetan. D ereduaren presentzia oso mugatua da oraindik irakasmaila honetan, % 19,92koa hain zuzen. Egia da, D ereduak 1983.etik gaurdaino goranzko ibilbidea daramala, baina espero baino ibilera askozaz ere motelagoarekin. Zorigaitzoz, OHOTik IEetara igarotzean, B eta D irakastereduetako euskarazko irakaskuntza eten egiten da sarritan, eta ordurarteko ahaleginak, jarraipenik ezean, bide erdian lotzen dira. Gure aburuz, bi dira nagusiki OHOTik IEetarako jauzi handi hori esplikatu dezaketen fenomenoak:

a) D eta, batik bat, B ereduak OHOn izandako hazkunde eztanda oraindik ez da IEetara bete-betean iritsi. Nolanahi ere, hazkunde horren lehen uhinak dagoeneko azalduak behar zuten irakasmaila honetan ere, eta ez da horrela izan.

b) Arestian ikusi dugun modura, OHOn hiru ikasteredu -A, B eta D- dauden bitartean, IEetan bi -A eta D- baino ez dira eskaintzen. Ikasleek ikasketa ertainetara iristean, beraz, ikasketa guztiak gatzelaniaz ala euskaraz soilik burutzeko aukera egin beharrean aurkitzen dira. Beno ba, OHOn A ereduari ikasi duten guztiak IEetara iristerakoan A ereduari ere jarraitzen dituzte ikasketak. Alabaina, OHOn D, eta batik bat, B ereduari ikasiak diren hainbat eta hainbat ikasleek IEetara igarotzerakoan ez daukate ikasketak D ereduari jarraitzerik. OHOTik IEetarako iraganbidean D, eta bereziki B ereduari ikasle kopuruan duten galbidea esplikatu dezakeen arrazoirik egon badago:

- Ikaslearen bizigune-inguruan euskarazko ikaslerroa duen ikastetxerik ez izatea. Gurasoek ikastetxearekiko hurbiltasuna oso kontuan izaten dute beren seme-alabak eskolaratzeko orduan, eta maiz ikaslerro bat ala bestea hautatzerakoan hurbiltasunarena faktore erabakiorra suertatzen da. Euskarazko ikaslerroen eskasiari dagokionez, Lanbide Heziketak pairatzen duen egoera bereziki larria da.

- IEak OHOK baino prestakuntza maila altuagoa eskatzen duten ikasketak izanik, familia erdaldunetan hezituriko ikasleek batik bat hizkuntza aldetik eragozpenak izan ditzaketelakoan,

euskarazko ikasketak bazterten dituzte. Arazo hau, batez ere, OHOk ikasketak B ereduari burutu dituztenen artean gertatzen da. Izan ere, B ereduari jartzen zaion hizkuntz helburua 8. maila bukatzerakoan ikasketa ertainetan dauden bi eredu-tako edozeinetan jarraitzeko zailtasunik ez izatearena da. Agidanez, B eredu guztiek ez dute helburu hau betetzen eta akaso horregatik OHOn B ereduari ikasitako ikasle askok IEetarako iraganbidean A eredu hautatzen du. LOGSEren aplikazioarekin arazo hau nolabait samurtuko da, zeren lege honek diseinatu duen irakas-sistema berrian derrigorrezko hezkuntza bi urtez, 16 urte arte, luzatuko baita, eta jakina, bide batez baita B ereduaren iraunaldia ere. Hezkuntza administrazioak B ereduak izango duen bi urteko luzapen hori mamitzeko beharrezkoak diren emendiozko baliabide material eta, batez ere, pertsonalak nondik aterako dituen beste upeleko sagardoa da.

- Ikasle askok irakaskuntza ertainetako ikasketak Unibertsitaterako prestakuntza-bidetzat jotzen du, eta gehienetan hauek halabeharrez erdaraz egin beharko dituzenez gero, nahiago du ertainekoak ere erdaraz egin.

#### **6.4.1.3. Hezkuntza-eredua hautatzeko eskubidea eta hezkuntza mailako hizkuntz plangintza**

##### a) Hezkuntza-eredua hautatzeko eskubidea

6. kapituluan ikusi ahal izan dugun moduan, irakas-hizkuntza aukeratzeko eskubidea ez da hezkuntzarako eskubidearen funtsezko edukian sartzen; era berean, hezkuntzarako eskubidea eta hizkuntzen ofizialtasuna arautzen duten EKren 27. eta 3. artikulua parekatzetik ere ez da aukeratze-eskubide hori ondorioztatzen. Izan ere, nork bere gogoko hizkuntzan irakaskuntza jasotzeko eskubidearen sorkuntza legegile arruntaren gauza izan zen<sup>314</sup>. Geurean irakas-hizkuntza aukeratzeko eskubidea Euskararen Legearen

---

(314) «El derecho a elegir Centros de educación obligatoria en que ésta se imparta en una determinada lengua es un derecho de configuración legal.» (KAre otsailaren 12ko 19/1990 Epaia, 4. oinarri juridikoa).

bitartez hezurmamitu zen. Hain zuzen ere Legearen 15. artikulua ikasle guztiei irakaskuntza euskaraz zein gaztelaniaz hartzeko eskubidea aitortzen die hezkuntza-maila guztietan.

Irakas-hizkuntza aukeratzeko eskubide hori asetzeko irakasteredu elebidunak sortu ziren. Dagoeneko badakigunez, euskal hizkuntza sistema nagusiki hiru irakastereduren -A, B eta D- jira-biran dabil; A ereduan gaztelania, D ereduan euskara, eta B ereduan bai euskara eta bai gaztelania dira irakasbide.

Beno ba, Euskararen Legeak 15. artikuluan arautzen duen irakas-hizkuntza aukeratzeko eskubidea aipaturiko hezkuntza eredu bat edo beste hautatzeko eskubidean zehaztuta geratu da. Horrela, hiritarrak irakasteredu jakin bat hautatzen duenean, 15. artikuluan aitortzen den eskubidea egikaritu baino ez du egiten.

Irakas-hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta bere zehaztapena den irakasteredua hautatzeko eskubidea ez dira eskubide mugaezinak, izan ere, prestazio eskubide izaera duten guztiak bezala, une bakoitzean administrazioak eskuera dituen baliabide ekonomiko, pertsonal eta materialek baldintzatzen dituzte. Administrazioak erabilgai dituen bitartekoak urriak eta mugatuak direnez gero, legeak hiritarrari gogoko duen irakasteredua aukeratzeko aitortzen dion eskubide hori, muga jakin batzuen barnean ulertu beharko da. Aukeratze-eskubide horren aitzakian, hiritarrak ezin izango dio administrazioari neurritz kanpoko eskakizunik egin.

Zentzu honetan, gogora datozkigu nork bere etxe albo-alboan aukeraturiko irakasteredua eskatzen dutenen kexak. Baliabideak urriak diren gurea bezalako gizarte batean, hiritar guztiei aukeraturiko irakasteredua duen ikastetxea etxe albo-alboan jartzea pentsaezina da<sup>315</sup>. Arrazoi ekonomikoek eta pedagogikoez ez ezik,

---

(315) «Ninguno de los múltiples apartados del artículo 27 de la Constitución (...) incluye, como parte o elemento del derecho constitucionalmente garantizado, el derecho de los padres a que sus hijos reciban educación en la lengua de preferencia de sus progenitores en el Centro público de su elección.» (KAren 195/1989 Epaia, 3. oinarri juridikoa).

zentzuak ere horrelako neurri bat ez hartzea aholkatuko luke. Garbi dago herri-administrazioa horrelako neurri batek ekarriko lukeen zama ekonomiko astunari eusteko gauza ez zela izango, eta izango balitz ere, hezkuntzaren kalitatearen kalterako izango litzateke, zeren baliabide eta bitartekoak batera biltzeak hezkuntzaren kalitatea hobetzen omen baitu.

Gainera, Euskararen Legeak ez du inon esaten irakasteredua hautatzeko eskubideak, hautaturiko hezkuntza eredua etxe ondo-ondoan izateko eskubidea dakarrenik. Legeak, ikasle eta ikastetxeen hurbiltasun kontuez ez du deus ere esaten. Dena den, legearen isiltasunak ez du esan nahi hurbiltasunaren kontua huskeria denik, aitzitik, ikaslearen bizilekuaren eta ikastetxearen arteko distantzia irakasteredua aukeratzeko eskubidea egikaritzeko elementu oso erabakiorra da. Hautatze-eskubide hori bermatzeko ez da aski ikasplaza bat nonahi eskaintzea, ikasleari ikasplaza horretara zailtasunik gabe iristeko aukera ere bermatu behar zaio. Horrexegatik ikasle bat, bere herriko eskolan ikasplazarik ez duelako edo hizkuntz ereduaren arabera egindako bateratzeagatik, bere herritik urrun dagoen eskola batera joan beharrean aurkitzen denean, gure iritzi apalean, hezkuntza administrazioak ikasle horri herritik kanpora joan beharrak dakarzkion emendiozko gastuei eutsi beharko lieke. Osterantzean, urruntasuna irakasteredua aukeratzeko eskubidearen egikaripenerako eragozpen gaindiezina bihurtzeko arriskua legoke eta, esan beharrik ez dago, eskubide baten egikaritzea zapuzteak haren ukazioa ekarri dakarrela berekin.

Ikasle eta ikastetxeen arteko hurbiltasunaren kontuarekin jarraituz, 1990.eko Hezkuntza Sistemari buruzko Lege Organiko Orokorrak (LOGSE), 65. artikuluko<sup>316</sup> lehen atalean, ikasle orori

---

(316) 65.1.º «En el nivel de educación primaria, los Poderes públicos garantizarán a todos los alumnos un puesto escolar gratuito en su propio municipio. (...)

2.º Excepcionalmente, en la educación primaria y en la educación secundaria obligatoria en aquellas zonas rurales en que se considere aconsejable, se podrá escolarizar a los niños en un municipio próximo al de su

Lehen Hezkuntza mailako heziketa burutu dezan bere herrian doaneko irakaspostu bat bermatzen dio. Hala ere, bigarren atalak erregela orokor horri salbuespen bat jartzen dio. Hala, irakaskuntzaren kalitatea bermatu asmoz, nekazal guneeetan aginte publikoek beren bizilekuaren ondoko beste herri batean eskolara ditzakete haurrak; halakoetan, garraio, jantoki eta, hala balegokio, barnetegi gastuak hezkuntza administrazioaren pentzutari izango lirarteke.

LOGSEren 65. artikuluan agertzen dena, ez da Euskararen Legean iragartzen den hezkuntza eredia aukeratzeko eskubidearekin nahastu behar. LOGSEk ez dio Lehen Hezkuntzako ikasleari bere herrian bertan gogoko duen hezkuntza eredian ikaspostu bat agintzen, aldiz, herriko eskolan ikaspostu agintzen dio, besterik ez. Hortaz, hiritarrek ezin izango dute 65. artikuluko horren izenean, beste barik, bere seme-alabentzako herrian bertan gogoko duten hezkuntza eredian ikaspostu bat esijitu. Halaz guztiz, eta nahiz legeak agindu ez, gurari mailan, ondo desiratzekoa litzateke EAEn Lehen Hezkuntza mailako heziketa hartzen duten ikasle orok bere herrian bertan gogoko duten hezkuntza eredian ikasplaza bermaturik izatea.

Lehen Hezkuntzan ez bezala, Bigarren Hezkuntza mailako heziketari dagokionez, LOGSEk ez dio ikasleari herrian bertan dohaineko ikasposturik bermatzen. Eta ez da batere harritzekoa zeren, iraskasmailak altuagoak diren neurrian, bizileku-ikastetxe hurbiltasuna garrantzia galduz doa. Batetik, ikasleak hazten diren heinean, eskolarako ibilbidea euren kabuz eta inolako laguntzarik gabe egiteko gaitasun handiagoa dute, eta bestetik, urteak aurrera joan ahala, ikaslearen heziketak espezializazio maila handiagoa eskatzen du eta, bide batez, baliabideen pilaketa handiagoa. Eta jakina, ikasketak espezializatu horiek kalitatezkoak nahi badira sikiera, etxetik hurbil izatea gero eta zailagoa gertatuko da.

---

residencia para garantizar la calidad de la enseñanza. En este supuesto las Administraciones educativas prestarán de forma gratuita los servicios escolares de transporte, comedor y, en su caso, internado.»

Kontuak kontu, ukaezina da ikaslearen bizilekuaren eta ikastetxearen arteko hurbiltasunak hezkuntza eredua aukeratzeko eskubi-dearekin duen lotura estua. Argi lotu da eskubide honek ikasleari etxe pare-parean gogoko duen irakasteredua eskatzeko eskubidea ez diola bermatzen, eta baita ikasle eta ikastetxearen arteko distantzia luzeegiak hautatze-eskubide hori zapuz dezakeela ere. Kasu bakoitzean bizilekuaren eta ikastetxearen arteko distantzia legearen arabera onargarria denentz erabakitzea epaileen esku geratzen da, hauek kasuan kasu joka dezaketen aldagai anitzek kontuan izan beharko dituztelarik.

Arestian esan dugunez, irakas-hizkuntza aukeratzeko eskubidea prestazio eskubidea da eta hori betetzeko bitarteko batzuk ipini behar dira. Hezkuntza administrazioak momentu bakoitzean bitarteko material eta pertsonal jakin batzuk ditu eta hiritarren hezkuntza eskabideak asetzeko dauden horiekin moldatu behar du. Hala, bada, hiritarren eskakizunak ahalik eta ondoen asetzeko, administrazioak lehentasun batzuk jarri eta, eraginkortasun printzipioak gidatuta, eskueran dituen baliabideak modurik probetxugarrienean antolatu beharko ditu.

Eskueran dauden baliabideak eskakizunei behar bezala doitzea ez da zeregin erraza, ezta antzik ere. Hezkuntza administrazioak ateratzen duen irakasteredu ezberdinen eskaintzaren inguruan urtero-urtero jasotzen den kexa mordoak duzue lekuko. Kexa horiek bi mailatan gertatzen dira: batzuek, administrazioak eskaintzen dituen baino euskalduntze-maila altuagoak eskatzen dituzte, besteek, ordea, A ereduaren eskaintza txarragoa ematen delakoan, beren burua diskriminatuta ikusten dute.

Interes kontrajarri horien arteko oreka bilatzea ez da eginbehar makala; edozertara ere, hezkuntza administrazioak berak du hezkuntza eredu bakoitzeko zenbat gela, non eta zein baldintzatan zabaltzeari buruzko azken hitza. Erabaki hauek hartzeko administrazioak duen aukera-ahalmena handia izanik ere, ezin genezake esan erabatekoa denik, izan ere, badira hezkuntza ereduaren edozein onarpenek jarraitu behar dituen legezkoatasun-irizpide batzuk.

1983ko Elebitasun Dekretuak 3. artikuluan Hezkuntza Sailak B eta D irakastereduen ezarpenerako jarraitu beharreko bidea arautu zuen<sup>317</sup>. Bost ziren B eta D hezkuntza ereduak ezartzeko dekretuak finkatu zituen baldintzak:

- Guraso edo tutore-talde batek aldez aurretik eskatzea.
- Hezkuntza Sailak irakasmaila bakoitzerako zehazten dituen ratioak osatzeko behar adinbat ikasle izatea.
- Ikastetxeko Klaustroaren eta Zuzendaritza-Kontseiluaren iritzia jasotzea.
- Kasuan kasuko irakasmailako Ikuskaritza Teknikoaren txosten arrazoitua.
- Hezkuntza Sailaren onarpena, beti ere, irakaslegoaren ahalbideak eta Sail honek ezarritako hizkuntza plangintza kontuan izanik.

Ildo beretik, 10 urte beranduago Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak ere 21. artikuluan herri-ikastetxeetako hizkuntz ereduen onarpenari buruz xedapen garrantzitsuak jasotzen ditu:

21. art.: «Jaurlaritzak, hizkuntza-ereduen eskaintzaren plangintza zehazteko oinarritzko irizpideak arautuko ditu. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, gurasoen edo tutoreen nahia eta zonaldearen gizarte eta hizkuntza egoera kontuan izanik, ikastetxe bakoitzean eman beharreko hizkuntza-ereduak izendatuko ditu.

Hezkuntza administrazioak hezkuntza-maila batetik bestera igarotzean hizkuntza-ereduen aldaketa egiteko baimena eman ahal izango du, gurasoen edo tutoreen eskaera nahikoa izan eta plangintzak horretarako bide ematen bada».

---

(317) 3.3 art.: «Hezkuntza eta Kultura Sailak (...) irakaskuntza elebiduneko B eta D ereduen ezarpena aurrera eramango du, irakaslegoaren ahalbideak eta Sail honek ezarritako euskalduntze-plangintza kontuan izanik, eta guraso edo tutore-talde batek aldez aurretik hala eskatu edo onartu ondoren, beti ere aipatutako talde hau Sailak irakasmaila bakoitzerako zehazten dituen ratioen araberrako talde bat gutxienez osatzeko ikasle-kopurua iristen bada».

3.4 art.: «Aurreko pasartean aipatutako ezarpena ikastetxeko klaustroaren eta Zuzendaritza-Kontseiluaren eritzia eta kasuan kasuko irakasmailako Ikuskaritza Teknikoaren txosten arrazoitua kontuan hartu ondoren egingo da».



Hortaz, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak (EEPL) herri-ikastetxe bakoitzean eman beharreko hizkuntza ereduaren finkapena hezkuntza administrazioaren esku uzten du. Hori bai, honek guraso edo tutoreen nahia eta zonaldearen egoera soziolinguistikoa kontuan izan beharko ditu. Horrez gain, behar beste gurasok edo tutorek eskatuta, eta hizkuntza plangintzak horretarako bide emanez gero, Hezkuntza Sailak hezkuntza ereduak aldatzeko baimena eman dezake.

Ohartuko zinetenez, bai Elebitasun Dekretuan bai EEPLn, lege-araugileek hezkuntza ereduaren onarpenaren arauketa oso azaletik eta modu orokor eta laxoan egin dute, kontzeptu zehazgabe asko erabiliz: irakaslearen ahalbideak, behar adinbat guraso edo tutoreen nahia, egoera soziolinguistikoa, hizkuntza plangintza, eta abar. Zehaztasun falta honi Klaustroaren, Zuzendaritza Kontseiluaren eta Ikuskaritza Teknikoaren iritzi eta txostenen izaera ez-loteslea gehitzen badiogu, hezkuntza administrazioa hezkuntza ereduak onartzerako orduan aukera-ahalmen tekniko zabal baten jabe izango dela pentsa daiteke.

Edozelan ere, honek ez du esan nahi erabaki libreko esparru baten aurrean gaudenik, administrazioak diskrezionalitate tekniko hori bere ahalmenen mugen barruan erabili beharko du eta. Administrazioak aukera-ahalmen horretaz baliatzerakoan bere erabakiak arrazoitu<sup>318</sup> beharko ditu, lege-arauek jasotzen dituzten neurbideei jarraiki. Hezkuntza administrazioak hezkuntza ereduaren edozein aldaketa, suntsiketa edo zabalkunderi ekiteko, beraz, bere iharduera zuritzen duten oinarri juridikoak iragarri beharko ditu eta hauek, halabeharrez, 1983ko Elebitasun Dekretuan eta 1993ko EEPLn azaltzen diren legezko tasun-irizpideetan oinarritu beharko dute.

---

(318) Administrazio Publikoen Lege Jaurbideari eta Administrazioaren Ihardunbide Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak hauxe dio 54.1 f) artikuluan:

«Serán motivados, con sucinta referencia de hechos y fundamentos de derecho (...) los actos que se dicten en el ejercicio de potestades discrecionales».

Arestian aipaturiko behar lain gurasok eskatzeaz, hizkuntza plan-gintzaz, eskueran dauden bitartekoez, ikuskatzaileen txostenez eta abarrez ari gatzazkizue.

Horregatik guztiagatik, bestelako pisuko arrazoirik ezean, gurasoen gehiengoaren borondatearen aurka ordurarte indarrean egondako hezkuntza-ereduaren aldaketa onetsiko lukeen administrazio ebazpena legezkontrakoa izango litzateke, guk uste. Orobat, inoiz gertatu den bezala, hezkuntza eredu berriak zabaltzeko baimena lor dezaten administrazioak guraso guzti-guztien oniritzia esijitzea<sup>319</sup>, gure iritziz, legearen izpiritua deuseztea litzateke, ez baitugu ahortzi behar legeak 21. artikuluan den-denek ez, baizik behar adinbat gurasok eskatzea baino ez duela aurrikusten.

Hezkuntza eredia aukeratzeko eskubidearen ikusketari bukaera eman diezaiogun, eskubide hau gure autonomia erkidegoan zein neurritan asetua izan den aztertuko dugu. Edo bestela esanda, hezkuntza administrazioak guraso-ikasleen eskariei nola erantzuten dien arreta egingo diogu.

Ezer baino lehen, eskueran ditugun datuekin aukeratze eskubideari buruzko ondorio erabat zehatz eta fidagarrikerik ateratzeko biderik ez dagoela esan behar dugu. Izan ere, aginte publikoek kaleratzen duten hezkuntza-eskaintzaren eta hiritarren eskarien artean dagoen aldea ezagutzeko bide bakarra ikastegi bakoitzaren azterketa egitea da. Hala ere, matrikula aurreko datuak ez dira beti ere guraso eta ikasleen eskarien ezagupide fidagarriak, zeren matrikula aurrekoetan azaltzen diren eskakizunak administrazioak aldeztatik eskainitako ikasplazaren kopuruak baldintzatzen baititu gehienetan.

Edozelan ere, eta eragozpenak eragozpen, hezkuntza-eskaria eta hezkuntza-eskaintzaren banakerari buruz ondorio orokor batzuk atera daitezke:

---

(319) Zentzu honetan ikus *Euskal Herriko Ararteko erakundearen lehen bost urteak (1989-1994)*. Gasteiz: Arartekoa, 1994, 131. or.

- Hezkuntza-eskaintza eta guraso eta ikasleen eskariaren arteko desorekarik nabarmenenak euskararen aldetik eredurik indartu-  
netan -B eta D eredueta- gertatzen bide dira. Ikasteredu bi hauetan  
asetu gabe geratzen diren guraso-ikasleen eskariak A ereduari asetu  
gabe gertatzen direnak baino gehiago dira nonbait.

- Euskal ereduaren eskasia batik bat hiriburuetan gertatzen da.  
Bertan guraso eta ikasleek eskaturikoak baino A ereduko ikasplaza  
gehiago eskaintzen da, B eta D ereduaren kaltetan. Alderantziz, zen-  
bait herritan ez da eskaintzen A ereduko ikasplaza nahikoa.

- Batzuetan ikaslearen bizilekutik behar baino urrunago bada  
ere, oro har, hezkuntza administrazioak guraso eta ikasleen hiz-  
kuntz eredu ezko eskariei aurre egiteko adina ikasplaza eskaintzen  
dituela esan daiteke. Haatik, zorigaiztoz, bada salbuespen kez-  
kagarria, lanbide heziketarena hain zuzen. Teorian enpresa mundu-  
rako langile espezializatuen iturri behar zuenak, praktikan ohiko  
ikasketak burutzeko gai ez direnak baztertzeko tokizat jo izan da  
sarritan. Eta jakina, hezkuntza sistemaren elebiduntze prozesuan  
ere lanbide heziketari errauskinaren papera antzeztea egokitu zaio.  
Matrikulazio datuei begiradaxo bat eman baino ez dago, momentu  
honetan lanbide heziketako ikasketak euskaraz burutzeko aukera  
bermaturik ez dagoela jabetzeko. %5ek bakarrik burutzen dituzte  
ikasketak euskaldun eredueta, eta bistakoa da kopuru murriz-  
tze hori eskari gabeziagatik soilik ez dela.

On genuke, beraz, lanbide heziketa sortu zeneko helburuak  
lehenbailehen bete ditzan egokitzea eta baita egokitze horren  
barruan euskarari sarbidea ematea ere, hori baita enpresa mundua  
euskalduntzeko biderik egokiena.

#### b) Hezkuntza mailako hizkuntza plangintza

Aurreko atalean aditzera eman dugun bezala, hezkuntza ere-  
duen onarpena, besteak beste, unean-uneko hizkuntza plangin-  
tzaren menpe dago. Baina zer da irakastereduaren erapidetzan  
hainbesteko inportantzia duen hizkuntza plangintza delako hori,  
noren esku dago, zein da bere izatearen arrazoia?

Gatozen, bada, gerora gabe, hizkuntza plangintza kontzeptu horren atzean zer izkutatzen den miaztera.

Dakigunez, lehenbizikoz Euskararen Legeak eta ondoren EEPLk jaso izan duten hezkuntza eredu hautatzeko eskubidearen egikaritzea aurrekontu-mugek baldintzatzen dute. Hori dela eta, irakaskuntzaren zerbitzura jarritako baliabide eta bitartekoak hiritarren eskariak ahalik eta ongien betetzera bideratu beharko ditu hezkuntza administrazioak. Horrek hezkuntza administrazioaren aldetik hizkuntza plangintza bat eskatzen du, hots, hizkuntza-xede jakin batzuk erdiesteko baliabideak erarik probetxugarrienean erabiliak izan daitezen segurtatzera bideratuko duen estrategia bat. Hizkuntza plangintzaren ardurak ez da hezkuntza eredu bakoitza non, noiz eta nola zabaldu behar den erabakitzea bakarrik, bere iharduera-esparrua askoz zabalagoa eta handinahi-koagoa da, alegia, hizkuntza normalkuntza lortzeko beharrezkoak diren neurri eta erabaki guztiak hartuko ditu barne. Edozein plangintzaren antzera, hizkuntza plangintza ondoko bost elementu nagusiok osatuko dute:

- Azken helburua: euskararen erabileraren normalkuntzaren bidez, elebitasuna EAeko hezkuntza-erapidetza osora hedatzea (EEPLren 15. art.), edo bestela esanda, euskal ikasleagoak derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan dezala eta gutxien-gutxienez ohizko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabiltzeko gai izan dadila, oinarritzko ikasketa edukiak kaltetu gabe.

- Berehalako helburuak: azken jomuga hori erdiesteko bete beharreko aurre-helburuak. Besteak beste honako hauek:

\* Hezkuntza eredu aukeratzeko eskubidea bermatzea, herriz herri hezkuntza ereduak nola banatu erabakiz. Banakera horretatik ateratzen den hezkuntza-eskaintza, guraso eta ikasleen hezkuntza-eskariari egokitu beharko zaio.

\* Hezkuntza ereduak sortu zireneko hizkuntz eta hezkuntza helburuak betetzen dituztela bermatzea.

\* Hezkuntza sistema behar adina irakasle euskaldunez hornitzea.

\* Ikasketak euskaraz inolako eragozpenik gabe burutzeko irakasmaterial euskaldun nahikoa ekoizten laguntzea.

\* Ikastetxeetan euskaldun giroa sustatzea, ikasgelaz kanpoko ekintzetan euskararen presentzia bermatuz.

\* Beste batzuk.

- Finantzabideak: plangintza aurrera eramateko erabilgai dauden baliabide ekonomikoak edo diru-iturriak izango dira.

- «Estrategia»: helburu hurbilak zein azkenak lortzeko jarraitu beharreko bideak zehazten ditu. Estrategia hori finkatzeko, unean uneko bitarteko material zein pertsonalak, tokian tokiko egoera soziolinguistikoa eta hezkuntza sistemak alorrez alor dituen beharrianak aintzat hartuko dira, erabilgai dauden bitarteko eta baliabideak eraginkortasunez eta modurik probetxugarrienean aplikatuak izan daitezten.

- Burutu beharreko programa eta ekintzak: aurrikusitako estrategia sailez sail aplikatua izan dadin hartu beharreko neurri zehatzak.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak hizkuntz ereduen plangintza burutzea Euskal Autonomia Erkidegoko aginte publikoiei dagokiela esaten du, «gurasoek eta ikasleek ereduak aukeratzeko duten eskubidea gauzatu ahal izan dezaten<sup>320</sup>». Eta eginbehar hori garatzeko, «herri-aginteei guraso eta ikasleen elkarrean, langile-sindikatuaren eta enpresa-elkarrean, udalen eta gizarte-arlo guztien parte hartzea bultzatuko dute, lege honetan [EEPL], urriaren 27ko 13/1988 Legean, Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzkoan, eta ezarpen orokorreko gainerako arauetan oharteman-dakoaren arabera»<sup>321</sup>.

Ohartuko zinetenez, EEPLk ez du hizkuntza plangintzaz oro har hitz egiten, hezkuntza ereduen plangintzaz baino. Hizkuntza

---

(320) 1993ko EEPLren 5.f) artikulua.

(321) EEPLren 6. artikulua.

plangintzaren osagai nagusiak aztertu ditugunean ikusi dugun moduan, hizkuntz ereduaren plangintza hizkuntz plangintza osoaren zati bat da; hori bai, oso zati garrantzitsua, akaso garrantzitsuena. Hori dela eta, hezkuntza ereduaren plangintzari buruz esandakoa hizkuntz plangintza osoari aplikatu da.

Orduan, bada, hizkuntza plangintza burutzearen ardura nagusia EAEko aginte publikoen gainean dagoen arren, hezkuntza ihardunbidean zeresan zuzena duten gizarte-sailek ere plangintza horren hezurramitzean esku hartuko dute. Gizarte-sail ezberdinen partaidetza bideratzeko asmoz, Eusko Legebiltzarrak 1988.eko urriaren 27an Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko 13/1988 Legea onetsi zuen. Lege honek irakaskuntzaren programazio edo egitarau-gintzan gizartearen partaidetza bideratzeko, eskola elkarteko sail ezberdinen ordezkotza izango duten organo kolegiatuak sortu ditu: Eskola Kontseiluak<sup>322</sup>.

Lurralde irizpideari jarraiki, lau eskola kontseilu desberdin bereizten ditu legeak: Euskadiko Eskola Kontseilua (Autonomia Erkidegoa), Lurraldeetako Eskola-Kontseiluak (Kondaira Lurraldeak), Bilguneetako Eskola Kontseiluak (eskola bilguneak) eta Udal mailako Eskola Kontseiluak (Udalerriak).

Esan bezala, kontseilu hauek hezkuntza ihardunbidean zeresanik duten gizarte-sailen ordezkariak (irakasleak, gurasoak, ikasleak, ikastetxeen jabeak, administrazio orokor zein lokalak, e.a.) osatuak daude eta euren eginbidea irakaskuntzaren egitarau-gintza orokorrarekin zerikusirik duten gai eta arloei buruz norbere iritzia ez-loteslea ematea da. Eta esan beharrik ez dago, atal honetan aztertzen ari garen hizkuntz ereduaren plangintza, delako irakaskuntzaren egitarau orokorraren oso zati garrantzitsua dela.

Hortaz, eskola kontseiluak erakunde erabakitzaileak ez baizik aholku-emaileak edo urgazleak direnez gero, hizkuntza plangintzari

---

(322) Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 6. erabaki gehigarriak Eskola Kontseiluei buruzko Legearen zenbait artikulua aldatzen du, 4,6,14 eta 18. artikulua alegia.

buruz ematen dituzten gomendio, txosten eta iradokizunak ez dituzte euskal aginte publikoak lotetsiko. Legeriak hizkuntza plangintzari buruz iragarritakoaren arabera, plangintza hagitik zentralizatu baten aurrean gaudela pentsa daiteke, izan ere, indarreko lege-arauek hizkuntza plangintzari buruzko erabakiak hezkuntza administrazioaren esku uzten dituzte, gainerako gizarte-sailak bigarren maila batean, hots, aholku-emailearen mailan, geratzen direlarik.

Edozein kasutan, eta legeriak horretarako bide ematen badio ere, Euskal Autonomia Erkidegoan burutzen den hizkuntza plangintza ez da batere zentralizatu edo erdirakoia, alderantziz, eskola elkarteak osotzen duten gizarte-sailek plangintza horretan zeresan zuzena dute. Beraien eskuhartzea ez da eskola kontseiluek eskaintzen duten talde-mailako partaidetza orokor eta aholku-emaile horrekin ahitzen, banaka-banaka ere parte hartu eta iritzia ematen dituzte, sarri-askotan hezkuntza administrazioa gogor estutuz.

Gure autonomia erkidegoko hizkuntza plangintzan esku hartzen duten sailak bi multzo nagusitan bana daitezke:

a) Administrazioa

Euskal administrazioak batez ere bi mailatan eragiten du hizkuntza plangintzan:

- Administrazio orokor mailan. Bi sailek hartzen dute parte. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak batetik, eta Kultura Sailak, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiaren bidez, bestetik. HUIS hizkuntza plangintza osoaren erantzule nagusia da, berari dagokio azken erabakiak hartzea. HPINri, bere aldetik, irakaskuntzaren hizkuntza plangintza, HPINK berak ezarritako hizkuntza plangintza orokorrarekin lotzea dagokio<sup>323</sup>.

- Udal administrazio mailan, udaletako ordezkarien bidez. Beren partaidetza udal mailako arazoetara lotzen da.

---

(323) EEPLren 19.3 art.: «Irakaskuntzaren hizkuntza-plangintza Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak ezar dezan hizkuntza-plangintza orokorrarekin elkarlotuta egongo da».

## b) Ikastetxea

Honako gizarte-sail hauek sar daitezke batez ere:

- Guraso eta tutoreak
- Irakasletoa
- Ikasletoa (IEetako ikastetxeetan)
- Ikastetxeen jabeak (ikastetxe pribatuetan)

Ikastetxe kontzeptu barruan sartu ditugun gizarte-sailek ez dute talde homogeenoa bat egiten, nork bere berariazko beharrianak eta interesak ditu eta askotan interes partikular horiek beste sailek dituztenekin elkartu ezinak eta kontrajarriak dira.

Esan bezala, Hezkuntza Sailak ez du hizkuntza plangintza erabat zentralizatua sortu nahi izan, neurri handi batean plangintza horren tajuketa ikastetxea osotzen duten gizarte-sailen esku utzi du, plangintza misto eta konpartitua antolatuz.

Hezkuntza administrazioak hizkuntza plangintzaren antolamenduari buruzko oinarriko erabakiak eta makro mailako neurriak hartzen ditu, hala nola, hezkuntza ereduak definitu, irakaspostuak eta beren hizkuntz eskakizunak finkatu, irakasleen hizkuntz helburuen neurbideak sortu, ikasmaterial euskalduna bultzatu eta abar luze bat. Oinarrikoak ez diren beste arloetan Hezkuntza Sailak, hein handi batean, gizarte-sailek proposatutako neurriak onartzen ditu, mikro mailako neurrietan autoerregulazio-ahalmen handia utziz. Mikro mailan koka daitezkeen artean, hezkuntza ereduaren banakerari buruzko erabakiak daude.

Hala, bada, gure autonomia erkidegoan burutzen dena ez da plangintza finko eta lineala, beti ere irizpide jakin batzuk jarraitzen dituen, gizarte-sail ezberdinen talken ondorioa baizik. Izan ere, eskola elkarteak osotzen duten gizarte-sailen arteko harremanak ez dira batere baketsuak, nork bere interesak defendatzen ditu eta hauek elkartu ezinak direnean nor baino nor aritzen dira eurenaren alde. Ez dugu ahaztu behar hizkuntza plangintzaz dihardugunean ez garelako hizkuntza arazoez bakarrik ari, plangintza horretan



hizkuntzaz beste interesek ere jokutzen dute, ekonomikoak, politikoak, laboralak, sozialak...

Hizkuntza plangintza burutzerakoan Hezkuntza Sailak gizarte-sail ezberdinei askatasun handia ematen die, beren artean nola-hala molda daitezzen eta egoera jasanezina denean bakarrik esku hartzen du bere irizpidea inposatuz. Ez da harritzekoa, bada, zenbaitetan plangintza horren garapenean koordinazio falta handia nabaritzea eta behin edo behin erabaki kontradiktorioak ere hartu izana.

Paperetan konpaktoa iruditu arren, gurean burutzen dena oso hizkuntza plangintza zehazgabe eta moldagarria da, gizarte-sail ezberdinen tirabiren emaitza. Hizkuntza plangintza hain malgua eta zehazgabea izateak, on-gaitzak dakartza.

Alderdirik baikorrena Konstituzioak berak aldarrikaturiko demokraziaren printzipioa hezkuntza sisteman tinko gauzatu izana da, hezkuntza ihardunbidean esatekorik duten gizarte-sail ezberdinen partaidetza ahalbidetu duelarik.

Alderdi ezkorrei dagokienez, bi dira nabarmentzekoak:

- Plangintza hain moldagarria eta malgua izateak arrisku bat dakar, hain zuzen ere, gizarte-sailen interes partikularrek hizkuntza plangintzaren azken helburuak erdiestea oztopa dezakete. Hizkuntza plangintzaren azken xedeak, hots, hizkuntza normalkuntza eta oinarrizko ikasketa-edukien eskurapena, ezin dira gizarte-sailen interes partikularren pentzutan geratu, ezin baitugu ahaztu hizkuntza plangintza xede horiek lortzeko lan-tresna baino ez dela.

- Bestalde, hizkuntza plangintza norabide bakarreko zera ez izateak eta aurrez finkaturiko irizpide jakin batzuetara ez moldatzeak, hiritarrak bere hizkuntz eta hezkuntza eskubideak egikaritzeko orduan behar duen segurtasun juridikoa kaltetzen du. Maiz hezkuntza administrazioa plangintzaren izaera difuso eta zehazgabeaz baliatzen da hiritarren eskariak baztertzeko, ukapenaren arrazoi zehatzik eman gabe. Erraz uler daitekeenez, honek hiritarrengan segurtasun juridikorik eza itzela sor dezake. Legeak

administrazioari alor honetan aukera-ahalmen zabala ematen badio ere, honek ez du zertan hiritar-administrazio harremanek eskatzen duten segurtasun eta konfidantza hautsi; eta are gutxiago segurtasun juridikoaren printzipioa (9.3 art.), oinarritzko printzipioetako bat legez tajutzen duen Konstituzioa beretzat duen estatu batean.

Hiritarrak bere hizkuntz eskubideak ukitzen dituen administrazio-erabaki bat zergatik hartzen den ala zergatik ez den hartzen jakiteko eskubidea du, bestela esateko, hizkuntza plangintzaren atzetik zer dagoen jakiteko eskubide osoa du.

Hizkuntza plangintzaren inguruan hizkuntza interesez gain interes politiko, ekonomiko, sozial eta laboralak ere badaudela jakin badakigu eta plangintza zeharo zehatz eta ulergarria egiteko zailtasunak ere ulertzen ditugu. Guk ez dugu horrenbeste eskatzen, baina bai plangintza gardenagoa, gutxienezko koordinazio eta koherentzia izango duena. Hau da, aurrez finkaturiko irizpide jakin batzuei jarraituz, hiritarrak plangintza nondik nora doan jakitea ahalbidetuko duen plangintza. Gainera, eskatzen dugun hori ez da guri otu zaigun bat- bateko burutazioa, legeak berak agintzen duen betebeharra baino. Izan ere, Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak bere 21. artikuluan «Jaurlaritzak, hizkuntza-ereduen eskaintzaren plangintza zehazteko oinarritzko irizpideak arautuko ditu»ela dio.

Ildo beretsutik aipatutako legeak 5. e) artikuluan euskal aginte publikoei hizkuntza plangintzaren zeregina egozteaz gain, guraso eta ikasleei hezkuntza eredia aukeratzeko askatasuna bermatuko duten administrazio-bideak garatzeko agintzen die.

Beraz, eta hiritarrari zor zaion segurtasun juridikoagatik besterik ez bada ere, Jaurlaritzak lehenbailehen eta geroko gerotan gabe, hizkuntza plangintzak jarraitu beharko dituen irizpideak eta administrazio-bideak finkatu beharko lituzke. Zentzu horretan esperantzagarria da oso Hezkuntza Sailak hemendik lasterrera irizpide hauek finkatuko bide dituen Eskola Mapa bat eratzeke erakutsi duen asmoa<sup>324</sup>.

#### 6.4.2. Irakaslegoaren euskalduntze prozesua

Eskola euskalduntzeko zutaberik trinkoena irakasleak dira. Eta zalantzarik gabe euskal irakas-sistemaren euskalduntze prozesuak duen eragozpenik larrienetakoa, larriena ez esatearren, behar hainbeste irakasle euskaldun eskueran ez izatea da. Nola euskaldunduko da ba hezkuntza-sistema irakasle euskaldun nahikorik ez bada?

Elebiko irakastereduen bilakaera aztertu dugunean, B eta D ereduak azken 15 urteotan izan duten etengabeko hazkundera ikusi ahal izan dugu. Urtetik urtera bizi dugun hazkunde hori ez zatekeen posible izango baldin eta irakasle euskaldunen parez pareko hazkundera ere gertatu izan ez balitz, zeren, jakina denez, B ereduaren eta batik bat D ereduaren ezarpenak irakasle euskaldun mordoak aukeran izatea eskatzen baitu. Horregatik, etorkizunera begira, euskara aldetik eredurik indartsuenen -B eta D ereduengoranzko joera horrek jarraipenik izan dezan gura izanez gero, irakaslegoaren euskalduntze erritmoak ere halakotsua izan beharko du.

Jarraian euskal irakaslegoaren euskalduntze prozesuak azken hamasei-hamazazpi urteotan jarraitu duen ibilbideaz arituko gatzaizkizue.

Agintaldi demokratikoaren hastapeneko egoera oso kezagarria zen irakaslegoaren hizkuntz gaitasunari dagokionean. SIADECOk plazaraturiko datuen arabera<sup>325</sup>, hego Euskal Herriko herri-ikastetxeetan irakas-lanetan ziharduten irakasleetatik ez ziren %5era iristen bere burua euskalduntzat jotzen zutenak. Hona hemen herri-ikastetxeetako EA eta OHOk irakasle euskaldunei buruz 1976-77 ikasturtean jasotako datuek ematen duten taula.

---

(324) Euskal Herriko eskola bilguneak behin-behingo ezartzen dituen abenduaren 27ko 479/1994 Dekretuaren bidez Eskola Mapa delakoa sortzeko lehen urratsa eman du Hezkuntza Sailak.

(325) *Estudio sociolingüístico del euskera*. Donostia: SIADECO, 1976, X-XI. alea.

**9. TAULA**

<b>Araba</b>	<b>1976-77</b>	
	<b>Irakasleak</b>	<b>Euskaldunak</b>
Araba	884	20
%		2,26
Bizkaia	3.809	140
%		3,67
Gipuzkoa	1.927	154
%		7,71
EHAE	6.620	314
%		4,74

ITURRIA: SIADECO  
EA + OHoko HERRI-IKASTETXEETAKO IRAKASLE EUSKALDUNEI BURUZKO DATUAK  
(1976/1977 IKASTURTEA)

Datu guztiz fidagarririk ez badago ere, zeharkako datuetatik dakikegunaren arabera, ikastetxe pribatuetakoko egoera ere ez zen bestelakoa; irakasle euskaldunen eskasia sare pribatu osoan hedaturik zegoen. Abiaturuko egoera lazgarri hartan salbuespen bakarra ikastolak ziren, izan ere, bertako maisu-maistra gehienak euskaldunak -gehiago ala gutxiago alfabetatuak- baitziren. Hala eta guztiz ere, ikastetxe pribatu eta publikoetako irakaslegoarekin konparatuz gero, ikastoletako irakasleek oso talde murrizta osatzen zuten; irakasle-multzo osoaren %10era ere ez ziren iristen.

Egoera kezkarri horren aurrean, hil ala bizikoa suertatzen zen irakaslegoaren euskalduntzeari lehenbailehen aurre egitea. Hala, 1978tik hasita, eta bereziki 1980tik aurrera euskal aginte publikoek irakaslegoaren euskalduntzeari buru-belarri ekin zioten. Hasiera batean, euskalduntze ihardunbideak bi ildo desberdin jarraitu zituen: batetik, eta batik bat, irakasle euskaldun berriak kontratatu ziren, eta bestetik, neurri apalago batean, jadanik irakas-

sistemaren baitan zeuden irakasleen euskalduntze eta alfabetatzeari ekin zitzaion.

Hartutako neurriek bat-bateko emaitzak eman zituzten eta lauzpabost urtetan irakaslegoaren hizkuntz egoerak antzaldaketa ohargarri bat izan zuen. Hezkuntza Sailak 1983an EA eta OHoko herri-ikastetxeetan eginiko inkestetatik jasotako datuek erakusten dutenez, 1976-77an %5era iristen ez ziren irakasle euskaldunak %22ra iritsiak ziren 1983an, 314 izatetik 1.666 izatera pasatuz. Irakasle horietaz gainera, 1.226 ziren -multzo osoaren %16- euskalduntze edota alfabetatze bidean zebiltzan irakasleak.

Orduan, eta beti ere neurketa autoestimatio hauek eskatzen duten zuhurtzia ahaztu gabe, 1978tik 1984ra bitarteko epean irakaslegoaren euskara prestakuntzan aurrerapauso nabarmena eman zela esan daiteke, batez ere, irakas-sistema euskalduntzeko lege-oinarri nagusiak oraindik finkatu barik zeudela kontuan izanik.

1982.ko Euskararen Legeak euskararen ofizialtasuna alor ezberdinetan arautu zuen. Legeak irakaskuntza alorrean xedatzen zuena garatzeko, Hezkuntza Sailak 1983.eko Elebitasun Dekretua eta Agindua indarrean jarri zituen. Bi arau horiek euskal irakaslegoaren erregimena arautu zuten, ordurarteko hutsune legala betetz. Elebitasun Dekretuaren arabera, euskara bera edo euskaraz irakasteko, irakasleek ondoko hiru baldintza hauek bete behar izango zituzten:

a) Kasuan kasuko titulazio akademikoaren jabe izatea.

b) Bi eskakizun hauetariko bat bederen betetzea:

- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo baliokide baten jabe izatea<sup>326</sup>.

- Titulazio akademikoak euskara espezialitatean lortu izana.

---

(326) Euskararen Gaitasun Agiria Hezkuntza Sailaren 1982.eko apirilaren 22ko Aginduaren bidez (EHAA, maiatzak 5) sortu zen, eta bere helburua euskararen ezagupen-maila huts-hutsik neurtzea da.

d) Hezkuntza Sailak indarrean dagoen legeriaren arabera ezar dezakeen beste edozein betebeharrak.

Azken puntu hau 1984ko maiatzaren 3ko Aginduak<sup>327</sup> garatu zuten. Agindu honek Irakaskuntza Ertainetan euskara bera edo euskaraz irakasgaiaren bat irakatsi behar zuten irakasleei beste betebeharrak berri bat ezarri zien. Izan ere, EGA tituluak euskararen ezagupen-maila huts-hutsik eta orokorrean neurtzen zuten, inolako berariazkotasunik gabe. Hori dela eta, EGA ez zen neurbide nahikoa irakasleak bere ikasgaiari loturiko euskararen ezagutza berariazkoa zuela bermatzeko. Horretarako emendiozko neurbide bat behar zen, irakasleak bere irakasgaiari buruzko euskal terminologia eta hizkerabide normalizatua zuzen ezagutzen zuela ziurtatuko zuena. Neurbide berri hori Euskaraz Irakasteko Trebetasun-aitormenean (EIT) gauzatu zen. Hala, 1984tik aurrera IEetan euskara edo euskaraz irakasteko, kasuan kasuko titulazio akademikoa, EGA edo baliokidea eta EIT beharrezkoak izan dira.

Irakas-lanetan aritzeko beharrezkoak ziren hizkuntza gaitasunak finkatzeaz gain, 1983.eko elebitasun arauak irakasleagoa euskaldundu eta alfabetatzeko berariazko programa bat era zezala agindu zioten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari<sup>328</sup>. Xedatua

---

(327) EHAA, 1983ko uztailak 19.

(328) 138/1983 Dekretuak honela dio:

10. art.: «Irakasleagoa euskalduntzeko prestakuntza eta hobekuntza programak ondoko eredu hauen arabera izango dira:

1. Euskal irakaskuntzan arituko diren irakasleen hizkuntza gaitasuna lortzeko ikastaroak, Euskararen Gaitasun Agiria edo ordezkioa eskuratzeko eratuak.

2. Hainbat irakasgai euskaraz eman ahal izateko irakasleak trebatzeko ikastaroak».

Ildo beretsutik, urte bereko Elebitasun Aginduak zera dio:

3.1 art.: «Euskal Autonomi Elkarteak ikastetxeetan lanean diharduen irakasle-jendea alfabetatu edo euskalduntzeko programa eratuko du Hezkuntza Saila eta Kultura Sailak, eta urtero-urtero beteko.

Programa horren harian urtero antolatu eta diruz lagunduko diren ikastaroei bi helburu izango dituzte: batetik irakasleak Euskararen Gaitasun Agiriaren jabe izan ahal izateko gaitzea eta, bestetik, jadanik

betez, 1983ko abenduaren 26ko Aginduaren<sup>329</sup> bitartez Hezkuntza Sailak Irakasletoa Euskalduntzeko edota Alfabetatzeko Programa (IRALE) ofizialki sortu zuen<sup>330</sup>.

IRALE programaren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan irakaslanetan diharduten irakasleak euskalduntze edota alfabetatzea da, euskarazko irakaskuntza behar adinbateko trebeziaz emateko gai izan daitezten. Horretarako, IRALEk bere ikastaro desberdinen bidez hezkuntza mailan indarrean dauden hizkuntza maila bat edo beste prestatzeko aukera ematen die euskal irakasleei. Hain zuzen ere, Hezkuntza Sailak 47/1993 Dekretua atera zuen arte<sup>331</sup>, euskal irakas-sisteman ondoko hizkuntza mailak genituen:

- EGA: euskara edo euskaraz irakasten zuten Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasleentzat.

- EGA+EIT: euskara edo euskaraz irakasten zuten Irakaskuntza Ertainetako irakasleentzat.

- GUMA: euskara edo euskaraz irakatsi beharrik izan gabe eskola-giroaren euskalduntze-prozesuan partehartzaile izan nahi zuten irakasleentzat.

---

Agiri hori eskuratua dutenei beren irakasgaiak euskaraz eman ahal izateko trebetasuna eskuratzen laguntzea.

3.2 art.: Bi hilabete baino gehiagoz beren irakaslanetik libratuak Hezkuntza eta Kultura Sailak antolatutako ikastaro trinkoen bidez alfabetatzera edo euskalduntzera joandako irakasleek, ikastaro-amaieran Sail honen ustez gutxienezko maila gauditua baldin badute, euskara edo euskaraz irakatsi beharko dute berriro irakaslanera itzultzean, non eta Hezkuntza eta Kultura Sailak, hartarako arrazoia zuzenetsirik, exentzioa ematen ez dion.

Edozein kasutan ere, Hezkuntza eta Kultura Sailak beharrezko baliabideak eskainiko dizkie irakasle hauei bost urteko epearen barruan Euskararen Gaitasun Agiria lortu ahal izan dezaten».

(329) EHAA, 1983ko urtarrilak 27.

(330) Ofizialki diogu zeren aldez aurretik ere Hezkuntza Sailak irakastordu barneko eta egun osoko hizkuntz prestakuntza eskaintzen zuen zerbitzua antolatua baitzuen.

(331) EHAA, 1993ko apirilak 2.

EGA eta EIT hizkuntz helburuak betetzea derrigorrezkoa zen, GUMA, aldiz, irakasleen aukerakoa. Bestalde, EGA eta EIT hizkuntz eskakizunak eskuratuak zituzten behar hainbeste irakasle euskaldun kausituko ez zen beldurrez, Hezkuntza Sailak IGA izeneko aldi baterako aitorten-maila atera zuen. Agiri honek epe jakin baterako ez EGA ez EIT hizkuntz eskakizunak ez zituzten irakasleei euskara edo euskaraz irakasteko abagunea eman zien.

Oraintsu esan bezala, 47/1993 Dekretuak herri-ikastetxeetako irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak finkatu zituen, ordurarteko hizkuntz helburuak suntsituz. Hizkuntz eskakizunen sistema irakasleen mundura ekarri zuen dekretu honen sorburua bilatzeko ezinbestekoa zaigu denboran atzera egitea.

Hala, bada, 1989ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak euskal administrazio publikoaren normalkuntzarako oinarriak jarri zituen. Lege hau garatzeko eta 250/1986 Dekretuan oharteman-dakoak osotuz, urriaren 17ko 224/1989 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztientzako normalkuntza eskema bateratua garatu zuen. Normalkuntza bidea ahalik eta modu objektiboenean burutzeko, dekretu honek funtzio publikoa osatzen zuten lanpostu guztiei hizkuntz eskakizun jakin batzuk ezarri zizkien. Nolanahi ere, bere izaera eta egitura berezia zirela eta, irakaskuntza, osasun-zerbitzua eta ertzaintza alorrek normalkuntza prozesu orokor honen aplikaziotik salbuetsita geratu ziren. Irakasle Kidegoei buruzko 2/1993 Legea, eta hau garatzeko sortu zen martxoaren 9ko 47/1993 Dekretua, irakaskuntza alorrean ordurarte zegoen hutsune legala betetzera etorri dira, hezkuntza administrazioaren zerbitzupeko irakasleen hizkuntza normalkuntzaren prozesua araupetuz.

Euskal Funtzio Publikoaren Legeak eta honen garapenerako araudiak jarraitu duten haritik, 47/1993 Dekretuak hizkuntz eskakizunen bidez irakaspostuak lortzeko eta bertako lana betetzeko beharrezkoak diren euskararen ezagutza mailak finkatzen ditu. Zehazki bi dira irakaspostuei ezartzen zaizkien hizkuntz eskakizunak:



- 1 Hizkuntz Eskakizuna: euskarazko edo euskaraz irakasgaiak ematen ez dituzten irakasleek betetako irakaspostuei zuzendua. Euskara zerbitzu hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko du, gutxi gora-behera, GUMA eskuratzeko beharrezkoa den euskara maila<sup>332</sup>.

- 2 Hizkuntz Eskakizuna: euskarazko zein euskaraz irakasgaiak ematen dituzten irakasleek betetako lanpostuei zuzendua. Euskara zerbitzu hizkuntza nahiz irakaskuntza hizkuntza legez erabiltzeko beharrezkoa den hizkuntza gaitasuna bermatuko du, gutxi gora-behera EGA eskuratzeko beharrezkoa den euskara maila<sup>333</sup>.

Irakaspostuetarako hizkuntz eskakizunak ezartzen dituen dekretuaren arabera, hortaz, bi irakasle mota izango ditugu: erdi-euskaldunak edo HE1 dutenak, eta euskaldun osoak edo HE2 dutenak. Horrela, orainarte hezkuntza-sare guztietan indarrean zeuden hizkuntza mailak -EGA, EIT, GUMA eta IGA-, bakarrik irakaskuntza pribaturako mantenduak izango dira, sare publikoan HE1 eta HE2 eskakizun berriek haiek ordezkatzeko dituzte eta.

Hizkuntz eskakizun hauek bakar-bakarrik araubide orokorreko irakaskuntza ematen duten herri-ikastetxeetako irakaspostuei aplikatuko zaizkie, alegia, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza/OHOk eta irakaskuntza ertainetako irakaspostuei.

Ikasteredu bakoitzerako hizkuntz eskakizunen banaketa eta derrigortasun egunak finkatzeko epea hamar urtekoa izango da, bosna urteko aldi bitan banatua. Eta ereduz ereduko hizkuntz eskakizunen banaketarako ondorengo irizpideak jarraituko dira:

a) Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza/OHOk ikastetxeak:

---

(332) «Hizkuntza Administrazioak onartuta, IGA (Irakasgaitasun-Aitormena) aldibaterako gaitasuna edo GUMA (Gutxienezko Maila) duten irakasleei, 1 hizkuntza eskakizuna egiaztatuko zaie» (47/1933 Dekretuaren 3. Erabaki Gehigarria).

(333) 47/1993 Dekretua indarrean sartu aurretik EGA edo EIT egiaztagirik dituztenei eta euskararen espezialitatetik titulazio akademikoa lortu dutenei 2HE baliokidetuak zaie (3. erabaki gehigarria).

EREDUA	1HE	2HE
A	11	3
B	4	10
D	1	13

A ereduari dagozkion HE1eko hamaika eskakizunak hamar urteko epean ez dute derrigortasun egunik, edo beste era batera esanda, hamar urteko aldarte horretan irakasleek HP1i dagokion euskararen ezagutza maila egiaztatu gabe irakaspustu horiek bete ahal izango dituzte<sup>334</sup>. B ereduari dagozkion HE1eko lau eskakizunak, ordea, hamar urteko epea amaitu aurretik derrigorrezkoak izango dira. Azkenik, D ereduan HE1 ezarria duen lanpostuak berehalako derrigortasuna izango du.

HE2 ezarria duten lanpostuek ere berehalako derrigortasuna izango dute, B ereduko bik izan ezik; horietan irakasle-iharduneari aritu nahi dutenek bost urteko lehenengo aldia amaitu aurretik eskaturiko euskara gaitasuna egiaztatu beharko dute.

b) Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeak:

EREDUA	1HE	2HE
A	Irakasle guztiak Euskal hizkuntza eta Literaturako irakasleak izan ezik	Euskal Hizkuntza eta Literaturako irakasleak
D		irakasle guztiak

HE1eko lanpostuek hamar urteren buruan ez dute derrigortasun egunik izango, aldiz, HE2ko lanpostuen derrigortasuna berehalakoa izango da.

(334) Haatik, 47/1993 Dekretuaren 10.1 artikulua dioenez, «lanpostu horietako titular diren batzuen euskalduntzea bultzatuko du Administrazioak, [bost urteko] bigarren aldian horietako hiruk behintzat 1 hizkuntza eskakizunari dagokion hizkuntza gaitasuna lortzeko».

Horiek horrela, batzuek arinago besteek beranduago, akaberan herri-ikastetxeetako irakasposturen bat bete nahi izango duten guztiek, printzipioz, kasuan kasuko lanpostuari dagokion hizkuntz eskakizuna egiaztatzen duen ebaluazio-froga gainditu beharko dute. Dena den, hizkuntz eskakizunen derrigortasuna arautzen duen erregulazio orokorrak salbuespenak ditu. Horrela, segidan zerrendatzen diren baldintzetakoren bat betetzen duten irakasleek ez dute HE1 egiaztatu beharrik izango:

- Plangintzako aldi bakoitzaren hasieran 45 urtetik gora dituztenek.

- Euskara ikasteko prozesurako beharrezko gaitasun-trebeziarik ez dutela era nabarian frogatzen dutenek.

- Helduen hizkuntza prestakuntza eta gaitasunerako gaur egun indarrean dauden egitarauen bidez euskara ikasteko ezintasuna edo eragozpenak sortzen dituzten elbarritasun fisiko edo psikikoek eragindako pertsonak.

47/1993 Dekretuaren edukiari gainbegiratua eman eta gero, honek herri-irakaskuntzan ezarri duen marko orokor berriaren gainean gogoetaren bat edo beste egingo dugu jarraian.

Esan bezala, 2/1993 Legea eta honen garapenerako sortu zen 47/1993 Dekretua bere garaietan Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak irakaskuntza alorrean utzi zuen hutsunea betetzera etorri dira, irakaspostuetarako euskarazko eskakizunak arautuz. Hutsunea bat bete duen heinean araubide berri hau indarrean jarri izana estimatzekoa da. Izan ere, 47/1993 Dekretuaren alderdirik baikor edo positiboena hau da, gure aburuz: irakasle orok, ikusitako salbuespen jakin batzuek izan ezik, euskarazko ezagueraren bat edo beste -HE1 ala HE2- nahitaez egiaztatu behar izango dutela. Alderdi baikor hau gora-behera, 47/1993 Dekretuak ezarritako marko orokor berriak badu zenbait itzal:

- Araubide berriak herri-ikastetxeetako irakasleak baino ez ditu legepean hartzen, eta ez denak, bakarrik araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituztenak. Honek ikaslegoaren heren bat baino gehiago bideratzen duen irakaskuntza pribatua erregulazio berritik

kanpo uztea suposatzen du. Gure ustez, ez da zentzuzkoa irakas-lana burutzeko, irakaskuntza pribatuan diharduten irakasleei eta irakaskuntza publikoan dihardutenei legez hizkuntza prestakuntza desberdinak esijitzea, batez ere, irakasteredu elebidunen ezarpena ikastetxe publiko eta pribatuetan berdin-berdina dela kontuan izanik. Horrexegatik, araubide berria irakaskuntza pribatura lehenbailehen zabaltzeari komenigarria deritzogu, alferrikako bikoiztasunik sor ez dadin.

Aurreko pasartearen esandakoaren haritik, Ikuskaritza Teknikorako Zerbitzuko irakaspostuak arautzea ere komenigarria litzateke, dekretuak arautu barik utzi ditu eta.

- Ukaezina da, eta horrela adierazia dute adituek ere, pertsona helduek hizkuntza berriak eskuratzeko zailtasun franko dutela, ume edo gazteek izan ditzaketenak baino askozaz ere handiagoak, urteak igaro ahala areagotzen direnak gainera. Hala ere, 47/1993 Dekretuak hizkuntz eskakizunen derrigortasuna arautzerakoan ezartzen duen 45 urtetik gorakoan salbuespena akaso gehiegizkoa da; eta beste horrenbeste esan daiteke dekretuak hizkuntz eskakizunak egiaztatzeko ezartzen duen 10 urteko epeari dagokionez. Beharbada, hain epe luzea ezarri beharrean, hobe litzateke irakasketako erdalduna euskalduntzeko bideak erraztea<sup>335</sup>.

- Ikusi legez, 47/1993 Dekretuak irakaspostu publikoen hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak ezartzeko oinarriko irizpideak finkatu ditu. Alabaina, bertan azaltzen diren irizpide eta portzentaiak gaundiezinak direnentz zehaztugabe utzi du. Lege-testuak deus ez dioen arren, gure iritziz, eredu eredu hizkuntz eskakizun banaketarako 47/1993 Dekretuak finkatu dituenak ez dira irizpide finko eta aldaezinak. Bertan azaltzen direnak kasuan kasuko herri-ikastetxearen egoera konkretuaren arabera molda daitezkeen oinarriko irizpideak dira, zurbide objektibo eta arrazoitua dagoen kasuetan<sup>336</sup>. Hori dela eta, ikastetxea kokatua

---

(335) Zentzu horretan ikus BASURKO, F. Euskara: Hezkuntz-sistemaren hezurdura. *BAT-Soziolinguistika Aldizkaria*, 1993, 10. zenb., 31. or.

dagoen gunearen ezaugarri soziolinguistikoak, bertako gurasoen hizkuntz ereduaren eskakizunak eta eskueran dauden baliabideak bezalako faktoreak ere kontuan hartzekoak dira ikastetxe bakoitzeko irakaslegoaren hizkuntz eskakizunak zehazterako orduan. Horrela ulertzen da, bada, eredu berdineko ikastetxeek lanpostu-zerrendetan hizkuntz eskakizun ezberdinak edukitzea. Hori bai, ikastetxe bakoitzaren egoeraren arabera moldatu badaitezke ere, gure ustez, dekretuan azaltzen direnak gutxienezko irizpideak dira, hau da, goitik bakarrik gaindi daitezkeenak eta inoiz ez behetik. Ez dugu ahaztu behar hizkuntz eskakizunen finkapena eta hauen derrigortasuna helburuak ez baizik bideak direla, Euskararen Legeak aurrikusten duen irakas-sistema elebidun horretara heltzeko bidea, alegia. Eta jakina, irakas-sistema nekez euskaldunduko da herri-ikastetxeei legean ezarritako euskalduntze-mailak jaisten baldin bazaizkie.

Kontuak kontu, B eredudun zenbait herri-ikastetxeren ardura-dunek beren kexa azaldu dute zeren, euren iritziz, 47/1993 Dekretuak xedatutakoa zehaztera etorri den maiatzaren 4ko 124/1993 Dekretuak<sup>337</sup>, herri-ikastetxeetako irakasleei dagozkien lanpostu-zerrendak onartu dituenak, bertan azaltzen ziren oinarrizko

---

(336) Halaxe aitortu zuen, aitortu ere, Euskal Herriko Justizi Auzitegi Nagusiak B ereduaren euskarazko baldintzak arautzen zituen 1986ko uztailaren 4ko Aginduaren kasuan:

«Y, es así que, aun en la interpretación que la parte demandada efectúa de la mentada norma, en cuanto abierta y dirigida a establecer un mínimo de profesores con la titulación adecuada, como garantía de los derechos de los educandos, la ampliación de aquel porcentaje, en cuanto comporta, como queda dicho, un trato desigual para los profesores carentes de aquella titulación, ha de tener una justificación objetiva y razonable, justificación que puede encontrarse o bien, por así desprenderse de la citada Orden y del Decreto 138/1983 que desarrolla, en una distinta distribución de materias a impartir en una y otra lengua, o bien en cualquier otro dato o motivo que, conforme a común criterio, presente dicha exigencia como objetiva y razonable. Justificación que, en todo caso, ha de ser ofrecida por la Administración.» (1991ko urriaren 24ko Epaia, 6. oinarri juridikoa).

(337) EHAA, 1993, maiatzak 10.

irizpideak zuzenean aplikatu baititu, ikastetxe bakoitzak alde zuzenetik zituen hizkuntz ezaugarriak kontuan izan barik. Hari beretik, Arartekoak ezagutzera eman duenez, 1992-93 ikasturteari dagozkion langile kopuruak eta 124/1993 Dekretuak onarturiko lanpostu-zerrendak alderatuz gero, B ereduko herri-ikastetxe batzuen euskara-gaitasun mailak jaitsi egin direla ikus daiteke. Eta, jakina, B ereduko irakaspostuetarako hizkuntz-gaitasun maila jaisteak ikastetxe horietako euskalduntze mailan eragin zuzena izan dezake zeren, azken finean, lanpostu zerrendak irakaspostuak hornitzeko lege ezarritako baldintzak baitira.

- Hizkuntz eskakizun berrien agerpenarekin batera, hauek egiaztatzeko neurbide berriak ere agertu dira. Hemendik aurrera EGA, EIT eta IGA agiriak HE1 eta HE2 egiaztatzerako orduan, ez dute aparteko baliorik izango. Hezkuntza administrazioak HE1 eta HE2 egiaztatzeko berariazko ebaluazio-frogak antolatu ditu. Teorian behintzat, neurgailu berri hauek irakasleek irakas-ihardunean erabili beharreko euskarari hobeto egokitu beharko litzaizkioke, irakaskuntza alorreko hizkuntza gaitasunak bereziki zainduduz. Baina, egia esan, orain arte euskararen ezagutza maila neurtzeko erabili diren irizpideak ez daude oso garbi. Hala, badira neurbide berriek aurrekoen maila hobetu beharrean gaizkoatu egin dutela pentsatzen dutenak<sup>338</sup>.

Azkenik, eta urte hauetan irakaslego euskaldunak izan duen bilakaera hobeto ezagutzeko lagungarri izango zaizuelakoan, ondoren herri-ikastetxeetako EA eta OHO irakas-mailei buruzko

---

(338) «...HE2 delakorako, bestalde, orain arteko agiriaren baieztapenak ontzat ematen dira (EGA, EIT, etabar), baina, kezkarria zera da: aurrerantzerako agiri horiek ez direla onartzen neurgailu gisara. Hainbeste urtetako esperientziari esker, akatsak izan arren, gizamailan nahiko onarpena duen agiri bat ezarri ondoren, zein arrazoi dago orain gaitzesteko? Kezka areagotzen duena zera da: hobeagorik eskaini gabe, dagoena baztertzen dela».

IDIAZABAL, I. Hezkuntza eremuko lege berriak eta euskararen normalakuntza: zenbait gogoeta. *BAT-Soziolinguistika Aldizkaria*, 1993, 10.zenb., 19. or.

zenbaki-taula zeuenganatzen dugu. Urte bakoitzean erabilitako neurbideak desberdinak direnez gero, datu hauek ez dute konparaketa zehatz-mehatza egiteko biderik ematen. Dena den, herri-ikastetxeetan irakasle euskaldunen kopuruak jarraitu duen goranzko joeraren orientabide gisa baliagarria iruditzen zaigu. Ikusiko duzueenez, adierazgarria da duela 18 urteko eta egungo datuen arteko aldea: 1976-77 ikasturtean EA eta OHOk herri-ikastetxeetan bere burua euskalduntzat zuten irakasleak %5era iristen ez ziren bitartean, 1994-95 ikasturterako Lehen Hezkuntzan/OHOn %58 inguru dira euskaraz irakasteko gaituak daudenak -HE2dunak- eta ia %8 euskara zerbitzu-hizkuntza legez erabil dezaketenak -HE1dunak-.

10. TAULA

	1976-77		1985-86		1989-90			1994-95			
	Irakas.	Euskal.	Irakas.	EGA	Irakas.	EGA	IGA	Irakas.	HE1	HE2	HEO
Araba	884	20	1.687	375	1.574	520	122	2.188	176	1.095	917
%		2,26		22,23		33,03	7,75		8,04	50,04	41,91
Bizkaia	3.809	140	5.258	1.381	5.874	2.338	312	7.264	500	4.093	2.671
%		3,67		26,26		39,8	5,31		6,88	56,35	36,77
Gipuzkoa	1.927	154	2.364	868	2.569	1.330	268	4.013	338	2.889	786
%		7,71		36,71		51,77	10,43		8,42	71,99	19,59
EHAE	6.620	314	9.309	2.624	10.017	4.188	702	13.465	1.014	8.077	4.374
%		4,74		28,18		41,8	7,01		7,53	59,98	32,48

TURRIAK: 1976-77: SIADECO - 1985-95: HUIS  
EA + OHOKO HERRI-IKASTETXETAKO IRAKASLEGO EUSKALDUNARI BURUZKO DATUAK



### 6.4.3. Hezkuntza-administrazioaren euskalduntzea

Ezaguna denez, 1980. urtean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila sortu zen. Hezkuntza Saileko langilegoaren hizkuntza egoera ezagutzeko lehen urratsak 1984an eman ziren. Hezkuntza administrazio batetik bestera hizkuntza egoera oso bestelakoa zen. Egoitza Nagusian lau langiletatik hiru euskaldunak ziren, Gipuzkoako Ordezkaritzan erdia inguru, Bizkaikoan laurdena edo, eta Arabakoan %10era ez ziren iristen euskara ezagutzen zuten langileak.

Gainontzeko gobernu sailekin alderatuz gero, Hezkuntza Saileko langilegoaren euskararen ezagutza maila dezente altua zela esan daiteke. Nolanahi ere, euskaldun kopuru handi horrek ez zekarren maila bereko erabilerarik eta hezkuntza administrazioaren lan-hizkuntza gaztelania zen. Gauzak horrela, Hezkuntza Saila NOLEGA programaz baliatu zen bere burua euskalduntzeari ekiteko. Euskalduntze iharduerak bi xede nagusi zituen, euskara ez zekiten langileek euskara ikastea batetik, eta euskara zekitenek euskaraz lan egin zezaten bestetik. Azken xede hau mamitzeko asmoz Hezkuntza Sailak 1985ean berariazko arautegi bat atera zuen, zeinetan idazki guztiak hizkuntza bietan egitea eta zenbait ikastetxeekiko harremanak -ikastola, D eta B erduekikoak-euskara hutsez izatea agintzen zen.

Ildo beretsutik, 1985eko abenduan Hezkuntza Sailaren Egoitza Nagusirako hiru urtetako euskalduntze plana antolatu zen. Hiru urtetarako begiz jo zen plan horrek bi atal zituen, gaitze arloari buruzkoa bata, eta erabilerari buruzkoa bestea. 1986, 1987 eta 1988an zehar indarrean egon zen plan horri esker, hezkuntza administrazioaren euskalduntze bidean aurrerakada nabarmena gertatu zen gaitze mailan nahiz erabilpen mailan. Adibide gisa idatzizko produkzioaren euskaltasun mailak izan zuen gorakada aipa daiteke. Zabalkunde handiko idatzien ia %100a elebiduna izatea lortu zen eta zabalkunde ertain eta txikiko idatzietan ere euskararen agerpenak dezente egin zuen gorantza. Gaztelania hutsean zeuden zabalkunde txikiko idatziak, hasierako urteetan %80ra iristen zirenak,

1989. urterako %40ra jaitsi ziren. Bestalde, euskara hutsezko idazkiei dagokienean aurreko egoera mantendu zen, produkzioaren %20ari eutsiz.

Hiru urtetako plana martxan jarri eta gero, hezkuntza administrazioaren euskalduntze bidean eragin itzela izango zuten gertakariak jazo ziren. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetako euskararen erabilpena normaltzeko indarrean jarri zen araubideaz ari gatzaizkizue.

Azaroaren 25eko 250/1986 Dekretuak<sup>339</sup> administrazio elebiduna eraikitzeke funtsezko oinarriak ezarri zituen. Bi dira dekretu honen alderdirik aipagarrienak: batetik, euskal herri-administrazioa euskalduntzeko hizkuntz eskakizunen sistema ezarri zuen<sup>340</sup>, horretarako lanpostu bakoitzari egokituko zitzaion hizkuntz eskakizuna finkatzeko jarraitu beharreko irizpideak ezarri<sup>341</sup>; eta bestetik, EAeko herri-administrazio bakoitzak euskararen erabilpenean bete beharreko gutxienezko helburuak

---

(339) EHAA, 1986ko azaroak 29.

(340) 6.1 art.: «Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen laguntzarekin, finkatuko ditu, iadanik dauden eta sor daitezkeen lanpostu guztien hizkuntz eskakizunak.

2. Herri-Administrazio desberdinetako lanpostuen zerrendek bere baitako oinarritzko ezaugarri edota baldintzen artean, lanean aritzeko euskarazko gaitasunari buruzkoak adieraziko dituzte».

(341) 10. art.: «Hizkuntz eskakizunak finkatzeko honako erizpideok hartuko dira kontuan (...):

1. Lur-eremu edo barrutiaren euskaldun kopurua.

2. Lanpostuak jendearekiko zer-nolako hurbiltasuna duen, hau da, harremanak norekin, nola, eta zein maiztasunarekin dituen.

3. Lanpostuaren Administrazio barruko harreman-sarea (norekin, zenbateko, nolakoa eta maiztasuna).

4. Lanpostuaren zeregin eta eginkizunen izaera eta ezaugarriak.

5. Lanpostuaren maila eta bere menpe duen lanarigoaren kopurua.

6. Lanpostuan sortzen diren idazkien azterketa (zenbatekoa eta izaera).

7. Lanpostua kokatua dagoen zerbitzuaren izaera. Dekretu honetan adierazten denerako Zerbitzuak eta Administrazio Atalak honela sailkatuko dira:

finkatu zituen. Izan ere, ondoko hauek dira dekretuak EAEko Administrazio Orokorrari eta, bide batez, baita hezkuntza administrazioari ere agindu zizkienak:

a) Kokaturik dauden eskualdearen euskaldun-kopurua %0 eta %20 tartekoa denean<sup>342</sup>, herritarrekin ahoz nahiz idatziz harreman zuzena duten bulego guztietan, harreman horiek euskaraz ere bermatzeko adinbat langile elebidun izango da beti.

b) Kokaturik dauden eskualdearen euskaldun-kopurua %20 eta 40% tartekoa denean, aurreko helburua betetzeaz gain, euskaraz sar dadin idazki orori, erabat euskaraz emango zaio tramitazio osoa. Horretarako zirkuitu edo kate elebidunak sortuko dira Gizarte-Izaera eta Izaera-Orokorrekoak diren Zerbitzu eta Administrazio-Atal guztietan.

d) Kokaturik dauden eskualdearen euskaldun-kopurua %40 eta %60 tartekoa denean, a) ataleko helburua lortzeaz gain b) atalekoa Zerbitzu eta Administrazio Atal guztietara hedatuko da.

e) Kokaturik dauden eskualdearen euskaldun-kopurua %60 eta %80 tartekoa denean, aurreko helburu guztiak betetzeaz gain, Gizarte Izaera eta Izaera Orokorrekoak diren Zerbitzu eta Administrazio Atalak osorik ele bietan lanean jarriko dira. Horretarako, eta hartu beharreko beste hainbat neurriren artean, langileak bere lana euskaraz ere bete ahal izateko gaituko dira.

---

a) Gizarte izaera dutenak: Herri-Administrazioaren harreman alderdia estu eta sakonki nabarmentzen dutenak. Bereziki, Irakaskuntza Zerbitzuak, Kultura-Zabalkundea, Osasun-Zerbitzuak -azoka eta bezeroentzako informazio bulegoak-, Gizarte-Laguntza, Hiritar-Babes eta Segurtasun Zerbitzuak.

b) Izaera orokorra dutenak: Bere eragina funtsean Administrazio barneko alor edo eremuan ageri eta nabarmentzen dutenak. Bereziki, Informatika, Antolakuntza-Zerbitzuak, Lanarigoa, etab.

d) Besteak».

(342) 250/1986 Dekretuaren eranskinean euskaldun kopuruaren arabera autonomi lurraldea bost eskualdetan banatzen duen mapa soziolinguistikoa azaltzen da.

f) Kokaturik dauden eskualdearen euskaldun-kopurua %80 eta %100 tartekoa denean, a), b) eta d) ataleko helburuak betetzeaz gain, Zerbitzu eta Administrazio Atal oro osorik ele bietan lanean jarriko da. Horretarako, eta hartu beharreko hainbat neurriren artean, langileak beren lana euskaraz ere bete ahal izateko gaituko dira.

1989ko Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak eta honen garapenerako ateratako arauak (urriaren 17ko 224/1989 Dekretua eta urriaren 9ko 264/1990 Dekretua) 250/1986 Dekretuak aurrikusitakoa garatu zuten Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko herri-administrazio osoaren elebiduntze prozesua hezurramituz. Hauek euskal administrazio publiko guztien lanpostuetarako hizkuntza eskakizunak eta derrigortasun egunak finkatu zituzten. Herri-administrazio izaera zuen aldetik, hezkuntza administrazioari ere aipatutako lege-arauak aplikatu zitzaizkion. Haatik, bere berariazkotasuna zela eta, hezkuntza administrazioari loturiko irakasleak araubide orokor horretatik kanpo geratu ziren eta, aurrerago ikusi dugun moduan, beraiantzako hizkuntz eskakizunen sisteman ere oinarritzen zen berariazko erregulazioa atera zen<sup>343</sup>.

1989tik aurrera, beraz, hezkuntza administrazioaren euskalduntzea hizkuntz eskakizunen sistemaz baliatuz bideratua izan da. Ondoko taulek, hurrenez hurren, hizkuntz administrazioan lanean ari den pertsonal ez irakaslearen kopurua batetik, eta hezkuntza saileko pertsonal ez irakasle horrek gaurdaino egiaztatutako hizkuntza eskakizunei buruzko datuak bestetik, erakusten dituzte. Ohar bat: Hizkuntz eskakizunetako azterketetara funtzionariak (eta, gainditu ez arren, oposizioetara aurkeztutakoak) soilik aurkez daitezke. Gaurko sistema ezarri baino lehenago lanean hasitako zenbaitek (euskara-maila egokia izan ala ez) ez dute inoiz azterketotara aurkezteko aukerarik izan. Hortaz, HEen estatistikek ez dute langileen euskara-mailari buruzko informazio osoa ematen, dena

---

(343) Ikusi berri ditugun EAEko Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoak arautzeko 3/1993 Legeaz eta honen garapenerako ateratako araudiaz ari gara.

den, ideia orokor bat eratzeko balio dute. Hona hemen lorturiko azkenengo datuak:

**11. TAULA**

	<b>Administrazio orokorra (Ikastetxeak ez)</b>	<b>Ikastetxeetako langile ez-irakasleak</b>
Egoitza nagusia	173	–
Araba	66	80
Bizkaia	127	375
Gipuzkoa	93	268
Guztira	559	723

ITURRIA: HUIS

**HEZKUNTZA SAILEAN EGIAZTATUTAKO  
HIZKUNTZA -ESKAKIZUN KOPURUAK  
(Lurralde ordezkariak barne)**

**LANPOSTUAREN HEren ARABERA**

*(Zentroetako administrari laguntzaile eta menpekoak barne)*

**12. TAULA**

LANPOSTUAREN HE	HIZKUNTZA - ESKAKIZUNA					GUZTIRA	
	1	2	3	4	TG		
DERRIGORTASUNIK	0?	2	8	1	0	0	11
GABE	1	13	21	8	0	0	42
	2	33	47	10	2	0	92
	3	7	19	14	3	1	44
	TG	0	0	0	0	6	6
GUZTIRA DERR. GABE		55	95	33	5	7	195
DERRIGORREZKOAK	1	27	24	9	1	0	61
	2	26	116	24	1	0	167
	3	2	5	8	3	3	21
	4	0	0	1	2	0	3
GUZTIRA DERRIG.		55	145	42	7	3	252
GUZTIRA DENAK		110	240	75	12	10	447

(Zentroetako administrari laguntzaile eta menpekoak kenduta)

**13. TAULA**

LANPOSTUAREN HE		HIZKUNTZA - ESKAKIZUNA					GUZTIRA
		1	2	3	4	TG	
DERRIGORTASUNIK	0?	2	7	1	0	0	10
GABE	1	1	1	1	0	0	3
	2	10	26	3	2	0	41
	3	7	19	14	3	1	44
	TG	0	0	0	0	6	6
GUZTIRA DERR. GABE		20	53	19	5	7	104
DERRIGORREZKOAK	1	1	3	0	0	0	4
	2	12	53	18	1		84
	3	2	5	8	3	3	21
	4	0	0	1	2		3
GUZTIRA DERRIG.		15	61	27	6	3	112
GUZTIRA DENAK		35	114	46	11	10	216

ITURRIA: IVAP/HAEE

**VII**  
**AZKEN GOGOETA**

Bukatzeko zorian dagoen azterlan honetan, ikusi ahal izan duzuen legez, hizkuntz eta hezkuntza eskubideak maila desberdinetan nola lege-itxuratu diren aztertzeari ekin diogu, dela nazioarte mailan, dela estatu mailan, dela automomia erkidego mailan.

Nazioarte mailari dagokionez, hezkuntza eta hizkuntza gaiak izan duten garapena oso bestelakoa da. Nazioarteko testuek hezkuntza arloa erruz arautu dute eta araupen oparo horri esker, hezkuntzarako eskubidea hein handi batean hezurmamiturik geratu dela esan daiteke. Hizkuntz eskubideak, ostera, oso modu eskasean arautuak izan dira; izan ere, nazioarteko hiru hitzarmenek (IMGAH, EZPNP eta HEHk) soilik norbere hizkuntza erabiltzeko eskubidea aitortu dute. Azken urteotan hizkuntz gutxiengoan alde nazioarte mailan igar daitekeen sentiberatasuna handitu izanagatik ere, tamalez, argi dago hizkuntz gutxiengoan erreibindikazioek estatu askotan oraindik errezelo ugari sortzen dutela. Esandakoaren adibide garbia, 1992ko Eskualde Mailako edo Gutxiengoan Hizkuntzen Europako Karta Finlandiak bakarrik sinatu izana da.

Estatu mailan, bi dira hezkuntza eta hizkuntzaren gaineko erregulazioaren pilarr nagusiak: Espainiako Konstituzioaren 3. eta 27. artikulua. Araupen konstituzionala izateko, 27. artikulua hezkuntza eskubideak luze eta zabal jorratu ditu. Hala ere, ez da testu hertsia, zehatz eta moldagaitza; alderantziz, 27. artikulua testu orokor, moldakor eta malgua da, gutxienezko baldintza markoa finkatu eta hezkuntza sistemaren eraketa etorkizuneko legegileen konfigurazio ahalmenaren esku utzi duena.



EKren 3. artikulua, bestalde, Espainiako Estatuaren izaera eleanitza aldarrikatzen du, gaztelerarekin batera gainerako herrialde hizkuntzen ofizialtasuna aginduz. Artikulu honek sistema mistoa ezartzen du eleaniztasunaren antolaketarako, alegia, pertsonatasun printzipioan eta lurraldetasun printzipioan oinarrituriko sistemen erdibidean dagoena eta hauen hibridoa dena. Honen ildotik, gazteleraren ofizialtasuna estatu lurralde osora hedatzen den bitartean, herrialde mailako hizkuntzena euren autonomi-lurraldeetara mugatzen da.

Bestetik, Konstituzioak arautzen duen hezkuntzarako eskubideak funtsezko eduki linguistiko bat badu. Alegia, hezkuntzarako eskubideak ikasleari irakaskuntza ulergarri zaion hizkuntza batean jasotzeko eskubidea bermatzen dio. Hezkuntzarako eskubideak ikasleak hezkuntza-edukiak behar bezala jasotzen dituela segurtatu behar du, eta horretarako ezinbestekoa da ikasleari irakaskuntza hizkuntza ulergarri batean eman diezaioeten.

Horrezaz gain, aipaturiko 27. eta 3. artikulua elkar lotuz, Konstituzioak, oinarrizko hezkuntza osatzen duten ikasmailetan, ikasleei norbere hizkuntza ofizialaren -irakasgai gisa beraz- irakaskuntza jasotzeko eskubidea bermatzen die. Printzipio eta balio konstituzionaletatik, aldiz, ez dago norbere hizkuntza ofizialean irakaskuntza guztia -irakasbide gisa- jasotzeko eskubiderik eratorterik. Hau da gehien-gehien Konstituziotik ondoriozta daitekeena: irakaskuntzaren zati bat norbere hizkuntzan jasotzeko eskubidea kasu jakin batzuetan, hain zuzen ere, hezkuntza-edukiak eskuratzeko, hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa bermatzeko eta ikaslearen nortasunaren erabateko garapena lortzeko nahitaezkoa denean.

Gure autonomia erkidegoan hizkuntz ofizialtasuna arautzera etorri den 1982ko Euskararen Legeak garatu ditu Konstituzioak eta ondoren Estatuak ezarritako printzipioak. Lege honek gure hezkuntza sistema hizkuntz bereizketaren ereduaren ildotik antolatu du. Hala, bada, ikasleari irakaskuntza zein hizkuntza ofizialean jasoko duen hautatzeko eskubidea ematen zaio

irakasmaila guztietan, horretarako hezkuntza-sistema ikasteredutan banatuz (A, B eta D ereduak). Hiritar euskaldunek legez irakas-hizkuntza aukeratzeko eskubidea dute, hortaz. Edozein modutan, eskubide hau eta bere zehaztapena den irakasteredua hautatzeko eskubidea ez dira eskubide mugaezinak, izan ere, prestazio eskubide izaera duten guztiak bezala, une bakoitzean administrazioak eskueran dituen baliabide ekonomiko, pertsonal eta materialek baldintzatzen dituzte.

Ikusitakoaren arabera, nahiz eta zenbait hutsune edo akats izan -burura datorkigu Konstituzioan azaltzen den gaztelera ezagutu beharraren aipamena-, geurean indarrean dagoen antolamendu juridikoak hizkuntzen gainean egiten duen arauketa aski onargarria dela esan daiteke, oro har hizkuntz gutxiengoaren susperketarako bide ematen baitu.

Kontuak kontu, hizkuntza baten biziberritzea ez da legearen eragin hutsez lortzen, eta horretaz jabetzeko, urrutirago gabe, Irlandako kasuari erreparatu baino ez dago; estatu propioa eta bitarteko legal zein ekonomiko guztiak bere esku izanagatik ere, Irlanda ez da gai izan gaelikoaren erabilera orokortzeko. Izan ere, hizkuntza baten suspertzea helburu duen edozein legedik eraginik izan dezan, lehenbizi aginte publikoek legedi hori aplikatzeko borondatea izan behar dute, eta jakina, baita hura aurrera eramateko bitarteko nahikoa ere.

Ezin uka daiteke euskal aginte publikoen partetik euskararen normalkuntzarako legedia aplikatzeko borondatea dagoenik, eta bestela, hor dago euskal aginte publikoek euskalgintzan bai dirutan eta bai giza baliabideetan eginiko inbertsio mordoa. Zorigaitzoz, Euskal Autonomia Erkidegoan kokaturik dauden Estatuko aginte publikoetan gertatzen dena beste upeleko sagardoa da. Hauek beraien funtzionamendua eta egiturak euskalduntzeko erakutsi duten gertutasuna ez da ezta urrunetik ere euskal aginte publikoek azaldu dutenaren parekoa. Are gehiago, usuenik sarbideak baino oztopoak ipintzen dizkiote euskarari. Esandakoaren adibide argia, Estatuko administrazio periferikoan sartzeko egindako lehiaketa

eta oposaketetan euskararen ezagutza meritutzat ez hartzea da<sup>344</sup>. Era horretan, ez da harritzekoa autonomi lurralde mailako Estatuko aginte publikoetan, euskararen normalkuntza prozesuak euskal aginte publikoetan baino martxa askozaz pausatua goa eramatea.

Aginte publikoen borondatea eta baliabide nahikoa izateaz gain, euskara biziberritzeko bada garrantzitsuagoa den zerbait, alegia, gizarteak berak gutxiengo hizkuntza hori bere ohizko harremanetan komunikazio tresnatzat hartzeko borondatea; hitz bitan, hizkuntza erabiltzeko borondatea... baina hori beste azterlan baterako gaia litzateke.

---

(344) Gai honi buruz ikus PRIETO DE PEDRO, J. El conocimiento de las lenguas propias de las Comunidades Autónomas y extranjeras como requisito de capacidad de los funcionarios de la Administración del Estado. *Llengua i Dret*, 1989, 12. zenb., 135 or. eta hurrengoak. PÉREZ BARRIO, A. La valoración del euskara por la Administración del Estado en la Comunidad Autónoma del País Vasco. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990, 415. or. eta hurrengoak.

## BIBLIOGRAFIA

- AGIRREAZKUENAGA, I. Ikuspegi juridiko batetik euskararen ahuleziak. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- AGIRREAZKUENAGA, I. La estructura normativa del euskera en la Comunidad Autónoma del País Vasco. *RVAP*, 1986, 16. zenb.
- AGIRREAZKUENAGA, I. Reflexiones jurídicas sobre oficialidad y el deber de conocimiento de las lenguas. In *Estudios sobre la Constitución Española. Homenaje al profesor Eduardo García Enterría*. Madrid: Civitas, II. alea, 1991.
- AGIRREAZKUENAGA, I. El reto de la normalización del euskara en las administraciones públicas vascas. In *Estudios sobre el Estatuto de Autonomía de País Vasco*. Oñati: HAEE/IVAP, I. alea, 1991.
- AGIRREAZKUENAGA, I. eta CASTELLS, J.M. La cooficialidad lingüística en la jurisprudencia constitucional. *RVAP*, 1991, 31. zenb.
- AGIRREAZKUENAGA, I. eta IRIONDO, X. Europar erakundeen jarrera hizkuntza gutxituekiko. *RVAP*, 1994, 39. zenb.
- ALLARDT, E. *Implications of the ethnic revival in modern industrialized society: a comparative study of the linguistic*

- minorities in Western Europe*. Helsinki: Societas Scientiarum Fennica, 1979.
- ALZAGA VILLAAMIL, O. *La Constitución española de 1978*. Madrid: Foro, 1978.
- AMONÁRRIZ, K. Prosptes i experiències de planificació i política local a Euskadi. In *III. Jornades de Sociolingüística: Normalització i Planificació Lingüístiques*. Alcoi: Ajuntament d'Alcoi, 1994.
- ARARTEKOA. *Eusko Legebiltzarrari txostena (1993)*. Gasteiz: Ararteko, 1994.
- ARARTEKOA. *Euskal Herriko Ararteko Erakundearen lehen bost urteak (1989-1994)*. Gasteiz: Ararteko, 1994.
- ASHWORTH, G. *World minorities*. Sunbury: Quartermaine Housie, 2 ale, 1980.
- AZCÁRATE y FLÓREZ, P. *La Société des Nations et la protection des minorités*. Genève: Centre Européen de la Dotation Carnegie pour la Paix Internationale, 1969.
- BADIOLA, A. - ERDAIDE, M. Euskararen normalkuntza-legea. Ezaugarri orokorrak eta garapen maila. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- BAÑO LEÓN, J.M. El ejercicio del pluralismo lingüístico en la Administración Pública. *REDA*, 1987, 54. zenb.
- BARNES VÁZQUEZ, J. La educación en la Constitución de 1978. Una reflexión conciliadora. *REDC*, 1984, 12. zenb.
- BARRERE, M. Sobre la oficialidad lingüística. (Observaciones iusfilosóficas a una reciente contribución doctrinal). In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- BASURKO, F. Hezkuntz-sistemaren hezuradura. *BAT-Soziolingüística Aldizkaria*, 1993, 10. zenb.

- BERASATEGI, J.M. Eskolan ikasia bizitzan nola itsatsi. In *Euskera, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 1994, 39. liburukia (2. aldia).
- BIZKAIKO ABOKATUEN BAZKUN OHORETSUA (EUSKARA BATZORDEA). *Justizia Administrazioan euskararen normalkuntzari buruzko txostena*. Bilbo: Bizkaiko Abokatuena Bazkun Ohoretsua, 1994.
- BOKATOLA, I.O. *L'Organisation des Nations Unies et la protection des minorités*. Bruxelles: Émile Bruylant, 1992.
- BOSCH BENÍTEZ, O. Pluralismo lingüístico y Constitución: Aproximación teórica y comentario a la reciente jurisprudencia constitucional. *Poder Judicial*, 1987, 7. zenb.
- CASCAJO CASTRO, J.L. - GARCÍA ÁLVAREZ, M.B. *Constituciones extranjeras contemporáneas*. Madrid: Tecnos, 1988.
- CASTELLS ARTECHE, J.M. La normativa sobre el Euskera. *RVAP*, 1983, 6. zenb.
- CASTELLS ARTECHE, J.M. *Reflexiones sobre la Autonomía Vasca*. Oñati: HAEE/IVAP, 1986.
- CASTELLS ARTECHE, J.M. Administración Pública y doble oficialidad lingüística en la Comunidad Autónoma Vasca. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- CELAYA IBARRA, A. *Derecho Foral y Autonomico Vasco*. Deusto: Universidad de Deusto, 2. ed., 1987.
- COBARRUBIAS, J. Normalización y planificación lingüística en el País Vasco. In *Euskara Biltzarra II*, II. alea, 1988.
- COBREROS, E. *El euskara en el Estatuto vasco*. Oñati: HAEE/IVAP, 1989.
- COBREROS, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*. Oñati: HAEE/IVAP, 1989.

- COBREROS, E. - AGIRREAZKUENAGA, I. La normativa sobre el euskara publicada durante 1984. *RVAP*, 1984, 11. zenb.
- COBREROS, E. - AGIRREAZKUENAGA, I. La normativa sobre el euskara publicada en 1985. *RVAP*, 1985, 13. zenb.
- COBREROS, E. - AGIRREAZKUENAGA, I. La normativa sobre el euskara publicada en 1987. *RVAP*, 1987, 19. zenb.
- COBREROS, E. Normativa sobre el euskara publicada en 1988. *RVAP*, 1989, 23. zenb.
- COBREROS, E. La normativa sobre el euskara publicada en 1989. *RVAP*, 1990, 26. zenb.
- COBREROS, E. La normativa sobre el euskara publicada en 1991. *RVAP*, 1992, 32. zenb.
- COBREROS, E. La normativa sobre el euskara publicada en 1993. *RVAP*, 1994, 38. zenb.
- COMISION DE LAS COMUNIDADES EUROPEAS. *Les minorités linguistiques dans les pays de la Communauté Européene*. Luxembourg: Office des Publications Officielles des Communautés Européennes, 1986.
- CORRIENTE CÓRDOBA, J.A. La protección de la libertad de enseñanza en el derecho internacional. In *Educación y sociedad pluralista*. Bilbao: Fundación Oriol-Urquijo, 1980.
- CORTES GENERALES. *Constitución Española. Trabajos Parlamentarios*. Madrid: Servicio de Publicaciones de las Cortes Generales, 4 ale, 1980.
- DARANAS PELÁEZ, M. *Las Constituciones Europeas*. Madrid: Nacional, 2 ale, 1979.
- DIEGO CASALS, J.L. *Las competencias de la Comunidad Autónoma en materia de educación*. Gasteiz: HAEE/IVAP, 1989.
- EMBID IRUJO, A. El contenido del derecho a la educación. *REDA*, 1981, 31. zenb.

- EMBED IRUJO, A. *Las libertades en la enseñanza*. Madrid: Tecnos, 1983.
- EMBED IRUJO, A. Derecho a la educación y derecho educativo paterno. *REDC*, 1983, 7. zenb.
- EMBED IRUJO, A. La jurisprudencia del Tribunal Constitucional sobre la enseñanza. *REDC*, 1985, 15. zenb.
- EMBED IRUJO, A. *Legislación sobre la enseñanza: normas generales*. Madrid: Tecnos, 1985.
- EMBED IRUJO, A. Los principios de la jurisprudencia ordinaria sobre la enseñanza tras la sentencia del Tribunal Constitucional sobre la LODE. *RAP*, 1988, 116. zenb.
- ENTRENA CUESTA, R. Comentarios al artículo 3º de la Constitución. In *GARRIDO FALLA, F. Comentarios a la Constitución*. Madrid: Civitas, 2. ed. 1985.
- ESTADISTIKA EUSKAL ERAKUNDEA. *Hezkuntza eta euskara*. Gasteiz: EUSTAT, 1988-89.
- ESTADISTIKA EUSKAL ERAKUNDEA. *Irakaskuntzaren estatistika (1982-1993)*. Gasteiz: EUSTAT, 1989-1993.
- ESTEBAN, J. de - LÓPEZ GUERRA, L. *El régimen constitucional español*. Barcelona: Labor, 2 ale, 1983.
- ESTEBAN, J. de - GARCÍA HERNÁNDEZ, J. *Constituciones españolas y extranjeras*. Madrid: Taurus, I eta II. aleak, 2. ed., 1979.
- ESTORNES, I. *El autonomismo vasco antes de 1936*. In Sinposium sobre el Estatuto Vasco de 1936. Oñati: HAEE/IVAP, 1988.
- EUSKALTZAINDIA. *Euskaltzaindiaren arautegi eta barne erregelak*. Bilbo: Euskaltzaindia, 1982.
- EUSKO JAURLARITZA (HUIS eta HPIN). *EIFE I. Euskararen irakaskuntza: Faktoreen eragina*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1986.



- EUSKO JAURLARITZA (HUIS). *EIFE 2. Euskararen irakaskuntza: Faktoreen eragina*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1989.
- EUSKO JAURLARITZA (HUIS). *EIFE 3. Euskararen irakaskuntza: Faktoreen eragina*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1990.
- EUSKO JAURLARITZA (HUIS). *HINE. Hizkuntza idatziaren neurketa eskolan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991.
- EUSKO JAURLARITZA (HUIS). *Euskal irakaskuntza: 10 urte*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1990.
- EUSKO JAURLARITZA (HUIS). *Hezkuntza administrazioko hiztegia*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1993.
- EUSKO JAURLARITZA (HUIS). *Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordearen aurreko agerpena. Eskola Hitzarmena*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1992.
- EUSKO JAURLARITZA (HPIN). *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo Batzordearen aurrean (1991)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1991.
- EUSKO JAURLARITZA (HPIN). *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo Batzordearen aurrean (1992)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1992.
- EUSKO JAURLARITZA (HPIN). *Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusiaren agerraldia, berak eskatuta, Eusko Legebiltzarreko Iraskunde eta Herrizaingo*

- Batzordearen aurrean (1994)*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1994.
- EUSKO JAURLARITZA (EAB). *Euskararen normalkuntza irakaskuntzan*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1992.
- EUSKO JAURLARITZA (EAB). *Euskararen politikarako oinarritzko irizpideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1993.
- FERNÁNDEZ DE CASADEVANTE, C. *La aplicación del Convenio Europeo de Derechos Humanos en España*. Madrid: Tecnos, 1988.
- FERNÁNDEZ ESPINAR, L.C. La doctrina constitucional sobre el multilingüismo. *Poder Judicial*, 1987, 7. zenb.
- FERNÁNDEZ MIRANDA y CAMPOAMOR, A. *De la libertad de enseñanza al derecho a la educación*. Madrid: Centro de Estudios Ramón Areces, 1988.
- FISHMAN, J.A. Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan. *BAT-Soziolingüistika Aldizkaria*, 1993, 10. zenb.
- GARCÍA ÁLVAREZ, M.B. La cuestión lingüística en las Cortes constituyentes de la II República. *Revista de Derecho Público*, 1978, 71. zenb.
- GARCÍA ENTERRÍA, E. *El sistema europeo de protección de los Derechos Humanos*. Madrid: Civitas, 2. ed, 1983.
- GARCÍA ENTERRÍA, E. - FERNÁNDEZ, T-R. *Curso de Derecho Administrativo*. Madrid: Civitas, I. alea, 4. ed., 1986.
- GARMENDIA, M.K. Euskararen normalkuntza eta plangintzarako organoak. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- GÓMEZ-FERRER, R. La doble oficialidad lingüística y su interpretación por el Tribunal Constitucional. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.

- GÓMEZ ORFANEL, G. Derecho a la Educación y Libertad de Enseñanza. Naturaleza y Contenido. *REDC*, 1983, 7. zenb.
- GONZÁLEZ AMUCHÁSTEGUI, J. - MARTÍN PALLÍN, J.A. - CASCAJO CASTRO, J. L. Los Derechos Sociales y su protección en la Constitución. In *Jornadas de Derechos Humanos y Marginación*. Madrid: Cruz Roja Española, 1991.
- GONZÁLEZ CASANOVA, J.A. Derecho a la educación y plurilingüismo. *Revista de Occidente*, 1982, 10-11 zenb.
- GONZÁLEZ CASANOVA, J.A. *Teoría del Estado y Derecho Constitucional*. Barcelona: Vicens Universidad, 2. ed., 1983.
- GUAITA MARTORELL, A. *Lenguas de España y artículo 3º de la Constitución*. Madrid: Civitas, 1989.
- GUEVARA SALETA, E. La génesis del Estatuto. In *Instituciones de la Comunidad Autónoma Vasca*. Oñati: HAEE/IVAP, 1982.
- IDIAZABAL, I. Hezkuntza eremuko lege berriak eta euskararen normalkuntza: zenbait gogoeta. *BAT-Soziolinguistika Aldizkaria*, 1993, 10. zenb.
- KÄMPER, W. Alcance y significado de los derechos fundamentales en el ámbito de la educación. Informe general. *REDC*, 1983, 7. zenb.
- LA GRANJA SAINZ, J.L. *El Estatuto Vasco de 1936*. Oñati: HAEE/IVAP, 1988.
- LA GRANJA SAINZ, J.L. *República y guerra civil en Euskadi*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- LAPORTA, F.J. La libertad de enseñanza. Constitución y Estatutos de Centros Docentes. *Sistema, Revista de Ciencias Sociales*, 1981, 40. zenb.
- LASARTE-ORIAKO UDALA. *OHOkoko B eredua, Ertainetan?* Lasarte-Oria: Lasarte-Oriako Udala, 1993.

- LÁZARO FLORES, E. El bilingüismo en el sistema educativo español. *DA*, 1985, 23. zenb.
- LÓPEZ BASAGUREN, A. Errepublikara garaiko Euskal Herriko Autonomiaren ezaugarriak eta 1979.eko Estatutua. *RVAP*, 1985, 11. zenb.
- LÓPEZ BASAGUREN, A. El pluralismo lingüístico en el Estado autonómico. *Autonomies*, 1988, 9. zenb.
- MARTÍNEZ LÓPEZ-MUÑIZ, J.L. La educación en la Constitución española. Derechos fundamentales y libertades públicas en materia de enseñanza. *Persona y Derecho*, 1979, 6. zenb.
- MARTÍN MATEO, R. *Manual de derecho administrativo*. Madrid: Trivium, 2. ed, 1990.
- MILIÁN i MASSANA, A. Aproximación al régimen jurídico previsto para la lengua catalana en el Estatuto de Autonomía de Cataluña. *RAP*, 1983, 94. zenb.
- MILIÁN i MASSANA, A. La ordenación estatutaria de las lenguas españolas distintas del castellano. *RVAP*, 1983, 6. zenb.
- MILIÁN i MASSANA, A. Los derechos lingüísticos en la enseñanza de acuerdo con la Constitución. *REDC*, 1983, 7. zenb.
- MILIÁN i MASSANA, A. La regulación constitucional del multilingüismo. *REDC*, 1984, 10. zenb.
- MILIÁN i MASSANA, A. Derechos lingüísticos y derechos fundamentales en España. *REVP*, 1991, 30. zenb.
- MILIÁN i MASSANA, A. *Derechos lingüísticos y derecho fundamental a la educación. Un estudio comparado: Italia, Bélgica, Suiza, Canadá y España*. Madrid: Civitas, 1994.
- MODDEN, T. *The international protection of national minorities in Europe*. Abo (Finland): Abo Akademi, 1969.
- MORAND, Ch.A. Aspectos del derecho de las lenguas de Suiza. In *Ordenación legal del plurilingüismo en los estados*

- contemporáneos*. Barcelona: Consejo Consultivo de la Generalidad de Cataluña, 1983.
- NEIRA, J. La situación lingüística de Asturias. *Revista de Occidente*, 1982, 10-11 zenb.
- NICOLÁS MUÑIZ, N. Los derechos fundamentales en materia educativa en la Constitución Española. *REDC*, 1983, 7. zenb.
- NINYOLES, R.LI. *Cuatro idiomas para un Estado*. Madrid: Cambio 16, 1977.
- NINYOLES, R.LI. La política lingüística: modelos y ámbitos. In *Las lenguas nacionales en la Administración*. Valencia: Diputación Provincial de Valencia, 1981.
- NOGUEIRA SORIANO, A. La doctrina del Tribunal Constitucional sobre la libertad de enseñanza. *Revista General del Derecho*, 1987, 513. zenb.
- OBIETA CHALBAUD, J.A. *Documentos internacionales del siglo XX*. Bilbao: Universidad de Deusto, 1972.
- OBIETA CHALBAUD, J.A. *El derecho humano de la autodeterminación de los pueblos*. Madrid: Tecnos, 1985.
- OBIETA CHALBAUD, J.A. *Las lenguas minoritarias y el derecho*. Bilbao: Mensajero, 1976.
- OBIETA CHALBAUD, J.A. Importancia del idioma en el Estatuto de Autonomía de País Vasco. In *Primeras jornadas de estudio del Estatuto de Autonomía del País Vasco*. Oñati: HAEE/IVAP, I. alea, 1983.
- ORTIZ DÍAZ, J. *La libertad de enseñanza*. Malaga: Universidad de Málaga, 1980.
- ORUETA, J. *Fueros y Autonomía. Proceso del Estatuto Vasco (1905-1933)*. San Sebastián: Nueva Editorial, 1934.
- PALLEY, C. *Constitutional law and minorities*. London: Minority Rights Group, 1978.

- PEETERS, I. El derecho a la lengua entre los derechos individuales y colectivos. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- PETSCHEN VERDAGUER, S. Entre la política y el derecho: la carta europea de las lenguas regionales o minoritarias. *Revisita de Estudios Políticos*, 1989, 66. zenb.
- PETSCHEN VERDAGUER, S. *Las minorías lingüísticas en Europa occidental: documentos (1942-1989)*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra. Txosten eta agiriak bilduma, bi ale, 1990.
- PIZZORUSSO, A. Minorías y grupos étnicos y lingüísticos en Italia: perspectivas de tutela. In *Ordenación legal del plurilingüismo en los Estados contemporáneos*. Barcelona: Generalidad de Cataluña, 1983.
- PIZZORUSSO, A. La libertad de lengua y derechos lingüísticos: un estudio comparado. In *Sinposium sobre el Estatuto Vasco de 1936*. Oñati: HAEE/IVAP, 1988.
- PIZZORUSSO, A. L'uso della lingua come oggetto del Diritto. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- PLOURDE, M. La legislación lingüística en Quebec. In *Ordenación legal del plurilingüismo en los Estados contemporáneos*. Barcelona: Generalidad de Cataluña, 1983.
- PRIETO DE PEDRO, J. El conocimiento de las lenguas propias de las Comunidades Autónomas y extranjeras como requisito de capacidad de los funcionarios de la Administración del Estado. *Llengua i Dret*, 1989, 12. zenb.
- PRIETO DE PEDRO, J. *Lenguas, lenguaje y derecho*. Madrid: Civitas. 1991.
- PUELLES, M. de. *Educación e ideología en la España contemporánea*. Madrid: Labor, 1991.
- PUJANA, J.J. *Herrien Europa*. Getxo: Coinpasa, 1994.

- SAGÜÉS, M. El euskera y la enseñanza en los Estatutos de Autonomía. *Saioak*, 1977, 1. zenb.
- SAIZ ARNAIZ, A. La regulación de las lenguas en las Constituciones democrático-liberales: perspectiva europea. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- SAIZ ARNAIZ, A. La reforma constitucional en Canadá. *RVAP*, 1993, 35. zenb.
- SÁNCHEZ AGESTA, L. *Curso de derecho constitucional comparado*. Madrid: Universidad Complutense, 7. ed., 1980.
- SEGURA GINARD, L. Comentario sobre el régimen jurídico lingüístico del Estatuto de Autonomía de las Islas Baleares. *RVAP*, 1984, 8. zenb.
- SIGUÁN, M. Educación y pluralidad de lenguas. *Revista de Occidente*, 1982, 10-11 zenb.
- SIGUÁN, M. *Las minorías lingüísticas en la CEE: España, Portugal y Grecia: resumen del informe*. Luxemburgo: Oficina de publicaciones de las Comunidades Europeas, 1990.
- SIGUÁN, M. *España plurilingüe*. Madrid: Alianza, 1992.
- SNELLE, R. El régimen lingüístico de Bélgica. In *Ordenación legal del plurilingüismo en los Estados contemporáneos*. Barcelona: Consejo Consultivo de la Generalidad de Cataluña, 1983.
- STEPHENS, M. *Linguistic minorities in Western Europe*. Llandysul: Gomer Press, 1978.
- TAMAYO, T. eta V. *Fuentes documentales y normativas del Estatuto de Gernika*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia, 1981.
- THORNBERRY, P. *Minorities and human rights law*. London: Minority Rights Group, 1987.
- TOVAR, A. Bilingüismo en España. *Revista de Occidente*, 1982, 10-11 zenb.

- TRUYOL y SERRA, A. *Los Derechos Humanos*. Madrid: Tecnos, 1968.
- TURI, T-G. Panorama comparé des différentes législations juridico-linguistiques en matière de politique linguistique: les cas les plus intéressants. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- UNZUETA, M. Estudio comparativo de los Estatutos de 1936 y 1979. La génesis del Estatuto de 1979. In *Sinposium sobre el Estatuto Vasco de 1936*. Oñati: HAEE/IVAP, 1988.
- URRUTIA, A. *Euskara legebidean*. Bilbao: Universidad de Deusto.
- UZEI. *Zuzenbidea Hiztegia*. Donostia: Elkar, I eta II. aleak, 1985.
- VALLERDÚ, F. *Situación de la lengua catalana*. In *Revista de Occidente*, 1982, 11-12 zenb.
- VALLERDÚ, F. *Le normalització lingüística a Catalunya*. Barcelona: Laia, 1986.
- VARELA DÍAZ, S. La idea de deber constitucional. *REDC*, 1982, 4. zenb.
- VARELA FEIJO, J. *La protección de los Derechos Humanos*. Barcelona: Hispano Europea, 1972.
- VILHAR, X. A inadequação do modelo de separação linguística escolar em Euskadi para uma efectiva normalização do euskera em dito âmbito. In *Euskararen Lege-Araubideari buruzko Jardunaldiak*. Oñati: HAEE/IVAP, 1990.
- WARNER, W.LI. - SROLE, L. *The social system of american ethnics groups*. New Haven: Yale University Press, 1960.
- WIRSING, R. *Protection of ethnic minorities: comparative perspectives*. New York: Pergamon Press, 1981.
- WITTE, B. de. Linguistic equality. A study in comparative constitutional law. *Llengua i Dret*, 1985, 6. zenb.



- WITTE, B. de. Surviving Babel? Language rights and European integration. In *The protection of minorities and human rights*. Dordrecht: Martinus Nijhoff, 1992.
- ZALBIDE, M. Eskola-munduan erabiltzen den euskara: egungo egoera eta zenbait hobekuntza-bide. In *Euskara, Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 39. liburukia (2. aldia), 1994.
- ZUMAQUERO, J.M. *Los derechos educativos en la Constitución de 1978*. Pamplona: Universidad de Navarra, 1984.
- ZUMAQUERO, J.M - HERVADA, J. *Textos internacionales de derechos humanos*. Pamplona: Universidad de Navarra, 1978.

## SIGLAK ETA LABURDURAK

AE =	Autonomia Erkidegoa
AG =	Auzitegi Gorena
Ar. =	Aranzadi
art. =	artikulua
CGPJ =	Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusia
ed. =	edizioa
EA =	Eskolaurrea
EAB =	Euskararen Aholku Batzordea
EAE =	Euskal Autonomia Erkidegoa
EEO =	Estatuko Egunkari Ofiziala
EGA =	Euskararen Gaitasun Agiria
EH =	Euskal Herria
EHAA =	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EHAE =	Euskal Herriko Autonomia Erkidegoa
EHU =	Euskal Herriko Unibertsitatea
EIFE =	Euskararen Irakaskuntza: Faktoreen Eragina
EIMA =	Euskal Ikasmaterialgintza
EIT =	Euskaraz Irakasteko Trebetasun Aitormena

EKB =	Euskal Kulturaren Batzarrea
EGKENP =	Ekonomia-, Gizarte- eta Kultur-Eskubideen Nazioarteko Paktua
EUSTAT =	Euskal Estatistika Erakundea
GEAU =	Giza Eskubideen Aitormen Unibertsala
GEEA =	Giza Eskubideen Europako Auzitegia
GEFABEH =	Giza Eskubideen eta Funtsezko Askatasunen Babeserako Europako Hitzarmena
GUMA =	Gutxienezko Maila
HAEE/IVAP =	Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea/ Instituto Vasco de Administración Pública
HE1 =	Lehenengo Hizkuntz Eskakizuna
HE2 =	Bigarren Hizkuntz Eskakizuna
HENH =	Haurren Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena
HH =	Haur Hezkuntza
HPIN =	Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia
HUIS =	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
IGA =	Irakasgaitasun Aitormena
IE =	Irakaskuntza Ertainak
IEE =	Irakaskuntza Ertainen Erreforma
IMGAH =	Irakaskuntza Mailako Gutxiespenaren Aurkako Hitzarmena
IRALE =	Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntze Programa
KA =	Konstituzio Auzitegia
LECr. =	Ley de Enjuiciamiento Criminal/Zigor Prozedurari buruzko Legea

LGE =	Ley General de la Educación/ Hezkuntza Arautzeko Lege Orokorra
LH =	Lanbide Heziketa
LODE =	Ley Orgánica reguladora del Derecho a la Educación/Hezkuntzarako Eskubidea Arautzeko Lege Organikoa
LOECE =	Ley Orgánica de Estatutos de Centros Docentes
LOGSE =	Ley de Ordenación General del Sistema Educativo/Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legea
LOPJ =	Aginte Judizialaren Lege Organikoa
NBE =	Nazio Batuen Erakundea
NOLEGA =	Normalizazio Legearen Garapena
OHO =	Oinarrizko Hezkuntza Orokorra
or./orr. =	orria/orriak
RDA =	Revista Documentación Administrativa
RDP =	Revista de Derecho Privado
RDPu =	Revista de Derecho Público
RPA =	Revista de Administración Pública
REDA =	Revista Española de Derecho Administrativo
REDC =	Revista Española de Derecho Constitucional
RVAP =	Revista Vasca de Administración Pública
UBI =	Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea
UZEI =	Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea
zenb. =	zenbakia
EZPNP =	Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Paktua